




*Sare 2006  
Nazioarteko  
Kongresua:  
“Emakumeak  
bakeak  
eraikitzen”*



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



---

*Sare 2006*  
*Nazioarteko*  
*Kongresua:*  
*“Emakumeak*  
*bakreak*  
*erakitzen”*

EMAKUNDE/  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2007

**IZENBURUA:** Sare 2006 Nazioarteko Kongresua: "Emakumeak bakeak eraikitzen"  
**EGILEA:** EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz  
**MAKETATZAILEA:** Ana Rincón  
**DATA:** 2007ko uztaila  
**ALE-ZENBAKIA:** 500  
**DESKRIBATZAILEAK:** Gerra-gatazkak, terrorismoa, emakumeen elkarteak, bakezaleak, bakezaletasuna, mugimendu feminista, genero ikerlanak, giza eskubideak, partaidetza politikoa, sinposioak  
**IRUDI DISEINUA:** Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia  
**INPRIMAKETA:** Industrias Gráficas Marcal, S.A.  
**ISBN:** 84-89630-09-7 / 978-84-89630-09-3  
**LEGE GORDAILUA:** BI-2519-07

**Salneurria: 20 euro**

---

## AURKIBIDEA

<b>INAUGURAZIOA</b> .....	7
Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain Izaskun Moyua Pinillos	
<b>“EMAKUMEAK MUNDUKO BAKE PROZESUETAN: PENTSAMENDUA ETA PRAKTIKAK”</b> .....	15
Carmen Magallón	
<b>“GATAZKEN PREBENTZIOA ETA KONPONKETA: NAZIOARTEKO ERAKUNDEEN ZEREGINA”</b> .....	37
Minodora Cliveti	
<b>“EMAKUME KOLONBIARROK, GATAZKA ARMATUEN ERDIAN, BAKEA EHUNTZEN DUGU”</b> .....	47
Olga Lucía Ramírez	
<b>“EUROPAKO GIZARTE ZIBILA ETA ISRAEL-PALESTINA GATAZKA”</b> .....	57
Debby Lehman	
<b>“BAKEAREN INGURUKO EMAKUMEEN IKUSPUNTUA PALESTINAN: ERRONKAK ETA HELBURUAK”</b> .....	61
Amal Barghouthi	
<b>“POLITIKA ETA GATAZKA: GENERO IKUSPEGIA KONTUAN IZATEA BAKERAKO AGENDAN”</b> .....	67
Ann Hope	
<b>“EMAKUMEEN ROLA KOLONBIAN BAKEA ERAIKITZEKO PROZESUAN. EMAKUMEEK HITZA HARTU DUGU GERRAREN AURKA ETA BAKEA AUKERATU DUGU”</b> .....	85
Patricia Buriticá	

<b>“BAKEA SENDOTZEA: EMAKUMEAK GIZARTE-ALDAKETAREN ALDE”</b> .....	99
Nora Morales de Cortiñas	
<b>“ETIKA FEMINISTA ETA BAKEAREN ERAIKUNTZA. BELTZEZ JANTZITAKO EMAKUMEEN ESPERIENTZIA, BELGRADO-SERBIA”</b> .....	105
Stasa Zajovic	
<b>“SERBIAKO ETA KOSOVOKO EMAKUMEEK PATRIARKATUAK ETA AURREIRITZIAK GAINDITZEN DITUZTE LANKIDETZAREN BITARTEZ”</b> .....	127
Luljeta Vunijqi	
<b>“EUSKADIKO BAKEAREN ERAIKUNTZARAKO PROPOSAMENAK”</b> .....	137
Izaskun Guarrotxena	
<b>“IKUSPUNTU FEMINISTATIK, EUSKADIN BAKEA ERAIKITZEKO GAKOAK”</b> ..	145
María Oianguren	
<b>“EUSKADIKO BAKEAREN ERAIKUNTZARAKO PROPOSAMENAK”</b> .....	157
Asun Urbietta	
<b>“BAKE PROZESURAKO EKARPENAK PARTIDO FEMINISTA / ALDERDI FEMINISTARENAK”</b> .....	163
Zuriñe del Cerro	
<b>“EUSKADIKO BAKEAREN ERAIKUNTZARAKO PROPOSAMENAK”</b> .....	167
AHOTSAK Emakume politikoen plataforma:	
– Gemma Zabaleta	
– Gemma González de Txabarri	
– Contxi Bilbao	
– Jone Goirizelaia	
– Itziar Gómez	
– Ainhoa Aznarez	
– Nekane Alzelai	

---

**IDOIA ZENARRUTZABEITIA  
BELDARRAIN**

**Eusko Jaurlaritzako  
lehendakariordea**

**IZASKUN MOYUA PINILLOS**

**Emakunde / Emakumearen  
Euskal Erakundeko zuzendaria**

*Inaugurazioa*





---

Lehenik eta behin, ongietorria eman nahi dizuet guztioi eta, bereziki, Euskadi kanpotik zatoztenei. Topaketari dagokionez, emankorra izatea itxaro dut, eta Europako herrialde txiki honetan egingo duzuen egonaldiak oroitzapen atseginak sortzea.

Gure lehendakaria atzerrian da uneotan, bidaia ofizialean, eta bere izenean ongietorria emateko eskatu dit.

Ezagutzen duzuenok edota bere berri duzuenok ezagutzen duzue emakumezkoen eta genero berdintasunaren alde duen konpromiso pertsonala eta politikoa. Halaber, badakizue *bakezalea* ere badela.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiot Emakunderi, gaur hemen zuekin egoteko aukera eman didalako. Eta, bide batez, zoriondu egin nahiko nuke, bai *Sarea* ekimenagatik, bai aurtengo topaketako gai nagusiagatik, bakea izango baitu ardatz.

*Bakeak sortzen.* Bakea sortzeak "*bakean izatearen*" adiera ekartzen digu gogora lehenik eta behin; hau da, gerran edo borrokan ez izatea, haserrerik eta liskarrik gabe. Zorretan ez egotea eta guztiok baldintza berdinetan bizitzea.

Are gehiago, bakea sortzeak aurrerapauso bat ematera eramaten gaitu; hots, "*bakeak egitera*", adiskidetzera, elkartasunera itzultzera.

Edozer hiztegitan aurki ditzakegu bakeak duen esanahiaren ikuskera osoaren gakoak, bai eta aurretik aipatutako hitz eder horienak guztienak ere.

Elkarbizitza, haserrearen antitesi gisa. Elkarbizitzak errespetua adierazten du, ezberdintasuna onartzea; hau da, gu bezalakoak ez direnak errespetatzea eta onartzea.

Baldintzen berdintasun erreala, ikusgarria, eraginkorra.

Elkartasuna, adiskidetzea.

Baita gatazkei aurre egitea ere. "*Liskarrak konpontzeke ez izatea*" aipatu dugu. Onartezina da arazoak luzatzen, larritzen edo usteltzen uztea.

Gainera, jardunaldien izenburuak ondo dioen bezala, bakeen adiera, pluralean, integrala da. Izan ere, gure bizitza pertsonalaren eta kolektiboaren eremu guztiak hartzen ditu adiera honek, edo beharko lituzke behintzat.

Bakeen adiera horrek berdin balio du iparraldearen eta hegoaldearen arteko desorekari, gutxiengo nazionala integratzeko gatazka politikoari edota genero-berdintasunaren arazoari aurre egiteko. Badakizue Euskadin hasiberria dela bakerako eta normalizazio politikorako prozesua.

Aukera historiko baten aurrean gaude. Nire ustez, ezagutzen gaituenak badaki euskaldunak oso gureak garela nortasunari dagokionez, baina, aldi berean, baita bakezaleak eta solidarioak ere. Eta hain zuzen ere horixe da euskal gizartea ia berrogei urtetan gogor astindu duen eta munduaren aurrean desprestigiatu egin gaituen indarkeriazko garaia ostean, etikoki erdeinagarria eta politikoki antzua, aurkezten zaigun aukerarik onena.

Indarkeria horren hazia askatasunaren eta demokraziaren arrasto oro ezabatu zuen erregimen diktatorialeko berrogei urtetan erein zen. Krudelkeriaz jazarri zituzten gure herria, gure hizkuntza, gure kultura eta gure ohiturak.

---

Hortxe errotzen da une honen izaera historikoa, trantsizio demokratikoan konpontzerik izan ez genuen edo jakin ez genuen historiaren zikloa ixteko aurkeztu zaigun aukeran.

Bakea Euskadin, bake integrala, egiazkoa, sendoa, egonkorra eta iraunkorra, inolako indarkeria motarik ez izatea baino gehiago da; indarkeria egiteko mehatxurik ez izatea eta helburu politiko-etarako ez erabiltzea baino gehiago.

Indarkeriarik ez izatea ezinbesteko baldintza da bakea egiteko, baina ez da nahikoa. Euskadiren kasuan, Espainiarekin ditugun harremanen normalizazio politikorako prozesuarekin batera etorri behar du.

Euskadin bakea eta normalizazio politikoa izateko, aurrez aipatutako elementu guztiak batu beharra dago. Elkarbizitza, baldintzen berdintasuna, adiskidetza.

Euskadin bakea eta normalizazio politikoa izateak euskal gizartearen aniztasuna errespetatzea eta onartzea esan nahi du.

Horrekin bat egiten duten nortasun eta sentimendu guztiak errespetatzea eta onartzea. Bertan dirren aukera politiko guztiak errespetatzea eta onartzea. Horien atzean dauden borondate anitzak errespetatzea eta onartzea.

Hitz bitan, Euskadin bakea eta normalizazio politikoa izateak euskal gizartearen gehiengoaren borondatea errespetatzea eta onartzea esan nahi du.

Euskadin bakea eta normalizazio politikoa izateak nortasun sentimendu guztiak, aukera politiko guztiak eta borondate guztiak maila berean jartzea esan nahi du.

Elkarbizitzaren esparru guztien neutraltasun ideologikoz jokatzeko esan nahi du. Erabakiak hartzeko aukerak askatasunaz baliatuz hala aukeratu dugulako, elkarrekin bizitzeaz, *elkarbizitzaz*, hitz egin ahal izateko.

Eta, horretarako, itundu egin behar dugu, elkarbizitza itundu egiten baita, ez inposatu. Inposaketa elkarbizitzaren antitesia da.

Euskadin bakea eta normalizazio politikoa izateak adiskidetzea esan nahi du.

Gizaki guztien giza eskubide guztiekin konpromiso sendoa eta baldintzarik gabekoa izatea esan nahi du.

Gure herrialdeko indarkeriaren biktima guztiak moralki, sozialki eta materialki aintzatestea esan nahi du.

Euskadin, bakea eta normalizazio politikoa guztioi dagokigun egin behar kolektiboa ere bada.

Eta, beste behin ere, emakumeok aurrea hartu eta aktiboki hasi gara prozesuan parte hartzen, nire ustez rol garrantzitsua betetzen gainera.

Ahotsak plataforma azken hilabeteetan egiten ari den lanaz mintzo naiz, noski. Bertan, herrialdeko sentikortasun politiko guztiak daude ordezkaturik, Alderdi Popularrak ordezkatzeko duena izan ezik.

Sortze manifestuan jasoa dagoen bezala, ideologia, ohitura eta sentimendu ezberdinak alde batera utzita, bakearen aldeko militantzia egiten duen emakume taldea da.

---

Gobernuaren erabateko babesa duen ekimen goresgarri, zintzo eta ausarta da, eta printzipio gidariei eta bakerako eta normalizazio politikorako prozesuaren helburuei dagokienez, adostasun politikorik handiena lortu duen ekimena da.

Lehendakariak esan bezala, kontuan izan beharreko proposamena da, "hainbat alderdiren arteko elkarrizketa-foroan minimo etikoen eta demokratikoen aurretiko hitzarmena lortzeko abiapuntua". Lehendakariak beste hausnarketa bat ere egin du, nik ere neure egiten dudana. *"Benetan uste dut"*, esan du lehendakariak, *"emakumezkoen rola bakea bultzatzen, normalizazio politikoa lortzen eta euskal gizartearen elkarbizitza hobetzen lagunduko duen funtsezko balioa dela"*. Hala bedi.

Eskerrik asko.

IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN  
Esko Jauraritzako lehendakariordea

---

Egun on guztioi, ongi etorriak 2006. urteko Nazioarteko SARE kongresura.

Ongi etorria eman nahi dizuegu guztioi: Eusko Legebiltzarreko lehendakari andreari, Eusko Jaurlaritzako sailburuei, Legebiltzarreko, Batzar Nagusietako, Foru Aldundietako eta udaletako ki-deei, eta mugimendu sozial, sindikal eta politikoetako ordezkariari. Agur berezi bat, halaber, urrutiko eta hurbileko beste toki batzuetatik etorri zaretenoi. Azkenik, gure ongi etorria eta esker ona adierazi nahi dizkizuegu SARE Kongresuko laugarren edizio honetaz arduratu eta bertara etorri zaretenoi.

“Emakumeak bakeak eraikitzen” da topagune honen leloa, gure herriarentzat erabat funtsezkoa den une batean egingo baitugu. ETAren sueten-adierazpen itxaropentsua ezagutu bezain laster, aurtengo martxoan, erabaki bat hartu genuen Emakunden: gure urteko nazioarteko kongresua, aurtengoan, gogoetari eskaintzea, hau da, bakea bilatzeko moduei eta emakumeek munduan bul-tzatu eta sustatu dituzten bake-prozesuetako esperientziei buruzko hausnarketa egitea.

“Emakumeak bakeak eraikitzen” leloa aukeratu dugu, historian zehar era askotako hamaika emakumek argitu dutelako bakearen eta bizitzaren bidea beraien argitasunarekin bonbaz, heriotzez eta etsipenez betetako egun ilunetan, eta bakea mapa osatu dute gizakien barrenean eta gizarte-en bihotzetan. Hizkuntza desberdinetan mintzo ziren, elkarrengandik urrun edo mugen bidez banaturik zeuden, eta hainbat adin, arraza, erlijio eta egoera zituzten emakumeek egin dute hori guztia

Suetenaren ondorioz sortutako testuinguru politiko eta sozial berriaren aurrean, munduko beste gatazka batzuk konpontzeko bake-prozesuetan protagonista izan diren emakumeen jakinduria eta esperientzia euskal gizarteari eskaini behar zaiola uste dugu Emakunden. Eta era berean, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure herrian hasitako prozesuaz gogoeta egitea, horretan dabiltzan gure gizarteko emakumeekin batera.

Emakunderentzat oso ohore handia da tokian tokiko ingurunean bakeak eraikitzeko gai izan diren emakumeak elkartzea kongresu honetan. Emakume horiek guztiak buru-belarri jardun dute bakearen alde, eta eginahalak egin dituzte gizakiak eta komunitateak elkartzen dituenari heltzeko, bereizten eta banatzen dituen baztertuz. Emakume eta emakume-talde horien guztien adorea aparta izan da benetan, askotan aitzindariak izan direlako adiskidetzeko urratsak ematen, oso testuinguru korapilatsuetan.

Bakearen benetako esanahia ezagutzea da, hain zuzen, bakerako bidea urratzen hasteko abiapuntua. Bakea ez da gerrarik ez egotea, besterik gabe. Gizaki guztien giza eskubideak errespetatzen dituzten lurraldeetan bakarrik lortzen da bakea. Bonben ezandarik ez entzun arren, goseak hiltzen ari denari jaramonik egiten ez dioten gizarteetan, ez dago bakerik. Kaleetan zehar tankerik ez egon arren, biztanle batzuek beste batzuk mendekotzat hartzen dituzten gizarteetan, ez dago bakerik. Leihoetan izarak eskeri arren, bandera zuriak balira bezala, etxe barruetan norbait beste norbaiti tratu txarrak ematen badizkio, hor ez dago bakerik. Justiziarik eta berdintasunik gabe, ez dago bakerik.

---

Gatazka armatuen ondorioen mugak ez dira bukatzen armadetan, armetan, suntsitutako herrietan edo biktima errugabeengan. Ez dute izaten eragina lurralde eta une jakin batean soilik; ez horixe. Belaunaldiz belaunaldi irauten dute, gorrotoak, ezin ikusiak, ordaindu beharreko bidegabekeriak eta mendeku-gogoa pizten duten bexazioak sorraraziz. Horregatik, ezinbestekoa da bake-prozesuetan gatazkaren alderdi guztiei erreparatzea, armen erabilerak eragindako ondoriorik odoltsu eta aktiboenetara mugatu gabe.

Kongresu honen egituran, aipatutako etapak nahi izan ditugu islatu. Beraz, gatazka sortzen den unean bertan, negoziazio-garaian eta ondoren bakea finkatzeko aldia zer egin behar den aztertuko dugu, urratsez urrats. Izan ere, gatazkak konpontzeko lehen faseak bukatu eta gero, zauri fisikoak sendatu ondoren, protagonista eta biktimen arima eta kontzientzia eraberritzeko prozesuei ekin behar zaie, ezinbestean.

Bake-prozesuetan, gure ekarpena ezin da mugatu gerren neurrigabekeriak jasandako emakumeen testigantzak biltzera. Aitzitik, bake-prozesuetan, emakumeak bakearen protagonista aktiboak izan dira, eta dira, oso sarritan. Emakumeek, bizitzarekin lotura estua dutela, gerra mota guztiak gaitzetsi dituzte historian zehar, baina askotan haien ahotsa ez du inork aditu. Ildo horretan, Betty Williams Nobel Saridunaren hitzak ekarri nahi dizkizuet gogora: "Emakumeen ahotsari entzungor egin zaio beti, gerraz gerra heriotzen kontrako salaketak eta errekuak egin dituztenean, bizitza berriak beraiei esker ernaltzen direla kontuan hartu gabe. Emakumeen ahotsak funtzio berezia eta indar espiritual adierazgarria ditu, mundu baketsuaren aldeko borrokan".


Emakumeek erditzen eta sortzen dute bizitza, eta beraiek sortutako bizitzak babestu egiten dituzte gero. Emakumeentzat, madarikazio antinaturala da gerra, eta antolatuz egiten diote aurre. Eraikuntzaren alde eta suntsipenaren kontra jarduten dute.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko sortu zen Emakunde. Benetako berdintasuna nagusitzeko, bizitzako eremu guztietan. Oraingo hau, une berria da euskal emakumeentzat. Egungo eszenatokia prozesu baten abiapuntua da, eta emakumeok erabaki-guneetan ordezkari izan nahi dugu, eta izan behar dugu. Partaidetza aktiboa izan behar dugu euskal gatazkari behin betiko konponbidea emateko bake-negoiazioetan, eta prozesu horretan gure esperientzia, interes eta itxaropenei ere eman behar zaie sarbidea. Horixe eskatzen da, hain zuzen, NBERen Segurtasun Kontseiluaren 1325. erabakian, Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruzkoan. Jakinekoa denez, aipatutako erabakiaren bidez, gatazkak prebenitzeko, bideratzeko eta konpontzeko erabakiak hartzen diren gune guztietan emakumeen kopurua handitzeko eskatu zitzaizen estatu kideei, eta era berean, tokian tokiko eginkizun guztietan genero-ikuspegia sartzeko.

Bakea eskubide bat da. Beraz, eskubide hori gauzatzeko, bizitza eraiki behar da bakean oinarrituz. Bake-kulturaren eraikuntzan parte hartu behar dugu emakumeok. Alor horretan ekarpen handiak egiteko gai izan gaitzke, eta gai gara, gure erantzukizuna da eta. Badakit inork ez dituela zalantzan jarriko betebeharrak hori, eskubide hori eta gaitasun hori.

---

Topaguneak aurkitu aurretik sukalde-lanak egin behar omen dira, eta guk, Emakunden, errezetarik onena prestatu dugu foro honetan ikasteko, gozatzeko eta denok hemen elkartu garela ospatzeko. Horregatik, esker on berezia helarazi nahi diet kongresu honetako txostengileei, gure biltzarra egin ahal izateko, ekinean jardun duzuen guztioi, eta halaber, lehendakariordeari, Idoia Zenarrutzabeitiari, gaur gure artera etorri delako kongresu honi hasiera ematera. Eskerrik asko guztioi.



IZASKUN MOYUA PINILLOS  
EMAKUNDE / Emakumearen Euskal  
Erakundeko zuzendaria

---

**CARMEN MAGALLÓN**  
**Bakerako Ikerketaren**  
**Mintegia. Zaragoza**

*Emakumeak*  
*munduko bake*  
*prozesuetan:*  
*pentsamendua*  
*eta praktikak*





Bakearen aldeko emakumeen ekimenak ez dira ezerezetik jaiotzen. Bada tradizio historikoa duen gerraren eta indarkeriaren aurkako feminismo internazionalista. Emakume gorputzean jaiotzeak ez dira gizonezkoak baino hobeak. Gizonezkoek bezala, emakumeek rol garrantzitsua izaten dute gatazka armatuetan: biktima dira, eta era berean, indarkeria gauzatzen dute. Baina, proportzio handiagoan, bakea eraikitze ekimen berritzaileetako protagonistak dira. Sarritan, zati-tuta dauden komunitateen arteko elkarrizketei hasiera ematen diete, muga psikologiko eta materialak gaindituz, eta adiskidetzaren alde aurrera eginez. Gertakari hori gero eta ezagunagoa da, eta nazioarteko erakundeek gero eta gehiago indartzen dute; izan ere, emakumeak bake prozesuetako negoziazioetan sartzea, legezko eskubidea izateaz gainera, bake iraunkorra eta zuzena lortzeko tresna erabakigarria da. Mami horixe du 2000ko urrian NBEko Segurtasun Kontseiluak 1325 ebazpenean erabakitakoak. Nazio Batuen agentzietako buru batzuen eta zenbait emakume talderen presio gaitasun eta aliantzaren ondorioz lortu zen ebazpen hori. Tresna politikoa da eta emakumeak bake prozesuetan egotea babesteko eta bultzatzeko erabiltzen da (1).

1.

## *Bakearen aldeko aurkerak tradizio historikoa du feminismoaren barruan*

Emakumeek bakea lortzeko garatutako ekimenak tradizio historikoan txertatzen dira, eta hori, garrantzitsua da aitortzea eta transmititzea. Historia aztertzen badugu, emakumeek egindako ekintzetan zentratuz, ikusiko dugu bakearen aldeko ekimenez betetako ondarea dagoela, emakumezkoak protagonista direla; asko eta asko gerraren eta indarkeriaren aurkako nazioarteko feminismoak bultzatuta.

Arlo publikotik baztertuak izan zirenez, bakearen eta gerraren inguruko erabakietatik eta indar armatuetatik kanpo geratu ziren emakumeak. Bazterketa horren kontzientzia zabaldu zenean, emakumeak antolatu egin ziren subjektu aske bati dagozkion parte hartze sozialerako eta politikorako eskubideak lortzeko. Subjektu kolektibo modura antolatu ziren, mugimendu feministaren barruan, eta boto eskubidea, hezkuntza eta gizonezkoarekiko berdintasuna ziren helburu nagusiak. Botoaren aldeko mugimenduan, sufragistak ez ziren garaiko politikaren praktikak errepikatuzera mugatu. Ekintza politikoa zabalteko hainbat praktika berritzaile erabili zuten, beti ere, indarkeria

---

(1) Hitzaldi honetako gaiaren inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, ikus: MAGALLÓN, Carmen (2006) *Mujeres en pie de paz*. Madril, Siglo XXI.

---

metodo gisa saihestuz. Sufragistek ordura arte ezagutzen ez ziren presio moduak eta ekintza publikoak garatu zituzten. Ez da harritzekoa, beraz, Gandhik esan izana emakumeengandik ikasi zituela biolentziarik gabeko desobedientzia zibilaren teknikak, bereziki, sufragista britainiarrengandik. Ziur asko, horrexegatik, praktika horiek emakumeen artean jaio zirelako, Gandhiren proposamenen jarraitzaile sutsuak izan ziren emakumeak.

Gandhiren jarraitzaile hurbilenetako batek (Mira Behn), 40ko hamarkadatik Himalaian bizi izan zenak, *Chipko* mugimendua (besarkatu esan nahi du) berpiztu zuen, 300 bat urte aurretik sortutako mugimendua bazen ere. Indiako Vandana Shiva fisikari eta filosofoak (1988) idatzi zuen mugimendu haren esanahiari buruz. Mugimendua hasi zuten emakumeak zuhaitzetara besarkaturik egoten ziren, zuhaitz guztiak botatzea eragozteko. Zuhaitzak ezinbestekoak dira eskualde asko bizirik iraungo badute. 1987an, *Chipko* emakumeek Bakearen Nobel sari alternatiboa irabazi zuten.

Sufragismoaren bultzadatik jaiotako emakumeen ekimen nabarmenena eta esanguratsuenak, I. Mundu Gerra indar betean ari zela, Emakumeen Nazioarteko Lehen Kongresua antolatzea izan zen. Biltzar hark zedarrri sinbolikoa markatu zuen, bakearen aldeko emakumeen nazioarteko mugimenduaren oinarriak finkatu baitziren bertan. Jane Addams gizarte erreformatzaile, sufragista eta antimilitarista iparramerikarraren lehendakari zapean (Bakearen Nobel Saria jaso zuen 1931n), gerran sartuak zeuden eta neutralak ziren 12 herrialdetako 150 erakunderen ordezkari-tzan, mila bat emakume bildu ziren. Hala, bake estrategia prestatu zuten, gerraren zoramen eta lazgarrikeriaren aurka protesta egin zuten, eta herrialde neutralei bitartekari lanetan berehalaxe hasteko deia egin zieten. Hainbat joeratako emakumeek sostengatu zuten Kongresua: Britainia Handiko laboristek, hainbat herrialdetako sufragista eta sindikalistek, eta erakunde guztiz desberdinetako emakumeek, esaterako, Hungariako Emakume Nekazariak, Holandako Haurren Interesak Babesteko Elkartek, edo, AEBtako Emakume Abokatuen Elkartek (2).

Hagako Kongresua (3) Emakumearen Botoaren aldeko Nazioarteko Itunaren ondorengoa da, nahiz eta berari osatzen zuten erakunde guztien babes ofiziala jaso ez. Handik jaio zen Bake iraunkorraren aldeko Emakumeen Nazioarteko Batzordea. Hurrengo biltzarrean –Zurichen egin zen, 1919an–, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Erakundea (*Women's International League for Peace and Freedom, WILPF*) sortu zuten. Erakunde honen xedea Kongresuko kideek guztiz lotuta ikusten zituzten bi mugimendu uztartzea zen: mugimendu feminista eta mugimendu bakezalea.

WILPFen sortzaileak erdiko klaseko emakumeak ziren, ikasketadunak, batzuk Oxforden edo Cambridgen graduatuak, hainbat hizkuntza zekizkitenak, eta bidaien eta zailtasunen aurrean ikarutzen ez zirenak. Helburu gisa zuten feminismoaren ikuspegiak politika arloan ezer baztertzen ez

---

(2) NASCH, M. (2004), 154 or.

(3) Hagako Kongresuari buruz, ondorengo hauek ikus daitezke: BUSSEY, Gertrude eta TIMS, Margaret (1980) *Pioneers for Peace. Women's International League for Peace and Freedom 1915-1965*, Oxford, Alden Press.

---

zuen emakumeen parte hartze osoa bilatzen zuen; nazioez gaindiko feminismoa zen, ekonomian eta nazioarteko harremanetan interesa zuena, eta nazioarteko gatazkei modu zibilizatuan konponbidea emateko hitzarmenak ezartzea guztiz beharrezkoa zela uste zuena. Vellacoten arabera, ez zen, inondik ere, «menpekotasun atseginerako sozializatutako emakume multzoa; gerraren lazgarrikerien aurrean atsekabe egokiz erreakzionatzen zuena, edo, beren ama rola betetz, mutikoek bata besteari egindako zauriak sendatzeko irrikan zegoena» (4). Liskarrak beste modu batera konpon zitezkeela sinesten zuten, nazioarteko arbitrajearen bitartez. Gertakarien nondik norakoa izan nahi zuten eragina, eta ez zeuden prest, inolaz ere, menpeko rolak onartzeko, esaterako, gerrak eragindako hondamendiak konpontzen saiatzea.

Hagako Kongresuaren sustatzaileak ez zeuden han feminismoa alde batera uzteko eta emakumeen eskubideak baino garrantzitsuagozat jo zitezkeen beste gai batzuk jorratzeko. Ez. Kongresua sustatu bazuten izan zen «haintzat gerraren eta bakearen gaia ardura feminista zelako, emakumeen berdintasun rolaren esanahiaren garapen logikoa», alegia (5).

Hala eta guztiz ere, gerrak, I. Mundu Gerrak, zatitu egin zituen feministak. Denboraren poderioz, sufragista asko emakumeak gerraren aldeko lanetara bideratzen ahalegindu ziren, eta, era berean, gizonezkoak gerrara joatera bultzatzen zituzten.

Antzeko zerbeit gertatu zen Europako emakume sozialisten artean ere. Haien uste zuten mugimendu horretan zuten parte hartzea bakearen aldekoa zela, pentsatzen baitzuten sozialismoarekin konprometitutako langileek ez zituztela inoiz armak hartuko batzuk besteen kontra borrokatzeko. Emakume langileek Ingalaterran abian jarritako kanpaina handienetakoa *Bakearen aldeko Emakumeen Gurutzada* izan zen –gerraren aurrenean hasi zen eta 1917-18an harrapatu zuen gailurra– (6). Hala, hainbat lider sozialista (Clara Zetkin, Karl Liebknecht, Rosa Luxemburg...) gartzelan sartu eta irten ibili ziren gerra garaian, gerra inperialista zela salatzen zutelako.

I. Mundu Gerraren ostean, zaila zen emakumeak indar bakezalea zirenik sinestea, bi alderdietako emakumeek gatazkan parte hartu baitzuten, gizonezkoak hil zituzten balen fabrikazioan. Hala eta guztiz ere, emakumeen bakearen aldeko ikuspuntua eta ekimen gaitasuna behin eta berriro agertzen ziren.

Emakumeek bakearen aldeko mugimenduan izan zuten protagonismoa nabarmena izan zen XX. mendean zehar: aipatutako ekimenez gainera, Gerra Hotzak iraun zuen bitartean, Europan ugaldtu egin ziren gerra nuklearraren aurkako emakume taldeak; horien artean enblematikoenak Britainia Handiko Greenham Common kanpamentuko emakumeak izan ziren. Beltzez jantzitako Emakumeak ere sortu ziren, munduko hainbat herrialdetara zabalduko zirenak. Bestelako hainbat talde ere sortu zen: Maiatzeko Plazako Amak eta amonak, Guatemalako Alargunen Koordinakundea (CONAVIGUA), El Salvadorko Amen Koordinakundea (COMADRES),

---

(4) VELLACOT, J. (1993), 39. or.

(5) *ibid.*, 28-29 or.

(6) LIDINGTON, J. (1983), 202. or.

Kolonbiako Emakumeen Ibilbide Baketsua; Jerusalem Link taldea Palestina-Israelen; Talde gehiago Irlandan, Zipren, Liberialan, Somalian...

Bakea eraikitzeko emakumeen inplikazioa mundu guztian zabaldua dauden emakume taldeek modu saiatu eta berritzailean egiten duten oinarriko lanean islatzen da; talde horietan gerraren aurka dauden praktikak eta ikuspuntu alternatiboak garatzen dira. Filosofia eta helburu desberdinak dituzte, nahiz eta, oro har, ez duten zilegitzat hartzen gizakien bizitza arriskuan jartzen duen logika, interes materialak, ideologikoak, edota boterearen edo subiranotasunaren arlokoak lortzeko. Emakumeak antolatzen dira: a) Beren gobernuak edo parte diren taldeek aurrera eramaten dituzten gerren edo politika militarista erasokorren aurka egiteko. b) Harremanen bidez eta partekatzen dituzten puntuak bilatuz, aurrez aurre dauden taldeetako pertsonak hurbiltzeko, eurak talde horietako kide direla. Borrokan ari diren aldean arteko oztopoak apurtzeko eta zatituta dauden erkidegoak hurbiltzeko. c) Gatazka estrukturaleri konponbide ez militarrik bilatzeko. d) Zigorgabetasunaren aurka: zenbait erkidegok jasandako genozidioak, desagertaketak, eta jazarpenak errepika ez daitezzen. e) Berenak ez diren beste herrialde batean egonik, gerra egoeran edo askatasun eta giza eskubide faltan dauden emakumeak babesteko. f) Emakumeen oinarriko lana erabakiak hartzeko garaian kontuan har dadin (*lobby* lana, esate baterako, UNIFEMek, Europar Parlamentuko emakumeek, eta AEBtako hainbat talde eta emakumek egiten dutena).

## 2.

*Emakumeak eta bakea:  
sinbolikoki elkartuak  
eta tradizio politikotik  
bartzertuak. Kritikatu  
beharreko naturalizazioa*

Lotura sinboliko indartsu batek lotzen ditu emakumeak eta bakea. Emakumeen eta bakearen arteko identifikazioak –esan behar da hezur-mamizko emakumeen jokaerarekin beti bat ez etorri arren, denboran zehar iraun duela– bi oinarri ditu. Bata, historian zehar urrun izan dela aginpidetik, erabakiak hartzen ziren esparruetatik eta indar armatu instituzionaletatik; egun ere, oraindik, emakumeak falta dira edo oso indar gutxi dute gerraren, diplomaziaren eta nazioarteko gaien inguruko erabakiak hartzeko garaian. Bigarrena, emakume gehienek amatasun esperientzia. Horren guztiaren azpian dagoen ideia da emakumeak gizonezkoak baino bakezaleagoak direla, bizitza emateko gai direlako; ama eta soldadu izatea kontraesanean daudela.

Emakumeei bakearen inguruko rol berezia egozteko genero estereotipoen barruan koka daiteke; estereotipo horien artean dago, izan ere, emakume baketsua/gizon indarkeriazalea dikotomia.

---

Hala, emakumeari etxearekin zerikusia duten zereginak egozten zaizkio, pertsonak zaintzea, gorputzarekiko hurbiltasun handiagoa, sentimen eta afektuetan indarra jartzea; eta horrekin guztiarekin koherente izateko, bakearen aldeko jarrera suposatzen zaio. Gizonari, aldiz, arlo publikoko lanak dagozkio, produkzioa zentzurik zabalenean, arrazoiari eta legeei garrantzi handiagoa ematea, eta aginpidearekin identifikatzea. Horrek guztiak gizona jarrera menderatzailerara eramaten du, eta kasua iristen bada, indarkeria erabiltzera. Emakumea 'arima eder' gisa hartzea eta gizonetzkoa 'borrokalaria zuzen' modura ikustea kontraesanean dauden paradigmak dira eta tradizio luzea dute Mendebaldeko pentsamoldean. Txanpon baten bi aldean antzera, batak bestea elikatzen eta indartzen du (7).

Emakumeen eta bakearen arteko lotura sinboliko horrekin batera, biak politikaren arlotik baztertuak izan ziren. Emakumeak baztertzen dituen tradizio bera da bakea baztertzen duena: Maquiavelo, Clausewitz eta gerraren saihestezintasuna, Bismark eta realpolitik deitua. Egun, oraindik ere, errealista, praktikoa eta abertzalea jotzen den nazioarteko politika gerrarako eskubidean oinarritzen da. Eta emakumearen eta bakearen arteko hurbiltasun sinbolikoa erresistentzia iturri da bakearen unibertsalizazioan; izan ere, bakea emakumearekin lotzeak praktikan balioa kentzen baitio bakeari.

Emakumeen eta bakearen arteko lotura sinbolikoak oraindik indartsu jarraitzen du, nahiz eta errealtateko datu askorekin kontraesanean egon, bai iraganeko historiari eta bai garaikideari dago-kionez. Datu horiek argi erakusten dute emakumeek hainbat modutan sostengatu dutela gerra, esaterako: talde armatuetako borrokalaria moduan, munizioen fabrikazioan, borrokalariei babes logistikoa emanez, edota, Virginia Woolfek modu zehatzean adierazi zuen bezala (1938): heroiak mi-retsiz.

Emakumeak baztertzea naturalizatu egin zen, sexuari lotutako zerbait balitz bezala. Naturalizazioa desberdintasuna gizartean zilegiztatzeko metodoa da eta pertsonen askatasunaren gizarte aldaketaren aurka egiten du. Naturalizazioa, emakumeak/bakea lotura, eta, bakearen, emakumeen eta izadiaren baztertze-gutxiespena elkarren artean lotuta dauden pentsamendu sinboliko multzoa dira.

Karakterizazio dikotomiko horretan dagoen determinismo biologikoa asko kritikatu dute feminismo pentsamolde/korrente desberdinek, hainbat zientzia arlotatik. Simone de Beauvoirren baieztapena –emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da– gizoni ere aplika dakieke, horiek ere naturalizatu eta soldaduska egitera behartu baitzituzten, beren sexua zela medio. Arma zerbitzua eta hiritartasuna lotuta daude ilustrazioaren ondarean. Beren sexua zela eta, emakumeak baztertuak izan ziren soldaduskatik, hiritartasunetik eta espazio publikoetatik eta ama izatera mugatu zituzten; gainera, sistema horrek balio handiagoa ematen zion (eta dio) bizitza arriskatzeari eta, batez ere, bizitza kentzeko ahalmenari, bizitza bera emateari baino.

---

(7) «Hegelek 'arima ederra' ezaugarritzen duenean, (gizon zein emakumeari) 'araztasun itxura' babestea ahalbidetzen dion kontzientzia mota aipatzen du, munduko gertakari historikoen inguruan tolesgabetasuna lantzearen bitartez» (Elshtain, 1995, 4).

---

Emakumea/bakea lotura genero estereotipoen barruan dago. Dikotomia horietako bat emakume baketsua/gizon indarkeriazalea da. Dikotomia horrek ez du inola ere laguntzen bakearen kultura eraikitzeko orduan, emakume zein gizonen ekarpenak eskatzen baititu, maila berean. Feminismotik dikotomia horri egiten zaizkion kritiketan argudioak ematen dira bakearen balioa estereotipoetatik askatzeko, eta, ikuspuntu androzentristak saihestuz, bultzaka ari dira egungo debaluazio egoeratik ateratzeko eta unibertsalizatzea merezi duen ondare gisa aldarrikatzeko.

Ikerketa feministek egindako analisiek, batez ere emakumeen bazterkeriaren mekanismoetan eta izaeran sakontzen dutenek, partekatutako bazterketaren gorabeheretatik datorren bakearekiko erresistentzia ulertzea ahalbidetzen dute. Era berean, emakumeak komunitate politikoan sartzea, politikaren eraldaketa eta, beren eskarmentuaren harira, eskubideak formulatzea helburu duten arrazoi, teoria eta gizarte mugimenduak bakearen balioari eskubideen komunitatean sartzen laguntzen ari zaizkio.

### 3.

## *Bazterketa eta arrarotasuna: bakea emakumeen aukera librea da*

Baztertutako taldeei gizarte aldaketak sustatzeko gaitasun berezia egozten zaie, existitzen denarekin bat egiten ez dutenez, kritika egiteko egoera hobean baitaude. Baztertutako taldeek aldaketarako ahalmena gordetzen dute barnean; izan ere, dauden egoera objektibo eta materialak sistemaren akatsak ikusteko bidea eman ez ezik, bide berriak proposatzeko gaitasuna pizten die. Bazterketak errealitatea ikusteko beste era bat sortzen du. Virginia Woolfek idatzi zuen, emakumeak berdintasun politikoaren eskubideetatik baztertuak zeudenean, benetan beste gizarte bateko kide zirela –Arraroen Gizartekoak–, ezarritako gizarte ordenarekiko arraroak zirelako. Arrarotasun horrek oraindik ere irauten du, maila sinbolikoan bada ere. Defizit mugatzaile modura eramaten da, baina gaitasuna ere ematen die emakumeei gizarte ekintzetan praktika berritzaileen aldeko aukera egiteko. Bazterkeriatik aritzeak aldaketarako potentzial handia ematen du. Emakumeek bakerako berezko jarrera dutela ukatzeak ez du esan nahi bakea eraikitzeko subjektu kolektibo moduan antolatzeko aukera ukatu behar zaienik. Subjektu hori, hain zuzen ere, historian zehar nozitu behar izan duen bazterkeria politikoagatik, gatazkako alde muturrenekoen eraginetik kanpo dagoela pentsa daiteke. Sarritan, emakumeek bakea lortzeko abian jartzen dituzten ekimenetan konfiantza handiagoa izaten du jendeak, elite politikoak proposatutakoetan baino. Politika patriarkaleko egituretan nahastuak ez daudenez, emakumeek gatazken aurrean irtenbide berritzaileak proposatzeko eta aurrera eramateko askatasuna dute. Beren hitz propioak bila

ditzakete eta saia daitezke gizonezkoek egindako akatsetan ez erortzen. Bakearen aldeko emakume talde askok ondorengo hauxe egiten dute: ikuspuntu eta logika guztiz desberdinetatik abiatu, ekimenak garatzen dituzte.

4.

## *Emakumeak bake prozesuetan. Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena*

Bakea eraikitzeko zeregina gizarte guztiaren ardura izan beharko luke, baina gerrak hasteko erabakiekin edo liskarren erantzukizunekin gertatu ohi den moduan, bakea negoziatzeko prozesuaren aurrerapenak edo geldialdiak ere gizonezkoen eskuetan egoten dira, batik bat. Emakumeek bakearen alde egiten duten lan izugarria ez da islatzen erabakiak hartzeko tokietan. Erakunde zibil eta oinarrikoetan emakumeek duten protagonismoa ez da negoziazio mahaira lekualdatzen erraza. Oztopoak daude alde guztietatik: ezarritako boterearen inertzia, lehian dauden aldeak, eta emakumeak berak, askotan ez baitute eseri nahi izaten bi aldeetako krimenen arduradunekin. Emakumeak bake prozesuetan parte hartzeko argudio nagusia berdintasuna da, parte hartzeko dugun eskubidea. Begi bistako eskubidea da, baina berretsi beharra dago, tradizio patriarkalak ez baitu onartu kultura gehienetan, eta oraindik ere zailtasunak daude onartzeko. Horri gehitzera dator, bestalde, emakumeek beste inork eramaten ez dituen gaiak eramaten dituztela negoziazio mahaira. Hori bai, ez da nahikoa bertan egotea hitzarmenetan eragina izateko, adostasun agendak artikulatu behar dira eta premiazkoak dira adostasun horiek babestuko dituzten gizarte eta politika indarrak ere (8).

Erabakiak hartzeko garaian emakumeak baztertzeko erabiltzen den argudioa da borrokan ari diren aldeek negoziatu behar dutela bakea, eta emakumeak negoziatioetan izateak edo ez izateak ez duela garrantzirik (9). Ahaztu egiten dira gerrak berariazko eragina izaten duela emakumeengan, egozten zaien rolagatik eta jasaten dituzten eraso bereziengatik. Ahaztu egiten da, orobat, bakea erkidego guztiari dagokion prozesua dela, eta ez buruzagiei bakarrik, eta, hortaz, garrantzitsua dela gizarte osoak parte hartzea gatazka armatuaren osteko hiru zeregin nagusietan:

---

(8) Luz Méndez Guatemalako Emakumeen Nazio Elkartearen (UNAMG) Kontseilu aholku emaileko lehendakariaren hitzak, ondoko jardunaldiotan: «Emakumeen bitartekaritza. Bakerako praktika», Bartzelona, 2005.

(9) ANDERLINI, Sanam Naraghi (2000) *Women at the Peace Table. Making a Difference*, New York, The United Nations Development Fund for Women (UNIFEM).

---

borrokalari ohiak gizarteratzea, berreraikuntza eta adiskidetzea. Gainera, bake negoziazioak perspektiba mugatu batetik ikusi ordez –non gerra elementuak bakarrik hartzen diren kontuan– jakin behar dugu ez dela gertaera puntual bat, baizik eta herrialde horren etorkizuneko bizitzaren garapena markatuko duen prozesua dela; bakeak ondorengo hauek izan behar baititu barnean: aginpidea elkarbanatzeko akordioa, ekonomia berreraikitzea, eta borrokalariak desmobilizatu eta bergizarteratzeko; giza eskubideen inguruko legedia, lurak eskuratzeari buruzko araudia eta hezkuntza eta osasunaren ingurukoa; lekualdatutako pertsonen estatusa, gizarte zibilaren rola, etab. Negoziazio prozesuak bizikidetzatza berreraikitzea ahalbidetuko duten gizarte egiturak baldintzatuko dituela ulertzen dugunean jabetzen gara zer garrantzitsua den emakumeen parte hartzea.

Israel-Palestinan bidezko bakea lortzearen alde lan egiten duten Bat Shalomeko emakumeek, egoera okertzen ari zela ikusita, ondorengo hau idatzi zuten: «Berandu izan baino lehen, utzi emakumei hitz egiten, utzi emakumei parte hartzen».

Erreklamazio hori ez da, sukaldaritzako errezetetan bezala, emakumeak gehitu eta nahasteko eskaera hutsal bat, baizik eta harremanak ulertzeko modu desberdin baterako deia eta eskaintza, gatazkak ulertzeko eta konponbideei ekiteko beste modu bat proposatzen duena.

Bakearen aldeko emakumeen ekintza esperientziak ez dira eszena politikoaren erdian egoten. Emakumeen esku hartzeak arlo publikoan izaten dituzten ezaugarriengatik edo, botere esparruetatik eta erabakiak hartzeko guneetatik tradizioz baztertuta egoteagatik, emakumeek egiten dutena ez da jasotzen historiaren edo aktualitatearen korrante nagusian. Eta, hala ere, sarritan, emakumeek garatutako ekimenak eta jarduerak izan dira horma iragangaitzetan arrakalaren bat ireki duten eta irekitzen duten tresnak. Bakea, ondasuna izateaz gainera, eskubidea ere badela uste badugu, emakumeen ekarpena beharrezko plusa da. Emakumeen ahotsa negoziazio mahaietan entzun ahal izateko urratsak egin beharko dira; izan ere, emakumeek ez badute erabakiak hartzeko garaian eragina izateko beharrezkoa den botere politikorik, zaila izango da beren ikuspuntuak eta konponbide berritzaileak abian jartzea.

Anderlinik egindako azterketan (2000), hainbat herrialdeetako bake prozesuen adibideak biltzen dira: Hegoafrikan, Ipar Irlandan eta Guatemalan, emakumeen mugimenduen indarra bake negoziazio prozesuetara eraman zen.

## 4.1

## HEGOAFRIKA

Hegoafrikako kasua ereduakoa izan zen; bertan, politikan zebiltzan emakumeek emakume mugimendu orokorraren babesa jaso zuten. Hala, postu garrantzitsuak izatera iritsi ziren hainbat erakundetan, esaterako, Afrikako Kongresu Nazionalan, (*African National Congress, ANC*). 1994ko hauteskundeen aurreko urteetan, emakume guztiak Koalizio Nazional indartsua eratu zuten, gizarte estatusak eta joera politikoak alde batera utzirik. Bi erakundeek, Black Sash deituak –enpresa gizonekin ezkonduko emakume zuriak, gehienak– eta Etxeko Langileen Batasunak, –gehiak, emakume beltzak– *apartheidaren aurkako* federazioa eratu zuten:



«Aurretik inoiz elkarrekin hitz egin gabe bazeuden ere, koalizio bateko kide ziren orain, neskametzan lan egiten zuen emakume baten lehendakaritzapean. Elkarrekin, behartsuak eta aberatsak, nahiko antzeratsu sufritu zutela jabetu ziren. Ohartu ziren gizon dirudunak zein txiroak modu iraingarri berean trata ditzakeela emakumeak.

Orain, ordea, elkarrekin zeuden duintasun kontu bategatik» (10).

Koalizioak oinarriko taldeen babesa mobilizatu zuen ANCK egindako proposamenaren harira; proposamen horrek aldeztu zuen emakumeak baldintza beretan ordezkatuak egon behar zutela negoziazioetan. Ez zeuden prest antzeko egoeretan hainbeste aldiz gertatutakoa errepikatzen. Emakumeak, izan ere, gizonezkoek bezalaxe askatasunaren aldeko borrokan hainbat ekarpen eta sakrifizio egin ondoren, negoziazio mahaitik baztertuak eta zokoratuak izaten baitziren. Bake prozesuan parte hartzearen ondorioetako bat izan zen areagotu egin zela erakundeetan zuten presentzia. Lehen hauteskunde demokratikoetan, 1994an, emakumeak Senatuko eta Nazio Biltzarreko postuen %24 betetzera iritsi ziren; apartheid garaian, aldiz, eserlekuen %2,8 besterik ez zuten. Cheryl Carolus (11), 1994an, ANCKo *Deputy Secretary General* izendatu zutenak dio, gizarte zibilean ez ezik, negoziazio prozesuaren parte handi bat aldaketaren aitzindari izan zen alderdiaren egituren barruan gertatu zela, ANCKren barruan, alegia.

Hegoafrikako bake prozesua maila guztietako parte hartze politikoaren adibide izan zen (12). Proposamen berritzaileak egin zituzten iraganari eta etorkizunari aurre egiteko, esaterako, Egia eta Adiskidetzaren Batzordea; bertan, emakumeek paper garrantzitsua jokatu zuten, ordezkarien %41 izan ziren eta aurkeztu ziren hogeita mila testigantza baino gehiagotatik %56,5 emakumeenak izan ziren. Besteen egoera ulertzeko jarrera eta erraztasuna zuten, giro egokia sortzen zen lekukotza emateko garaian. Emakumeentzat egitura bereiztuak izatean (Johannesburgoko Emakumeen Entzutegia) apartheid garaian emakumeen aurka egindako krimenen inguruko testigantzak emateko espazio egokiak sortu ziren, eta, hala, gertatu zenaren ikuspegi zabalagoa lortu zen (13).

---

(10) ANDERLINI (2000) *op. cit.*, 14. or.

(11) Cheryl Carolus And. *United Democratic Front* eko (UDF) koordinatzaile nazionala izan zen (1985). 1991n, ANCKo Batzorde Betearazleko kide izendatu zuten, eta era berean, National Working Committee-ko Giza Garapeneko Departamenduaren buru. 1994an, alderdiko Deputy Secretary General izendatu zuten (ANC). 1998an, Londresen bere herrialdearen Goi Ordezkari izatea onartu zuen (*South African High Commissioner*).

(12) Ikus BARNES, Catherine (ed.) (2004) *Haciendo propio el proceso. Herriaren parte hartzea bake prozesutan*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratu.

(13) BOGODO-MADIKIZELA, Pumla (2005) *Women's Contributions to South Africa's Truth and Reconciliation Commission*, Women Waging Peace, The Hunt Fund.

## 4.2

## IPAR IRLANDA

Ipar Irlandaren kasuan ere, emakumeen batasunari esker negoziazio mahaian parte hartzea lortu zuten emakumeek. Hamarkada askotan, emakume katoliko eta protestanteek elkarrekin egin zuten lan bi komunitateen arteko elkarrizketa eta lankidetzara bultzatzeko. 1976an, *Irlandako Emakumeak Bakearen Alde* taldeko Betty Williams eta Mairead Corriganek Bakearen Nobel saria irabazi zuten garatutako jarduera eta ekimenei eskerrak.

1996an, gatazkako nazioarteko bitartekariak (Georges Mitchell) baldintza gisa ipini zuen, alderdi bakoitzetik negoziazio mahairako izendatutako kideak hauteskunderetan aukeratutako pertsonak izan beharko zutela. Baldintza horrekin, hamar alderdi nagusiek ez zuten parte hartzeko arazorik, baina emakumeek ez zuten aukera politiko propiorik. Hutsune horren aurrean, ekintzaile talde batek bilera baterako deia egin zuen, eta, guztira, bi komunitatetatik, berrehun emakume-erakunde baino gehiago azaldu ziren. Bilera haren emaitza gisa, Ipar Irlandako Emakumeen Koalizioa sortu zen (*Northern Ireland Women's Coalition, NIWC*). Koalizioa hauteskunderetara aurkeztu zen eta bi aulki lortu zituen; hala, emaitza hari eskerrak, negoziazio mahaian parte hartzeko moduan ziren.

Jatorri protestanteko Annie Campbell sindikalista eta feminista Ostiral Santuko negoziazioetara eramango zuten elkarrizketetan egon zen, Emakumeen Koalizioaren izenean, eta dio bitartekari moduan aritu zirela, giza eskubideetan eta guztiak partaide izatean indar eginez: guztiek egon behar zuten elkarrizketetan. Ipar Irlandako emakume taldeekin lan egin zuen Helen Jackson Erresuma Batuko parlamentariak adierazi zuen emakumeek negoziazio mahaian ipintzen dituzten gaiak, sarritan, gizonezkoek eramaten dituztenetatik oso bestelakoak izaten direla. Emakume askorentzat hezkuntzak, seme-alaben zainketak eta etxeko egoerak garrantzi handiagoa dute beste gai batzuek baino.

## 4.3

## MO MOWLAM

Blairren Gobernuaren aginduz negoziazioen kargua zuen Erresuma Batuko ministro andreak zerkusi handia du Ipar Irlandan bakerantz emandako urratsetan: MO MOWLAM Prozesuaren buruan egon zen bi urteetan (1997-1999), haren parte hartzea erabakigarria izan zen bake prozesuak aurrera egin zezan eta egonkortu zedin, 1998ko Ostiral Santuko Akordioetara bidean. Oraindik ere gogoan dugu Ulsterreko egoera gogorren aurrean izan zuen ausardia, minbiziaren aurka (buruko tumorea izan zuen) borrokatzen zen bitartean. Haren estiloak, argia eta baikorra, lorratz sakona utzi zuen herrian. Ulsterreko aurreko ministro nagusi izandako David Trimbleren arabera, Mowlamek aire freskoa ekarri zien negoziazioei ezkutuko intentziorik gabeko bere diskurtso zuzenarekin.

«Ipar Irlandako lur latzetan barneratu zen lehen emakumea ez ezik, iraganeko etiketa zurruna apurtzen zuen Erresuma Batuko Gobernuaren lehen ordezkaria izan zen. Ordura arte ohituta geunden estilo 'patrizio' ia kolonialeko ministroetara, baina

Mowlam ez zen batere konbentzionala; gainera, oso lasaia zen, tratu errazekoa eta oso hiztuna. Ezabatu ezingo den aztarna utzi du Ipar Irlandako politikan» (14).

Marjorie Mowlam hizki larriekin gogoratu beharko genukeen emakumea da. 2005eko abuztuaren 19an hil zen, 55 urterekin. Watforden jaio zen, Ingalaterraren erdian, 1949ko irailaren 18an. Mo Mowlam Irakeko gerraren aurka agertu zen, 80ko hamarkadan arma nuklearren aurka azaldu zen bezalaxe, «ez gerra nuklearraren mehatxupearan bizitzeko beldurragatik, edo disuasioaren argudio burugabeagatik, edo hondamendi nuklear baten lazgarrikeriengatik... (baizik eta) teknologia nuklearra existitze hutsa demokraziaren aurkakoa delako.» (15). Behin batean, Ostiral Santuko Akordioak herrian lortu zuen babes zabala (Ipar Irlandako %70ek alde bozkatu zuen), emakume taldeen etengabeko lanari zor zitzaiola adierazi zuen.

#### 4.4

#### PALESTINA-ISRAEL

Gatazka odoltsu askotan, hildakoak eta irainak metatzeak izugarrizko amildegia eraten du erkidegoen artean. Buruzagi politikoen erabakiek eragina izaten dute –eta alderantziz– erkidegoaren egoera subjektiboan. Aurrez aurre dauden komunitateetako taldeen artean loturak, harremanak eta ekintza bateratuak ezartzeak hurbil dezake gatazkaren konponbidea. Gatazkari irtenbide negoziatua ematearen aurka dauden oztopoak gainditzeko, maila guztietan babes bilatuz, gizarte zibilak antolatuz egiten dituen ekintzek eragin ukalezina dute gizarte sarean eta herritarren egoera subjektiboan. Argi ikus daiteke hori erreferendum edo kontsulten emaitzetan, manifestazioetan edo komunikabideetako hitzaldietan, eta baita buruzagiaren hautaketan ere; azkenean, izan ere, botoetan islatzen baita guztia.

Sumaya Farhat-Naser lurralde okupatueta palestinarra –*Jerusalem Center for Women* (Jerusalem Emakume Zentroa) erakundeko zuzendaria da– dokumentuetan jaso ditu Palestinako eta Israelgo emakumeek beren herrirentzako bake zuzenaren bilaketan egindako ahaleginak eta dituzten zailtasunak (16).

(14) Jeffrey Donaldson, Ostiral Santuko Akordioaren aurkako unionista. Ondorengo artikuluan aipatua: GÓMEZ, Lourdes (2005) «Mo Mowlan, la ministra británica que consolidó la paz en Irlanda del Norte», (Mo Mowlam, Ipar Irlandan bakea finkatu zuen Erresuma Batuko ministroa) *El País*, abuztuaren 20a, 45. or.

(15) MOWLAM, Marjorie (1983) "Combustible para la carrera del armamento nuclear. Energía nuclear y armas nucleares", in Dorothy Thompson (comp.) *Over our dead bodies*, Londres, Virago (Gaztelaniara itzulpena: Mireia Bofill, Antes muertas.) *Mujeres contra el peligro nuclear*, Bartzelona, LaSal, 192-210, 93-103, 93 or.).

(16) FARHAT-NASSER, Sumaya (2006) *En la tierra de los olivos. Una historia de mujeres por la paz* (Gaztelaniara itzulpena eta hitzaurrea: Anna Tortajada). Bartzelona, El Aleph.

Palestinako eta Israelgo emakumeak euren artean biltzen eta negoziatzen hasi ziren; 1988an sortu zen Beltzez jantzitako Emakumeak taldea. Palestinan elkarrizketa horiek debekatuta zeudenean eta Israelen legez kanpokoak zirenean, etxe partikularretan eta elizetan elkartzen ziren ezkutuan hitz egin ahal izateko. Gero, beste toki batzuetan ere elkartu ziren, hala nola, Basilean, Berlinen, Bruselan, Bolonian eta Europako beste hiri batzuetan. 1992an, Bruselan, oinarrizko irizpide politikoak ezarri zituzten bakearen aldeko lan bateratua egiteko. Sumayarentzat, bilera hartako partaideetako batentzat, irizpide horiek

«esparru loteslea eratu zuten eta talde lanerako jarraibideak eman zizkiguten: bi herrialdeen berdintasuna eta parekotasuna, bai Palestina eta bai Israel estatu nazional gisa onartzea, eta Jerusalem bi komunitateen jabetzako hiri ireki moduan berrestea, bi estatuen hiriburu aldarrikatuz. Irizpide horiek babestu egiten gintuzten gure inguruko traizio akusazioen aurrean. Horrekin batera, zilegitasun politikoa ematen zioten gure lanari eta hurbilketarako bidea prestatzen genuen. Justizian oinarritutako eta indarkeria gabeko bake segurua eraikitzen lagundu behar zuten. Elkarrizketarako hastapen politikoak ez ezik, emakume bakezaleek komunikazio irizpideak ere garatu zituzten, elkarrizketetan oreka mantentzeko heldulekutzat balio zezaten» (17).

1994an, Europar Batzordearen laguntzaz, emakumeentzako bi zentro sortu ziren: bata, Jerusalem ekialdean, palestinarren eremuan (*Jerusalem Center for Women*), eta, bestea, mendebaldean, israeldarren aldean (*Bat Shalom*), eta bien artean *Jerusalem Link* eratu zuten. Bi zentroetako emakumeak –alderdietan eta Israelgo Parlamentuan sartuak egoteaz gainera, lotura asko zituzten nazioartean– etengabeko elkarrizketan aritu ziren urteetan, idatziz, batez ere, eskutitz eta adierazpenen bitartez.

“Elkarrekin idazten hasi ginenean, atzera utzita geneuzkan gatazkez idatzi nahi genuen. Gatazkak zeudela onartu behar genuen lehenik, eta aurre egiten hasi. Topaketa elkar onartuz hasten da. Gatazka horiek guztiak, behin idatzi, gogor eztabaidatu eta finkatu ondoren –beti konpontzen ez badira ere–, oihal txatalak bezalakoak dira eta horiekin, bakearen tapiza osa daiteke. Bakea ez da eraikitzen kameren aurrean edo Etxe Zurian sinatutako akordioekin bakarrik, edo gerraren amaiera erabakitzen duten militarrek egindako mapen bitartez. Bakea erlazio sare bat da, hari mataza nahasia, adiskideak eta gaizki ulertuak batzen dituena, eta, batzuetan, korapilo asko izaten ditu. Hari horiek guztiek, elkarrekin, ehun babesgarria osatzen dute, hemen eta orain, bakean bizi gaitezkeen konbentzimenduari gorputz emanez.” (18).

---

(17) *Ibid.*, 88-89. or.

(18) *Ibid.*, 86-87. or.

Kanpaina bateratua eraman zuten aurrera «Jerusalem partekatu» lemapean; arazo ugari izan zituzten, hasteko *partekatu* hitzaren esanahiarekin, alde bakoitzarentzat esanahi desberdina baitzuen.

«"Jerusalem partekatu" proiektuak oinarritzko hainbat gai ipini zituen agerian: Nola kudeatu israeldarren eta palestinarren arteko asimetria? Nola lor dezakegu berdinen arteko adiskidantza eraikitzea? Guztiok, hasieran, nork bere jabetzakoa ikusten genuen Jerusalem, eta hala ere, puntu batera iritsi ginen non konbentziturik baikeunden hiria partekatu egin behar genuela. Zer eragin izan zuen horrek gure bizitza pertsonalen historian?» (19).

Gila Svirsky *Bat Shalomer*akundeko zuzendariak honela azaldu zituen bakearen aldeko lanak piztutako espektatibak:

«Emakume israeldarrek hobeto lo egiteko hitz egin nahi dute emakume palestinarrekin. Emakume palestinarrek, aldiz, emakume israeldarrei lasai lo egiten ez uzteko hartzen dute parte elkarrizketa taldeetan. Palestinarrek politika gaiez hitz egitea eskatzen dute; israeldarrek, ordea, lagunak egin nahi dituzte. Kafea hartu nahi dute elkarrekin, hainbat gaiez hitz egiteko: haurrez, irakurri dituzten liburuez, edo emakumeen gaiez, emakumeen aurkako biolentziaz, bereziki» (20).

Motibazio desberdin horiek agerian uzten zituzten elkarrizketarako zailtasunak eta etsipena nagusitzen zen behin eta berriro. Ikastaroak eta entrenamenduak eman ziren emakumeak elkarrizketarako eta analisi politikorako prestatzeko.

«Ikastaroetan aldeztu genuen, guztiz konbentziturik, pertsona guztiak dutela porrot egiteko, huts egiteko edota astakeriak esateko eskubidea. Gizakiei dagokien zerbait da hori eta, gogoeta bateratua eragiteaz gainera, porrotak onartzen, lur ez jotzen eta berriro saiatzeko ausardia lortzen laguntzen du. Entzuten ika-esteak ez du esan nahi, besterik gabe, guztia jasan beharra dagoenik; kontua zera da: norbaitek arazoak sor ditzakeen hitzen bat edo esaldi gogorren bat esatean egoera kudeatzen ikastea. Halako kasuetan, nork bere sentiberatasunaren aurka egin eta, pentsatu behar du, hori esan duen pertsonak beste aldeari buruz behar hainbat ez dakielako mintzatu dela horrela. Hala, besteei begietara begiratzeko gaitasuna lortzen dugu, geuregan konfiantza izanik, eta era berean, elkarrizketetan lasaitasunez erreakzionatzen ikasi dugu» (21).

Beltzez jantzitako Emakumeen sortzaile izandako Hagar Roublev bakezale israeldarraren heriotza dolua elkarbanatzeko unea izan zen. Sumayak hiletara joan nahi zuen, arrisku handiko erabakia bazen ere. Jerusalem Center for Women-eko zuzendaritza batzordeari egin zion kontsulta eta familiari dolu eskutitza idazteko erantzun zioten.

---

(19) *Ibid.*, 72. or.

(20) *Ibid.*, 73. or.

(21) *Ibid.*, 91. or.

«Idatzi nien, jakina, baina Hagarrengatik gehiago egiteko beharra eta nahia sentitzen nuen... Orduan, Hanan Ashrawiri deitu nion, Jerusalem Link-eko sortzaileetako bati, zer iruditzen zitzaion galdetzeko. Hananek oso aholku ona eman zidan:

Egin ezazu egoki iruditzen zaizuna.

Argi neukan nire erantzukizuna zela familiari nire atsekabea erakustea, eta hiletara joan nintzen Jerusalem Center for Women-eko beste bi lagunekin. Hileta kibutz batean izan zen, Israelen iparraldean, eta bakearen aldeko manifestazio bat ekarri zidan burura (...)

Nire bizitzan, lehen aldiz, partekatutako atsekabearen indarra sentitu nuen. Poza elkarbanatzea errazagoa da, baina atsekabea partekatzeak hurbildu egiten ditu pertsonak. Uste dut bereziki baliagarria dela hori etsaitzat hartzen den ororentzat.

Hagarrek egin zidan oparia izan zen. Gu guztioi egin zigun oparia» (22).

2001ean, Bigarren Intifada hasi ondoren, programa bateratu guztiak apurtu egin ziren. Svirskyk eta Farhat-Naserrek norbere zentroko zuzendari izateari utzi zioten. Urteetan izandako elkarrizketari eutsiz, idatzi bat egin zuten elkarrekin, ondorengo izenburu honekin: "Uko egiten diogu are-rio izateari".

Adierazpen horretan, indarkeria, basakeria eta terrorismo mota guztiak gaitzesten dira, datozen lekutik datozela (berdin dio egilea talde bat, gobernua, armada edo gizabanakoa izan):

«Nazkatuta gaude bi aldeetan hildakoak izateaz. Haur palestinar eta israeldar gehiegi hil, umezurtz geratu edo bizi osorako elbarritu dira. Gure seme, aita eta neba gehiegik hil dute. Gerrak ez baitu errugabea bakarrik bihurtzen biktima, gerra zuzentzen dutenak ere aberetu egiten ditu» (23).

Aitortzen dute emakume israeldarrek eta palestinarrek egindako ahalegina, elkarrizketari eusteko. Bai batzuk eta bai besteak indargabetzen saiatu ziren

«iritzi publikoaren bitartez sustatzen den beste aldearen demonizazioa. Emakume palestinar eta israeldarren arteko elkarrizketa bultzatu dugu, bi aldeetako biktimen familiei doluminak eman dizkiegu telefonoz, eta atxilotu ere egin gaituzte, protestatzea ez baita adostasun nazionalaren barruan sartzen, eta irtenbide zuzena galdatu dugu, argi eta ozen.

(...) Iritzi ezberdinak eta eztabaidak egon arren, eta, askotan, gure elkarrizketak egoera mingarrietan gauzatzen baziren ere, beti izan gatzai leial guztiok bakearen kontzeptuari. Gure esku balego, aspaldi iritsiak ginatkeen gure bi estatuen arteko arazo korapilatsuak arautuko lituzkeen bake akordiora» (24).

---

(22) *Ibid.*, 98-99. or.

(23) *Ibid.*, 199-201 or.

(24) *Ibid.*

Oraindik lehenean eta mugitu ezinik jarraitzen duen egoera konplexu honetan, horrelako jarrerak ireki liezaiokete gatazkari irtenbidea.

«Palestina eta Israelgo emakume bakezaleen mugimenduak uste du iritsi dela unea odol isurketak amaitzeko. Iritsi da garaia gure armak eta beldurrak alde batera uzteko. Uko egiten diogu gure bizitzetan, gure erkidegoetan, gure nazioetan gerra gehiago onartzeari. Uko egiten diogu indarkeria onartzeari. Uko egiten diogu arerio izateari» (25).

## 4.5

### SEGURTASUN KONTSEILUAREN 1325 EBAZPENA

Nazioarteko komunitatearen babesa guztiz beharrezkoa da emakumearen ahotsa modu iraunkorrean isilarazten den eskualdeetan. Zeharkako aliantzak, gizarte maila eta nazioez gaindikoak, oinarritzko mugimenduetatik Nazio Batuen Agentzietara –eta alderantziz– doazenak, emakume prestigidunaren parte hartzea ahaztu gabe, erabakigarriak dira. Afganistango emakumeen kasua aipatu da, hainbat GKE eta Europarlamentuko kide buru zirela (Luisa Morgantini eta Emma Bonino, adibidez) aurrera eramandako ekimenak, talibanen erregimenaren pean emakumeek bizi zuten egoera latza jakinarazteko; badira beste asko ere.

Zentzu horretan urteetan egindako aliantzen harira lortutako arrakastak laburtzen ditu Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenak.

2000ko maiatzean, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Erakundeak, Amnesty Internationalek, Bakearen aldeko Hagako Deiak, Nazioarteko Alertak, Bakearen Ikerketarako Nazioarteko Erakundeak, eta Emakume eta ume iheslarientzako Emakumeen Batzordeak Emakumeak, Bakea eta Segurtasunari buruzko Lan Taldea izeneko GKEa sortu zuten (26). Talde horrek Emakumeen Aurrerapenerako Sailarekin (DAW) eta Nazio Batuetako Emakumeen Garapenerako Funtzarekin (UNIFEM) batu zituen indarrak; hala, eragina izatea lortu nahi zuten Segurtasun Kontseiluko kideengan, bake prozesuetan emakumeak izateak duen garrantzia azpimarratzen eta argudiatzen zuten txostenak eta dokumentazioa erabiliz. Segurtasun Kontseiluaren lehendakaritzan Namibia egoteak eta komunikabideen inplikazioak aukera zabaldu zuten Kontseiluak emakumeek bakearen eta gerraren inguruan zuten ikuspuntua jaso zezan.

(25) *Ibid.*

(26) Emakumeak, Bakea eta Segurtasunari buruzko Lan Taldearen inguruan (*Working Group on Women, Peace and Security*), ikus ondoko orrialdea: [www.peacewomen.org/un/ngo/wg.html](http://www.peacewomen.org/un/ngo/wg.html)

---

1325 Ebazpena onartzea une historikoa izan zen. Berrogeita hamar urteko historian, lehen aldiz, 2000ko urrian, Segurtasun Kontseiluak 1325 Ebazpena eztabaidatu eta onartu zuen. Berorren arabera, Idazkari Nagusiari eta Estatu kideei bakea eraikitzeko elkarrizketetan eta gatazka oste-ko berreraikitze prozesuetan emakumeak gehiago sartzeari aholkatzen zaie. 1325 Ebazpenak dei egiten die Segurtasun Kontseiluari, Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari, Estatu kideei eta gaine-rako alde guztiei (agentzia humanitarioak, militarrek, eta gizarte zibila) elkarrekin loturak dituzten lau alor ezberdinetan ekintzak susta ditzaten:

1. Emakumeen parte hartzea handitzea bake prozesuetan eta erabakiak hartzerakoan.
2. Bakeari eusteko entrenamendua generoaren ikuspuntutik.
3. Emakumeen babesa gatazka armatuetan eta gatazka osteko egoeretan.
4. Generoa trabeska sartzeari Nazio Batuen informazio sistematan eta datu bilketen korrante nagusian, eta baita programak praktikara eramaterakoan ere.

Ebazpen honetan, Segurtasun Kontseiluak ez du soilik onartzen «bakea gizon eta emakumeen arteko berdintasunari hertsiki lotuta dagoela», era berean onartzen du «behar-beharrezkoa dela emakumeak sartzeari eta parte-hartze osoa izatea botere egituretan, eta, emakumeak guztiz inplikatuta egotea bai gatazka konpontzeko eta prebenitzeko garaian eta bai bakearen eta segurtasunaren sustapen eta mantentze lanetan». Namibiako Atzerri Gaietarako Ministro eta Segurtasun Kontseiluko lehendakari Theo-Ben Gurirab doktoreak 1325 Ebazpena onartu zenean, ondorengo hau adierazi zuen: «emakumeak komunitate ororen erdia baldin badira... ez al lukete konponbide guztien erdia ere izan behar?» (27).

1325 Ebazpena da onartu zeneko urteurrena urtero ospatzen duen Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpen bakarra: Urtero, onartze data iristean, urrian, Segurtasun Kontseiluak mahai inguru ireki bat antolatzen du, eta Estatu kideak eta kide ez direnak, NBEko agentzietako ordezkariak eta eskualdeetako erakundeak gonbidatzen ditu, esandako ebazpeneari formulatutako gomendioak praktikara eramatean izandako aurrerapenak aztertzeko.

---

(27) REHN, E. eta SIRLEAF, E.J. (2002), 76. orrian aipatua.



## 5.

# *Bizitzaren iraunkortasunaren logika, mundu globalizatuan nagusi den logikaren ordera*

Bake egoera jakin bat edo bakeak egite hutsa baino haratago joz, bakearen aldeko emakume taldeak beste era bateko arrazionaltasuna ari dira erakusten eta erabakigarria izan daiteke hori planetak bizirik iraun dezan.

Indarkeriaren aurkako tradizio feminista gerraren arrazionaltasunaren aurkako emakumezko ekintzaile eta pentsatzaile bitxiz elikatu da: mundua konbentzitzen saiatu dira gerra zenbaterainoko erokeria den. Ondare hori guztia ez dago antolatutako taldeetan soilik, emakume askoren eguneroko zereginetan ere islatzen da, emakumeen dedikazioa ezinbestekoa baita bizitzaren iraunkortasunerako.

Ekonomia ikuspuntu zabalago batetik ikusteko asmotan garatutako pentsamendu feministaren eta ekologistaren arteko elkarrizketaren esparruan (28), Anna Bosch, Cristina Carrasco eta Elena Grau-k ondorengo hau dierazten dute, bi pentsamenduek planteatzen duten lehen topagune modura, hausnarketa eta ekintzarako oinarrizko lehen helburu modura: «Gizadiaren iraunkortasun soziala eta ekologikoa lortzea, hau da, ez bakarrik bizirik iraute huts gisa ulertuta (giza, gizarte eta ekologiaren ikuspegitik), baizik eta biztanleria guztiarentzat onargarriak izango diren bizi maila, bizitza eredu edo bizi kalitate gutxieneko batzuk bermatuz» (29). *Bizitzaren iraunkortasunaren* nozioak gizatasuna eta izadia uztartzen ditu, eta ez dago banatzerik parekotasun noziotik. Planetaren baliabide mugatuez neurritz kanpo baliatu zen ekonomia hazkunde itsua izan zen garapen iraunkorraren nozioa bultzatu zuena. Garapena ikusteko modu berri honek Lur planetako baliabideen mugak onartu egiten zituen, aintzat hartzen zituen Izadiko prozesuak, materiaren eta energiaren inguruko legeak eta, entropia legeen arabera, beroriek mantentzea edo hondatzea ahalbidetzen dutenak, jakinduria horretatik abiatuak pertsonen jokaerak baliabide naturalen erabilera burutsu eta kontrolatu baterantz orientatuz. Era berean, giza bizitzaren kasuan, iraunkortasunaren kontzeptua garapena ezin irauneko bihurtzen duten logikak –hondatzeko gaitasunaga-

---

(28) TELLO, Enric (2005) *La historia cuenta* liburuaren epilogoak. *Del crecimiento económico al desarrollo humano sostenible* Bartzelona, El Viejo Topo, 321-346.

(29) BOSCH, Anna; CARRASCO, Cristina eta GRAU, Elena (2005) «Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo», in TELLO, Enric, *La historia cuenta. Del crecimiento económico al desarrollo humano sostenible*, Bartzelona, El Viejo Topo, 321-346, 321 or.

---

tik eta itsukeriagatik– identifikatzen saiatzen da; baita hari eusten dioten eta aukera alternatiboak eratzten dituzten jokabideak ere. Ikuspuntu horretatik begiratuta, ikusten da bizitzaren iraupena segurutzat jotzen den munduko eskualdeetan, herrialde garatuetan, sortzen dela bizitzaren iraunkortasunari aurka egiten dion arrazionaltasuna, batez ere, gutxi garatutako herrialdeen aurka. Egungo munduaren egituraketa markatzen duten prozesuetan agintzen duen azpi logikak lehentasuna ematen dio metatze ekonomikoari. Ez da dagoen logika bakarra, badira taldeen jokaerak eta prozesuak gidatzen dituzten beste batzuk ere. Beste horiek, ordea, ikusezinak dira; indarrean dagoen arrazoiak eratzten duen errealitatearen ikuspuntuak haiak izango ez balira bezala jokatzen baitu.

Cristina Carrasco ekonomistak ondoko hau nabarmendu du bere lanetan: «giza bizitzaren iraunkortasunaren eta etekin ekonomikoaren artean, gure gizarte patriarkal kapitalistek bigarrena aukeratu dute. Horrek esan nahi du pertsonak ez direla lehentasunezko gizarte helburu, gizakia bera ez dela helburu, ekoizpenaren zerbitzuan daudela. Gizarte eta politika interesak ez dira bideratzen bizi kalitate hobea lortzera, ekoizpenaren hazkundera eta etekinak erdiestera baizik» (30). Egungo mundu globalizatuan nagusi den ekonomia metaketaren aurrean, hainbat emakumeren lanean eta munduko beste hainbat giza talderenean oinarritzen den bizitzaren iraunkortasunaren logika gero eta leku handiagoa hartzen ari da gizakiak bizirik irauteko beharrezkoa den alternatiba moduan.

---

(30) CARRASCO, C. (2001), 55. or.

## Bibliografía

- ANDERLINI, Sanam Naraghi (2000) *Women at the Peace Table. Making a Difference*, New York, The United Nations Development Fund for Women (UNIFEM).
- BARNES, Catherine (ed.) (2004) *Haciendo propio el proceso. Herritarren parte hartzea bake prozesuetan*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratzuz.
- BOGODO-MADIKIZELA, Pumla (2005) *Women's Contributions to South Africa's Truth and Reconciliation Commission*, Women Waging Peace, The Hunt Fund.
- BOSCH, Anna; CARRASCO, Cristina eta GRAU, Elena (2005) «Verde que te quiero violeta. Encuentros y desencuentros entre feminismo y ecologismo», in Enric Tello, *La historia cuenta. Del crecimiento económico al desarrollo humano sostenible*, Bartzelona, El Viejo Topo, 321-346.
- BUSSEY, Gertrude eta TIMS, Margaret (1980) *Pioneers for Peace. Women's International League for Peace and Freedom 1915-1965*, Oxford, Alden Press.
- CARRASCO, Cristina (2001) «La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres», *Mientras Tanto*, 82. zk., 2001, udazkena-negua, Icaria, 43-70. or.
- ELSHTAIN, Jean Bethke (1995) *Women and War*, Chicago, The University of Chicago Press.
- FARHAT-NASER, Sumaya (2006) *En la tierra de los olivos. Una historia de mujeres por la paz* (Gaztelaniara itzulpena eta hitzaurrea: Anna Tortajada). Bartzelona, El Aleph.
- GÓMEZ, Lourdes (2005) «Mo Mowlam, la ministra británica que consolidó la paz en Irlanda del Norte», *El País*, abuztuaren 20a, larunbata, 45. or.
- LIDDINGTON, Jill (1983) «La campaña de las mujeres por la paz. Historia de una lucha olvidada», in Dorothy Thompson (comp.) *Over our dead bodies*, Londres, Virago (Gaztelaniara itzulpena: Mireia Bofill, *Antes muertas. Mujeres contra el peligro nuclear*, Bartzelona, LaSal, 192-210. or.).
- MAGALLÓN PORTOLÉS, Carmen (2006) *Mujeres en pie de paz*. Madril, Siglo XXI.
- (2004) «Las mujeres como sujeto colectivo de construcción de paz», Bilbao, Bakeaz, Escuela de Paz.
- (1998) «Sostener la vida, producir la muerte: estereotipos de género y violencia», in Vicenç Fisas (ed.) *El sexo de la violencia*, Bartzelona, Icaria-Antrazyt, 93-116. or.
- MOWLAN, Marjorie (1983) "Combustible para la carrera del armamento nuclear. Energía nuclear y armas nucleares", in Dorothy Thompson (comp.) *Over our dead bodies*, Londres, Virago. (Gaztelaniara itzulpena: Mireia Bofill, *Antes muertas. Mujeres contra el peligro nuclear*, Bartzelona, LaSal, 192-210 eta 93-103. or.).

- 
- NASH, Mary (2004) *Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos*, Madril, Alianza.
- REHN, Elizabeth eta SIRLEAF, Ellen J. (2002) *Women War and Peace. The Independent Experts'Assesment on the Impact of Armed Conflict on Women and Women's Role in Peace-building*, New York, The United Nations Development Fund for Women (UNIFEM).
- SHIVA, Vandana (1995) *Abrazar la vida. Mujer, ecología y supervivencia*. (Gaztelaniara itzulpena: Ana Elena Guyer eta Beatriz Sosa). Madril, Horas y horas, 1995.
- TELLO, Enric (2005) *La historia cuenta. Del crecimiento económico al desarrollo humano sostenible*, Bartzelona, El Viejo Topo.
- VELLACOT, Jo (1993) «A Place for Pacifism and Transnationalism in Feminist Theory: the early work of the Women's International League for Peace and Freedom», *Women's History Review*, 2. lib., 1. zk., 23-56. or.
- WOOLF, Virginia (1938) *Tres Guineas*, Bartzelona, Lumen, 1977.

---

**MINODORA CLIVETI**

**Europako Kontseiluko Batzar  
Parlamentarioko Emakumeen  
eta Gizonen Aukera  
Berdintasunaren Batzordeko  
presidentea. Strasburgo**

*Gatazken*

*prebentzioa eta*

*konponketa:*

*nazioarteko*

*erakundeen*

*zeregina*



---

Atsegin handia da niretzat gatazken prebentzioan eta konponketan nazioarteko erakundeen zeregina azaltzea. Europako Kontseiluak, nazioarteko beste erakunde batzuek, eta Emakunde duten kezketako bat da. Ideien truke honi esker erronkak uler ditzagun eta, elkarrekin edo berezita, emakumeei gatazken prebentzioan eta konponketan duten eginkizuna aurrera eramaten utz diezaiegun espero dut.

Hasi aurretik, utziezadazue nire burua aurkezten. Errumaniako Parlamentuko diputatua naiz eta bertan, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren Batzordeko presidentea naiz. Halaber, Europako Kontseiluko Batzar Parlamentarioko ordezkartzako kidea naiz, Europako Kontseiluko beste 45 estatu kideetako parlamentariekin batera.

Batzar Parlamentarioan, edozer motako diskriminazioa eta horren ondorioak tratatzea helburu duen Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren Batzordeko presidentea naiz. 2006. urtea gizakien salerosketaren, eta bereziki, etxeko indarkeriaren aurkako borroka urtea izendatu zuten. Horiek ere gai kezagarriak dira guretzat.

Europako Kontseiluko Batzar Parlamentarioak arduratzen gaituen gaia eztabaidatu zuen 2004an: emakumeen zeregina gatazken prebentzioan eta konponketan. Batzarrak gai horren inguruan duen bozeramailea naiz, beraz, niretzat ohorea da Batzarrak eta Europako Kontseiluak egindako lana azaltzea. Gainera, horren inguruan nazioarteko gainerako erakundeen lana aurkezteko ere eskatu didate. Hortaz, Europako kontseiluak –3– gai horren inguruan egindako lana azaldu aurretik, Nazio Batuek –1– eta Europako Parlamentuak –2– hartutako erabaki nagusiak azaltzen saiatuko naiz.

1.

## *Nazio Batuen lana* *(1325 erabakia, emakumeei, bakeari* *eta segurtasunari buruzkoa)*

Nazio Batuek denbora luzea eman dute gatazka egoeretan emakumeen parte-hartzeaz eta eginkizunaz arduratzen. 1975eko abenduaren 15ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak emakumeek bakea eta nazioarteko segurtasuna sendotzeko egin dezaketen ekarpenari buruzko erabakia (3519) hartu zuen. 1982ko abenduaren 3ko 37/63 Adierazpenean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak nabarmendu zuen emakumeek bakearen eta nazioarteko lankidetzaren aldeko ekintzetan parte hartu behar dutela. Adierazpen horretako 12. atalean, batez ere, bakearen aldeko ahalginetan emakumeen partaidetza areagotzeko zer neurri zehatz hartu beharko lirartekeen aipatzen du.

NBEk babestu zuen 1995eko Pekingo Emakumeen Mundu Biltzarrean, ekintza programan hurrengo ageri zen: «gatazka armatuen eta terrorismoaren ondorioak komunitate bateko kide guztiek jasaten dituzten arren, emakumeei eta neskatxei eragiten die bereziki, gizartean duten tokiagatik

---

eta beren sexuagatik». Pekingo biltzarraz geroztik, munduko gatazka armatuen biktima nagusiak emakumeak direla nabarmentzen da.

Baina, batez ere, 2000ko urriaren 31ko Segurtasun Kontseiluaren erabaki batek, «Emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko 1325 erabakiak», jasotzen du Nazio Batuen konpromisoa. Erabaki horrek islatzen du NBEren nahia dela emakumeen ordezkariak handitzea nazioko, eskualdeko eta nazioarteko erakundeetako erabaki guztietan, eta baita gatazken prebentzioaren, kudeaketaren eta konponketaren mekanismoen esparruan ere.

Lehenengo aldiz, eta erabaki horren bidez, gatazka armatuek emakumeengan duten inpaktu neurrigabeari heldu dio Segurtasun Kontseiluak. Gainera, emakumeek gatazka saihesteko, bakea iraunarazteko, gatazka konpontzeko eta bakea lortzeko egiten duten ekarpena gutxietsi egiten dela onartu du, eta horri probetxu gutxi ateratzen zaiola. Kontseiluak berretsi zuen, bestalde, emakumeek eragile aktibo izan behar dutela bake eta segurtasun gaietan, gizonezkoek bezala.

Segurtasun Kontseiluak zenbait egiaztapen erabili zituen ondorio horietara heltzeko. Lehenengo, gatazka armatuen biktima nagusiak, baita errefuxiatu eta desplazatuak ere, zibilak direla egiaztatatu zuen, eta bereziki emakumeak eta umeak, borrokalari eta ekintzaile armatuek jomugatzat hartzen baitituzte. Hori ikusita, gatazka saihesteko eta konpontzeko erabakiak hartzean emakumeek parte hartu beharko luketela erabaki zuen Segurtasun Kontseiluak.

Lekuan bertan egindako operazioak zirenez, Segurtasun Kontseiluak bakea iraunarazteko operazioetan genero ikuspegia ezartzea urgentea zela estimatu zuen. Gainera, bakea iraunarazteko operazioez arduratzen direnek trebakuntza berezia izan beharko dute gatazka egoeretan emakumeek eta haurrek dituzten babes, behar berezi eta oinarritzko eskubideen premien arloan.

Segurtasun Kontseiluak adierazi zuen emakumeek bake prozesuan erabateko partaidetza izango balute, bakearen zein nazioarteko segurtasunaren iraupena eta sustapena erraztuko lirartekeela. Hortaz, errealitatea kontuan hartuz, Segurtasun Kontseiluak Nazio Batuetako estatu kideei zenbait eskaera formulatu zizkien.

Lehenik, Segurtasun Kontseiluak eskatu zien nazioko, eskualdeko eta nazioarteko erakunde zein mekanismoetako erabaki guztietan emakumeen ordezkariak handitzeko, gatazka saihesten, kudeatzen eta konpontzen esku har zezaten.

Bigarrenik, Segurtasun Kontseiluak NBEko idazkari nagusiari galdegin zion emakume ordezkari eta bitartekari gehiago izendatzea. Horrekin lotuta, estatu kideei eskatu zien idazkari nagusiari emakume hautagaiak proposatzeko, aldizka eguneratzen den zerrenda zentralizatu batean sartzeko.

Hirugarrenik, Segurtasun Kontseiluak idazkari nagusiari eskatu zion, era berean, Nazio Batuen operazioetan emakumeen rola eta ekarpena handitzeko, bereziki, ikuskatzaile militar, polizia zibileko kide, giza eskubideen aditu eta gizaldekoko lanetako partaide gisa.

Laugarrenik, Segurtasun Kontseiluak gatazka armatuetako alde guztiei zenbait eskaera egin zien. Horietako hiru aztertzea proposatzen dizuet.



---

Alde batetik, Segurtasun Kontseiluak, emakumeen, neskatoen eta zibilen eskubideekin eta babesarekin lotutako nazioarteko araudia erabat errespetatzeko eskatu zien, batez ere, 1949ko Genevako Hitzarmena eta 1977ko Protokolo Osagarriak.

Bestetik, gatazka armatuetako aldeei eskatu zien neurriak hartzeko emakumeak eta neskatoak generoari lotutako indarkeriazko ekintzetatik babestearren, bereziki, bortxaketetatik eta gainerako sexu-abusuetatik, zein gainerako indarkeriazko jardueretatik.

Azkenik, errefuxiatuen kanpalekuen eta kokalekuen izaera zibila eta humanitaria errespetatzeko eskatu zien, eta horiek diseinatzean eta eraikitzean emakumeen eta neskatoen behar bereziak kontuan izateko.

Gainera, Segurtasun Kontseiluak adierazi zuen prest zegoela bere misioetan genero gaiak eta emakumeen eskubideak kontuan hartzen direla ziurtatzeko eta, horretarako, tokiko eta nazioarteko emakumeen taldeei kontsulta egingo ziela.

Dena den, proposamen horiek egin arren, zoritxarrez emakumeek gizonezkoek baino ordezkari gutxiago dituzte; baita bakea iraunarazteko operazioen barnean ere. Unifemen (1) arabera, emakumeek polizia zibilaren %4,4 eta pertsonal militarren %1 dira. 2004ko ekainean, nazioarteko langile zibilen %27,5 ziren. Horrek esan nahi du 2002tik gehikuntza txiki bat gertatu dela, orduan %24 baitziren.

Gaur egun, munduan 27 bake operazio daude abian eta NBEko idazkari nagusiak emakume bakarra izendatu du operazio buru (Georgian UNOMIGekin (2)) eta bi emakumezko operazio buruzagiorde gisa (Afganistanen UNAMArekin (3) eta Kosovon UNMIKekin (4)).

Handik hilabetera, Europako Parlamentuak gaiari buruzko erabaki bat hartu zuen. Horregatik, Europako Parlamentuaren lana azalduko dut orain.

---

(1) [http://www.peacewomen.org/Website\\_French/pkwatch\\_pkindex.html](http://www.peacewomen.org/Website_French/pkwatch_pkindex.html); kontsultatu <http://www.womenwarpeace.org/ere>

(2) Nazio Batuen Georgiako Behatzaile Misioa.

(3) Nazio Batuen Afganistango Laguntza Misioa.

(4) Nazio Batuen Kosovoko Bitarteko Administrazioa.

## 2.

# *Europako Parlamentua* *(2000/2025 erabakia, emakumeek* *gatazkak bake bidez konpontzeko* *prozesuetan parte hartzeari buruzkoa)*

2000ko azaroaren 30ean, Europako Parlamentuak emakumeek gatazken bakezko konponbidean parte hartzeari buruzko erabakia (5) onartu zuen.

Europako Parlamentuak onartu zuen «egoera berezietan emakumeek indarra, erresistentzia eta malgutasuna dutela, abusuak onartzen dituztela, eta familiaren eta gizartearen aldeko ekimenak abian jartzeko prest daudela, eta hala, aldaketa positiboak sartzen dituztela». Baina, askotan, gatazka armatuak bukatzeko negoziazioetan eta ekintzetan parte hartzen dutenean, zeregin marjinala izaten dutela frogatu zen; Burundiko, Tadjikistaneko eta, duela gutxi, Kosovoko bake negoziazioetan gertatu zen bezala.

Europako Parlamentuak kontsideratu zuen emakumeek gatazketan erabakiak hartzeko, horiek prebenitzeko edo konpontzeko eskubide osoa dutela, bai eta bakezko ekimen denetan egiteko ere. Bakea iraunarazteko lanetan emakumeen presentzia 90eko hamarkada arte ez zela oso handia izan egiaztatu zuen, baina bakea iraunarazteko operazioetako lan zibiletan, militarretan edo polizialetan emakumeen partaidetzak tokiko komunitateekin harremanak hobetzea eragiten zuela, eta hori ezinbestekoa da bake iraunkorra ezartzerako orduan.

Gatazka armatuak saihesteko eta erregulatzeko nazioarteko jarduerak izanik, Europako Parlamentuak hiru esparru nagusi nabarmendu zituen.

Lehenik, emakumeek diplomaziaren eta berreraikuntzaren bitartez gatazkak konpontzeko edozer mailetako ekimenetan, baldintza berberetan, parte hartzearen alde dago Parlamentua. Hori dela eta, Europar Batasuneko estatu kideak premiau ditu zerbitzu diplomatikoetan emakumeek presentzia gehiago izatera. Halaber, diplomazia gorputzetako partaide diren emakumeek negoziazio, adiskidetze eta bitartekaritza gaietan trebakuntza izan dezatela eskatzen die, eta bake eta segurtasun misioetako emakume kualifikatuen zerrendak sortzeko galdegin. Azkenik, ordezkarietan emakume kopurua areagotzeko eskatzen die nazioko, eskualdeko eta nazioarteko bakeari eta segurtasunari buruzko bileretan eta bakearen inguruko negoziazio ofizialeetan parte har dezaten.

Europako Parlamentuak berresten du garrantzitsua dela estatuek parte hartzen duten bake, segurtasun eta berreraikitze operazioetan emakumeen eta gizonen beharrak kontuan izatea.

Era berean, nabarmentzen du egungo gatazkek krisia militarra ez den kudeaketa behar dutela, eta, beraz, bakea iraunarazteaz arduratzen diren pertsonen militarrek ez diren esparruetan gaitu-

---

(5) <http://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?sessionId=8A98234793CB3687909B58AFC785F863.node2?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P5-TA-2000-0541+0+DOC+XML+V0//FR>

ta egon behar dutela eta, hala, emakumeentzako aukera gehiago daude. Hortaz, estatu kideei eta Kontseiluari dei egiten die beharrezko neurriak hartzeko emakumeek adiskidetzarekin, bakea ezartzearekin, iraunaraztearekin eta errespetatzearekin zerikusia duten lan guztietan esku har dezaten, eta baita gatazkak saihesteko ekintzetan ere -ikerketa eta behaketa misioak barne.

2006. urtearen hasieran, Europako Parlamentuko Emakumearen Eskubideen eta Genero berdintasunaren Batzordeak «Emakumeak eta Gatazka Armatuak (6) topaketa publikoa antolatuzuen. Topaketan aditu gonbidatuek eta Europako diputatuek adierazi zuten emakumeek eta gizonezkoek baldintza berberetan parte hartu behar dutela gatazkak saihesteko eta konpontzeko prozesuetan, zein bakea bermatzeko prozesuetan. Dena den, nahiz eta Nazio Batuek eta Europako Parlamentuak zenbait erabaki hartu zituzten gatazkekin eta bakearekin lotutako politiketan emakumeen beharretan arreta gehiago jartzeko, Batzordeak ziurtatu zuen emakumeek baztertuta jarraitzen zutela bakea berreraikitze jardueretan.

**3.**

*Europako Kontseilua  
(gatazkek saihesteko, bakea eta ondorio  
prozesu demokratikoak iraunarazteko  
pertsonek eginkizunari buruzko MEG-5  
(2003) 4 Erabakia - genero ikuspegia;  
Batzar Parlamentarioaren 1385 (2004)  
Erabakia eta 1665 (2004) Gomendioa,  
honako gaiaren inguruan: «Gatazken  
prebentzioa eta konpontzea: emakumeen rola»)*

Europako Kontseiluak emakumea bakearen sektore gisa sustatzearen alde egiten du lan. 2003ko urtarrilaren 22an eta 23an Skopje Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Ministroen 5. Biltzarra egin zuten horren inguruan. Konferentziaren gai nagusia hurrengo izan zen: «Emakumeen zeregina demokratizazioan, gatazkak saihesten eta bakea iraunarazten». Ondorio gisa, «emakumeek eta gizonek gatazken saihestean, bakearen eraikuntzan eta gatazken ondorengo prozesu demokratikoetan duten zeregina» gaiaren inguruko erabakia hartu zuten mi-

---

(6) [http://www.europarl.europa.eu/news/public/story\\_page/014-5633-051-02-08-902-20060223STO05632-2006-20-02-2006/default\\_fr.htm](http://www.europarl.europa.eu/news/public/story_page/014-5633-051-02-08-902-20060223STO05632-2006-20-02-2006/default_fr.htm)

---

nistroek. Horren bidez, gobernuei eskatu zieten erabaki organo guztietan emakumeen erabateko partaidetza sustatzeko, batetik; eta, bestetik, gatazkak saihesteko eta konpontzeko jardueretan genero ikuspegiaren integrazioa bultzatzeko.

Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunaren Batzordeko bozeramaile gisa, hausnarketa bultzatu nuen eta, ondorioz, txosten bat egin genuen, eta erabaki bat eta gomendio bat onartu genituen, 2004ko ekainaren 23an. Erabakia Europako Kontseiluko 46 estatu kideei zuzenduta dago; gomendioko proposamenak, ordea, Europako Kontseiluko Ministro Batzordeari zuzentzen zaizkio. Txostena egin aurretiko eztabaidei esker, emakumeak paradoxa mingarri batean harrapatuta zeudela konturatu ginen: gatazketan biktima zibil nagusiak dira, askotan ez dute horiek saihesteko baliabiderik, horiek konpontzeko negoziazioetan ez zaie parte hartzen uzten, eta horien osteko berreraikitze- eta adiskidetze-prozesuetan zeregin marjinala ematen zaie. Indarkeriazko gatazken aurretik, bitartean eta ondoren, ez da emakumerik izaten exekuzio postuetan, beraz, biktima izatera indartzen da.

Emakumeek gatazkak saihesteko eta konpontzeko zeregin garrantzitsua izan dezaketela uste dugu. Era berean, gatazka baten ondoren berreraikitzen eta bakea iraunarazten lagun dezakete. Gatazka egoeretan emakumeei parte hartzen uztea beraien aurkako indarkeria (bortxaketa, behartutako haurdunaldia, sexu-esklabotasuna, etab.) saihesteko baliagarria izan daitekeela uste dugu.

Nahiz eta nazioarteko instituzioek erabakiak hartu, proposamenak eta gomendioak egin, eta gobernu kanpoko erakundeek presioa egin, Europak ezin izan du beti bermatu emakumeek eta gizonen berdintasunean parte hartzea gatazkak saihesteko ekimenetan, bake operazioetan eta gatazken ondoren bakea ezartzeko prozesuetan. Batez ere, gatazka armatuekin amaitzeko negoziazio eta ekimen diplomatikoetatik baztertzeko da emakumea, esaterako; Europako zenbait kasu aipatzearen, Kosovon eta Kaukaso hegoaldean gertatu zen bezala.

Beraz, nazioartean bakea eta segurtasuna babestea eta iraunaraztea ezinezkoa iruditzen zaigu, ez bada kontuan izaten gatazkek emakumeengan duten eragina, emakumeen segurtasuna bermatzeko neurriak hartzen ez badira eta emakumeei parte hartzeko baliabiderik ematen ez bazaie. Bake iraunkorra ezartzeko ezinbestekoa da emakumeek eta gizonen arteko partaidetza berbera izatea bake prozesuetan. Gainera, emakumeek gatazkak saihesteko beste ikuspuntu bat dute, herritarrengandik gertuagoko ikuspegia. Gure iritziz, Europako herrialdeek neurriak eta ekimenak abian jarri behar dituzte gatazkak saihestearekin eta gatazken ondoren bakea iraunaraztearekin lotutako gai guztietan emakumeen zeregina bultzatzeko.

Hori dela-eta, Batzar Parlamentarioak 1385 Erabakian (2004) Europako Kontseiluko estatu kideetako gobernuei eta parlamentuei eskatzen die gatazkak saihesteko, konpontzeko eta horien ondorengo egoerarako neurri zehatzak hartzeko.

Erabakiak emakume bake-eragileei buruzko puntu garrantzitsuak ditu, eta ordena kronologikoan aztertuko ditut.

Lehenik, niretzat beharrezkoa da Batzarrak estatuei gatazkak prebenitzeko neurriak hartzera bultzatzea.

---

Emakumeei, bakarka edo taldean, gatazka guneetan jarduteko eta gatazkek saihesteko estrategien alde egiteko baliabideak eman behar zaizkie. Era berean, beharrezkoa da eskualdean, herrialdean eta nazioartean gatazkek saihesteko postuetan emakumeen presentzia bultzatzea. Bakeari eta segurtasunari buruzko eskualdeko, herrialdeko eta nazioarteko bileretako eta bake negoziazio ofizialetako ordezkarietan emakumeen partaidetza areagotu behar da.

Gizarteak bakearekiko errespetua gara dezan, beharrezkoa da eskoletako eta trebakuntzako programa guztietan «bakerako heziketa» lantzea, lehen hezkuntzatik hasi eta lanbide-heziketaraino. Txikitatik heztea helduaroan garatzen diren jokabideak hobetzeko faktorea dela ez da behar beste nabarmentzen.

Ondoren, gatazkek konpontzeko estatuek har ditzaketen neurriak aipatuko ditut.

Batzarrak bakearen alde lan egiten duten emakumezkoen taldeei eta elkarteei sistematikoki kontsultatzeko eskatu die estatuei, bakerako biltzar nagusietan eta bake prozesu ofizialetan horien arazoak eta lehentasunak kontuan izan ditzatela bermatzeko.

Estatuek, halaber, bake operazioetako arlo eta maila guztietan, genero ikuspegiarekin lotutako gaietarako adituak izan beharko dituzte, esaterako, azterketa teknikoetarako, metodo operatiboak diseinatzeko, trebakuntzarako, langileak kontratatzeke eta programetarako.

Estatuek neurriak hartu beharko dituzte bake-misioetan, gatazkek konpontzen eta bakea iraurazteko operazioetan bitartekari lanak egin behar dituzten emakumeak prestatzeko.

Estatuek emakumezko langileen segurtasuna bermatu beharko dute, indar polizialen bitartez, etxeko indarkeriatik eta sexu-indarkeriatik babesteko.

Estatuek bermatu behar dute gatazka guneetan gizakien salerosketaren aurkako neurriak hartzea bake zein segurtasun ekimenen parte izango dela eta, horrez gain, emakumeen behar konkrituak kontuan izango dituztela.

Lekuz aldatutako eta errefuxiatutako emakumeak izanik, antolatzeke, kudeatzeko eta erabakiak hartzeko funtzio garrantzitsua izateko aukera eman behar zaie; hala, beren interesak kontuan izango dituzte esparru guztietan, batez ere baliabideen banaketan, segurtasunean eta babesean. Gatazka armatuan bortxaketak edota sexu-indarkeria jasan badituzte, aldi baterako errefuxiatu estatusa eman beharko litzaieke, gutxienez.

Halaber, gizarte zibilarengana jotzen dugu; izan ere, estatuek GKEak gonbidatu beharko dituzte gizaldekoko laguntza programak diseinatzera eta aplikatzera.

Azkenik, Batzarrak nabarmentzen du emakumeek rol handia dutela jokatzeko gatazka ondorengo egoeretan.

Batzarrak eskatzen du, gatazkaren ondorengo berreraikuntzari dagokionez, ur eta elikagai horniketa, saneamendu, osasun eta energia gaietako zerbitzu publikoei lehentasuna ematen dieten politika makroekonomikoak aplikatzeko. Izan ere, eguneroko bizitzarako eta komunitateetarako ezinbestekoak dira, eta komunitate horien barruan emakumeek ordainik gabeko lanak egiten dituzte. Batzarrak eskatzen du premiazko egoeretan eta berreraikitze garaian norbait kontratatzean, gatazkek kaltetu dituen emakumeei lehentasuna emateko.

---

Gatazkaren ondorengo berreraikitze fasean, emakumeen eskubide sozio-ekonomikoak bermatu beharko dira, baita enplegu, jabetza eta oinordekotza gaietan ere.

Garrantzitsua iruditzen zait emakumeek gerran izandako zauriak eta traumatismoak osatzeko laguntza medikoa izatea, baita bortxaketa baten ondorioz haurrak izan dituztenei edota bortxaketa jasateagatik familiak zein komunitateak bortxatu dituen emakumeei espezialisten laguntza ematea ere.

Adibide bat ematearren, Medica Zenicak heziketa-zentro bat ireki zuen Bosnia-Herzegovinan, gerraren eraginez eskola utzi zuten eta indarkeriaren biktima ziren emakumeentzat eta neskatxentzat. Emakume eta neska horiek laguntza pertsonalizatua dute. Gainera, aurrerago bigarren mailako ikasketak edo lanbide-heziketa egiteko aukera ematen zaie. Gaur arratsaldean, gerraren biktima diren emakumeei laguntzeko har daitezkeen beste neurri batzuk aztertuko ditugu.

«Zuzenbidera jotzeko aukera» atala ere oso garrantzitsua iruditzen zait gatazken ondorengo egoeretan. Errudunak salatzea errazten du, baita gerrako krimenen biktimak juridikoki kontuan izatea ere. Horretarako, estatuek laguntza juridiko eta sozial berezia eman beharko diete gerrako krimenen erantzuleen eta gatazkaren bitartean edo ondoren gertatutako oinarritzko eskubideen urraketan erantzuleen inguruko informazioa eman dezaketen emakumeei, jarduera judizialak abian jarri ahal izateko.

Emakumeek gizaldekoko laguntza (aldebikoa edo multilateral) jaso dezaten ahalegindu beharko gara.

Indarkeriaren gainerako biktimekin egiten den bezala, gatazka armatu baten ondorioz bortxaketak edo bestelako sexu-indarkeria jasan duten emakumeei aldi baterako egoitza-baimena eman behar zaiela uste dut.

Batzarrak 1665 (2004) gomendioaren bidez, Ministroen Batzordeari eskaera zehatzak egin zizkion, emakumeek gatazka prebenitzeko eta konpontzeko zuten eginkizunaren inguruan. Gatazka saihesteko eta konpontzeko emakumeek egindako kulturen arteko, mugaz gaindiko eta eskualdeko ekimenak bultzatzea eta babestea gomendatzen dio. Gomendio horri erantzuteko, Ministroen Batzordeak espezialisten talde bat osatu zuen, aztertzeko zein eginkizun duten emakumeek eta gizonek gatazka saihesteko eta bakea eta demokrazia iraunarazteko kulturen eta erlijioen arteko elkarrizketan. Aditu taldearen funtzioa zen, besteak beste, emakumeek gatazka saihesteko eta konpontzeko egindako ekimenetan izandako jardunbide egokiak jasotzea. Espezialista talde horretako kide naiz, eta hartu ditugun erabakiak eta gure eztabaidak zuen lanerako iturri berriak izatea espero dut.

Bakearen aldeko eragile naizenez, gainerako hitzaldiak entzuteko irrikan nago, emakumeen eginkizunaren adibide zehatzak baitira.

Eskerrik asko jarritako arretagatik.

---

**OLGA LUCÍA RAMÍREZ**  
"Emakume ibilbide Baketsua".  
Kolonbia

*Emakume*  
*kolonbiarrok,*  
*gatazka*  
*armatuen*  
*erdian, bakea*  
*ehuntzen dugu*





Lagun maiteok:

Eskerrak eman nahi dizkiot EMAKUNDEri, Kolonbiako Emakumeen Ibilbide Baketsuaren izenean, «Emakumeak bakeak egiten» SARE 2006 Nazioarteko Biltzar garrantzitsu honetara gonbidatzeagatik.

Guretzat oso garrantzitsua da, hainbat aspektutan gurearen antzeko egoeran dauden beste emakume batzuen esperientziak, ikuspegiak eta perspektibak ezagutzea; eta garrantzitsua da giza-diarentzat ezinbestekoa den erronkari, Bakea eraikitzeari, nolabait ere, erantzuten ari garelako.

Agian, proposatzen zaizkigun arazoak ondorengo hauetan labur daitezke: zer paper jokatzan dute emakumeek gatazka armatuetan nahastutako egoeretan? Zer jarrera dute terrorismoarekiko, bai legez kanpoko taldeen edo estatu-terrorismoaren aurrean?

Uste dut, lehen esan bezala, parekotasun handiak daudela zuen eta gure artean, egoera, jarrera, ikuspuntu eta egiten ditugun galderei dagokienez; Hala ere, aitortu behar da testuinguruak oso bestelakoak direla, eta horregatik gure erantzunak Kolonbiako testuinguruan kokatuko ditut. Argi utzi nahi dut, dena dela, nazioarteko perspektiba duten lanak ere garatzen direla gure testuinguruan, eta hori lagungarri gertatuko dela uste dut ematen ditudan erantzunak edo deskribatzen ditudan egoerak zuen esperientzian oihartzuna izan dezaten eta elkar aberasteko baliagarri gerta daitezzen, interes handia baitugu zuen iruzkinetan eta guztion arteko elkarrizketaren garapenean.

1.

## *Kolonbiaren testuinguruko zenbait elementu aipagarri*

Kolonbiako emakumeen Ibilbide Baketsua duela hamar urte jaio zen, herrialdeko hainbat eskualdetako emakumeen erantzun espontaneo gisa, elkartasuna agertu nahi izan baitzitzairen Uraban, Kolonbiaren iparraldean, talde paramilitarrek bortxatutako emakume indigenei. Beste leku batzuetan ere egin ditu mobilizazioak Ibilbideak: Granadan, adibidez, Antiokiako departamenduan, non inguru guztia suntsitu eta herritarrei sufrimendu handia eragin zien gerrillaren okupazioa gertatu baitzen; edo Putumayo departamenduan, non, urteko zenbait sasoitan, eguneroko bizitza paralizatua geratzen baita gerrillaren eta paramilitar edo armadaren arteko borroken gordintasunagatik. Hala, bada, Ibilbide Baketsua hango eta hemengo emakumeei laguntasuna ematen saiatu da, emakumeak baitira, hain zuzen, urtean 17.000 kolonbiar inguru hiltzen jarraitzen duen (32.000 ziren, orain bost urte) indarkeria itsu eta ankerraren biktima nagusiak; 3.5 milioi pertsona inguruk utzi behar izan dute ohiko bizilekua, eta horietatik %60, gutxienez, emakumeak dira. Kolonbia da munduko hirugarren herrialdea lekualdatu kopuruari dagokionez, Sudanen atzetik. Gainera, beste errekor triste baten jabe ere bada Kolonbia: pertsonen kontrako mina kopururik handiena du. Joan zen urriaren lauan Espainiako telebistan emandako dokumental batek Putumayo eskualdean ehortzitako gorpu hondakinak lurpetik ateratzeko prozesu motelaren berri ematen zuen; Aditzera ematen zenez, paramilitarrek sarraskitutako 15.000 pertsona inguru daude han ehortzita. Horri gehitu behar zaio herrialdeak kritikak jasotzen jarraitzen duela, baita

---

AEBen partetik ere, giza eskubideak etengabe urratzen direlako (sindikalisten erahilketak, desagertzeak, epaiz kanpoko hilarazteak) eta familia barruko indarkeria kasuak eta haurren sexu-abusuak asko ugaltu direlako.

Bestalde, gauza ezaguna da droga eta gai psikoaktiboen eskaera bortitza egiten zaiola Kolonbiari, AEBetatik eta Europatik, bereziki. Narkotrafikoaren negozioak diru kopuru erraldoiak mugitzen ditu gaur egun: munduko negozioirik errentagarrienetakoa dela esan daiteke. Talde armatuek kontrolatzen dute, paramilitarismoarekin, batik bat, edota armada berarekin lotura duten taldeek. Dena den, gerrillaren diru iturri garrantzitsuena ere narkotrafikoa da. Faktore horrek are gehiago korapilatzen du Kolonbiako egoera eta egon litezkeen konponbideak, arrazoi politikoak ez ezik, handinahikeria edota indar armatuetan agintzeko irrika ere tartean sartzen baitira. Ustelkeria eta neurrigabekeria morala dira jaun eta jabe, nolabaiteko kaos instituzionalaren erdian. Nola hitz egin daiteke legez eta estatu-ordenaz, Gotzain Batzarraren arabera, 4.000.000 hektarea lur 800.000 familiari indarrez kendu zaizkienean, zigorgabetasun osoan; milaka pertsona (gehienak zibilak eta babesgabeak, umeak, zaharrak, e.a.) modurik ankerrenetan sarraskitu dituztenean eta halako basakeriak egin dituztenak zigorrik gabe jarraitzen baldin badute? Arazo honen inguruan esan behar da mafiak geroz eta aginpide handiagoa duela. Hain zuzen ere, horixe da herri honen desfiorik gogorrena, eta horri ez bazaio argi eta tinko aurre egiten, ez da burugabekeria pentsatzea Kolonbia narkodemokrazia bihurtzeko arriskuan dagoela. Egoera honen erdian, emakumeen kontrako indarkeria gero eta larriagoa da. Medellinen bakarrik, 17 bortxaketa salatzen dira egunero.

Oro har, ikus dezakezuenetz, Kolonbiako emakumeen erronka, gatazkei dagokienez, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula eta, beharbada, egoeraren larritasunak berak ohiz kanpoko erantzunak eragin ditu, orain erakutsi nahi dizuedan bezala.

## 2.

# *Emakumeen presentzia Kolonbiako gatazken aurrean*

Kolonbiako emakume-erakundeen garapena eta gaur egun duten protagonismo politikoa ezin pentsatzukoa zen duela hamarraldi gutxi batzuk. Halaxe da, emakumeok, une honetan, Kolonbiako errealitatearen hainbat aspektutako erreferentzia puntu gara:

- Zuzenean parte hartuz sostengatzen ditugu herrialdeko bigarren gerrilla inportanteenaren eta gobernu nazionalaren arteko gaur egungo elkarrizketak.
- Paper garrantzitsua jokatzen dugu, gizarte indar gisa, herrialdeko gerrillarik indartsuenaren (FARC) eta gobernuaren arteko negoziazio politikoaren alde. Emakumeok, zalantzarik gabe, garrantzi handiko rola jokatu dugu segur aski berehala gauzatuko diren truke humanitarioetan eta FARCEk negoziazio politikoan parte hartzeko hartutako erabakian. Lozadak esan

duenez –PCren bozeramailea eta FARCon konfiantzako gizona– «jende guztia nazkatuta dago gerraz».-Argentina, Txile eta Kolonbiako esperientziei begiratuta, garrantzi handikoak iruditzen zaizkidan bi elementu aipatu nahi nituzke:

- Argentinako «Maiatzeko Plazako Ama» edo «Maiatzeko Plazako Zoro» ospetsuek, Medellingo Kandelariako Amek eta, oro har, Kolonbian bahitu eta desagertutakoen amek oso paper garrantzitsua jokatu dute, eta jokatzeko jarraitzen dute, hemen eta han, testuinguruaren arabera: Argentinako kasuan, zuzenbide estatuaren defentsa eta eskaera egin dute eta, ondorioz, epaiketa zuzenak eta egia osoa jakin arte ikerketan jarraitzea, giza eskubideak urratu dituzten militarrengaino heltzeko. Jakinaren gainean gaude zer bide gogorra eraman duten emakume horiek, zer nolako jazarpenak jasan dituzten eta nola, urteak joan eta urteak etorri, gogortasun militarren eta hitzarmen sekretuen harresi itxuraz gaindiezinak, pixkanaka eta iraunkortasunez, zulatzen jarraitu duten. Gaur, gertakariak jazo zirenetik hogeitaka urte igaro ostean, Argentinan eta Txilen giza eskubideen kontzientzia handiagoa eta zainketa arretatsuagoa dago. Bi ezaugarri azpimarratzen ditut emakume horien gainean: Elkartasuna beren seme-alabenganako maitasunaren edo oinazearen aurrean, eta iraunkortasuna. Kolonbiako kasuan, ez dago zalantzarik desagertu eta bahitutakoen amen aldarrikapenek pisu berezia izan dutela berehala gertatzeko itxaropena dugun zerbituetan. Uste dugu truke humanitario bat egingo dela laster, kartzelan dauden hainbat gerrillari (500 aipatzen dira) kaleratuko dituen. Kolonbiako kartzelatan presoak pilaturik bizi dira, oso baldintza txarretan, nahikoa elikagai gabe eta mota guztietako barne ustelkerien mende; gerrillari horien trukean, bahitutako 60 bat pertsona askatuko lirateke, horietako batzuk oihanean 9 urte daramatzatenak. Pertsona horiek (soldaduak, ofizialak, diputatuak, presidentetarako hautagai ohi bat eta herritar arruntak), gerrillak bidalitako bideoetan ikus daitekeen bezala, osasun egoera txarrean daude, elikagai gutxirekin eta, armadaren jazarpena dela eta, etengabe hara edo hona lekualdatzera behartuta. Egoera horrek, jakina, egundoko oinazea eragiten die amei eta elkartasun sentimendua pizten du herrialde osoan, zeina, faktore politiko bihurturik, presio ia saihestezina baita, hala gobernuarentzat nola gerrillarentzat. Herritarren presio horren dimentsio politikoa are handiagoa da ohartzen baldin bagara, Kolonbian gertatu berri direnek berresten duten bezala, esandako trukaketa humanitarioa gobernuaren eta herrialdeko gerrilla garrantzitsuenaren arteko negoziazio politikoaren hasiera besterik ez dela.

Estatuak publikoki eta nazioarte mailan onartu behar izan ditu –OEAKo Giza Eskubideen Epaitegi Interamerikarraren aurrean, adibidez– Kolonbian gertatutako hainbat sarraskitan izandako erantzukizunak: Trujillon, Mapiripanen, eta Villa Tinan, esate baterako. Hori ez zatekeen lortuko Fabiola Lalinde andrea bezalako pertsonen iraunkortasun berebizikorik gabe. Armadak erail eta ezkutuan ehortzitako gazte baten ama da Fabiola andrea; emakume honek konta ezin ahala irain, mespretxu eta jazarpen nozitu zituen, gau eta egun Brigada militar baten aurrean eserita, jaramonik egin nahi ez ziotenen aurrean; azkenean, hainbat urteren buruan, lortu zuen bere semearen hitza aurkitzea eta gertatutakoa argitzea. Milaka kasu aipa nitzake hemen emakumeen heroismoaren, iraunkortasunaren eta nekazintasunaren erakuskari; eleberri epiko osoak elika ditzaketen giza balio goreneko hainbat adibide. Hona bat, esate baterako: Barrancabermejako 50 emaku-

mek astebete egin zuten beren jabetzako etxe batean, nahiz eta paramilitarrek etxea berehala entregatzeko eskatzen zieten. Kolonbiako hainbat tokitan, baita hirietan ere, zigorgabetasun osoz jabetzen dira paramilitarrak bai jendearen lurrez eta bai etxez. Aipatzekoa da, orobat, Kolonbia erdia zeharkatuz eta, behar zenean oihanean sartuz, bahitutakoen amek egindako bidaiak, FARCEko agintariei beren seme-alaben askatasuna eskatzeko. Baina ez dut denbora soberan eta labur dezadan esan nahi dudana:

Emakume bezala bake eraikuntza prozesuetan nahasteko eta murgiltzeko ditugun arrazoi edo motibazioengatik galdetuta, hauxe erantzungo nuke: elkartasunagatik, maitasunagatik, gerrako biktimen errukiagatik, lekualdatutako emakumeen sufrimendu ikaragarriengatik, bortxatutako emakumeen oinazearengatik, tratu txarrak jasotako emagalduegatik, sarrasketatik bizirik atera direnengatik, etxeko ardua astuna daramaten emakumeengatik, isiliarazi, kolpekatu, saldu eta esploatatu dituzten emakumeengatik mobilizatu eta antolatu gara, horiek guziengatik inplikatu gara Kolonbiako emakumeok Bakea eraikitzeke prozesuetan.

### 3.

## *Lanerako estrategiak*

Emakumeek erabilitako estrategien inguruan, berriz, hona nire iritzia:

Galderan iradokitzen den bezala, Kolonbiako testuingurua izan da, batik bat, ekintza txikietatik ekintza publikoetara jauzi egitera behartu gaituena. Egin dezagun galdera beste modu batera. Zer nolako eraldaketak eskatzen ditu Kolonbiako gizarteak eta estatuak, gerra iraunkorrerako orain ditugun joerak aldatu eta, batasunerako eta bakerako joera bihurtzeko?

Gauza nabaria da, Kolonbian, gerra, indarkeria, intolerantzia politikoa eta narkotrafikoari hain estu lotutako ustelkeria, beste guztiak estaltzen edo txikiagotzen dituzten arazo larriak direla. Arazo horietan eraginik izango bada, helburu politikoak, ekintza publikoak, mobilizazioak behar dira. Era berean, guztiz premiazkoa da gai publikoetan parte hartzeko eskubidea bere gain hartzen duen gizarte zibil arduratsua eratzea. Estatuak, bere aldetik, eraginkorra izaten ahalegindu behar du emakumeen, lekualdatuen eta gerrako biktimen aldeko politikak garatu eta praktikatzekoan. Behin eta berriro saiatu beharko du armagabetzea gauza dadin, eta Bakerako estatu politika abian jarri edo indartu beharko du, gatazka armatuen arteko negoziazio politikoaren emaitza gisa; Gizarte zibil honek Kolonbiako politikan modu esanguratsuan eragitea lortu du; hala, beraren eraginari zor zaizkio ezkerreko alderdiek aurreko hauteskundeetan izandako emaitza ikusgarriak eta FARCEkin truke humanitarioak gauzatzeko eta negoziazio politikoak hasteko oraingo erabakiak. Estatuaren eraginkortasun ezaren aurrean, gizarte zibilak antolatu behar izan du gizarteko hainbat premiari erantzuteko. Kolonbian, esate baterako, lekualdatuei dagokienez, askoz gehiago egin du gizarte zibil nazionalak estatuak baino: hor ditugu Eliza, tokiko GKEak, lekualdatuen senitartekoak, fundazio eta elkarte zibil edo erlijiosoak, sindikatuak, pertsona partikularrak eta zenbait enpresa pribatu; nazioarteko laguntzak ere ez dira ahaztekoak: AEB edo Europako estatuak, NBE-ACNUR, nazioarteko GKEak, eliza edota emakumeen nazioarteko erakundeak. Horiek guztiek, esan dudana bezala, estatu kolonbiarrak baino gehiago egin dute lekualdatuei me-

---

rezi duten arreta eta hainbat laguntza emateko: ostatua, elikagaiak, heziketa, produkzio berri alternatiboak, laguntasuna, lurak berreskuratzeko eta kalte-ordainak jaso ahal izateko aholkulartza, eta egin zaien bidegabekeriak ezagutzera emateko eta epaitzeko eskubidea aldarrikatzen laguntzea.

Emakumeok, bada, ez gara antolatzen gerraren kontra eta Bakearen alde bakarrik. Produktorako ere antolatu eta gaitu beharra daukagu, nekazaritza-abeltzaintzarako, adibidez, landa giroko hainbat emakume erakunderekin egiten dugun bezala; edo, hiri inguruneetan, jantzigintza, eskulangintza, landutako elikagai eta hainbat enpresa txikiren produkzio lanetarako; edo osasun zerbitzuak kudeatzeko edo abian jartzeko, hezkuntzarako, seme-alaben zaintzarako, edo, besterik gabe, elkarri entzuteko, elkarri laguntzeko eta estatuak askotan axola gabe jokatzeko duen premiei nola erantzun erabakitzeke.

Nire iritzian, zenbait emakume-erakunde ongi garatzeko edo politikan eta gizartean eragina izateko funtsezko faktoreetako bat «konfiantza sortzea» deituko niokeena izan da. Konfiantza oinarritzakoa da prozesu sozial edo instituzional bat ongi garatuko bada; Bakerako faktorea da, polarizazioan, zatiketean, gerran murgildutako herrialde batean. Konfiantza zatiketa ideologikoen kontrako antidotoa ere bada, eta esan behar da, askotan, gizabanakoaren aginte-gose antzua baizik ez dela ezkututzen zatiketa horien atzean. Konfiantza, beraz, koherentzia, pertsona guztienganakoa errespetua eta lanerako konpromisoa, oinarritzakoa izan dira gizartean eta politikan eragina izateko, lehen esan dudana bezala, edo heriotzaren indarrak gerarazi eta Bakearen aldeko indarrei atea irekitzeko.

Baina bada beste lorpen bat, ukiezina baina guretzat berebiziko garrantzia duena: zapalduak, pobretuak, irainduak izan diren hainbat emakumek, gurekin lan-harremanetan denboraldi bat eman ondoren, zoriontsu sentitzen direla adierazten dute, pertsona bezala errespetatuak sentitzen direlako, beste gabe. Adibide horrekin adierazi nahi izan dut gure lanak dimentsio kulturala ere baduela; hau da, guztiaren gainetik hitza eta errespetua nagusi izango diren kultura sortzearen alde egin behar dugu.

Iruditzen zait zuek eta guk elkarbanatzen dugun helburua dela hori; beharrezkoa da gizakia erdigune izango duen kultura eraikitzea; hitzaren eta errespetuaren kultura, hitzarena eta maitasunarena. Ez da asto-indarra izango –eta gutxiago geroz eta sarraski handiagoak eragiteko gai diren arma hilgarriak– gure seme-alabentzako etorkizun baketsu eta zoriontsua eraikitzea ahalbidetuko diguna; aldiz, gizarte harreman berriek, baztertuen premiei eskaintzen zaien arreta estruktural eta eraginkorrak, hutsegiteak zintzoki aitortzeak eta beroriei aurre egiteko jarrerak eta lanak bakarrik ekarriko digu hori. Kolonbian negoziazio politikoaren alde indarra egiten dugunean, esaten ari gara gizatiarragoa dela hitza erabiliz arazoak konpontzen saiatzea, gerraren bitartez ebazten ahalegintzea baino. Eta hitz horiek berdin zuzentzen dizkiogu estatuari nola gerrillari. Esperientziaz dakigu indarkeriak indarkeria gehiago sortzen duela; badakigu errepresio-politikak, arazoan muinera jo ezean, ez duela eraginik izaten.

Azkenik, lorpenak eta zailtasunak aipatu nahi ditut.

#### 4.

## *Lorpenak*

Aurretik esan dudan bezala, Kolonbiak sasoi itxaropentsua bizi du, historikoa izan daitekeena Konstituzio berri bat gauzatzen baldin bada, gure Lehendakariak aipatu bezala, gerrilla eta talde paramilitar guztiak, behin armak alde batera utzita, partaide direla. Lehendakaria mintzatu da gerrillak Kongresuan ordezkariak izateaz ere, eta, oro har, behatzaile guztiek aitortu duten bezala, estatua oso modu garrantzitsuan ireki da eta prest agertu da gerrillak bere garaian aurkeztutako puntu guztiak (10 inguru) eztabaidatzeko. Hona puntu horietako batzuk: Nekazaritza erreforma, Energia politika, Biktimen eskubideak aitortzea. Horrek guztiak, jakina, negoziazio estruktural bihurtzen ditu konstituziogintzako negoziazioak, gerrillak beti eskatu izan duen bezala eta hainbat enpresa sektore garrantzitsuk eta hiritarrek ulertzen duten bezala, beste zenbait adostasunen artean, ohartzen baitira beharrezkoa dela erreforma sakonak egitea estatuan eta lurren jabetzan edo usufuktuan.

Beste era batean esanda, gerrillaren hainbat helburu eta arrazoi historiko ez dira jada zalantzan jartzen, ezta sektore kapitalistetan ere, esan dudan bezala; aukera dago, beraz, adostasun nazional zabal baten fruitu izan behar duen konstituziogintza aro serio bat irekitzeko, Kolonbia berri baten oinarriak behin-betiko ezarriko dituen. Horixe da, bestalde, munduari egin diezaioketuen ekarpen onena.

Uste dugu, enpresa sektorean, garatzen ari dela Kolonbian –ez zailtasunik gabe, egia esan–, enpresa, unibertitate pribatu eta gremioen artean joera berri bat, Gizarte Erantzukizuna seriotasun handiagoz bere gain hartzen duena. Sektore horiek oinarrizko aliatu potentzialak dira Bake politikak garapen ona izan dezan eta emakumeen erakundeok hainbat mailatako harremanak izan ditugu beroriekin.

Nire iritzian, adierazgarriena zera izan da, kolonbiar herriak bakea lor daitekeen kontzientzia handiagoa duela eta bakearen lorpena jotzen duela esku artean dugun lehen eginkizuntzat. Nire ustez lorpen horixe da –kontuan izan behar da Uribe Lehendakariaren Segurtasun Politika demokratikoaren indarraldi militarra goren puntuan zegoela ere, iritzi publikoaren erdia, gutxienez, negoziatio politikoaren alde egon zela beti–, kontzientzia horixe, ez hain autoritarioa eta primarioa, gogoetatsuagoa eta gizatiarragoa, eraikitzaileagoa eta helduagoa, gure irabazirik handiena. Irabazi handi hori, esan bezala, Iraken inbasioaren ondoren munduan abian jarritako higikunde handi horretan dugun parte-hartzea da; orduantxe atera zen argitara indarkeria ezak eta bakezaletasunak, indarraren eta gorrotoaren ordezt hitza eta maitasuna erabiltzeak gizadiaren kontzientzia jaio berri baina geroz eta indartsuagoan hartu zuen garrantzi politiko eta kulturala.

## 5.

## *Zailtasunak*

Zailtasun asko daude, baina garrantzitsuenak baizik ez ditut hartuko ahotan:

Kolonbiako testuinguruan ikusten dudan lehen zailtasuna bide militarren erabilera da, arerioa ezabatzea, bakea lortzeko ustezko bitarteko modura. Bestalde, gure kultura politikoari atxikitako beste hainbat zailtasun ditugu: Batasuna eraikitzeko zailtasuna, taldean lan egitekoa, ahaleginak artikulatzekoa, gizarte diziplina falta, lanerako konpromisorik eza, guztiak ere gabezia larriak taldean eta elkarrekin lan egin behar denean. Era berean, arazo hori –inkomunikazio arazoa, nolabait esanda, diferentziak behar bezala ez kudeatzearena, besteak deskalifikatzeko joera edo sekta-espiritua– Bakearen aldeko mugimenduak ere nozitzen du. Horren guztiaren ordean, bada, «harreman etika», «hitzaren etika» ezarri nahi genuke. Bakeak beste hainbat ahalegin ere eskatzen baitu: besteei buruzko juzku azkarrak gainditzea, bestearen autoritatea aitortzea, besteari entzutearen edota gauzak aurpegira esatearen zailtasunak garaitzea.

Aurrez esandako horrek arazo estrukturalagoa dakar berarekin. Esango nuke erakundeen arteko desartikulazioa, estatu bereko erakundeen artekoa, politiken jarraitasun falta, gizarte arazo larria dela, erakundeen arteko artikulaziorik gabe ezinezkoa baita borondate politikoa deitzen diogun hori taxutzea, eta are gutxiago borondate nazionala. Iragartzen den konstituziogintza aroak nazio borondate hori eratzeko eta gauzatzeko aukera eskaintzen du, gure historian zikoizkeria politikoaren eraginez hainbat aldiz zapuztua izan den horixe bera, hain zuzen ere, interes partikular edo talde jakin batzuei mesede egitea bilatu delako, herritar gehienek borondatearen kontra.

Azkenik, arazo estruktural handienetakoa, nire ustez, handinahikeria da, dirua jainkotzat hartzea. Kolonbian, hainbat bake prozesu oztopatu eta leherrarazi dituzte Bake ordezkariaren batek –Oto Morales Benítez doktoreak– «bakearen ezkutuko etsaiak» izendatu dituen horiek: Gerrarekin negoziatzen dutenez ari gara, gerra aberasteko erabiltzen dutenez: arma industria –nazio barrukoa eta nazioartekoa–, lurra lapurtzen dituztenak, militar ustelduak eta mafia, azken honi ez baitzaio komeni Kolonbian guztien partaidetza duina bermatuko duen ordena ezartzea. Hortxe daude zailtasun handienak, metatutako aberastasunak utzi nahi ez izatean, aberastasun iturrien kontrola –narkotrafikoarena, adibidez– galdu nahi ez izatean. Luis Jorge Garay kolonbiar analistak dioenez, «mafiaren kultura» ari da nagusitzen Kolonbian, diru errazarena, ustelkeriarena, zigorgabetasunarena, emakumeak bortxatzearena, aberastasun-nabarmenkeriarena, hainbat herritar muturreko pobrezia egoeran dagoen bitartean. Zailtasun hori, bestalde, guztiok partekatzen dugun zerbait da, kontsumoko gizarte hauxe baita –errazkeria, errealitateak aurkezten dizkigun zailtasunei aurre egiteko gaitasunik eza– haztea eragozten diguna, gizarte gisa jauzi kualitatiboa egitea oztopatzen diguna.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkizuet gonbidatu izanagatik eta berriro esan nahi dizuet, llibidibide Baketsuaren izenean, prest gaudela mahai gainean ipini zaizkigun arazo garrantzitsu hauei buruz gure iritziak eta esperientziak zuekin trukatzeko.

Eskerrik asko.





---

**DEBBY LEHMAN**

**"Bat Shalom" Beltzez  
Jantzitako Emakumeak.  
Israel**

*Europako  
gizarte zibila  
eta Israel -  
Palestina  
gatazka*



---

Palestinaren eta Israelen arteko gatazka ez da Israelgo existentziari buruzkoa. Gatazkaren muina beste bat da: Israelek 1967ko gudatik okupatzen eta ustiatzen dituen Palestinako lur eta baliabideen auzia.

Palestinaren gaineko kontrol osoa izateko eta bertako herriaren erresistentzia amaitzeko Palestina gutzitxikitu du Israelek: hiriak, herriak, olibondo sailak, erietxeak, eskolak... birrindu ditu. Horrez gain, dozenaka buruzgai politiko hil ditu.

Azken finean, Palestinaren azpiegitura ekonomiko, sozial, politiko eta fisiko osoa birrindu du Israelek.

Israelgo mugetako eremuetan garbiketa etnikoa burutzeko funtsezkoa den *apartheid*aren murrua ere eraiki dugu israeldarrok. Horretarako, lurak lapurtu ditugu, hiri eta herriak harresi izugarri altuekin itxi ditugu, eta ia 400.000 palestinar bizirauteko bitarteko gabe utzi ditugu.

Palestinako Estatua sortzeko funtzeskoa den Palestinako Aginte Nazionalaren oinarria birrindu dugu, eta egoera kaotikoa sortu.

Libanoko bigarren gudaren ostean Ekialde Hurbilean dagoen armadarik indartsu eta garrantzitsuenak burutu du suntsiketa.

Armada sofisticatua dugu, txikitzeko hegazkinak, helikopteroak, tankeak eta bonbak erabiltzen dituenak, baita gure seme-alaben eskuak ere. Albistegietan ikusten dituzuen soldaduak ez dira soldadu israeldar hutsak guretzat: gure seme-alabak dira, gure lagunak seme-alabak, gure auzotarrak. Gure seme-alabak gerrako kriminal bihurtu ditugu.

Palestina eta elkar bizitzan oinarritutako balizko etorkizun bat birrintzen ari garen aldi berean, gure gizartea eta etorkizuna birrintzen ari gara.

Gizatasuna eta balioak galdu dituen gizarte bortitz eta militarista batean bizi gara.

Israelgo gizartea militarrek gidatutako gizarte militarista da: armada da Israelgo erakunde garrantzitsu eta boteretsuena, eta berak erabaki, definitu eta gauzatzen du herrialdeko politika. Porrot militarrik nabariak izan arren -Libanoko bigarren guda da adibide garbiena-, sistema militarrek egonkor irautea lortzen du. Aldiz, sistema politikoa gradualki erortzen ari da.

Israelgo gizartea odolusten ari da egun, barne gatazka sozial, ekonomiko, etniko eta erlijiosoaren eraginez. Israelgo gizartearen militarizazioak are eta larriagoak bihurtzen ditu gatazka horiek. Izan ere, herrialdeko baliabideen zati handi bat okupazioari eusteko, kokalekuak eraikitzeko eta Palestina etengabe presiopean izateko erabiltzen dira, eta ez Israelgo gizartaren beharrei erantzuteko.

Zazpi milioi biztanleko herrialde txikia da Israel -horietatik bost milioi eta erdi juduak dira-, eta inguruan 200 milioi arabiar bizi dira, ia guztiak musulmanak. Israelek, baina, mundu musulmanaren aurkari bezala definitu du bere burua. Horrela ezinezkoa da bizirautea. Palestina salbatzea Israel salbatzea da.

Egunotan, 2006ko azaroan, kanpaina handi batean bildu gara bakearen aldeko Israelgo erakunde gehienak. Asmoa Gazaren aurkako jazarpenarekin amaitzea eta Israeli Palestinako ordezkari legitimoarekin negoziazioak hasteko eskatzea da. Israelgo zein nazioarteko iritzi publikoaren aurrean, hurrengo dio Gazaren aurkako jazarpenaren kontrako koalizioak:

«Gazako giza hondamendia larrialdi mailara iritsi da: ura, elektrizitatea eta medikamentuak ez dira nahikoak, gosea, txirotasuna eta langabezia orokorrak dira, eta eskolak zein beste hainbat zerbitzu ez daude martxan. Horrez gain, Israelgo armadaren bonbardaketak eta erasoak etengabeak dira. Israelek Gazaren aurka burututako jazarpena eta nazioarteko komunitateak ezarritako zigorrak dira arazoa. Gainera, zigorren ondorioak are eta larriagoak bihurtzen ari dira Israelgo Armadaren (IDF) erasoen ondorioz. Jazarpenak aurrera jarraitzen badu, gaixotasunak, gosea eta anarkia areagotu egingo dira. Baldintza horietan negoziazioak ezinezkoak izango dira. Eta ezin dugu ahaztu negoziazioa dela bi herrien arteko bakea lortzeko bide bakarra.

Israelgo buruzagiei Gazaren aurkako jazarpenarekin eta gerrarekin bukatzeko eskatzen diegu. Munduko buruzagiei, berriz, Palestinaren aurkako zigor politiko eta ekonomikoak bertan behera uzteko eskatzen diegu.

Jazapenak eta zigorrak kaosa eta heriotza eragiten dituzte Gazan. Biekin amaitu beharra dago».

Egoera politiko honetan, aski da esaten du Israelgo bakearen aldeko mugimenduak zein bakearen aldeko emakumeen mugimenduak. Azken finean, hildako eta zauritu hauen guztien ostean, suntsiketa eta kaos honen guztiaren ostean, Israelek bidezko bake bat negoziatu beharko du herri palestinarrekin. Zergatik ordaindu behar dugu horrelako prezio altua? Zergatik jarraitu behar dugu gure etorkizuna birrintzen? Negoziatu dezagun bakea oraintxe bertan. Guztiak ari gara okupazioaren ondorioz hiltzen. Palestinarrak hiltzen ari gara, baina gu ere etengabe ari gara hiltzen. Gure eskaerak oso argiak dira:

- Okupazioaren amaiera.
  - Palestinako Estatua sortzea 1967ko mugak errespetatuz.
  - Jerusalem Israelgo eta Palestinako hiriburu partekatua izatea.
  - 1948ko errefuxiatu palestinarrentzat irtenbidea bilatzea, eta Israelek onartzea errefuxiatuen arazoa sortu zuela eta bere erantzukizuna dela arazoari konponbidea ematea.
  - Israelen justizia soziala eta barne demokrazia ezartzea, bereziki Israelgo herritar palestinarrentzat.
  - Emakumeak eta gizarte zibilak bake negoziazioetan eta erabaki politikoetan parte hartzea.
- Aipatutakoa da palestinarrentzat zein israeldarrentzat etorkizun bat eraikitzeko oinarria. Hori da gure borroka, hori da Israelgo bake mugimenduaren borroka, bereziki emakumeen mugimendua.

---

**AMAL BARGHOUTH**  
"Jerusalem Center For  
Women". Ekialdeko Jerusalem

*Bakearen  
inguruko  
emakumeen  
ikuspuntua  
Palestinan:  
erronkak eta  
helburuak*



---

Literatura feministak eremu pertsonala esparru politikoan sartzen dela adierazi izan du. Cynthia Enloe-k garatu zuen kontzeptu hau bere *Bananas, Beaches and Bases* liburuan. Bertan, autoreak argi eta garbi adierazten du esparru politikoak, mamu nazionalaz gain, nazioarteko mamua ere jasotzen duela. Botereak, edo era desberdinean erabilitako botereak, gure harreman guztiak gidatzen ditu, maila pribatutik hasi eta maila nazionalera zein nazioarteko mailara arte.

Palestinako lurraldeetan Israelgo okupazio militarri bukaera jartzeko hainbat hamarkadatan borroka nazionalarekiko konpromisoa izan duten Palestinako emakumeek Israelgo kolonialismoaren eta genero-indarkeriaren arteko lotura argia dela uste dute. Okupazioak Palestinako komunitatearen aurka entitate lez erabilitako botereak, aipatutako komunitatea ohitura tradizionaletan eta sistema patriarkalean babesa hartzera bultzatzen du existentzia kolektiboa babesteko. Egoera horretan, emakumeak sektore sozial ahulenak dira, boterea kentzen baitiete, eta babestuko dituen legeko estalkirik gabe segurtasunik ez baitaukate. Gainera, arau tradizionalen eta sistema tribala-remuaren barruan, emakumeen berdintasunerako eskubidea erabat ukatzen da.

Era berean, emakumeak okupazioaren prozeduren biktima zuzenak izan dira. Israelgo soldaduek Palestinako emakumeak erail eta atxilotu dituzte. Palestinako emakume batek baino gehiagok erditu izan du bere zigorgelan, gutxiengo osasun zerbitzurik eta giza eskubide oinarrikoenik gabe. Israelgo okupazioaren prozedurak ez ziren Osloko Akordioen edota Palestinako Aginte Nazionalaren ezarpenaren ondoren ere gelditu; era berean, israeldarrek palestinarren bizitza eta ekonomia hondatzeko politika sistematikoarekin jarraitu dute. Palestinarrei baliabide ekonomikoak kentzearen ondorioz, emakumeek presio handiagoa jasan behar izan dute. Palestinako lurraldeetan eraikitako Israelgo apartheid horma beste oztopo bat da bizitzako maila guztietan parte hartu nahi duten emakumeentzat. Hesi patriarkalak gainditzea lortzen duten emakumeek eta neskek horiarekin egiten dute topo, eta hura gainditzea are zailagoa da. Hori horrela izanik, Israelgo okupazioa nire herrialdeko emakumeek aurrera egiteko duten blokeoaren adierazgarri da behin eta berriz. Okupazioak sistema tradizionalak eta tribalak hedatzera, Palestinako gizartea menderatzen duten legeak ezartzera eta komunitate kontserbadorea izatera bultzatzen duela esan beharrik ere ez dago.

Komunitate kontserbadorean, bidegabekeria argia gertatzen da botere banaketari dagokionez; emakumeak sare sozialaren segmentu ahulena dira. Beste puntu oso garrantzitsua ondokoa da: Palestinako korrante politiko islamikoaren garapenarekin, sistema patriarkala eta egitura tradizionala indartu egin dira. Hainbat berdintasun daude diskurtso tradizionalaren eta islamikoaren artean. Korrante politiko islamikoaren oratoriak oratoria patriarkal tradizionala babesten du; horrek generoaren araberrako ardurabanaketaren estereotipoa ezartzen du.

Beijingeko konferentzian eta horri loturiko nazioarteko hitzarmenetan (CEDAW Emakumeekiko Diskriminazioa Ezabatzeko NBEren Batzordea, Nazio Batuen 1325 Ebazpena) oinarritutako emakumeen diskurtso aurrerakoia (soziala, kulturala eta politikoa) garatzeko emakumeen mugimenduak ahaleginak egin arren, aurrerapena blokeatzen duten hainbat oztopo daude. Palestinako egoera politikoak eta Israelgo okupazio militarrik palestinarrei ezartzen dien kanpo presioa dira emakume mugimenduak dituen oztopo garrantzitsuenak.

---

Emakumeak Israelgo okupazioaren ondorio zuzenak eta zeharkakoak jasaten ari dira, okupazioaren prozeduren biktima zuzenak baitira. Gainera, arazo horren zeharkako ondorioetako bat genero-indarkeria da, txirotasuna eta langabezia hedatzen diren heinean gehitzen baita. Era berean, nazio osoa mehatxuaren menpe bizi denez, klase sozial bakoitzak (gainontzeko klaseekin batera) bere identitate propioa babesteko borrokatzen du; hortaz, zer esanik ere ez dago Palestinan, emakumeak, atalik ahulenak direla.

Egoera honen analisiaren esparruan, emakumeen mugimenduak Palestinan badaki gatazka konpontzeko oinarria erabateko adiskidetzea izan beharko litzatekeela; gatazkaren sustraiak artatzen dituen adiskidetzea, ez emaitzak (batzuk) soilik artatzen dituena. Hortaz, Palestinako emakumeen mugimenduaren hasierako helburua Jerusalem Link-en (Jerusalemgo Lotura) bidez Bakearen Aldeko Emakumeen Nazioarteko Batzordearen (IWC) barruan Israelgo emakume aurrerakoien mugimendurekin elkarrizketa hastea zen. Israelgo emakumeen mugimendurekin elkarrizketa izatearen helburua nazioarteko botere aurrerakoiak engaiatzea zen, bai eta bi gizarteetako botere aurrerakoiak ere; eskualdean garatzen ari zen gatazkari konponbidea emateko asmoz. Horrela, IWCren printzipioen barnean zera proposatu zen: ez zela adiskidetzetik egongo bi estatuentzako konponbidea mugarriztat hartzen ez zen bitartean. Aipatzekoa da, era berean, gatazkak iraun egingo duela palestinarrek 1967ko ekainaren 4ko mugen barruan estatu independentea izateko eskubidea lortzen ez badute.

Gatazkak konpontzeko negoziazioetan emakumeak parte hartzeko eskatzen duen Nazio Batuen 1325 Ebazpenak IWCren joera eta estrategia ere babesten ditu. Emakumeek edozein gatazkatik kanpoko bizitza iraunkorra lortzen laguntzeko gaitasuna nazioartean onartzearen adierazten du Nazio Batuen 1325 Ebazpenak. Beraz, Palestinako emakumeen mugimenduaren sektore handi batek aukera hori Palestinako eta Israelgo emakumeen parte-hartzea bultzatzeko erabili behar dela uste du bi herrialdeetako gatazka konpontzeko; izan ere, emakumeek bake integrala osatzeko gaitasun handiagoa dute. Aurreko hamarkadan emakumeek bi nazioen arteko bake-elkarrizketetan parte hartu izan balute, lortutako bake-akordioak hobeto egituratuta egongo zirela eta palestinarren eta israeldarren arteko gatazkan bidezko adiskidetzea lortua izango zela uste da.

Puntu honetan, emakumeek bakea lortzeko duten ikuspegia bi nazioen artean konfiantza eratzeko beharrean oinarritzen dela aipatu beharra dago, baita nazioarteko giza eskubideetan eta nazioarteko oinordetza aurrerakoian oinarritutako hainbat baloreren eta ekintzaren garapenean ere, bereziki besteak eta oposizioaren iritzia errespetatuz.

Lehenago bizi izandako esperientziak bi alderdien arteko borrokaren emaitza bi gizarteen hondamena izan dela erakusten du argi eta garbi, bai eta haietako herritarrena ere.

Emakume bezala gure energia eta baliabideak bi herrialdeen artean beste negoziazio eta elkarrizketa modeloa osatzeko erabiltzen ditugu; horrela, gure seme-alabentzat eta etorkizuneko belaunaldientzat etorkizun hobea lortzeko lan egin dezakegula frogatu dezakegu. Okupazioaren ondorioz izan den odol-isurtzea bukatu beharrean gaudela uste dugu, eta hori alderdi bien arteko elkarrizketa zuzenarekin eta ausartarekin soilik lortu ahal izango da. Bi alderdietako giza eskubideak errespetatzen diren egoera lortzeko eta bi estatuetako pertsona guztientzat bizitza duina ber-



---

matzeko eskutik helduta lan egin dezakegula uste dugu. Bakean eraikitako erabateko adiskidetasuna bilatzen dugu eta ez dugu zatikatutako bakea onartuko, estrategia horrek porrot egin baitu. Gainera, Palestinan okupazioa bukatzen ez bada, maila sozialean aurrerapena lortzeko beharrik ez dagoela uste duenik ere bada.

Palestinako oraintsuko gertaerekin gauzak oraindik gehiago hondatu dira, hauteskundeetako emaitzak direla eta palestinarrei nazioarte mailan ezarritako zigorren ondorioz. Nazioarteko zigorrek Palestinako korrante politiko islamikoak sendotu egin dituzte. Hori horrela izanik, emakumeei oraindik ere presio handiagoa inposatu zaie, gizartearen islamisazio prozesuak jarraitu egingo baitu eta diskurtso tradizionala indartu egingo baita. Era berean, Palestinako bizitza ekonomikoa hondatzerakoan, emakumeei inongo zalantzarik gabe modu negatiboan eragingo dien hainbat fenomeno izango dira. Horietariko bat genero-indarkeria izango da, eta langabeziarekin eta txirotasunarekin gehitu egingo da, gainera.

Horretarako, beharrezkoa da berehala lanean hastea, israeldarren eta palestinarren arteko gatazkari konponbide zehatza aurkitzeko; palestinarrei eskubide nazionalak ematean oinarritzen den konponbidea aurkitzeko, hain justu. Proposatzen den edozer konponbide alde biko negoziazioen bidez lortuko da, eta ez alde bakarreko prozeduren bidez. Alde bakarreko prozedurek porrot egin zutela erakutsi zuten israeldarrek Gazatik alde egin baina inguruan jarraitu zutenean; oraindik ere palestinarrek erasotzen eta inbaditzen jarraitzen dute noizean behin. Komunitatearen barne egiturari lan egiteko eta espazio egokia bilatzeko nahi dugu konpondu gatazka; helburua giza eskubideen, eta, bereziki, emakumeen errespetuan oinarritutako komunitatea sortzea da. Hala, aukera hau aprobeztatu nahiko nuke nazioarteko komunitateari palestinarrek salbatzen behar diren parte har dezan eskatzeko, bai eta nazioarteko komunitateak berak onartutako eskubide nazionalak nabarmentzeko ere. Eskatzen dugun bakarra zera da, palestinarren eskubide nazionalak aitortzen dituen nazioarteko mandataria ezartzea.



---

**ANN HOPE**

**"Ipar Irlandako Emakumeen  
Koalizioa". Ipar Irlanda**

*Politika eta  
gatazka: genero  
ikuspegia  
kontuan izatea  
bakterako  
agendan*



### 1.

Zortzi urte igaro dira Ostiral Santuko Akordioa sinatu zutenetik eta 12 IRAk lehen su-etena iragarri zuenetik, eta oraindik ere Ipar Irlandako oreka politikoa lortzea zail samarra dirudi. Ipar Irlandako Asanblada, 1998an sortua, 2002 urteaz geroztik etenda dago, nahiz eta 2003an hauteskundeak egin zituzten berriro abian jartzeko ahaleginetan. Oraindik ere, ordea, epe luzeko konponbidea aurkitzeko itxaropena badago, erakunde politikoen inguruan Ipar Irlandako alderdi politikoekin duela gutxi Britainiako eta Irlandako Gobernuak izan dituzten elkarrizketen harira. Alderdiek azaroaren 10era arteko epea dute proposamen berriak beren kideei «saltzeko», eta, arrakasta izanez gero, Asanblada datorren urteko martxoan berrezarriko dute. Akordioa lortzeko bidean egon daitekeen porrotak Westminsterreko Gobernuaren administrazioaren agindupean jarraitzea esan nahiko du.

Gaur egungo egoera ez da 1998ko apirileko Akordio historikoa ekarri zuten bake negoziazioak bezalakoa. Haren ondorioz, tokiko Asanbladak aukera izan zuen Ipar Irlandako Gobernuaren kontrola hartzeko. Une hartan, Ipar Irlandako Emakumeen Koalizioak une historikoa bizi izan zuen; izan ere, bere ordezkaria beste zazpi alderdi politikoetako buruzagien artean eta Britainia Handiko zein Irlandako Lehen ministroen artean Akordioa sinatu zuen emakume bakarra izan zen. Aurretik, hogeita hamar urtez, gatazka armatua egon zen. Ez da aurkezpen honen asmoa gatazkari buruzko xehetasunetan sartzea, baina esan beharra dago, batzuk Irlandaren independentziaren aldeko borrokaren jarraipen gisa ikusi zutela, eta, ondorioz, Erresuma Batuen barruan jarraitu nahi zutenak erabat aurka agertu zirela. Gobernu unionistak bere eskakizunei emandako ezezko erantzunaren aurrean, herritar katolikoek, nazionalistek zein errepublikarrek bultzatutako eskubide zibilen aldeko mugimendu bakezalearen porrotak bizirik zirauen; baita protestante lealisten eta Gobernuko indarren aldetik etorritako indarkeria handitzearen aurrean ere.

Horren guztiaren ondorioz, hogeita hamar urte baino gehiagoz, emakumezkoen eta gizonezkoen eguneroko bizitza indarkeria politikoak, militarrek eta komunitarioak menperatu zuten. Gertakari horiek jazotzeko modua, dena den, dezente aldatu zen, eta, horrelako gertaera gordin baten aurrean generoak garrantzirik gabea dirudien arren, gizonezkoen zein emakumezkoen esperientzia oso desberdina izan zen. Urte horietan indarkeria politikoaren ondorioz hil ziren hiru mila eta bostehun pertsonatik gehienak, %91, gizonezkoak ziren. Milaka pertsonak, bi sexuetoakoak, beren sendeen heriotza goiztiarra pairatu behar izan zuten, eta fisikoki zein psikologikoki eragina jasan zutenen senitartekoak betiko aldatu ziren. Hala, 1994an behin-behineko IRAk eta Talde Lealista Konbinatuak iragarritako su-etenak lasaitasun handia ekarri zuen, une erabakigarria izan baitzen.

## 2.

### *Emakumeak gatazkan*

Hogeita hamar urteko gatazkak eragina izan du Ipar Irlandako emakumeen esperientzian, eta, gizonak bezalaxe, zatituta egon dira politika arloan eta konstituzioarekiko jarreran. Bi aldeetako emakumeek beren hitza eman zuten gatazkan, eta batzuk armak hartu zituzten helburu politikoen alde borroka egiteko. Generoa ez zen bateratzeko faktorea izan, eztabaida politikoa etengabeko indarkeriaren eta nortasun nazionalari buruzko iritzi kontrajarrien erdian egin zen bitartean, eta, emakumeek, gizonak bezalaxe, borrokaren bide desberdinak ordezkatu zituztenez, batzuk indar militarren partaide izan ziren, beste batzuk kartzelan egon ziren, beste batzuk manifestazioetan parte hartu zuten eta kanpaina politikoetan egin zuten lan. Baina gehienez, emakume «normalak» ziren, aparteko garaiak bizitzen ari ziren emakumeak. Kontrolatzen ez zituzten egoeren erdian harrapatuta zeuden, eta hogeigarren mendearen amaierako hamarkadetan sortutako emakume taldeek, zentroek eta sareek erakutsi zuten emakumeek, eta batez ere langile mailakoek, zer neurritaraino bilatu zuten beste emakume batzuen laguntza.

## 3.

### *Emakumeen gizarte-taldeak*

Asko idatzi izan da emakumeek Ipar Irlandan beren munduari elkartuta eusteko eta gizarte zibila babesteko hogeita hamar urteetan egin duten lanari buruz. 80ko eta 90eko hamarkadako gertakari interesgarrietako bat emakumeak gizartean izan duen lekuaren gorakada izan zen. Horretarako, ezinbestekoak izan ziren gizarte-taldeak; izan ere, emakumeak bertan elkartzen ziren esperientziak eta baliabideak trukatzeko, elkarri babesa emateko, erabaki politikoak hartzen zituztenei presioa egiteko eta elkarteari buruzagitza emateko. Energia eta dinamismo horrek indarra hartu zuen alderdi handiak politikatik aldendu ostean; izan ere, 1968an eskubide zibilen aldeko mugimendua azalduta, konstituzioaren inguruko gaiez kezkatzen hasi ziren gainerakoa albo batera utzita. Asko, erdi mailako gizarte-mailetan, beren eremu pribatuetara itzuli ziren, jarduera politikoa alde batera utzita, baita gizarte zibilarri inolako jaramonik egin gabe ere. Aitzitik, hirietako langile guneeetan bizi ziren emakume asko, pobrezia eta bazterketari, eskola porrotari zein sektarismoari aurre egiteko, politikan parte hartzen hasi ziren. Gizarteko emakume taldeek emakumeak biltzeko leku segurua eskaini zuten, batez ere, indarkeria politikoak zartatutako inguruetan, eta, talde protestanteak katolikoak baino beranduago sartu ziren arren, langileen auzo gehienek joan den mendearen amaieran emakumeen gune eta sare sutsuak zituzten. Badaude azterketak (1) emakume sektore horren laguntza paregabea agerian uzten dutenak: gizarte-laguntza, osa-

---

(1) Taillon, Ruth, *The Social and Economic Impact of Women's Centres in Greater Belfast*, Belfast: Women's Support Network, 2000

---

sun- eta ongizate-zerbitzuak, eskolak, haurren zaintza, politiken garapena eta gatazkak zein eskasia sozialak eta ekonomikoak eragindako gizarteari elkartuta eusterakoan izan duten garrantzia. Jarduera horiek eta parte-hartzaileen konpromisoak indarkeria-mugimenduaren eragin txarretako batzuk leundu zituzten, emandako zerbitzu garrantzitsuez gain, emakumeek, prozesuen bidez, euren bazterketa murriztuta.

Hasieran taldeek euren herrietan egiten zuten lan, katolikoek eta protestanteek artean zubirik erai ki gabe. Baina taldekako mugez gain, bazegoen lankidetzaren neurri txikian, besteak beste, Belfasteko Udalak katolikoek gunean zegoen emakume zentro bati diru-laguntza kendu zion. Belfasten beste aldeko emakume protestanteek protestan parte hartu zuten, eta, hala, genero gai bati lehentasuna ematen ziotela erakutsi zuten, errotutako nortasunen aurrean. Elkartasun keinu horretatik Emakumeen Babeserako Sarea sortu zuten; Belfasteko protestanteen eta katolikoek emakume-zentro guztiak ordezkatzen dituen erakundea, hain zuzen ere.

Baina poliki-poliki komunitateen arteko ekintza gehiago egiten hasi ziren emakumeek hitzaldietan eta mintegietan elkartuta, gatazkan dagoen gizartearen emakumeen esperientziak bizitzeko. Nahiz eta bilera horretako partaide ziren emakumeen iturburu politikoak desberdinak izan, pobrezia, marjinazioa eta bazterkeriaren inguruko bakoitzaren esperientzian zentratu ziren. Hala, gizartearen arteko jarduera gune bakarra sortzea lortu zuten gai sozialetan eta ekonomikoetan, eta hori egitean «aliantza praktikoak» sortu zituzten, susmoak eta mesfidantza atzera uzteko. Itun horiek eta beste ekimen batzuk gune bat sortu zuten emakumeek boterearekin eta erabakiak hartzearekin zuten harremanaz hitz egiteko, eta 90eko hamarkadatik emakumeek beren kezka adierazi zuten, politika mundutik kanpo utziak izan zirelako eta bake prozesuan bazterkeria horrek zuen eragin txarragatik. Erljio eta joera politiko desberdineko emakumeek elkarrekin lan egiten hasi ziren bake ekimenetan inplikazio garrantzitsua eskatzen zuten gaietan; bereziki, 1994ko su-etenetik hasi eta 1996ko alderdi anitzeko elkarriketen garaira arte.

#### 4.

### *Opsahl batzordea*

Helburu komun hori Opsahl batzordeak ordezkatu zuen, eta 1992 eta 1993 artean Ipar Irlandako gizabanakoei eta taldeei etorkizun politikoari buruz galdegin zien. Batzordeak ordura arte Ipar Irlandan egin zuten kontsulta-prozesurik zehatzena azaldu zuen, eta kaleko jendea aukera eman zion prozesu politikoan bere burua inplikatzen eta gatazkari amaiera emateko balizko konponbideei buruz iritzia emateko. Aukera handia izan zen, normalean gai horietaz hitz egiteko aukerarik izaten ez duten emakumeek hitz egin zezaten.

Emakume talde eta erakundeek batzordeari erantzun ona eman zioten, Ipar Irlanda guztian barrena egin ziren ahozko saioetan eta lan-taldeetan parte hartuta eta gehien eragiten ziren gatazkaren inguruko proposamen andana eginda. Beren adierazpenetan, ezintasunaren zati handi bat eguneroko politikaren inguruan zegoen eztabaida ezari egotzi zioten. Bazirudien gai horiek, beren bizitzan funtsezkoak zirenak, alde batera utzi zituztela, edo politikarientzat garrantzi gutxiak zirela. Emakumeek argi utzi zuten horiek ez zirela kezkatzen zituzten gai bakarrak, baina berez ba-

ziren –eta badira– garrantzitsuak, eta prozesu politikoarekiko konpromisoan sarrera gune bat zen. Emakumeen proposamenetako asko etorkizunarekin lotuta zeuden, batez ere, seme-alaben etorkizunarekin. Kontu horiekin, beren taldeak, tokiko taldeak, edo emakume taldeak, boluntarioak eta beste gizarte-ekintzaile batzuk konpromisoa hartuta zuten; ez, ordea, konstituzioaren aldeko politikariek. Beren proposamenek, gainera, argi erakutsi zuten Ipar Irlandako politika konstituzionalak, bereziki emakumeentzat, marjinaziorako bide ematen zuela eta boterea galarazten zietela. Emakumeen kezka-iturri ziren gai agenda zabala izan zen motibazio-faktore garrantzitsua, bizitza publikoan inplikatzeko eta gizartea nola berreraiki nahi zuten erabakitzeko.

Gainera, emakume taldeetan sortutako elkarrizketatik, beren bizitzetan eragina zuten gaietan katoliko eta protestante moduan pragmatikoki elkarlanean aritzeko eta lan egiteko gaitasuna finkatu zuten, beren ahalegina gauza bera egiteko gai ez ziren politikarien aurrean jarrita. Oso argi zeukaten alderdien politikak ez zuela erraztuko emakumeen interesen lorpena edo horien parte-hartzea politikan. Emakume batzuk adierazi zuten, Ipar Irlandan politika egiteko zegoen moduagatik, jendearen beharrak ez zituzten kontuan hartzen, esanez, «gure esperientzian oinarrituta, badakigu emakume katoliko eta protestanteek ez dutela zailtasunik elkarlanean aritzeko, eztabaidak eta jarduerak beren bizitzarekin harreman zuzena dutenean. Gure ustean, politikariak gai horietaz arduratuko balira, elkarrizketak eta elkarrizketen inguruko elkarrizketak emankorragoak izango lirakekeela» (2).

Batzordeari hainbat emakumek egindako proposamenak laburbilduz, antolatzaileetako batek ondokoa adierazi zuen: «emakumeek zeregin erabakigarria izan dute gizarte- eta ekonomia-prekarietateari buruzko arazoak mahai-gaineratzeko. Gainera, emakumeak sarri funtsezkoak izan dira leku batzuetako sektarismoa konpontzen saiatzeko garaian» eta «... Ipar Irlandako emakume-taldeen garapenak, politika arloan, herrialdean, azken bi hamarkadetan izan den hazkunde gune positiboenetakoa eman du, nahiz eta askotan ezarritako mekanismo politiko tradizionalenek bazterrean utzi dituzten» (3). Batzordeak ondorioztatu zuen emakumeek gizarte zibilean zuten parte-hartzeari buruz jasotako lekukotasun guztiak argi uzten zutela haiek asko zutela sistema politikoa-ri eskaintzeko eta akordio baketsua aurkitzeko. Ipar Irlandako emakumeak erabat ados zeuden, eta dezente izan ziren errepublikarren zein lealisten 1994ko su-etenak zabalduetako aukera politikoak aprobetxatu zituztenak, bake prozesua indarra hartzen zihoan heinean, emakumeen ahotsak entzun zitezkeen.

---

(2) Pollak, Andy (ed.), *A Citizens' Inquiry – The Opsahl Report on Northern Ireland*, Dublin: Lilliput Press, 1993, 306. orr.

(3) *ibid*, 84. orr.



## *Etorkizuneko beren lekua aldarrikaturaz*

1994ko su-etena eta Britainiako eta Irlandako Gobernuen Agiri Bateratuaren arteko denbora-tartean, 1996ko otsailean, emakumezkoen artean jarduera ugari antolatu zituzten. Itxaropen garaia ere izan zen, eta, bertan, elkar errespetatzen ikasi zuten, eta eremu politiko, erlijioso zein gizartemailako emakumeen artean lotura sendoak sortu zituzten. Horiek gaur egun ere irauten dute. Eta are argiago geratu ziren garai horretan emakumeek sistema politiko ofizialean zuten ordezkari-tza falta, eta politika estraofizialari egiten zioten ekarpena.

Garai hartan emakumeek lan zabala egin zuten informatzeko, parte-hartzea zabaltzeko eta Ipar Irlandaren berregituraketari eta harremani buruzko gomendioak emateko. Emakumeek gobernuari zuzendutako gomendioen txostenak egin zituzten hitzaldi, mintegi eta beste ekitaldi ugari bidez. Gomendio horietan ondokoa azaldu zuten: emakumeak bake prozesuan nola sar zitezkeen, gizartea nola berreraiki zitekeen eta bultzada berri bat nola eman, jende arruntaren bizitza eta esperientzietarako prozesu zein egitura esanguratsuen bidez. Hori guztia beste leku batzuetan sakon dokumentatua dagoenez, ondorengoak gainera bakarrik adierazten du une hartan emakumeak nola, norekin eta zein arlotan hitzartuta zeuden.

*Women Shaping the Future Political, Economic and Social Development on the Island of Ireland* (Emakumeek Irlanda irlan etorkizuneko garapen politiko, ekonomiko eta soziala eratzen dute) hitzaldiak gizarteko osoa bildu eta inplikatzeko moduko bake prozesua eskatzen zuen. Berdintasun-klausula, hauteskunde erreforma, aldaketa lortzeko zerrenda eta kuota sistema izateko aukera, eta alderdi politikoek zein erabakiak hartzeko egiturek sistema berdintzaileak izan zitzatela exijitzen zituen eskubideen legea eskatzen zuen.

Emakume errepublikarrek mugimendu errepublikarraren barruko eztabaidetan beren ahotsak denbora luzean isilik zeramatatzelako, eta aurretik askotan gertatutako bazterketa-prozesua errepika ez zedin, batu egin ziren Clar na mBan –Emakumeen bakerako agenda– izenpean. Irlandaren etorkizunean emakumeek duten lekuaren onarpena zein aitortpena, eta, Irlandako gizarteko alor guztietan emakumeen berdintasuna zehaztea eta horri eustea helburutzat hartuta, emakume guztiak bake prozesuan parte hartzera bultzatu zituzten (4).

Pekinen 1995ean ospatzekoa zen Munduko Batzarra prestatzeko Vienan egin zuten bileran, Ipar Irlandako emakumeek Nazio Batuen Erakundearen dauden Europako eta Ipar Amerikako Gobernuentzat agiri bat egin zuten, bake prozesua gogotsu hartuko zutela eta bake prozesutik bake egonkorerrako bidean lan egingo zutela hitz emanez (5). Ipar Irlandako ordezkariak mezu hori bera eraman zuen 1995eko Pekineko Batzarrera.

(4) Clar na mBan, *Women's Agenda for Peace*, Belfast: Clar na mBan, 1994.

(5) Council for the Status of Women – Northern Ireland Women's European Platform, *Staking a Claim on the Future – Submission to the Forum for Peace and reconciliation*, Dublin: Northern Ireland Women's European Platform, 1995.

---

Irlanda iparraldeko eta hegoaldeko emakumeak Irlandako Gobernuari proposamen komuna egin zioten Dublingo Bake eta Adiskidetze Foroan. Bertan, ondokoa nabarmentzen zen: «etorkizun politikoa pertsona guztien berdintasunaren gainean eraiki behar da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna barne». Proposamenean, bestalde, emakumeen esperientzia, trebezia eta sormena bake prozesuaren hasieratik aprobeitatu zitezela eskatzen zuten (6).

Hitzaldi garrantzitsuenetako bat *Women, Politics and the Ways Forward* (Emakumeak, politika eta bete gabeko bideak) izan zen, eta 1995ean Ulsterreko unibertsitateko Emakumearen ikerkuntza zentroak antolatu zuen. Emakumeek ideiez eta ikusi nahi zuten gizarte motari buruzko beren iritziez eztabaidatzeko pentsatua zegoen; zuzen-zuzenean, beren helburuek aurrera atera zitezkeen elkarrizketa eta harreman politikoei buruz, hain zuzen ere. Justizia eta ordenaren inguruko gaiak landu zituzten, baita gizarte eta komunitate garapena, lana eta langabezia ere. Hitzaldian zenbait ideia berri sortu ziren; besteak beste, egitura politiko berrirako proposamena. Horren arabera, hauteskunde bidez hautatutako alderdi politikoek osatutako ganberaz gain, sexuen arteko oreka gordeko eta gizartearen interesak ordezkatuko zituen bigarren ganbera legoke. Proposamen horren bertsio bat, bake elkarrizketen garaian Emakumeen Koalizioak defendatzen zuena, aurrerago Gizarte Foroa izenpean kaleratu zuten.

Batzarreko txostenak adierazten zuenez, politikan emakumeen estatusa hobetzea baino bilatzen ez zuten konpromisoa, jada, ez zen onargarria. Estrategia argia behar zen emakumeen parte-hartzea babesteko eta garatzeko, tokiko gobernuetan eta parlamentuetan emakumeen ordezkaritza izateko helburuak barne. Txostenaren ondorioetan ondokoa adierazten zen: «mekanismo zehatzak behar dira emakumeek elkarrizketa konstituzionaletan parte har dezaten» (7). Proposamen horrek leku berezia bete zuen Emakumeen Koalizioaren sorrera ekarri zuen eztabaidan.

Aldaketarako emakumeen agenda Ipar Irlanda guztian barrena negoziatu zen, eta, hitzaldien, dokumentu politikoen eta hastear zeuden azterketen baturek argi utzi zuten emakumeek gobernu era berri bat nahi zutela, berdintasun, parte-hartze, ardura eta gardentasun balioen gainean eraikitakoa, eta ez zeudela prest baztertuak edota alboratuak izateko, Ipar Irlandaren etorkizunaren inguruko elkarrizketak alderdien artean mugitzen ziren heinean.

(6) Council for the Status of Women – Northern Ireland Women’s European Platform, *Staking a Claim on the Future – Submission to the Forum for Peace and reconciliation*, Dublin: Northern Ireland Women’s European Platform, 1995

(7) McWilliams, Monica, and Elisabeth Porter, *Women, Politics and Ways Forward*, Belfast: University of Ulster, 1995

6.

## *Aldaketa konstituzionalerako markoa*

Baina Gobernuak entzuten al zuen? Ezetz dirudi, *Un Nuevo Marco para el Acuerdo* (Akordiorako marko berria) dokumentuaren azterketan ikusitakoaren arabera. Dokumentu hori 1995ean argitaratu zuten bi Gobernuek. Kezka-iturri nagusiak ordezkariak ukatzea, emakumeen iritziak eta politikak kanpo utzi izana, eta akordio politikoaren dimentsio bakarreko izaera izan ziren. Emakumeei «tratu berezirik» ezin zitzaizela eman esan zieten, ezin zela berdintasunik egon, eta emakumeen integrazioaren gaiak erabakiak hartzeko unera arte itxaron beharko zuela arazo konstituzionala konpondu artean.

Aitzitik, dokumentuak egitasmo zehatzak zituen, oreka erlijioso, politiko eta komunitarioan oinarrituta, berdintasuneko egiturak lortzeko. Bi Gobernuek ahal zuten guztia egin zuten marko politikoaren barruan ondokoak sartzeko: kontsiderazio-berdintasunaren babesa, parte-hartze orekatua eta eraginkorra politikan, foro politikoaren osaketa proportzionala, eta kontrolak zein egiaztapenak egitura politikoan. Neurri horiek gustura hartu bazituzten ere, generoen araberrako banaketari ere zergatik ezin zitzaizkien aplikatu galdetu zioten emakumeek beren buruari. Proposamenen inguruan emandako iritzi kritiko baten arabera, genero-gaiei zegokienez, itsukeriak ondokoa bermatuko zuen: «... Egitura berrietan eskualdeko erantzukizuna eta erabakiak hartzeko ardura, benetan, gizonetzkoen esku daude. Sexuari dagokionez, erakunde berrien osaketa antzinako erakundearen osaketaren ispilu izango da. Erabakiak gizonek hartuko dituzte. Izango dira emakumezkoak, baina neurri txikian» (8).

7.

## *Emakumeak aldaketaren erdian kokatzen*

Itxaropen, ikusmin eta desilusio aurrekariekin sortu zen Ipar Irlandako Emakumeen Batasuna. Katalizatzailea, 1996 hasieran, Britainiako eta Irlandako Gobernuek kaleratutako adierazpen bateratua izan zen. Bertan, Ipar Irlandako etorkizunari buruz alderdien arteko elkarrizketak hasteko

---

(8) Rooney, Eilish, 'Framing the Future', in Kate Fearon (ed.), *Power, Politics and Positionings-Women in Northern Ireland*, Belfast: Democratic Dialogue, 1996.

epea ekainean kokatu zuten, eta elkarrizketa horietan parte hartuko zutenak nortzuk izango ziren jakiteko hauteskondeak ere zehaztu zituzten. Zenbait emakume taldek, emakumeak prozesuan sartzeko, alderdi politikoei eta Gobernu britainiarrari egindako eskaerek arrakasta gutxi izan zuten; aldiz, Ipar Irlandako Emakumeen Europako Plataformaren (NIWEP) dokumentu batek erantzun positiboagoa jaso zuen. Dokumentu horretan alderdi politikoetan emakumerik ez zegoela onar zezala eskatzen zioten Gobernuari, baita hauteskondeetara aurkeztuko ziren alderdietan emakume-sare edota -batzordeentzat lekua egon zedila ere. Ondorioz, Plataformak Gobernuaren telefono deiak jaso zituen emakumeen alderdiaren izena eskatuz, epe legegileetan sartu ahal izateko. Presa handiarekin, gutunak bidali zizkieten ehunka emakumeri eta talderi, alderdiaren egitura eta, hauteskondeei begira, beste aukera batzuk eztabaidatzeko. Behin-behinean, Ipar Irlandarako Emakumeen Koalizioak eman zuen izena, baina hurrengo asterako deitutako emakume-erakunde-  
en osoko bilkuran baieztatu beharko zen.

Alderdi politikoek emakumeen ahotsa negoziazio mahaian entzungo zela bermatuko ez zutenez, bilera horretan honako erabakia hartu zuten: urte askoan gizarte-politika zuzendu eta negoziatu zuten emakumeek, beren kabuz, aurrera egingo zuten. Baina erabakia ez zuten aho batez onartu. Tentsioa nagusi izan zen gai askotan.

Sexu zehatz baten alderdia egotea, adibidez, emakume askorentzat ez zen erosoia izan. Batzuk komunitateen arteko itunez hitz egin zuten; beste batzuk, berriz, hauteskunde horietan ez aurkezteko asmoa azaldu zuten. Gainera, zenbaitek adostasun zabalagoa egon ezean ez jarraitzeko asmoa ere adierazi zuten. Azken puntura arte eztabaidatu zuten, baina hizlari gehienek adierazi zuten zain geratzen baziren, agian, aukera alferrik galtzeko arriskua izango zutela. Bileran izan ziren emakume gehienak ados zeuden ordura arte ezezaguna zen esparruan aurrera egiteko, eta, ondorioz, Emakumeen Koalizioa egi bihurtu zuten. Politika ez formaletik formalerako bidean lehen pausoa eman zuten.

## 8.

## *Emakumeen Koalizioa*

Behin hauteskondeetara aurkezteko erabakia hartuta, emakumeak lanean hasi ziren. Koalizioak Ipar Irlandako txoko guztietako emakumei aukera eman zien parte hartzeko; batzuk jada lehendik ibiliak ziren zeregin horietan, eta, beste batzuk, aldiz, aldaketarako nahiagatik hasi ziren lanean. Emakumeek desberdintasuna marka dezaketenaren ustea izan zen Koalizioak, hauteskunde kanpainan, oinarritzat hartu zuena, eta agirian hitz eman zuen akordio politikorako ikuspuntu anitz eta adostailea emango zuela, arazo konstituzionalari buruzko ikuspuntu finkotik urrun. Gizonezko zein emakumezko boto-emaleei dei egin zien esanez, emakumeak aukeratuz gero, akordio politikorako eta gizarte baketsurako beharrezko aldaketak lortu ahal izango zirela.

Prozesurako garrantzi handikoa zen hautetsien arteko berdinketa lortzea, erlijio, geografia eta gizarte mailan ordezkariak orekatu lortzeko. Lehen aldia zen hain emakume kopuru handia hauteskondeetara aurkezte zena Ipar Irlandan, eta, gainera, arrazoia bakarra zen. Hautetsiek ez zuten bere barrutiko boterea lortzeko aukeratuak izatea nahi; botoak elkartu zituzten, herrialdeko ze-

rendaren bidez, horietatik bi aukeratuak izan zitezten. Helburu bikoitza zuten: emakumeek gizonen baldintza beretan politikan parte hartzea —nahiz eta litekeena zen banakako hautagaiek arrakastarik ez izatea—, eta etorkizun egonkorrerako eta bakean oinarritutakorako akordio politikoa lortzea.

Hasieratik, argi zegoen Emakumeen Koalizioa barruti baten barruan aukeratzea zaila izango zela. Baina hauteskunde sistema koalizioarentzat egokia zen; boto guztietan oinarrituta, hamar alderdi nagusietako bakoitzaren hogeitaz gehigarri izatea ahalbidetzen zuen mekanismodun ordezkari proportzionaleko hauteskunde-zerrendaren sistema, hain zuzen ere. Koalizioak, 10.000 boto lortuta, lekua izango zuela ikusi zuen hamar alderdi nagusien artean, eta, horrek bake elkarrizketetan bi leku izatea ekarriko zuen. Ehun emakume aurkeztuz gero, bakoitzak ehun boto lortuta, egina zegoen. Hirurogeita hamar emakume aurkeztu ziren Foroko eta alderdien arteko elkarrizketetara Emakumeen Koalizioaren izenean. Ordurako, bosgarren alderdia zen. Apustua ona izan zen, eta Koalizioak bi ordezkari lortu zituen Fororako eta elkarrizketetarako.

9.

## *Emakumeen Koalizioari emandako erantzunak*

Emakume askorentzat Ipar Irlandan (eta zenbait gizon, koalizioak beti izan baititu gizonezko jarraitzaileak) pizgarria zen bake elkarrizketetan emakumeen ikuspuntua nabarmenduko zuen alderdi politikoa izatea. Beste batzuk, aldiz, aldaketarako katalizatzaile gisa ikusi zuten alderdia. Baina ez litzateke zuzena izango Ipar Irlandako emakume guztiek koalizioa bultzatzen zutela esatea. Litekeena da erabat aurkakoak ez izatea, baina gehienek betiko alderdiei ematen zieten botoa, askok uste baitzuten emakumeen ordezkariaren aldaketa alderdi horietatik, barrutik, iritsiko zela. Bazen, Iparraldeko emakumeen artean, politika barruan zein kanpoan beste kezka bat; itxuraz, alderdiak ez zion konstituzioaren gaiari heldu nahi, iritzirik ez zuelako, ez nazionalistarik ez unionistarik, gaiaren inguruan, eta, gainera, bazirudien emakumeek beste alderdietan lortutakoari itzala egingo ziola.

Adibidez, alderdi laborista eta sozialdemokratako eskarmentu handiko hautagai batek ondokoa adierazi zuen: «Alderdi politikoetan, trabak traba, postuetan gora egiteko lanean aritu diren emakumeak daude. Orain beste emakume batzuekin egiten dute borroka, boto berarengatik» (9). Gizonezko hautagaiei buruz era horretako komentariok ez zuten egin.

Koalizioko hautagaiek behin eta berriro azaldu behar izan zuten koalizioaren zeregina ez zela beste alderdietako emakumeekin lehian aritzea, ezta egin zezaketen ekarpena arbuizatzea ere. Euren lehentasuna emakumeek politikan zuten zeregina handitzea zen, eta koalizioko ekintzaileek

---

(9) Irish News, 1996ko maiatzaren 8a.

beren lana jada politika munduan zeuden beste emakumeenaren osagarria zela uste zuten. Ipar Irlandan emakume askok uste zuen sistema politikoak ez ziela ezer eskaintzen, eta kultura-politika berria sortzeko eskubidea zutela. Koalizioaren iritziz, «edozein herritarrek hauteskundeetara aurkezteko eskubidea dauka, hala nahi badu behintzat». Koalizioko ekintzaileek uste zuten euren funtzioa jaiotzeaz zegoen demokraziari laguntzea zela, aukera berriak eta aldaketak eskainita, eta demokrazia parte-hartzailearen kontzeptua garatzerakoan Ipar Irlandak dituen baldintza bereziak kontuan izanda.

Baina ohiko alderdietako emakumeek azaldutako kezkak erabat arrazoizkoak ziren. Ipar Irlandako esparru politikoa, beti, txikia eta betetzeko zaila izan da. Emakumeen Koalizioa sortu aurretik emakume gutxi zeuden bertan, eta, emakume aktiboak gutxi zirenez, ezagunak ziren. Batean, lurralde horretarako lehia handia sortu zen, eta lehia horren zati handienetakoa emakume-talde batetik zetorren—ez bat edo bi alderdi berri batean, baizik emakumez betetako alderdi!—. Eta dena haiek bakarrik egiten zuten (prentsa, publizitatea, politika, estrategia, laguntza eta oratoria).

Konstituzioaren inguruko gai korapilatsua Clar na mBan taldeko emakume errepublikarrek sinatutako gutunean azaldu zen, eta Belfastko Women's News aldizkarian argitaratu zuten. Ziotenez, ezin zuten koalizioa babestu konstituzioaren gaiaren inguruko ahultasunagatik eta, horregatik aukeratzeko zituzten alderdiak —alderdi baten ordezkari desberdintasunaren ordezkari gaitik—. Izan ere, beldur ziren interes nazionalak galduko zuela, ikuspuntu nazionalista argirik gabeko emakumezkoen alderdi politiko batek, Sinn Feini botoak kenduz gero (10).

Baina boto-emate asko prest zeuden euren botoa beste alderdi politiko bati emateko eta, ondorioz, aukeratutako koalizioaren bi ordezkari Foroan eta alderdien arteko elkarrizketetan hartu zuten parte. Hala ere, alderdi bakoitzari bi ordezkari besterik ez zegokion negoziazio-mahaian eseri zirenean, oraindik zaila egiten zen sinistea haiek zirela taldeko emakume bakarrak.

10.

## *Alderdi anitzeko elkarrizketak*

Elkarrizketen helburua Ipar Irlandaren etorkizunari buruz adostutako akordioa lortzea zen, baita Ipar Irlandaren zein Irlandako Errepublikaren eta Irlandako Errepublikaren zein Britainia Handiaren arteko harremanak hitzartzea ere. Beste modu batean esanda, bitarteko bakezaleak erabilia, konstituzio-auziari buruzko akordioa lortzea. Horretarako, beharrezkoa litzateke erkidegoko kideen artean nahikoa adostasun lortzea, bake iraunkorra lortu ahal izateko.

---

(10) *Women's News*, June/July 1996

---

Askotan onartu izan dute koalizioak nahikoa eragin izan zuela Ostiral Santuko Akordioa lortzeko garaian, baita aurkarien arteko elkarrizketak leuntzerakoan ere. Iritzi-emaile batek koalizioak bake elkarrizketetan izan zuten ekarpenari buruz ondokoa esan zuen: «Politikan esperientziarik gabeko talde txikia izan arren, negoziazio prozesuan izan zituen eragina eta emaitzak funtsezkoak izan ziren» (11). Eta koalizioaren zeregina gehiegizkotzat ez jotzea garrantzitsua den arren —botere-eragile askoz garrantzitsuagoak lanean aritu ziren—, koalizioak bere eragin guztia erabili zuen ahalik eta emaitza onena lortzeko. Adibidez, inklusio printzipioari jarraiki, negoziazioetako erabakiak hartzeko prozesuan aldaketa bat egiteko alderdi guztien akordioa lortu zuen. Hala, alderdi handienek nahikoa parte-hartzailearen adostasuna lortu behar zuten, bi tradizio nagusienetan hautesle gehienak ordezkatzeko zituzten alderdien artean adostasuna bilatu beharrean. Inklusio eta berdintasuneko konpromisoaren zati gisa, koalizioak behin eta berriro nabarmendu zuten negoziazio-prozesuan borrokalari ohien ordezkariak parte hartu behar zutela, baita alderdi konstituzionalak kideek ere. Su-etena hautsi ostean, errepublikarrak eta lealistas bake prozesutik at utzi zituztenean, ikuspuntu hori ezinbestekoa izan zen bake prozesuari bere horretan eusteko. Koalizioak arma ilegalei buruz egindako proposamenetako asko armak konfiskatzeko nazioarteko batzordearen arduraren izan ziren eta, koalizioak uste bezala, konfiskatzeak emaitza onak lortzeko beharrezkoa zen bortxazkoa ez izatea.

Familiengana hurbildu beharreko presoak lehenbailehen gerturatzeko proposatu zuten; izan ere, horrek, neurri batean, senitartekoen sufrimendua arinduko zuen. Koalizioak bake prozesuan preso izandakoek izan zuten zeregina nabarmendu zuen, eta haiei babes emateko eskatu zuten, presoak gizarteratzeko egin zuten ahaleginagatik.

Proposamen zehatzak egin zituen gizarteak konpromisoak hartzeko beharrari buruz, eta, proposamen horietatik Gizarte Foroa sortu zuten. Era berean, akordioan heziketa barneratzailearen eta etxebizitza mistoen konpromisoa egon zedin egiaztatu zuten, eta biktimen eskubideak eta berdintasun zein giza eskubideen agendako gaiak eztabaidatzea proposatu zuten. Eskubideen zerrendan, aukera berdintasuna eta giza eskubideen babeserako neurriak zeuden eta, koalizioak proposatutako testuari jarraiki, «emakumeen parte-hartze eskubideak erabatekoa eta berdintzailea» izan behar zuela zioen klausula erantsi zuten.

Hala ere, oso borroka garrantzitsua galdu zuten, beste alderdiek ez baitzieten nahikoa babes eman hauteskunde sistema barneratzaileari buruzko proposamenei, alderdi txikien jarraikotasuna bermatzeko. Koalizioak, azkeneko osoko bilkuran, hauteskunde sistemari buruz zituen zalantzak azaldu zituen, eta, lehenengo aldiz, bake akordio bat emakumeen parte-hartzeari buruzko gaiak oztopatu zuten. Baina koalizioak aurreko bi urteetan egindako guztian negoziazio-prozesua ba-

---

(11) ni Aolain, Fionnuala, Peace Agreements as a means for promoting gender equality and ensuring participation of women as a means for promoting gender equality and ensuring participation of women—a framework of model provisions', 10-13 November 2003, Ottawa, Canada

bestea lehentasunetako bat izan zen, beren xede eta helburuen ginetik. Albo batera utzi behar izan zituzten etsipena eta amorrua. Mitchell senatariak, nazioarteko ordezkarietako batek, azkeneko osoko bilkuran parte-hartzaileei akordioa onartzen ote zuten galde egin zienean, koalizioak baietz esan zuen. Bere ahotsa, beraz, mahaiko emakumezko ahots bakarra zen.

Koalizioko bi kide aukeratu zituzten Ipar Irlandako Asanblada berrirako; 1998an Akordiopean ezarritako Asanbladarako, hain zuzen ere. Mundu politiko osotik jaso zituzten transferentziak, eta horrek esan nahi zuen Ipar Irlandako bi komunitate nagusiek koalizioaren deiari erantzun ziotela, eta behar bezalako ordaina eman ziotela. Koalizioko emakumeen politikan parte hartzeko helburua bete zuten; izan ere, elkarrizketetan atsedetik gabe egin zuten lan.

Baina, 2002an, koalizioa hain gogotsu sartu zen Asanblada gainbehera erori zen. Akordioaren alderdirik eztabaidatsuenak gainbegiratzeko inplementazio-mekanismoak ez egoteak Akordioa hautsi zuen, krisia kudeatzeko erabili zuten ikuspuntuagatik. Ipar Irlandako paisaia politikoa polarizatuagoa geratu zen, bake prozesu ahularen perspektiben gainean tentsioa eta ziurgabetasun politikoa nagusi ziren unean; izan ere, boto-emaeleek arrisku politikoak hartzeari utzi zioten. Prozesuari berriro heltzeko asmoz deitutako 2003ko hauteskundeetan, koalizioak bere bi eserlekuak galdu zituen, Akordioaren aurkako Alderdi Demokrata Unionistaren eta Sinn Feinen garaipe eztabaidaezinen ondorioz. Bazirudien alderdi handiek emakumeen interesak defendatzeko zuten interes falta ez zela garrantzitsua «goi politika»ko konstituzioa eta segurtasuna bezalako gaietan.

## 11.

### *Emakumeen Koalizioaren desagerpena*

Asanbladak eserlekuak galdu izanak, eta gobernu autonomoa etenda egoteak prozesu politikotik kanpo utzi zuten Koalizioa, eta, asko hausnartu ondoren, erabakirik onena Koalizioa duintasunez desagerraraztea zela pentsatu zuten. Aurtengo maiatzean, Foroko hauteskundeetarako izenak aurkeztu zituenetik ia hamar urte igaro direnean, Koalizioak prentsa-agiria kaleratu zuen, jada ez zuela alderdi politiko gisa lan egingo esanez. Agiriak ondokoa zioen: «Emakumeen Koalizioak asko lortu du azken hamarkadan, batez ere, ilunpetik atera du emakumeen ikuspuntua, eta egitura politiko nagusienetara eraman du. Bere lehentasunetako bat emakumeen ahotsak entzun zitezkeen gune bat sortzea zen, eta, hala, denbora-tarte batean espazio hori sortu genuen. Oso kezkatuta jarraitzen dugu, emakumeek bizitza publikoan eta politikoan duten ordezkaritza eskasagatik. Emakumeak bizitza horren partaide ez izatea galera handia da gizarte osoarentzat» (12).

(12) Women's Coalition Press Release, 12 May 2006, Belfast



---

Koalizioko emakumeek alderdia sortzeko izan zituzten arrazoiekin eta balioekin konpromisoa izaten jarraituko zutela nabarmendu zuten, eta gizarte partekatua zein tolerantaren alde lan egiten jarraituko zutela, arlo guztietan berdintasuna eta gizarte-justizia lortzeko, bereziki, egoera ekonomiko eta sozial okerragoan dauden emakumeen alde; Ostiral Santuko Akordioa sortzeko erabilitako botere-banaketaren, akordio politikoaren eta aniztasunarekiko errespetuaren printzipioak oraindik ere balio zutela uste zuten. Martxan zeuden negoziazioei zegokienez, alderdi politiko guztiak unea aprobetxatzera deitu zituen agiriak, eta Ipar Irlandari hainbeste pertsonak lortu nahi izan zuten partekatutako etorkizuna errealitate bihurtzeko gai izango zen gobernu autonomoa ematea aipatzen zuten.

Emakumeen Koalizioa ez zuten alde zuzenik prestatu, ezta sortu ere, emakumeen mugimenduko hurrengo ezinbesteko pauso gisa, ezta bere sorreran lan handiena egin zutenek ere. Bat-batean sortu zuten, aurretik abisatu gabe, garaia iritsi zitzaielako. Batetik, boterearen eta erabakiak hartzeko eremuaren inguruan bazeuden emakumeen sareak eta mobilizazioak, eta nazioarteko esperientziak ere eragiten zuten. Bestetik, su-etena bitarteko bizi-esperientziak, etorkizunerako esparrua sortzeko proposatutako elkarrizketek eta elkarrizketa horietan parte hartzeko hauteskondeek emandako aukerak bere sorrera bultzatu zuten. Emakumeek argi zuten kanpoan geratuko zirela eta ez zegoela «emakumeen alderdia» ez zen beste aukerarik. Hala, egoerak sortutako amorrua egoera aldatzeko erabaki bilakatu zuten. Esperientzia bakarra izan zen emakumeen boterearen garapenean, batez ere, Ostiral Santuko Akordioak iraun zuen denboran. Akordioa sinatu zuten negoziazioetan Koalizioa egon izan ez balitz, dokumentua bestelakoa izango zen; gizonen lehentasunak bakarrik kontuan hartuta egituratutakoa, konstituzioaren gaietatik, kontra egiteko politikarengatik, bere aldeko tantoa eskuratzeagatik eta konfiantza ezagatik. Eta jakina, hori da gaur egungo negoziazioetan argi eta garbi antzematen dena.

Emakumeen Koalizioa laurogeita hamarreko hamarkadan emakumeek etorkizuna lantzeko egindako lanaren emaitza da. Emakume haiek hainbat arrazoiengatik sartu ziren bake prozesuan. Indarkeria ez zuten gogoko, etorkizun hobea nahi zuten seme-alabentzat, eta Ipar Irlandan egiten zen politikatik, komunitateen eta indarkeriaren zatiketek egituratutakotik, gero eta urrunago zeuden.

Banaka, emakumeek euren nortasun politikoari eusten zioten, baina herri bezala identifikatzen hasteko arrazoiak emakume izatea, komunitatearen partaide izatea, injustiziaren aurrean suminduta egotea eta etengabe prozesu politikotik kanpo geratzea izan ziren. Prozesuan izango ziren elkarrizketek, hausnarketek eta planek emakumeen bizitzako aniztasuna eta lehentasunak islatu behar zituztela uste zuten. Oinarrizko mailan aktiboak ziren emakumeak gatazkaren analisiarekin ados ez zeuden arren, konpromiso handia hartu zuten desberdintasunekin amaitzeko eta Ipar Irlandako tradizioak bateratzeko. Une horretan, emakumeek ez zuten euren burua baketzaile moduan ikusi, aldaketarako ekintzaile moduan baizik.

Hasieran, egitura politikoetan aldaketaren bat lortzen saiatu ziren, bake prozesuan emakumeek bake prozesu formalean eta informalean ordezkariak izan zituzten. Hori ez zen hala izan, eta foro politikoetatik zein erabakiak hartzeko guneetatik behin eta berriro kanporatu izanak, gizarte-

an, euren botere gunetik, berezko egiturak eta prozesuak garatzeko asmoa indartu zuen. Horrek guztiak euren kezkez arduratuko zen eta egitura politiko berriei buruzko ideiak elkarrizketa-prozesura eramango zituen alderdi politikoa sortzera eraman zituen.

## 12.

### *Bizitza zibilerako eta politikorako ondarea*

Emakumeen Koalizioa berritzailea izan zen bai kontzeptuan bai ikuspuntuan. Emakumeek ematen zuten esperientzia eta trebezia aitortzen zuen, eta komunitatearen alde lan egiten zutenei zuzendua zegoen. Emakume askorentzat politika eta prozesu politikoa desmitifikatu zituen, eta politika munduan parte hartzeko adorea, konfiantza eta inspirazioa eman zien. Emakumeak hauteskundera aurkez zitezkeela sinetsarazi zuen, baita aukeratuak izan zitezkeela ere. Eta egoera zein komunitate desberdineko emakumeek berdintasun, giza eskubide eta gizarteratze printzipioetan elkarrekin lan egin zezaketela erakutsi zuen.

Gaur egun erakunde publikoetan lanean ari diren emakume asko koalizioko kide izan ziren. Besteak beste, erakunde hauetan topa ditzakegu: Giza Eskubideen Batzordean, Desfileen Batzordean, Polizia Zerbitzuaren Batzordean, Berdintasunerako Batzordean, Emakumeen Batzorde Nazionalan eta Europar Batasuneko Batzar Ekonomiko eta Sozialean. Beste batzuk eskubide eta berdintasun gaiak defendatu eta haien aldeko kanpainak egin zituzten, zenbait talde eta erakunderen bidez, hala nola, Women's Policy Group; Ipar Irlandako agenda politiko, sozial eta ekonomikoan emakumeen ikuspuntua ziurta zedin sortutako bateratutako emakumeen koalizioa da. Talde horrek lan handia egin du Gobernuaren sexu-berdintasunerako estrategian.

Koalizioa politikan sartu izanak genero ikuspuntura beste alderdi batzuen arreta ekarri zuen, bereziki, hautagaiak aukeratzeko garaian. Hain justu, gai horretan lortu zuen Koalizioak babesia. Ipar Irlandako emakumeek (eta gizon askok) komunitateen arteko zatiketa gainditzen duen generoari buruzko agenda behar dela ikusten dutenean, kargu publikoetan emakume gehiago behar direlako ustea handiagoa izango da. Alderdi politikoen erronka berria desberdintasuna lantzea da, eta, egun, generoen aitortzarako strategiaren inguruko adostasun handia dago politika publikoan. Estrategia horren arabera, «emakumeen berdintasuna oztopatzen duten traba zehatzak daude». Dena den, trabak kentzeko ahaleginek aukera berdintasunaren ikuspuntua hartzen dute, emaitzen berdintasuna bermatu beharrean; adibidez, ekintza positiboko neurriak onartzea. Gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna ez da oraindik lortu, eta, Ipar Irlandan emakumeen beharrez eta interesez arduratzen diren emakume talde dezente dauden arren, behar eta interes estrategikoek ez dute oraindik erantzunik jaso. Alderdien barruan sexu berdintasunaren aldeko aldaketa paradigmatorik eman ezean, emakume gehienek gobernu sistemetatik eta alderdietatik kanpo jarraituko dute.

## *Gaur egun erabakiak hartzeko organoetan emakumeek duten jarrera*

Koalizioaren adierazpenak emakumeek bizitza publikoan eta politikoan zuten ordezkaritza eskasari egiten zion erreferentzia, eta, Asanbladarako aukeratutako emakumeen kopurua 1998ko %13tik 2003ko %16,7ra igo zen arren, erabaki garrantzitsuak hartzeko unean oraindik ez da lortu emakumeen ordezkaritza handitzea. Gaur egun dauden negoziazio guztiak gizonen artekoak dira, eta gehiengoa duten alderdien esku daude. Ez da izan gobernurik emakumeak bere negoziazio taldeetan sartzeko ahalegina egin duenik, nahiz eta, aukera egokia denean, Irlandako Gobernuak gustura txalotzen duen Irlandako emakumeek bakearen eraikuntzan egindako guztia. Adibidez, 2003ko abenduan Ipar Irlandako bake prozesuan emakumeek egindako lana Europako Kontseiluaren aurrean laburbiltzerako garaian, Errepublikako Kanpo Arazoetarako Sailak adierazi zuen emakumeek gatazkak konpontzeko eremuetan parte hartu izanaren onurak oso argiak zirela Ipar Irlandan. Izan ere, han emakumeek zeregin erabakigarria izan zuten eta izaten jarraitzen dute bakea eraikitzeko garaian, eta martxan dagoen bake prozesuari ezinbesteko ekarpena egiten diote (13).

Bizitzako beste alor batzuk oraindik ere erabat maskulinoak dira. Organo publikoetarako egindako 2600 izendapenetatik, gutxi gorabehera, bi heren gizonezkoak dira; aldiz, emakumeentzako postuak heren baten azpitik daude; %27n, hain zuzen ere (14). Dena den, duela gutxi gertakari positiboak jazo dira; hala nola, Desfileen Batzorderako hiru emakume izendatu dituzte. Lehen gizonak besterik ez zeuden eta Polizia Zerbitzuaren Batzorderako lau emakume izendatu izanak seira igo du kopurua; beraz, egun, %32 emakumezkoak dira. Polizia Gaietarako Herri defendatzailea emakumea da, baita Giza Eskubideen Komisario buru berria eta duela gutxi izendatutako Biktimen komisarioa ere.

(13) Anglo-Irish Division, department of Foreign affairs, 'The role of women in the NI peace process', paper presented to the Council of Europe, December 2003.

(14) Central Appointments Unit, *Public Appointments Annual Report 2003/2004*, Volume 1, Office of the First and Deputy First Minister, November 2004.

---

## 14.

## *Ondorioa*

Nazioartean gero eta zabalduago dago gatazkak konpontzeko garaian generoa kontuan hartzen ez duen ikuspuntua hil ala bizikoa izan dela mundu mailako bakea ez lortzeko. Ipar Irlanda trantsizio bidean dagoen gizartea da, eta trantsizio horren gunea, bi komunitateen, unionista eta nazionalista, arteko erlazioa da. Neurri batean, erlazio hori aldatzeko beharra izan da hitzaldi berdintzailearen muinean egon dena. Berdintasun demokratikoak demokraziaren genero-izaera erakusteko balio du, baita erlazio sektarioek eztabaida noraino mugatzen duten ikusteko ere. Baina bake prozesuak bere bidea egiten jarraitzen duen arren, gure historiaren irakaspeneak zalantzarik gabe erakusten dute beharrezkoa dela emakume talde autonomo bat egotea, sexuen arteko harremani buruzko gaiak trantsizio-prozesua oztopa ez dezaten. Gatazka-egoera baterako diseinatutako edozer sistema politikok, emakumeek, populazioaren erdiak baino gehiagok, jar dezaketen irudimena eta denbora behar ditu. Txinatarrek dioten moduan, emakumeek zeruaren erdiari eusten diote, eta, beraz, eguzki-argi erdiaren onurak jaso behar dituzte.

PATRICIA BURITICÁ

“Konpontzearen eta  
Adiskidetzearen Batzorde  
Nazionala”. Kolonbia

*Emakumeen*

*rola*

*Kolonbian*

*bakea*

*erakitzeko*

*prozesuan*

*“Emakumeek hitza  
hartu dugu gerraren  
aurka eta bakea  
aukeratu dugu”\**



---

SARE/2006 batzarra antolatu dutenak agurtu nahi ditut, eta munduko beste emakumeekin esperentziak trukatzeko aukera eskertu nahi dut. Guk munduan bakea egiteko dugun erak mundu osoaren xedea izan beharko luke, eta zergatik ez deitu asmo horri batzar honi bezala: «Emakumeak Bakea Sortzen». Batzarraren izenak berehala hunkitu ninduen eta pentsatu nuen horixe bera dela emakumeek bakearen alde egiten duguna, «sortzaileak izan».

Txosten hau prestatu dut Kolonbiako egoera eta egoera horretan emakumeek egin dugun ibilbidea labur erakusteko. Horrez gain, gure esperientzia eta esperientzia horretan ikasitakoa ere erakutsi nahi dugu; beharbada, batzar honetako ondorioak ateratzeko baliagarria izango da.

Emakumeek bakea lortzeko bizitzen duten esperientziari buruz hitz egiterakoan, Kolonbian egiten dugunari buruz asko pentsatu dut. Nire aburuz, lan asko egiten dugu, eta dena da beharrezkoa, garrantzitsua, ezinbestekoa. Baina neure buruari galdetu diot: zenbateraino geldiarazten dugu gerraren makina? Egiten dugunak zergatik ez du gerrarekin bukatzea lortzen? Orduan animatu egin naiz. Gu guztion artean, hots, batzar honetan bakea lortuko dugula konbentziturata gauden emakumeen artean, bakea ehunduko duen haria aurki dezagun, eta jainkosek bezala, puntadaz puntada, emakumeek dakigun bezala, iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera doan gerrarik eta indarkeriarik gabeko mundua sor dezagun. Eta, 2003an, gerraren aurkako ibilbide nazionalan erabili genuen kontsignak zioen bezala, hiltzen gaituen gerrari ez, zapaltzen gaituen bakeari ez.

Agian emakume askok ez dutenez Kolonbia ezagutzen, hasteko azaldu nahi dut nolakoa den gatazka honetan bakearen alde lanean ari den emakume kolonbiarra. Gatazka armatu hau duela 50 urte baino gehiago sortu zen; egun, munduko gatazkarik luzeena da Kolonbiakoa; emakume hori gatazkan egon den herrian jaio, hazi eta bizi izan da, beti. Emakume horrek ez daki zer den gatazka armaturik gabeko herri batean bizitzea. Emakume horrek egunero pentsatzen du zer egin dezakeen gerra horretan parte ez hartzeko; bere ekintza guztiek gerrarekin amaitzeko helburua dute. Emakume horrek zahartuta hil nahi du. Emakume hori da, hain zuzen ere, hitz egiten ari zai-zuena.

Bizi izan naizen Kolonbian, talde gerrillariak ari dira ekiten, 1964. urtetik. Talde horiek, hasieran, Estatuaren aurka matxinatu ziren, eta herriaren interesen babesle eta ordezkari gisa aurkeztu zuten euren burua. Baina, pixkanaka ideia horiek baztertu egin zituzten, eta haiek ere botere politikoa eta ekonomikoa izan nahi dute. Hala, herriaren babesa galdu dute. Izan ere, haien kontra ere jarduten dute, Nazioarteko Eskubide Humanitarioa bortxatuz. 1980ko hamarkadan, fenomeno paramilitarra sortu zuten Kolonbian, hots; Estatuko agintariei lagundu dien legez kanpoko talde armatua. Horren eraginez, gerra aldatu egin zen; legez kanpoko zein legezko talde armatuen arteko gerra bilakatu zen, eta herritar zibilen aurkakoa.

Sri Lankan, 2.000 pertsona hil dituzte bortxaz gatazkaren ondorioz, 19 urtean. Nepalen, urtero, 1.000 lagun hiltzen dituzte. Kolonbian, berriz, 70.000 herritar hil dituzte 1964. urtetik gaur arte, 7.138 pertsona desagertu dira, 29.497 pertsona bahitu dituzte, 3 milioi pertsonak baino gehiagok etxetik ihes egin behar izan dute, terrorismoak 2.154 pertsona hil ditu, 4.270 sarraski egin dituzte eta 23.543 pertsona hil dira haietan, 10.672 tortura kasu erregistratu dituzte eta 84.133

atxiloketa arbitrario izan dira. Kopuru horien ondorioz, esan dezakegu Kolonbia dela gizalde krisi larria duen munduko bigarren herrialdea.

Krisi horri buruz, honakoa adierazi zuen Amnesty Internationalek, 2004ko txostenean: «Emakumeak eta neskatxak gerra honen biktima ezkutuak dira».

Eragile armatu guztiek indarrez eraso diete emakumeei, eta era askotara gainera: esklabo sexual edo etxeko esklabo gisa erabili dituzte, bortxatu eta sexu ebaketak egin. Eragile armatuek kontrol sozialeko arauak inposatu dituzte eragina duten zonaldeetan, hala nola: ordutegiak ezarri, jokerra arauak, familia eta komunitate arteko gatazketan parte hartu dute eta zigorrak ezarri (torturak, exekuzioa eta tratu krudelak eta iraingarriak, barne). Zigor horiek emakumeek modu autonomoan jokatu dutenean ezarri dituzte, batez ere; eragile armatuek ezarritako arauekin bat egin ez dutenean.

Hala ere, ez dago estatistika nazionalik gatazkan emakumeek dituzten arazoan larritasuna eta maiztasuna islatzen duenik. Adibidez, Polizia Nazionalak DIHk babestutako pertsonen artean lau indarkeria sexual kasu bakarrik erregistratu zituen 2003an: bi indarkeria sexualagatik eta beste bi esklabotza edota behartutako prostituzioagatik. Nazioko Fiskaltza Nagusiak, hots, erakunde salatzaileak, babestutako pertsonen aurkako 19 indarkeria sexual kasu ikertu zituen 2002an; 2003an, 32; eta, 2004an, 20 (Sisma Mujer Korporazioa, 2004). Kopuru horiek, aurretik aipatutakoen aldean, ez dute erakusten benetan gatazka emakumeengan duen eraginaren erdia ere. Guk, emakumeok, egiaztatu dugu Kolonbian emakumeen aurkako erasoak ez dituztela ia inoiz zigortzen.

Gizonek gorputza erabiltzea gisa interpretatu dute emakumeen aurkako indarkeria, eta gerraren zatitza jo dute hori. Gatazkan indarkeria mota ezberdinak baliatzen dituzte, baina indarkeria guztiek amets sozial tradizionala eta patriarkala adierazten dute. Horrez gain, ez dira gizon «etsaiak» iraintzeko mekanismoak bakarrik, baita emakumeak kontrolatu, beldurtu eta haiekin mendekua hartzeko moduak ere. Emakumeak eragile sozial eta politiko bihurtzen direnean gertatzen da, Dony Meertens UNIFEMeko zuzendariaren arabera. Hala adierazi zuen UNIFEMeko 2005eko txostenean.

Kolonbia aberastasun handiko herrialdea da: Amerika hegoaldeko izkina estrategiko batean dago kokatuta. Petrolioa, ikatza eta gasa esportatzen ditu, eta burdina zein nikel meategiak ditu; Landu daitezkeen 30 milioi hektarea ditu. Planetako seigarren potentzia da ur baliabideei dagokienez eta, munduko bigarrena, bioaniztasun aberastasunean. Kolonbiak hiru mendikate ditu. Mendikate horiek bakartuta utzi dituzte historikoki inguruko eskualdeak eta horrela ingurune zein kultur aniztasun handia sortu dute. 44 milioi pertsona bizi dira bertan, hiriguneetan gehienak. Populazioak jatorri indigena, afrikarra eta europarra du. Indigenak (%2 dira, 84 etnietan banatuta) eta komunitate afrokolonbiarra (%11), berriz, gutxiengoa dira. Herritarren %68 (30 milioi) txi-roak dira, eta miserian bizi dira. Kolonbia, Brasilen ondoren, aberatsen eta pobreen arteko alde gehiena duen herrialdea da. Aberastasun hori lortzeko gogoak gatazka, txirotasuna eta ezberdintasun sozialak eragin ditu beti. Sektore politikoek, sozialek eta gremioek hala onartu dute.



---

Paradoxikoki, Kolonbia da Latinoamerikako demokraziarik egonkorrena eta zaharrena. Herrialdeko hainbat eragilek, horien artean ezkerrek, baieztatu dugu Kolonbiako demokrazia ahu-la dela eta bazterketa politiko, sozial zein ekonomiko handia eragin duela. Horrek bizirik eutsi die legez kanpoko talde armatuek gatazka sortzeko zituzten justifikazioei eta arrazoiei. Adibiderik esanguratsuen Batasun Patriotikoa mugimendua izan zen. Mugimendu hori borroka armatua gainditzeko asmoarekin sortu zuten; borroka politikoa egiteko, alegia. Baina mugimendu hori pixkanaka suntsitzen joan ziren 1980ko hamarkadatik aurrera. Demokrazia baztertzailea zen eta horren erakusle da honakoa: 3.500 militante hil zituzten (mugimendua ia desagerrarazi egin zuten), ez zegoen tolerantziarik, oposizioa nekez onartzen zen eta arazo sozialak ez zituzten konpontzen. Azken 50 urteetan, Kolonbiak bake negoziazioak egiteko saiakera asko egin ditu. Kolonbiak azken hamarkadetan izan duen bake negoziatorik garrantzitsuenak 1991. urteko Konstituzioa ekarri zuen. Konstituzioak Zuzenbide Estatu Soziala ezarri zuen, eta prozesu horrek lau gerrillari talde (M-19, Herriaren Askapen Armada-EPL, Quintín Lame eta Lanaren Alderdi Iraultzailea-PRT) mugimendu zibil bihurtu zituen. Horietako asko alderdi politiko bihurtu ziren, gerrillari ohiak senatari izan dira eta egun legezkoak dira. 1990eko hamarkadatik aurrera, ezkerreko mugimenduek, mugimendu sozialek alegia, borroka politikoa lehenetsi genuen. Ezkerrek bide politikoa egiten zuten bitartean, paramilitarismoa gero eta lurralde gehiago kontrolatzen joan zen, baita kontrol ekonomiko eta politikoa lortzen ere. Gerrillaren kontra egiteko, buruzagi sozial, politiko eta komunitarioak garbitzen hasi ziren, Estatuko funtzionarioen onspenarekin. Talde horiek sarraski izugarri krudelak egin zituzten eta indarkeria modu guztiz iraingarriak erabili zituzten.

Indar Armatu Iraultzaile Kolonbiarrak (FARC) eta Nazioa Askatzeko Armada (ELN) gerrillek ez zuten parte hartu negoziazio haietan. Batasun Patriotikoa garbitzen ari zirela ikusita, prozesuan parte hartzeko berme askirik ez zutela argudiatu zuten. Batasun Patriotikoa mugimendu politiko eta legezkoa zen, eta bi gerrillek begi onez ikusten zuten. 1990eko hamarkadatik aurrera, FARC eta ELN talde armatuekin bilerak egin dira, eta gerturatzeko batzordeak sortu. Ahalegin asko, baina emaitzarik ez. 1998. urtean, Andrés Pastrana presidentek bake prozesua hasi zuen FARCEkin. Indar armatu horrek eragina zuen Kolonbiako zonalde zabal bat desmilitarizatu zuten eta bake prozesu bat abiatu. Baina, porrot egin zuen. Elkarriketak 2001. urtearen amaieran eten ziren. 2002. urtean, egungo presidente Álvaro Uribe Vélezek presidentetza hartu zuen (2006an berriro aukeratu zuten), eta FARC talde armatuak ez du harekin negoziatu nahi.

Bestalde, 2005. urtetik, Gobernuak ELN talde armatuarekin hitz egiten hasi da. Bilerak Kuban egin dituzte eta taldeko ordezkari nagusiei (Francisco Galán eta Antonio García) Kolonbiatik ateratzeko baimena eman die. Kubak jadanik lau bilera egiten lagundu die. Bilera horietan gizarte zibileko jendeak parte hartu du, baita nazioarteko komunitateko herrialde laguntzaileek ere (Norvegia, Suitza eta Espainia, besteak beste).

Era berean, 2002. urtean, Álvaro Uribe Vélezek gobernuak Desmobilizazio, Desarmatze eta Bergizarteratze prozesua hasi zuen paramilitarrekin (AUC-Kolonbiako Autodefentsa Batuak). Prozesu horrek 30.915 pertsona desmilitarizatu ditu (29.036 gizon eta 1.879 emakume), 17.540 arma entregatu dituzte eta kolektiboki 37 bloke desmilitarizatu dira.

---

Prozesu hori ez da herritarrekin adostua izan eta kritika asko jaso ditu, ez delako gardena izan. Inork ez du zalantzan jarri talde horiek desmobilizatzea bakea lortzeko aurrerapausoa dela, baina desmobilizazio horietan arazo larri asko salatu dituzte, eta, gainera, argi geratu da ez dagoela politikarik borrokalari ohiak bizitza zibilean berriro sartzeko. Borrokalari ohi asko komunitateetara itzultzen dira, nahiz eta ez herriak ez borrokalari ohiak ez egon oraindik haiek hartzeko prestatuta. Dagoeneko 14 taldek berriro hartu dituzte armak, AEE Ameriketako Estatuaren Erakundearen 7. txostenaren arabera. AEE desmobilizazio prozesua laguntzen eta ikuskatzen ari da. Txosten horrek erakusten du, gainera, paramilitarren gotorlekuetan oraindik ere indarrean daudela haiek ezarritako egitura ekonomikoak, eragin politikoa eta narkotrafikoarekiko loturak.

Prozesu horrekin, Justizia eta Bakea Legea izeneko esparru juridiko bat eztabaidatu eta onartu zuten (975/2005 Legea). Prozesu hori ez zegoenez herritarrekin adostua, legea adostasun gutxirekin onartu zuten. Legeak bizitza zibilean sartzeko diren talde armatuei egia, justizia eta kalte-ordainak exijitzeko eskubidea jasotzen du, lehen aldiz. Gizateriaren aurkako delituak egin dituztenak epaitzea aurreikusten du legeak. Delituak ordaindu eta aitortu beharko dituzte bost eta zortzi urte bitarteko espetxealdiarekin. Legeak kontrako iritzi asko jaso zituen eta erakunde sozial zein giza eskubideen aldeko erakunde askok salaketa jarri zuten Auzitegi Konstituzionalean. Legea Konstituzioarekin bat zetorren aztertu zuen auzitegiak, eta epaia maiatzean ezagutu zen; legea onartua izan eta ia urtebetera. Epaia eskertu, biktimen egoera nabarmen hobetu zen legean. Izan ere, gehien kritikatu zuena erasotzaileei ematen zitzaien tratu faboragarria izan zen, alde batetik; eta, biktimek beren eskubideak egikaritzeko aukera eza, bestetik.

Legeak Konponketaren eta Adiskidetzaren Batzorde Nazionala sortu zuen, 2005. urteko urrian. Honakoak dira batzordearen funtzioak: I) biktimei egia ezagutzeko, justizia egiteko eta kalte-ordainak jasotzeko eskubideak bermatzea; II) talde armatuak sortu izanaren arrazoiei buruzko txostenak egitea; III) Desmobilizazio prozesuaren jarraipena egitea; IV) Kalte-ordainak ezartzeko politikak diseinatzea eta auzi judizialen ondorioz jasotzen dituzten kalte-ordainen segimendua egitea; V) adiskidetze nazionala lortzeko ekintzak egitea.

Konponketaren eta Adiskidetzaren Batzorde Nazionalak (CNRR) osaketa mistoa du (13 kide, gobernuko 4 ordezkari, sozietate zibileko 5 kide, biktimen bi ordezkari eta Estatua kontrolatzen duten erakundeen bi ordezkari). Osaketa hori abantaila da, alde batetik, Gobernuaren presentziak konpromiso bat adierazten duelako politika publikoen definizioan; eta desabantaila, berriz, CNRRk bere funtzioak betetzeko behar duen independentzia muga dezakeelako.

CNRR batzordearen erronka gatazkaren erdian jardutea da. Munduko batzorde guztiak gatazken ostean sortu dira. Prozesuan sortzen diren zailtasunak CNRRrentzako zailtasunak izango dira. Erakunde sozial eta giza eskubideen aldeko batzuk CNRRren aurka jarri dira; beste batzuek, ordea, egia, justizia eta kalte-ordainak bermatzeko aukera gisa ikusten dute CNRR.

CNRRk duen zailtasun handienetakoa bat biktimen antolaketa falta da. Bizirik iraun duten biktime gehienak emakumeak dira: bakartutako lekuetako emakume pobreak, edota hirietan pilotutako nekazari, indigena eta jatorri afrikarrekoak. Biktime gehienek ez dituzte delituak salatu, talde arma-

tuak dauden lekuetan bizi direlako, beldurra dutelako, eta ez dituztelako euren eskubideak eza-  
gutzen.

Egun, legez kanpoko talde armatuetako kide ugari epaitzen ari dira; Kolonbiako historian inoiz  
epaitu duten talde armatuetako kide kopuru handiena. 2.695 pertsona auzipetu dituzte. Kopuru  
handia da, munduko beste prozesu batzuekin alderatuta: Jugoslavian 90 izan ziren, Ruandan 36  
eta Sierra Leonan 13. Sistema judizialak gabezia instituzional handiak ditu hainbeste epaiketari  
aurre egiteko, eta horrek zalantza handiak sortzen ditu prozesuen eraginkortasunari dagokionez.  
Legeak Konponketaren Funtz Nazionala ere sortu zuen. Horren bidez, erasotzaileek kalte-ordainak  
emango dizkiete biktimei. Zenbait kalkuluren arabera, talde armatuek 3 milioi hektarea hartu di-  
tuzte legez kanpo, baita jabetza eta ondasun asko ere. CNRRren erronka politiko handienetakoa  
politika eraginkorra egitea da, ondasunak galdu zituzten biktimei lapurtutakoa itzultzeko. Hori da  
herrialdeak duen beste erronka handia, ez baitu mekanismo judizial azkarrik eta zabalik ondasu-  
nen jatorria eta helmuga zehazteko.

## 1.

# *Emakumeen parte-hartzearen, orderkapenaren eta jarduera politikoaren prozesua*

### 1.1

#### **EMAKUMEEN MUGIMENDUA**

Kolonbian, emakumeen mugimendua askotarikoa eta zabala da, eta, egun, mugimendu horrek in-  
teresaren arabera sortutako sareak ditu. Hauek dira oinarrizko eta eskualdeko erakundeek biltzen  
dituzten sare nazional garrantzitsuenak:

- i) Emakumeen Sare Nazionala 1991. urteko Konstituzioaren aldarrikapenaren inguruan jaio  
zen. Eragin politiko handia du. Sare honi esker, 1991eko Konstituzio Politikoan emakumeen  
eskubideekin aldeko araudia egitea lortu zen;
- ii) Emakumeen Ibilbide Baketsua gatazkak era baketsuan konpontzeko. Adierazpen feminista  
da, eta mobilizazioari ematen diote garrantzia;
- iii) Hitzarmenaren Mahai Nazionala oinarrizko erakundearen eta herriko emakumeen arteko arti-  
kulazio prozesu gisa jaio zen;

- iv) Emakumeen Herri Erakundea -OFP Magdalena Erdia eskualdean oso eragin handia du, baina beste eskualdeetara zabaltzea lortu du. Eragile armatu guztiak autonomotzat jotzen ditu eta aldarrikapen sozial zein popularrak hartzen ditu kontuan;
- v) Bakearen aldeko Emakume Kolonbiarren Ekimen Aliantza -IMP. Aurrerago emango ditut talde horri buruzko xehetasun gehiago.

Deskribapen honen asmoa ez da beste interes batzuen alde egiten duten erakundeak baztertzea. Aldiz, aipatutakoak sare esanguratsuenak direla esatera ausartzen naiz. Erakundeetako askok sare edo aliantzaren batean jarduten dute.

Nik zuzentzen dudan Bakearen aldeko Emakumeen Ekimena aliantza (IMP) 2001. urtean jaio zen, erakunde sozial mistoetako emakumeen, GKEetako emakumeen, feministen eta akademikoen aliantza gisa jaio ere. Suediako langileen sindikatuko emakumeek bultzatu zuten. Sindikalismoaren ikuspegitik, gurekin bat egiten zuten eta bakea negoziatzeko prozesuetan emakumerik ez egoteak kezkatu egin zituen. Une hartan, Gobernu FARC talde armatuarekin negoziatzen ari zen, eta emakumeak falta ziren.

Gure asmoa da gatazkek emakumeengan duten eragina murriztea eta bakea lortzeko prozesuetan emakumeen parte-hartze zuzena, erabakitzaileria eta autonomia lortzea. 7 sektoreekin egiten dugu lan (sindikalistak, gazteak, jatorri afrikarrekoak, indigenak, akademikokoak, nekazariak, feministak), eta 23 departamentu ditugu, 54 herritan. Bakea eraikitzeke guneetan eragin politikoa izateko estrategia dugu. Gure burua bakeari eta emakumei buruzko iritziaren erreferente eta eragile politiko gisa ikusten dugu. Gure jarduteko era Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325/2000 ebazpenean oinarritu dugu. Ebazpen horren arabera, kestatu kideek bermatu behar dute emakumeek bakea lortzeko prozesuetan parte hartuko dutela eta, gainera, gatazkaren erdian dauden emakumeak babesteko exijitzen du. Bakea lortzeko aliantza egin genuen, baina aliantza sinatu duten erakundeek ez dituzte beste jarduerak edo interes partikularrak bazterrean utzi.

## **1.2**

## **EMAKUME MUGIMENDUAREN**

### **JARDUERAK**

### **1.2.1**

### **IKUSGAI IZAN**

Kolonbiako emakumeak bakearen alde lanean hasi zirenean, emakumeek gatazkan dituzten arazoak ikusgai jartzea izan zen haien lehen helburua. Ez zen emakumeen aurkako bortxaketa larrien berri ematen, ez zen ezer esaten guri buruz. Hala, txosten publikoak egiteko prozesua hasi zen. Emakumea eta gatazka Mahaia espezialista zen halako txostenetan. 1998ko Ibilbide Baketsuak ibilaldia bultzatu zuen Antioquia departamentuko Uraba eskualdera. Ibilbide hartan gatazka eta emakumeak gaia kalean zabaltzeko helburua genuen emakume erakunde askok hartu genuen parte. Helburu berarekin egin genuen Barrancabermeja udalerrirako martxa (Magdalena Medio eskualdea).

---

Txostenei eta Kolonbiako kaleetan egindako ibilaldiei esker, emakumeek gatazketan sufritzen dutena kontuan hartzeko eskaerak indarra hartu zuen.

2001eko ekainean, aurretik aipatutako bost erakundeek elkartu eta bakearen aldeko martxa nazional handi bat egiteko beharra ikusi genuen. 40.000 emakume baino gehiago bildu genituen, eta Kolonia osoan zehar ibili ginen, autobusetan, pankartekin. Pasatzen ginen herri guztietan ekitaldi txiki bat egiten genuen. Horri esker, Kolonia osoak izan zuen bakearen aldeko emakumeen berri. Gure kontsigna: «Gerrari ez, bakeari bai, negoziazioa orain, emakumeek bakea lortuko dugu».

Ibilaldi horrek emakumeak agertoki nazionalean kokatu zituen emakumeak. Lehen aldiz, egunkariak lehenengo orrietara eraman zituzten emakumeen ekintzak. Lortu genuen nahi genuena: eragile armatuetatik eta Gobernutik independentea zen emakume mugimendu bat ikustea. Bakearen aldeko eta gerraren kontrako mezu argia zabaltzeko. Ibilaldi horretara emakume asko batu ziren; emakume antolatuak eta ez antolatuak.

Une hartatik emakumeak indarra hartzen hasi ginela uste dut; botere kolektiboa hartu genuela, alegia. Bakearen aldeko eragile politikoak ginela sentitu genuen. Emakumeen erakundeekin ituna lortzeko prozesu hori luzea izan zen: 6 hilabete behar izan genuen prestatzeko; deklarazioa hitartzeko; leku urrunetako emakumeak mobilizatorako prestatzeko; eta, 2, 3, edo 4 eguneko bidaiak. Ibilaldia errespetatu egin zuten; eragile armatuek ez zuten erasorik egin. Ekintza kolektiboa botere politikoa sortzen duela ikasi genuen, eta beharrezkoa dela mezu argiak helaraztea, ez bakarrik emakumei baita iritzi publikoari ere. Alabaina, ohartzen gara aldarrikapenak egiteko aukera galdu genuela. Izan ere, onarpena lortzea zen gure helburu nagusia, eta horretara mugatu ginen.

## **1.2.2**

### **BAKEAN ERREFERENTEAK IZATEA**

1999. eta 2000. urtean Caguanen FARCEkin bake elkarrizketak egin zituztenean, gizarte zibilak hainbat audientzia publikotan parte hartu zuen. Orduan, hainbat erakundetako emakumeek emakumeen arteko audientziak egitea erabaki genuen. Bake-eszenatokietan elkarrekin parte hartzeko lehen esperientzietako bat (1991ko bake-prozesuetan ez genuen parte hartu). Hortik, zenbait irakaspen atera genituen: lehena, emakumeok ez genuela hitzaldi bateraturik. 280 txosten egin ditugu, askotariko gaien inguruan. Nazioarteko begirale batek, Coroline Mosserrek, horretaz ohartarazi gintuen; izan ere, hitzaldi guztiak entzun ondoren ez zekien zein zen emakumeen helburua, mezuak era askotakoak baitziren.

Esperientzia honetatik irakaspen handi bat geratu zaigu: emakumeok ez genuen agenda bateraturik. IMP Aliantzak (Bakearen aldeko Emakumeen Ekimena) Bakearen Aldeko Emakumeen Lehen Biltzarra antolatzea erabaki zuen. Herrialde osoan proposamenak jasotzen hasi ginen, eta agendarako 400 proposamen atera genituen. Denon artean adostasunak eraiki genituen eta, horretarako, ikuspuntu guztiak ordezkatzeko zituzten lehentasunak ezartzen, sailkatzen eta identifikatzen joan ginen. Abiapuntua «bazterketa» hitz komuna aukeratu eta bost mota ezberdin identifikatu

genituen: bazterketa ekonomikoa, juridikoa, politikoa, soziala eta lurraldekoa. Horrek, azkenean, bakearen aldeko emakumeen agendan hamabi proposamen jasotzera eramán gintuen.

Agenda hori, 2002tik gaur arte, gure lan-tresna bihurtu da eta emakumeek agenda hori leku guztietara eramaten dugu, tokiko, udalerriko eta bake eszenatokietara. Gure hurrengo pausoa, beraz, agenda negoziatzea zen. Baina hori arazo handia zen. Izan ere, emakumeek gure artean negoziatzean oso esperientzia ona izan genuen, baina eszenatoki mistoetan, tokiko agintariek, alderdiekin eta bake negoziazioaren eszenatokietan negoziatzea, besterik zen.

### 1.2.3

#### ERABAKIAK HARTZEKO GARAIAK PARTE-HARTZERA IRISTEA

Bakearen aldeko Emakumeen Agenda sortu ondoren, 2002an FARCekin abiatutako bake prozesuaren porrota iritsi zen, eta gobernu berri bat. Bake gune guztiak itxi ondoren, Uribe presidente aukeratu berriak segurtasun demokratikorako politika ezarri zuen. Gerrillari taldeei erabateko gerra, atxiloteta ugari, salatari politika, lurraldearen militarizazioa. Gu udalerrietan emakumeen agendaren bidez eragiten saiatu ginen, agenda emakumeen artean zabaltzen. Baina, barruko lana izan zen, ez zegoen ekiteko lekurik.

FARCen eta Gobernuaren arteko akordio humanitarioek indarra hartu zuten, bahiketa ugari egin zituzten, eta jarduteko modua aurkitu genuen, baina oso txikia eta arrakastarik izateko oso aukera gutxirekin. Gaur arte ez du emaitzarik izan.

Jarduteko geratzen zitzaigun aukera bakarra NBERen 1325/2000 ebazpena zenez, hura bultzatu, betetzeko eskatu eta zabaldu genuen.

2003an, Gobernuak elkarrizketa prozesua zabaldu zuen AUC Kolonbiako Autodefentsa Batuak taldearekin. Carlos Castaño Gilek zuzentzen zuen talde paramilitarra. Prozesua talde gutxi batzuek hasi zuten, eta poliki-poliki besteak prozesuan sartzen joan ziren.

Buruzagi paramilitarrekin negoziazio mahaia eratu zen formalki, Cordoba departamentuko Santa Fe de Raliton.

IMP Ituna barne eztabaida fasean sartu zen: Parte hartuko al dugu? Nola? Norekin? Noren aurrean? Hala jaio zen genero ikuspegia kontuan hartu zuen Egia, Justizia eta Konponketa eskubidean eragiteko Mahai Nazionala. Elkarrizketa politiko publikoa egiteko estrategia gisa sortu zen, hain zuzen. ezin genuen zuzenean parte hartu; izan ere, estatus politikorik ez zuen eragile armatu batekin ziren elkarrizketak.

Orduan, kanpotik bazen ere, eragitea pentsatu genuen. Biktimekin hasi ginen lanean, haiek bilatzen, urteetan isilpean egon ziren emakume haiek gertutik ezagutzen, eta baita gordeta zituzten minak ere. Egia, justiziaren eta kalte-ordainen aldeko gune bat sortu genuen, AGORAS izeneko. Lehenak izan ginen biktimen eta beren eskubideen gaia mahaigaineratzen. Prozesuaren jarraipena egitea erabaki genuen eta horretarako txostenak egin genituen paramilitarrak desmobilizatzen ari ziren lekuetan. Emakumeak erabat beldurtuta heltzen ziren, ez zuten hitz egiten.

---

Material pedagogiko ugari eskuratu behar izan genuen: bideoak eta elkarrizketa pixka bat irekitzeko aukera emango ziguten liburuxkak. Emakume gutxi iristen ziren.

Kasuei buruzko informazioa biltzea proposatu genion geure buruari. Emakumeek ez dituzte beren kasuak salatu, besteei gertatutakoaz hitz egiten dute beti; ezagunei edo bizilagunei gertatutakoaz. Sekula ez beren buruaz, beren bizipenez.

2004an justizia eta bakearen legea eztabaidatu zuten, eta 2005eko ekainean amaitu zen eztabaida, 975 Legea onartuta. Eragina lortu nahian, IMP aliantzak eta Emakumeen Sare Nazionalak legearen eztabaida publikoan parte hartzea erabaki zuten. Lan handia eginez, legean Erromako Estatutuko irizpideetan oinarritutako zenbait artikulua sartzeari lortu genuen: *Biktimak eta lekukoak babestea; epaiketaren publizitatean salbuespena; behar bereziei arreta; Bi emakumeren parte hartzea CNRRn, eta artxiboetan sartzeko laguntzeko neurriak.*

Legeari buruzko kritikak adierazi genituen, adierazpen publikoak egin genituen, eztabaida guztietara joan ginen, baina azkenean legea onartu egin zuten eta gaur egun indarrean dago. Auzitegi Konstituzionalak kontrol konstituzionala egin zuen eta funtsezko zenbait aldaketa egin zizkion: besteak beste, ezabatu egin zuen paramilitarismoa delitu politikotzat jotzen zuen artikulua. Lege hori gaur egun, gorteen epaiarekin, egia, justizia eta kalte-ordainen alde lan egiteko tresna da.

Lan honen emaitza gisa, IMPko emakumeei CNRRn parte hartzeko eskatu genien, neuk eta Ana Teresa Bernalek. Bernal bakearen aldeko mugimenduetako kidea da, eta REDEPAZ erakunde mistoa zuzentzen du, Bakearen aldeko eta Gerraren aurkako Ekimenen Sarea.

Zailtasun handiarekin, baina lortu genuen emakumeek parte hartzea gizarteak bakea eraikitzen laguntzeko duen erakunde instituzionalizatu bakarrean. Partaidetza helburu hori legez dago jasoa.

#### **1.2.4**

#### **ERRESISTENTZIA EKIMENETAN ETA BAKEAREN ALDE LANEAN ARI DIREN EMAKUMEAK**

Bakearen aldeko lan asko egin ditugu emakume mugimendu gisa. Komunitateen barruan, hainbat emakume taldek gerraren aurka lan egin dute. Komunitateak antolatu egin dira kide armatuei indarrez errekrutatzen dituzten seme-alabak kentzeko, gerraren aurkako komunitateek egiten dituzten erresistentzia martxa guztietan hartzen dute parte eta itzulera programak zuzendu dituzte. Emakumeak gehiengoa dira bakearen aldeko erakundeetan.

Kolonbian azken hamarkadan «erresistentzia komunitateak, bake komunitateak eta bake lurraldeak» sortu dira. Estrategia hauek guztiek ezetz esan diote gerrari eta eragile armatuekiko autonomia adierazi dute. Esperientzia hauetan emakumeek lidergo garrantzitsua jokatu dute eta bizirauteko gai izan dira.

### 1.2.5

## EMAKUMEEK EGIAREN, JUSTIZIAREN ETA KALTE-ORDAINEN ALDE EGINDAKO LANA

— Egia, emakumeen ikuspuntutik: Egia kontatuz eraiki behar da egia. Emakumeek kontatu, azaldu eta esan behar dute egia hori. Emakume erakundeek memoria eraikitzeke hainbat ahalegin egin ditugu dagoeneko. Berreskuratu nahi dugun elementuetako bat subjektibotasuna da; emakumeen gertaerak ikusteko dugun moduaren subjektibotasuna. Izan ere, emakumeen eta gizonen ikuspegia ezberdina da. Orain, CNRRren testuinguruan, gure nahia da emakumeek kontatu eta bizitako egia azalera dadila; egia judizial eta historikoaren inguruko txostenetan ager dadila, guk idatzia eta guk adierazten dugun moduan.

— Genero justizia: Gure lanerako emakumeek justiziara jo ahal izatea lehentasunetako bat da, baina sistema judiziala gizonen egin dute; haien logikaren arabera asmatu eta exekutatu dute. Ebazpenekin nola jokatu, delituen larritasunaren balorazioak baldintzatzen du. Emakumeen aurka egindako delituak «delitu txikiak» dira Justizia egikaritzen dutenen jokabidearen beste ezaugarrietako bat da nola ikertzen dituzten eta zein garrantzia ematen dieten emakumeen aurkako delituei. Gatazkaren erdian dauden emakumeen aurkako delituak dira, lehen esaten genuen bezala, gutxi salatu direnak. Gainera, emakume biktimekin lan egiterakoan, familiaren edo komunitatearen aurrean duten lotsa gainditzeko lagundu behar zaie. Izan ere, delituak ezkutatu dituzte eta, zenbait kasutan, bortxatu dituztenean, familiak edo komunitateak utzi behar izan dituzte. Sarraskiak edo bortxaketa handiak gertatu direnean izan da hori.

— Kalte-ordainak: Nola lor dezakegu kalte-ordainetan emakumeek nozitutako guztia kontuan hartzea? Nola lortu kalte-ordainak, hain zaila egiten bazaigu emakumeen aurkako delituak eta kalteak baloratzea? Alabaina, oso gogor ari gara lan egiten taldeekin auzi honetan proposamenak egiteko, eta arlo honi dagozkion politika publikoak eramateko CNRRra. Batez ere bi arlotan daukagu interesa: bata: egiturazko egoerak konpontzea posible egingo duten politikak. Horretarako, kontuan hartu behar da gatazka egoeretan handitu egiten dela emakumeen aurkako bazterketa; eta bestea, kalteak zehazteko emakumeen egoera berezia eta emakumeek komunitatean izan duten posizioa kontuan hartuko dituzten politikak.

Funtsezkoa da halakoak ez errepikatzea, eta horrek zerikusia dauka egiturazko konponbide neurriak bilatzearekin. Neurri horiek beharrezkoak dira emakumeen aurkako indarkeria estrukturaliki gainditzeko.



### **2.**

Zera ikasi dugu:

1. Emakumeen mugimendua indar edo botere kolektiboa da eta gatazka sozialak, politikoak, ekonomikoak, etnikoak zein erlijiosoak indarkeria erabili gabe konpontzearen aldeko jarrera erakutsi behar du, bai gure herrialdeetan bai mundu osoan ere.
2. Emakumeen mugimendu eta erakundeek helburu berdinekin bat egin dezaketen mugimendu mistoekin zein emakume funtzionarioekin aliantzak eraikitzearen garrantzia.
3. Gure artean hitzarmenak egiten ikasi dugu, adostasunera iristen, besteen aurrean agertzen garenean interesak bateratzeko akordioak bilatzen.
4. lehentasunak ezartzen dituzten agenda komun, argi eta sinpleak behar ditugula ondorioztatu dugu.
5. Gure partaidetza ahalbidetuko duen negoziazio eredu bat sortu behar dugu. Baina, erronka handia da, gaur egungo ereduak maskulinoak, patriarkalak, baitira. Gatazkek emakumeei eragiten digutenez bereziki, bake agertokietan ordezkaturuta egoteak gatazkek eraldatu ahal izatea ekarriko du.
6. Onartzen dugu eragin politikoa dela estrategia garrantzitsuenetako bat.

Eskerrik asko.



---

**NORA MORALES DE CORTIÑAS**  
**Maiatzeko Plazako Amak.**  
**Argentina**

*Bakea*

*sendotzea:*

*emakumeak*

*gizarte-*

*-aldaketaren*

*alde*



---

XX. mendeko Argentinak erakunde biolentzia handiko prozesu luzea igaro zuen. Biolentzia hori bai erakunde gobernuetan bai de facto gobernuetan ageri izan da. Erregimen autoritario ez zibiletan, herritarren ordezkartitzek hitzik ez dutenez, erakunde-biolentzia da gizartea kontrolatzeko eta gatazkak diziplinatzeko modu bakarra.

Azken estatu-kolpea (1976-1983) izan zen Argentinako historiako odoltsuena. Hain muturreko erakunde-biolentzia ezartzeko (genozidioa ezartzeko, hain zuzen ere) izan ziren arrazoiak laburtzea nahiko zaila da. Une historiko horrek egoera oso korapilatsua du barnean; bai nazioan, bai nazioartean.

1976ko martxoaren 24an Indar Armatuak María E. Martínez de Perón presidentea bere postutik kendu zuten. Junta Militarra ondokoek osatu zuten: Jorge R. Videla jeneralak, Emilio Massera almiranteak eta Ramón Agosti brigadierrak. Junta Militarrak kontinenteko joera militarrekin bat egin zuen. Joera horrek Latinoamerikako herri askotan antzeko biolentzia formak aldi berean eraman zituen aurrera (Condor operazioa).

Heria berreraikitze asmoa azaldu zuten. Beren promesak 40ko hamarkadan peronismoarekin hasitako ziklo historikoa amaitzean oinarritu ziren, ongizate-estatuaren eredia eraikiz. Aldi berean, ziklo berria irekitzeko konpromisoa hartu zuen, formula berri bat aplikatuz: neoliberalismoa ekonomiaren arloan, eta kontserbadurismoa politikarenean. Estatu-kolpeak Estatuaren terrorismoa erakundeetara eraman zuen. Hala, aurretik A Hirukoitzak (Argentinako aliantza antikomunista) beldurra, behartutako desagertzeak, eta heriotzak eragiteko zuen metodologia are gehiago findu zuten. Indar Armatuak beren herri propioko okupazio ejertzito moduan jokatu zuten.

Estatu zapaltzailearen immunitateak gizartean ikara eta babesik eza sortu zuen. Aipatutako ideologiaren esparrutan oinarrituta, 1976ko de facto gobernuak, batetik, herriaren aurkako politika ekonomiko eta sozialak ezarri zituen, eta bestetik, gremioetako erakundeen, eta erakunde politiko eta kulturalen funtzionamendua ezabatu zuen.

Gizartea diziplinatzeko asmoa pisuzkoa denez, segurtasun indarrak taldean hasi ziren lanean eta ikara giroa ezarri zen: hiru indar armatuak, poliziarekin bat. Horretarako, segurtasun nazionalaren teoriarik doktrina erreferenteak zituzten. Teoria horrek militarren artean predikatze historia luzea zuen.

Egia da hirugarren gobernu peronistan ehunka pertsona desagertzen hasi zirela, baina 1976tik aurrera, egoera hori areagotu egin zen, eta desagertzeak sistematikoak eta egunerokoak bihurtu ziren. Horrek agerian ipini zuen ez zirela ekintza bakanduak, edota errepresio militar eta polizialen gehiegikeri hutsak; boterekoek antolatutako plana zen. Plan hori indar armatuak eraman zuten aurrera, eta nazioko eta nazioarteko sektore ekonomiko handiek babestu zuten; ez da ahaztu behar nazioko hainbat zatiren isiltasuna: sindikatuetako buruzagitza burokratikoarena, alderdi politiko nagusien gehiengo handiarena, eliza katolikoko hierarkiarena eta herritar askorena.

Pertsonen desagertze behartuak ez ziren Argentinan bakarrik gertatu, Latinoameriketan gobernu militar edota autoritarioak zituzten herrialdetan ere hala izan zen.

1976ko erregimen totalitarioak gizartea «militarizatze» asmoa zuen; bai arlo publikoan, bai pribatuan. Horretarako, ikara eta errepresio sistematikoa ezarri zituen. Taldean parte hartzeko bi-

---

deak eta gizarte protestak ezabatu zituzten, anomia ezarri zuten eta herritarrak guztiz atomizatu zituzten.

Hori horrela izanik, giza eskubideen mugimendua parte hartzeko, eusteko eta erresistentziarako gunea eratzen aritu zen estatu-terrorismoari aurka egiteko. Giza eskubideen adierazpen ugarien artean jaioak gara gu, Maiatzeko Plazako Amak, bidegabekeriaren eta erakunde biolentziaren aurkako borroka aurrera eramateko.

Tragedia izugarri horretatik jaio ginen, eta tragedia horrek hasi du gure mugimendu politikoa ere; mugak gaindituko dituen mugimendu politikoa, hain justu.

Maiatzeko Plazako Amak mugimendua bat-bateko gune horizontal, heterogeneo, pluralista moduan jaio zen klase baldintzei, posizio politikoei, kulturei eta erlijiosoei dagokionez. Giza eskubideak urratzeko era berria salatzen beharrak eta borrokarako gogoak batzen gaitu; pertsonen desagertze behartua, hain zuzen ere.

Hasieran diktadura zibilak eta militarrek ez dio garrantzia handirik ematen gure mugimenduari. Beren ustez, emakume eta etxeko andrez eratutako taldea ginenez oro har, laster ezkondu eta etxera itzuliko ginelakoan zeuden.

Ama ginela eta errepresiotik babesturako egongo ginela uste genuen. Hori hala izan zen 1977ko abenduaren 8 eta 10 bitartean inguruko pertsonak bahitzen hasi ziren arte: Azucena Villaflor, gure mugimendu honetako sortzailetako bat, Ester Careaga, Mary Ponce de Bianco, bi lekume frantziar eta ahaide talde bat. Hori jazo zenean bahiketak eta desagertzeak salatzen zituen artikulua bat antolatzen ari ginen.

Maiatzeko Plazako Amak, uste gabe, bat-batean, politika arloan, mobilizazioetan, eta borrokarako narratibak sartu zituen; orduan arte gizonentzat soilik ziren guneetan, hain zuzen ere. Hasieran ez genuen uste egiten genuena politikoa zenik. Urteak aurrera joan ahala, geuk aukeratu ez genuen beste rol hori onartu genuen. Gure etxea, seme-alabak eta ilobak alde batera utzi genituen borroka alde egiteko. Borroka helburu nagusia lortu ez bagenuen ere, gure seme-alabak bizirik agertu izanak iluntasunetik ateratu zuten gure bizi zuen errealitate gordina.

Gure seme-alabak bahitu egin zituzten. Indarrez hartu zituzten beren etxeetan, lantokietan, eskoletan edota kalean bertan. Orduan hasi genuen gure bilaketa etsia bulego publikoetan, kuarteleetan, polizia-etxeetan eta bikariotzetan.

Geure buruari galdetzen genion: Non daude? Zer egin dute eurekin? Baina agintariek ez zuten erantzuten, ez zeuden kartzelatan, justiziak ez zekien ezer eta Habeas Corpusak erantzunik gabe geratzen ziren.

Ondareak bezalaxe, desagertutako seme-alabak gerran atzemanikoaren parte ziren. Haurdun zeuden atxilotuak bizirik mantentzen ziren haurrak jaio bitartean. Hori guztia jabetze mekanismo maltzur baten barruan kokatzen zen; hala, bahitutako haur horiek nortasun faltsuarekin bizitzera behartu zituzten, jatorria ezkutuan izan behar zuten, eta sarri, gaizkileekin berekin bizi behar izaten zuten. Asko oraindik ere beren menpe daude; aurki ditzakegunez, bilatu egin behar ditugu. Lan horretan dihardute Maiatzeko Plazako Amonak. Gaur egun, gazte asko, adoptatuak direla jakiten dutenean, euren nortasuna aurkitzera irteten dira.

---

Diktadura zibilak eta militarrek ekarri zituen ondorioak ez dira soilik erailketak, torturak, preso politikoak, desagertuak eta erbesteratuak. Diktaduraren ondorioz, gerora eredu sozio-ekonomiko baztertzaila ezarri zen Argentinan.

Maiatzeko Plazako Amak ostegunero 15:30ean elkartzen gara Maiatzeko Plazan, Gobernu-etxea, Metropolitana katedrala eta Kabildoaren aurrean, Maiatzeko Piramidearen inguruan itzulia emateko; askatasun une esanguratsua izaten da. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren urteurrenean, abendu hasieran, Erresistentzia Martxa egiten jarraituko dugu gure eskakizunekin:

- Atxilotu/desagertu guztien kokalekuari buruzko ikerketa eta informazio zehatza.
- Estatu-terrorismoaren arduradun guztiei epaiketa eta zigorra.
- Zigorgabetasun prozesuan izan ziren indultu dekretuen baliogabetasuna.
- Estatu-terrorismoak bahitutako ume guztiei (egun gazteak) beren nortasuna itzuli.
- Giza eskubideen defentsaren aldeko borroka nekaezina.

Gure taldeak azken gobernu honekin garaipen garrantzitsu asko lortu genituen giza eskubideen alde eta inpunitearen aurkako bidea irekitzearen borrokan. Gizarteko justiziaren alde eta gosenaren, pobrezia, bazterkeriaren eta diskriminazioaren aurka ari gara egiten; gure bidean aurrera darraigu gure seme-alaben eta herri osoaren ametsa egia bilakatu ahal izateko.

- Gerraren aurka gaude.
- Ez dugu onartzen heriotza-zigorra.
- Herrien autodeterminazio askea babesten dugu.
- Ziur gaude gure borrokarekin bakearen alde eta demokraziaren egonkortasunaren alde ari garela.





---

**STASA ZAJOVIC**

**Belgradoko Beltzez Jantzitako  
Emakumeak. Serbia**

*Etika feminista*

*eta bakearen*

*erakuntza.*

*Beltzez*

*Jantzitako*

*Emakumeen*

*esperientzia,*

*Belgrado-*

*Serbia*



## 1.

# *Krisialditik gerrara*

80ko hamarraldiaren azkenetan, Berlingo Harresia eraistearekin amaituko zen Ekialdeko krisia areagotuz joan ahala, Jugoslavia ohiko elite komunistek, aginpidean mantentzearen, zilegitasun iturri berriak bilatu zituzten. Eta zilegitasun berri hori Jugoslaviako erkidego plurietnikoa osatzen zuten zenbait etniaren ustezko interes etniko «mehatxatuetan» aurkitu zuten. Interes haien itzalean jaiotako proiektuen artean, Serbia Handiarena izan da «nabariena». Elite komunistako kide zen Slobodan Milosevic, baina hautesleen sostengua lortu zuen bere ideia nazionalistei eskerrak. Serbiaren homogeneizazio etnikoak antzeko prozesuak bultzatu zituen Jugoslavia ohia eratzen zuten beste errepublika batzuetan.

Homogeneizatze prozesu horiek munta handiko bi ondorio eragin dituzte:

1. Jugoslaviako ESF desegin ahala, estatu etnikoak sortuz joan dira.
2. Jugoslaviako ESFren desintegrazio sekuentziak indarkeria antolatua forma suntsitzaileenetako izan du: gerra, sarraskiak, genozidioa.

Jugoslavia desegitearen erantzukizun handiena eta, halaber, Jugoslavia ohiaren lurraldeetako gerrera, talde ahaltsuenari dagokio (hala demografiaren nola politikaren ikuspegitik), hau da, Serbiari, zeinak bere alde jartzea lortu baitzuen Jugoslavia ohiko indar armatuak (Jugoslaviako Herri Gudarostea, gero, Jugoslaviako Gudarostea bilakatuko zena).

Azken hamar urteotako gerra, hondamendi eta miserien esperientziak agerian utzi ditu ondorengo gertakariok:

- Patriarkatutik sortzen dira militarismoa eta nazionalismoa; ezinbesteko baldintza da bi horiek existituko badira. Bestearenganako, desberdinarenganako gorrotoa, hura fisikoki ezabatzeraino irits daitekeena, patriarkatuaren muin-muinean dago. Patriarkatuarentzat emakumeak izan dira beti bestea. Balkanetako konstanteetako bat (eta ez bakarrik Balkanetako) sistema patriarkala da; horren ondorioz, emakumea «bestetzat», «kanpokotzat» hartzen da.
- Ekonomia, gizarte eta politika arloetako krisi sakonaren eraginez zabalduetako deskontentua gorroto etniko bilakatu da. Alegia, ez da gorroto etnikoa izan krisialdia eta gerrak eragin dituen, baizik eta krisiak berak sortu du. Jendearen beldurra tresna gisa erabili da gorrotoak sortzeko eta militarizazioa maila guztietara zabaltzeko.
- Erregimen nazionalista-militaristak eta berorien errepresio ahalmena (Serbian eta Kroazian, batik bat) izan ziren gorroto etnikoa eta gerra posible egin zuen giroa (gerrako krimenak justifikatu dituen eta oraindik justifikatzen dituen) sortu zutenak, baina partaide izan ziren elite intelektualaren parte handiena, komunikabideak eta eliza ere. Horregatik, ez dago gerragatik eta gerrako krimenengatik zigor erantzukizun banakakoa bakarrik eskatzerik, erantzukizun moral kolektiboa ere egon baitzen.
- Garbiketa etnikoa, nahasketa etnikorik gabeko estatuak sortzeko tresna gisa erabilia, ez zen gerraren ondorio zital bat izan, gerraren xede nagusietakoa baizik; garbiketa etnikoa, muga politikoak sortzeko ez ezik, etnia erkidego bereko «besteak eta desberdinak» purgatzeko, arazteko erabili izan da.

- Oligarkia nazionalista-militaristek, Serbiakoak modu nabarmenean, biztanleria zibilaren aurkako gerra egin dute, biztanleria zibil etnikoki nahastuaren aurka, bereziki. Gerraren xedeak izan dira, halaber, indar demokratiko hauskorak birrintzea eta Jugoslavia ohiko gizarte zibilaren ernamuinak ezabatzea: S. Milosevicen erregimenak aurrekontu baliabide eskergak gastatu ditu gerra eta zabalkunde politikan, «serbiar lurralde guztiak bateratzea» jomuga hartuta. Kontrol zibilik gabe eta nazioarteko erkidegoak ezarritako enbargoaren kariatz, gerran xahutu da herrialdeko aberastasun guztia.
- Arpilatzea eta lapurreta ere gerraren xede izan dira. Arpilaketen bidez metatutako aberastasuak ia osorik legeztatu dira, eta horrek miseria eta deskontentu handiagoak eragin ditu biztanleriaren parterik handienean. Hala, gainera, gorroto-kapitala nabarmenki hazi da, lider nazionalista berriek eta erakunde klerikal-faxistek erabil dezaten.
- Nazioarteko komunitateak bere gain hartu behar du dagokion erantzukizuna: egia da ez duela hark eragin Jugoslavia ohiaren desintegrazioa, ez eta handik sortutako gerra paraleloak ere, baina garbiketa etnikoa legeztatu du eta bereizketa etnikoari bedeinkazioa eman dio «baketze» tresna gisa. Daytoneko hitzarmenak (1995) «bake armatua» ekarri du eta ontzat eman ditu garbiketa etnikoaren emaitzak. OTANek Kosovon eta Serbian (1999) esku hartzeak are militarizazio handiagoa ekarri du eskualdera. OTANek parte hartu ondoren iritsitako Kumanovoko hitzarmenak (1999ko ekaina) ez du garbiketa etnikoaren arazoa konpondu; al-diz, lehenean jarraitzen du eta, batez ere, Kosovoko biztanleria ez albaniarren pertsekuzioan gauzatzen da.

## 2.

## *Etika feminista gerraren, gerrako krimenen eta gerraosteko iragan kriminala ukatzearen aurkako erresistentzian...*

1991tik aurrera, Beltzez Jantzitako Emakumeek gerrari, nazionalismoari eta militarismoari ipinitako erresistentziak hainbat fase eta maila bizi izan ditu: emozionala, etikoa, politiko-aktibista, hezkuntzako, estetiko.

Lehen hamar urteetan, krimen antolatuen estatuan bizi izan gara; krimenen errealitatea ukatzen zuen herrialdean, erregimenaren esloganak adierazten zuen bezala: *Serbia ez dago gerran*. 2000ko urrian diktadura erori ostean, itxaropen handiz eta bete gabeko espektatibaz jositako aldi bat bizi izan dugu. 2003aren azken aldean egungo Gobernuak agintea hartu zuenetik, estatuko erakundeek protagonizatutako iragan kriminala ukatzen ari direla ikusten dugu.

---

Ondorengo gertakariok eragin handia izan dute, eta dute oraindik, Beltzez Jantzitako Emakumeen oinarri etiko eta jarrera politikoetan:

- Estatu erasotzailean bizi izan gara: Serbiako erregimenak du erantzukizun handiena Jugoslavia ohiaren desegitean eta izandako gerra eta errausketetan. Serbiar erregimenak hainbat eraso eta konta ezin ahala krimen burutu ditu; guztien artean ankerrena Srebrenicako genozidioa izan zen (1995eko uztailean, astebetean, serbiar soldaduek Bosniako 8.000 musulman baino gehiago hil zituzten). Gaur egun dugun estatuko elite politikoak ez dio uko egin aurreko erregimenaren ondare politikoari.
- Ez gara inoiz esanekoak izan: 1991tik, S. Milosevicen erregimen kriminalari desobeditu diogu eta, 2000tik aurrera, oraingo estatuari desobeditzen diogu, ez duelako errotik eten aurreko gerra politikarekin eta gerrako krimenekin.
- Gutxiengo handi bat ordezkatu izan dugu beti Serbian: baztertuak, estigmatizatuak, kriminalizatuak izan gara; «Serbiaren eta serbiar herriaren lotsagarri» izatea egotzi digute, bakar-bakarrak erantzukizuna eskatu diegulako, etengabe, serbiar kolektibo etniko osoaren izenean egindako gerragatik eta gerrako krimenengatik.

Serbiako erregimenaren politika erasotzaileari eta iragan kriminalaren ukazioari ipini diogun erresistentzian, beti ahalegindu izan gara, eta horretan jarraitzen dugu, patriarkatua desmuntatzen, mendekotasuna eta sumisia aldeztu dituelako. Gure bake politikan, ondorengo erabakiok hartu ditugu:

• ***PATRIARKATUARI BETI DESLEIAL IZATEA: OROBAT GERRARI, NAZIONALISMOARI, MILITARISMOARI...***

Patriarkatuak asmatu du gerra, gerrara jotzen du ezarritako ordena zaintzeko eta mantentzeko. Patriarkatua ez da gerraren ondorioa, gerraren zergatiko nagusia da patriarkatua (Bety Riardon). Badakigu patriarkatuak kontrol patriarkaleko mekanismoen bitartez mantentzen duela aginpidea. Guretat feminismoa edozein motatako aginte patriarkalari aurka egitea da, hala maila pribatuan, nola publikoan. Feminista gisa, mota guztietako aginte patriarkalen aurka oldartu behar dugu. Praxiarekin eta teoriarekin, hitzez eta ekintzaz, patriarkatuaren hiruko nagusia atalduko dugu: sexismoa, nazionalismoa, militarismoa. Eta baita gainerako mendekotasun sistema guztiak ere. Azterketa eta praxi feminista gabe, ezinezkoa da esandako triada patriarkala desmuntatzea. Horregatik, feminismoak, bai gogoeta eta bai praktika gisa, ezinbestean, patriarkatuaren, nazionalismoaren eta militarismoaren aurkakoa izan behar du.

• ***BETI EMAKUMEEN ALDE, ZATIKETA ETA MUGA OROREN GAINETIK...***

Sexismoak, genero bat bestea baino gehiago den ustean oinarritutako sistema denez, bere etniko gizonen leial izatea eta «odol eta tribu» jakin batekoak izatearekin soilik identifikatzea inposatzen die emakumei, krisialdi eta gerra aroetan, bereziki. Leialtasun horren ordainetan, gionez-

---

koen gremio patriarkalari emakumeak eta haurrak babestea dagokio. Esandako «babesa»ren trukean, gremio patriarkalak isiltasuna eskatzen du, gaizkidetzaraino heltzen den adostasuna «etnien eta aberriaren alde» eta izenean burututako krimenetan eta indarkeria ekintzetan.

Feminista gisa, emakumeen arteko elkartasuna eraiki nahi dugu, anaidi patriarkal, etnia eta estatuen gainetik; feminista gisa, emakumeek elkarri laguntzen diogu, gremio patriarkalen aurkako erresistentzian; feminista gisa, bakean eta indarkeria ezean oinarritutako bestelako mundu bat eraiki nahi dugu; elkarrekiko leial izanez, emakumeon burujabetza eta askatasunaren inguruan ditugun amets elkarbanatuetan.

• **BETI DESLEIAL IZATEA ETNIARI, ABERRIARI, NAZIO-ESTATUAREN GURASOEI...**

Nazionalismoak, nazioaren gurasoek eraikitako ideiei jarraiki, nazio bat bestea baino gehiago den ustean oinarritutako sistema denez, mito nazional deituak ia baldintzarik gabe sostengatzea eskatzen die herritarrei. Adibidez, mito horietako bat da «serbiar herria biktima nagusizat hartzea», edota «serbiar herriaren aurkako konplot mundiala»ren mitoa. Elite politiko eta intelektuallak, bere propaganda makineriaren bitartez, interes nazional deituak eta balio sistemak fabrikatzen ditu, besteak, desberdinak, apaltzea eta laidotzea, ezabatzeraino baztertzea justifikatzen duten juzku moralak eraikiz. Horregatik, feminista gisa, mota guztietako mitoak eta kontsentsu etnikoak hautsi behar ditugu, era horretan soilik arituko baikara bakearen alde.

Feminista gisa traizio egin behar diegu interes nazional deituei, feminismoak, besteak eta desberdinak errespetatu ez ezik, norberaren interesak eta premiak beregaintasunez definitzeko eskubidea aldeztzen baitu.

Ideologia eta praktika nazionalistak ama eta emazte rolera mugatzen ditu emakumeak, eta nazio-estatuarentzat zein aberriarentzat haurrak erditu beharra inposatzen die. Feminismoak, emakumeen burujabetzaren aldeko borroka denez eta emakumeen aukeratzeko eskubidea aldeztzen duenez, ulertzen du desleial izan behar zaiela aberriari, nazio-estatuari, interes nazionalei. Eta ez bakarrik gerrak sustatzen dituzten estatuetan.

• **BETI DESLEIAL MILITARISTEI, GERLARIEI, HEROIEI, ABERTZALEEI...**

Militarismoan, indarkerian eta nagusitasun militarrean oinarritutako sistema denez, «defentsarako gerra zuzenak» deituak sostengatzea eskatzen zaie mendekoei, «defendatu baizik ez baikara egin serbiar herriaren etsai ugarien aurrean». Militaristek eta abertzaleek heroien eta gerlarien ondoan egotea eskatzen diote emakumeei. Horregatik, feministen ikuspegitik, arbuia egin behar dugu gerra, arazoak konpontzeko metodo gisa, eta gatazkak indarkeriarik gabe ebatzen ahalegindu behar dugu beti.

---

Feminista gisa, gerra egiten duen edo indarkeria ekintzak burutzen dituen herrialdean, anti-abetzale izan behar dugu, edo, gutxienez, geuk definitu behar genuke abertzaletasuna, gutako norbaitentzat abertzaletasunak balioren bat baldin badu.

Feminista gisa, desertore izan behar dugu aberri-betebeharrekiko, inposatzen zaizkien rolak arbuaitzen dituzten gizonak sostengatu behar ditugu, gerrara joatea errefusatzen dutenean edo gerrako fronteetatik ihes egitea erabakitzen dutenean.

Patriarkatua desmuntatzeko etengabeko zereginean; gerraren, gerrako krimenen eta iragan kriminalaren ukazioaren aurkako erresistentzia atergabea, hainbat hastapen etikotan oinarritu gara eta oinarritzen jarraitzen dugu. Hastapen horietako batzuk aipatuko ditut:

- **Ez nire izenean:** gure izenean hitz egiten dutenetatik urruntzea modu iraunkorrean, agerian eta argi; hala egiten ez badugu, pentsa dezakete gure baimena, onospena edo gaizkidetasuna dutela burututako indarkeria ekintzetan, gerran eta krimenetan.
- **Ez nire izenean, ez nire diruarekin:** nire izenean gerrak, krimenak edo indarkeria ekintzak egiten dituztenak arbuaitzea, nire diruarekin, hau da, diru publikoarekin, egiten dutelako; herritar gisa, finantza baliabideen kontrola eskatu behar dut, baliabide horiek garapenean, bakean, hezkuntzan eta osasunean inberti daitezzen.
- **Ez diezagutela ziririk sartu, lehenik geurek eta gero gainerakoek:** desobeditze ekintzak dira, lehenik, bizi garen estatu honetako nazionalista eta militaristei eta, ondoren, gainerako guztiei. Ezinbestekoa da, lehendabizi, geure aberriko heroiei uko egitea, albora utzi gabe Jugoslavia ohiaren lurraldeetan (eta harantzago) ez gaudela guztiak egoera berdinean. Zehatzago esanda, gu gerrak egin dituen estatukoak gara, gure erantzukizuna handiagoa da, baina horrek ez du esan nahi gainerakoek ardurarik ez dutenik.
- **Garbi dezadan, lehenik, neure etxea, nire izenean egindako krimenen erantzukizunak eskatuz:** burujabetza moral, zintzotasun eta duintasun emozionalerako lehen hastapena da; lehenik geure etxea «garbitu» arte ez dugu lortuko gainerakoei hori bera egitea eskatzeko gaitasun morala.
- **Ez naiz, soilik, neuk egiten dudanaren erantzule, baita nire izenean egiten dutenarena ere:** halabeharrez, etnia jakin batekoa naiz, baina nire etniakoek krimen antolatutak, sistematikoak, aurrez ongi pentsatutak burutu dituzte nire izenean. Neure burua jatorri etnikoaren arabera aitortu ala ez, nire erantzukizuna krimen kolektiboen egileekin partekatzen dudana identitatea da. Hortik ondorioztatzen da nire jatorri etnikoa ezabaturik uzten duela nire izenean beste jatorri batzuetako pertsonak hiltzeko beren jatorria motibotzat hartu dutenen intentzioak eta jokabideak. Nire jatorri etnikoaren halabeharrezkotasuna hortxe amaitzen da, krimena nire izenean burutu baita. Gertaera erabakigarria da, nolabait esanda: «krimenen oinarri ideologikoa, izaera eta dimentsioak hartarainokoak dira, non zuzeneko eragina baitute nire banakako identitatean» (Nenad Dimitrijevic).
- **Etsipenean erori ordez, indarkeria gabeko matxinada sormentsua:** gerrak bul-tzatzen dituen edo izandako erantzukizuna ukatzen duen erregimenaren aurkako haserre eta sumindura sentimenduak desobeditze ekintza zibiko bihurtzen ditugu; gure izenean egindako

krimenengatik eta biktimei eragindako sufrimendu, oinaze eta laidoengatiko lotsa eta errunduntasun sentimenduak, gerrako eta gerra-krimenetako biktimekiko elkartasun ekintza bihurtzen ditugu.

3.

### *Etika feministatik praktika feministarantz eta antimilitaristarantz*

Hastapen etikoak pentsamendu eta praktika feminista eta antimilitarista bihurtzen ditugu:

- *Gerrari eta militarismoari emakumeek ipini dioten erresistentzia emakumeen historia alternatiboan jasoz*: bederatzi liburu argitaratu ditugu Emakumeak Bakearen alde edizioan. Gerraren, militarismoaren eta nazionalismoaren aurkako sentimenduak, lekukotzak, pentsamenduak eta ekintzak balioetsiz eta emakumearen beregaintasun espazioak zabalduz, liburu hauek historiaren pluraltasuna bultzatzen dute.
- *Gerraren aurkako emakumeen elkartasun sarea/Beltzez Jantzitako Emakumeen nazioarteko sarea sortuz*. 1992an sustatu genuen sare hau, mundu guztiko emakumeen laguntzarekin eta, orain arte, nazioarteko hamar topaketa egin ditugu. Beltzez Jantzitako Emakumeen nazioarteko sarean Jugoslavia ohiko, Europako, AEBetako, Latino Amerikako, Asiako, Afrikako eta Australiako aktibistak biltzen dira. Emakumeen arteko elkartasuna bultzatzen du sareak estatu, etnia eta erlijioek ezarritako zatiketa eta mugen gainetik; bakearen aldeko emakumeen kultura arteko koalizioak, gatazkak indarkeriarik gabe ebazteko konponbideetan emakumeek parte hartzea, eta feminismoaren eta antimilitarismoaren arteko loturak sustatzen ditu.
- *Kontzientzia eragozleei eta gerrako desertoreei laguntzeko, kontzientzia eragozte eta antimilitarismo sarea sortu dugu Serbian*. Bide horretatik bultzatzen dugu feminismo-antimilitarismo lotura. Eguneroko lanaren esperientzia balio handikoa izan zaigu eta erakutsi digu, gure herrialdean, emakume aktibistak gehiago inplikatzeko direla ekintza antimilitaristetan gizonetzokak baino. Hortik ondorioztatu dugu emakumeek ekintza antimilitaristekiko erakusten duten konpromisoaren arrazoia (gerra garaian, bereziki) militarismoak emakumeei egiten dien kalte izugarria dela; emakumeak nekatuta eta leporaino eginda daude abertzaletasunaz, eurei dago-kielako preziorik garestiena ordaintzea. Era berean, oinarriko emakumeekin egindako lanean ikasi dugu interes handia dutela emakumeek besteak zaintzeko tradiziozko rola erantzukizun zibiko eta gerraren aurkako ekintza bihurtzeko, arrazoi gehiagoren artean, gastu militarrek zuzeneko zerikusia dutelako eskualdeko emakumezkoek bizi duten miseria egoerarekin.

Oinarriko emakumeekin egindako lanaren esperientziak beste emaitza jakingarri batzuk ere eman ditu:

- *Emakumeak interesaturik agertzen dira beren eguneroko esperientzia pertsonalarekin lotura duten ekintza antimilitaristetan parte hartzeko*: oinarriko emakumeentzat antimilitarismoaren te-



oria oso urruneko zerbait da, beren eguneroko bizimoduarekin loturarik ez baldin badu. Laburbilduz, emakume horien antimilitarismoa ez da azterketa teoriko feministen fruitu, baizik eta esperientzia pertsonal mingarrietan oinarritua dago eta bizi duten bazterkeria egoeraren (besteen zaintza-lanetan, askotan) emaitza izaten da. Hala, militarismoaren aurkako ekintza bihurtu nahi izaten dituzte.

- *Serbiako bakearen aldeko emakumeen sarea (Beltzez Jantzitako Emakumeen sarea) zabaltea* bi jarduera aldi berean egin direlako izan da posible: kaleko ekintzak eta heziketa lana, hau da, bakerako hezkuntza. Ondorioztatu dugu bi jarduera horiek elkarren osagarri direla, eta bata bestea gabe egiteak ez duela bilatzen den emaitzarik ematen.
- *Feministak aktibistak dira eta ez elitistak*: gizarte maila guztietako emakumeen arteko (etxe- andreetatik hasi eta titulu akademiko altueneko emakumeetaraino) itun, koalizio eta lan partekatutak zabaldu izana da teoriaren eta praxiaren, jakintza akademikoaren eta praktikotasunaren arteko konpenetrazioaren frogarik nabariena eta, horrekin batera, gurea bezalako gizarte nagusiki nazionalista-militarista batean feminismoarekiko dauden aurreiritzi gogorak leuntzeko balio izan du.

Bakearen, indarkeria ezaren, feminismoaren eta antimilitarismoaren kultura sustatzearen, berebiziko arreta eskaini diogu hezkuntzari, eta tailerrak, mintegiak, topaketak, hitzaldiak, eztabaidak zein mahai-inguruak antolatu ditugu herrialde osoan. Beharbada, Beltzez Jantzitako Emakumeen jarduerarik garrantzizkoena izan da, azken urteotan. Esparru horren barruan gauzatu ditugun proiektuen artean nabarmenena *Bakearen aldeko emakumeen tailer ibiltaria* izan da. Esandako tailerretan, Serbia eta Montenegroko berrogeita hamar bat hiritako emakumeek hartu dute parte. Hezkuntza jarduera horietan, arreta berezia eskaini diegu ondorengo gai hauei: generoa eta etnia, identitatea, estereotipoak eta aurreiritziak, etnia eta kultura arteko elkartasuna, boterea eta bestetasuna, emakumeak eta antimilitarismoa, bakearen aldeko emakumeen politika, etab.

Serbia eta Montenegroko tailer horietako esperientzia oso baliotsua izan da, eta hainbat gai esanguratsu azaleratu ditu. Aipatzekoak dira, horien artean, generoaren, etniaren, estatuaren, eta aberiaren inguruak:

- Emakumeek ez dute onartzen etnia bateko kide gisa agertzerik eta, era horretan, beren aurkakotasuna erakusten diote bizi diren nazio-estatuari («nik, emakume gisa, ez dut aberririk» edo «nire nazioari dagokionez, emakumea naiz»);
- Emakumeek ez dute nazionalismoaz mintzatu nahi, edo deseroso sentitzen dira hori egitean, gaiari aurre egiteko beldur direlako edota beren buruak engainatzen dituztelako, uste izanez, arazoa ukatuz gainditu egiten dutela, edo autodefentsa gisa («ez dut horretan inoiz pentsatu» edo «ez naiz nazionalista, baina...»);
- Emakumeek ez dute nazionalismoaz hitz egin nahi, zirkulu «alternatiboetan» arbuatuak izango diren beldurrez edo desberdinak ez izatearren («zaharkitua geratu den zerbait da, jende primitiboari dagokion zerbait»);

- Emakumeek ukatu egiten dute beren jatorri etnikoa, edo, hobeto esanda, nazio-estatuarekiko duten kidetasuna, zirkulu alternatiboetan «politikoki desegokiak» izatea egotziko zaien beldurrez;
- Emakumeek lotsa sakona eta erruduntasuna sentitzen dute «gure izenean» egin denagatik, gure izenean burutu diren gerra-krimenengatik -hori, batez ere, Serbian gertatzen da («lotsa naiz serbiar jaio nintzelako» edo «errudun sentitzen naiz herri honetako kide izateagatik»);
- Emakumeek zerbait natural, berezko, organiko gisa bizi dute beren etnikotasuna («serbiar jaio banaiz, zer egin dezaket?»);
- Emakumeek aukera kultural eta politiko bezala bizi dute etnia batekoa edo bestekoa izatea, pluraltasun etnikoa bultzatzen dute, kultur ondarearen abusua arbuatzen dute eta etnikotasuna deseraikitzen saiatzen dira («gogoak ematen didana naiz ni»);
- Emakumeek, erreakzio gisa, beren etnikotasuna agertzen dutenean, nazionalista-militaristak ondare kultural eta etnikoaz jabetzen direlako da -hori, batik bat, Serbian gertatzen da («serbiar gisa hitz egiten dut argi uzteko serbiar guztiak ez direla berdinak, emakume serbiar gisa gerraren eta serbiar nazionalismoaren aurka borrokatzen naiz»);
- Emakumeek adierazten dute erromantizismo etnikoa (gutxiengoan dauden herrietakoek, bereziki), baina, aldi berean, kontzeptua desmuntatu egiten dute, erreakziozko nazionalismoaren arriskuak salatuz, etab. («Serbia "handiko" nazionalistek Montenegroren naziotasuna ukatzen dutenean, nik montenegroar gisa agertzen dut neure burua, baina gero ikusten dut tentelkeria bat dela, ez duela garrantzirik...»).

Hainbat parte-hartze teknika interaktibo erabiliz, Beltzez Jantzitako Emakumeen hastapen etikoak errespetatzen saiatu gara, heziketa eta hezkuntza zereginetan aritu garenean.

Ondorengo premisa hauetatik abiatu gara:

- *Ezinbestekoa da espazioak sortzea*: pertsona bakoitzaren lekukotzak eta jarrerak entzun daitezkeen eta ez daitezkeen guztiak historia kolektibora mugatu.
- *Ezinbestekoa da emakumeei biktima rola gainditzen laguntzea*: biktimismoa patriarkatuaren eta ideologia nazionalista-militaristaren arma ahaltsua baita.
- *Ezinbestekoa da emakumeen beregaintasun moral bultzatzea*: alegia, emakumeek kontzientzia hartu behar dute nik egiten dudanak ez ezik, nire izenean egiten den guztiak ere axola duela. Gerra, izan ere, kolektibo etniko osoaren izenean egin da; beraz, garrantzitsua da emakumeek zigor erantzukizun banakoaren kontzientzia ez ezik, erantzukizun moral kolektiboaren kontzientzia ere hartzea.
- *Ezinbestekoa da bake politika sortzea, mitoak desmuntatuz*: bereziki, ondorengo hau: «emakumeak baketsuak dira izatez, berez»; genero eraikuntza sozial eta kulturaletik abiatu gara: emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da; feminista/bakezalea ez da jaiotzen, egin egiten da...
- *Ezinbestekoa da emakumeen bizi baldintza desberdinak aintzakotzat hartzea, helburu berberak lortzeko estrategia desberdinak errespetatzea*: Kosovoko Emakumeen Sareak (Kosovo Women's Network) eta Serbiako Beltzez Jantzitako Emakumeen Sareak osatutako Bakearen al-

---

deko Koalizioaren esperientziak erakusten du (hau da, bi etnia kontrastatutako aktibistek eraturakoa, serbiarrek eta albaniarrek) desberdintasunak errespetatzea ere elkartasuna dela. Adibidez, Serbiako Beltzez Jantzitako Emakumeen Sarea estatu erasotzaile batean sortu zen (1991-99 aldian). Garai hartan, Sareko aktibistak oso iritzi minoritarioa ordezkatzeko zuten eta baztertuak demonizatuak izan ziren, beren erkidego barruan. Oso bestelako egoeran, Kosovoko Sareko emakumeak serbiar erregimen zapaltzailearen biktima ziren, (1999ra arte), Kosovoko albaniar emakumeek, beraz, sinesgarritasuna eta laguntza zuten, beren erkidegoko nazio adostasunaren barruan zeuden, etab. Argi dago, hortaz, alde handia dagoela egoera batetik bestera. Hala ere, desberdintasunei indarra eman ordez, lantzen saiatzen gara, baten gaituzten hainbat lotura bilatzen ditugu: patriarkatu indartsua da nagusi bi erkidegoetan; emakumeek jasaten dituzten hainbat patriarkatu molderen aurkako erresistentzia ere bi erkidegoek elkarbanatzen duten zerbait da. Patriarkatuari aurre egiteko estrategiak desberdinak dira, baina jomuga komun berbera dugu.

Hezkuntza jarduera horien bitartez geure ekarpena egin diogu:

- *Feminismoaren gizarte oinarria hedatzeari*: eskabide feministak gizarte osoan zabaltzen dira. Hala, gizarte eta kultura testuinguru, hezkuntza maila, jatorri etniko, sexu joera edota bizimodu estilo guztiz desberdineko emakumeak gai dira koalizioak eta itunak egiteko.
- *Sarea herri eta eskualde mailan hedatzeari*.
- *Emakumeen aktibismoa deszentralizatzeari*: sarearen izaera horizontalari, kapilarrari esker.
- *Balkanetan bake kultura guneak sortzeari, elkartasuna guztion eginbidetzat harturik*: orain arte, ekintza asko antolatu ditugu, hala Serbian nola Bosnia-Herzegovinan, B-Hko emakume aktibistekin batera, bereziki, Srebrenicako genozidioaren biktima izandakoekin, zeina serbiar gudarostearen lana izan baitzen.
- *Serbiako kontzientzien desmilitarizazio / desnazifikazioari*: baina baita eskualde osokoari ere, hezkuntza jarduera, ekinaldi, sinadura bilketa eta abarren bitartez (esandako sinadurak gerra krimenen erantzukizunagatik edo krimen horientatik Hagako Auzitegiak eskatutako estradizioen inguruan serbiar Gobernuak aldarrikatutako lege edo dekretuen aurka bildu izan dira).

4.

*Elkarren laguntza eta  
elkartasuna: bakearen,  
segurtasunaren, giza  
eskubideen, estatu  
sekularraren, eta abarren  
aldeko koalizioak*

Hasieratik, arreta ikaragarria eskaini diogu gurearen kideko elkarrekin batera antolatutako jardueri: itunak eta koalizioak sustatu ditugu, kanpainak eta ekintzak antolatu ditugu gai jakin baten inguruan iritzi publikoa sentsibilizatzea bilatuz edota erakundeei presioa egiten ahalegindu gara. 2000ra arte, hau da, S. Milosevicen erregimena erori arte, hainbat jarduera antolatu ditugu. Horietako batzuk besterik ez ditut aipatuko:

- *Erreferenduma gerraren eta gerrara nahitaez joan beharraren aurka* (1991-1992); 100.000 sinadura bildu ziren Serbia osoan. Hala ere, Serbiako Legebiltzarrak ez du aintzakotzat hartu, herritarren borondateari kasurik egin gabe.
- *Elkartasun kanpainak gerraren aurka matxinatuekin*, gerrara joateari uko egiten zioten gizonekin.
- *Amnistia kanpainak desertoreentzat*; iheslariak nahitaez gerrara joan beharraren aurkako ekintaldiak.
- *Elkartasun kanpainak* beren jatorri etnikoagatik baztertuak izan diren biktimekin (kroaziarrak, bosniarrak, hungariarrak, etab.).
- *Elkartasun kanpainak pertsona LGBTekin*: baztertuak izan diren sexu aukera desberdineko pertsonekin.
- *Errepresio politikoaren biktimekiko laguntza eta elkartasun kanpainak*, bai serbiarrak zirenean eta bai Kosovoko albaniarrek zirenean, bereziki, NATOren esku hartze militarren ondoren.
- *Kontrainformazio zereginak*: nazioarteko sareei informazioa emanez herrialdeko gertaerez, erregimenaren errepresioaz, erregimenaren aurkako indarkeria gabeko erresistentziaz, etab.

Erregimena erori zenetik Djindjic Lehen ministroa hil zuten arteko aldia (2000ko urria-2003ko martxoa), presio esanguratsua egin diogu botere legegileari; hala, gizarte zibilaren bultzadari esker onartu diren hainbat legeren artean, bi aipatuko ditut: etxeko indarkeriari buruzko legea eta kontzientzia eragozpenari buruzkoa.

Hala ere, Djindjic Lehen ministroaren hilketaren ondoren (2003ko martxoa) atzerakada handia izan da, maila guztietan. Orduetik hona, eskuratutako hainbat lorpen galdu izanaz gainera, errepresioak gora egin du, eta S. Milosevicen erregimenaren giroa berrindartu ez ezik, erregimen hartako ordezkariak agintera itzuli ziren. Adibidez, aste bakar batean (2004ko apirilean), 20.000 si-

---

nadura bildu genituen Hagako Auzitegiaren aurrean gerra-krimenengatik salatuak daudenei dirulaguntza emateko Legearen aurka, baina Serbiako Legebiltzarrak ez du gaur oraindik ere aintzat hartu. Horrek guztiak berretsi egiten du hemen oso zabaldurik dagoen iritzia: oraingo Gobernuak Milosevicen erregimenaren jarraipena baizik ez dela.

Barruko eta kanpoko oztopoei buruzko paragrafoan aipatuko dut sakonago gai hori.

Hala ere, aurrera egin dugu kanpaina eta koalizioekin, partaide garen gizarte zibilaren sektorearen barruan elkartasuna eta elkar laguntza indartuz, esandako sektore horren lehen ezaugarria zigorgabetasunaren aurkako etengabeko lana baita, uste dugulako ezinbesteko eta oinarritzko premisa dela herrialdea demokratizatzeke eta adiskidetzea, zuzenbide estatua eta, labur esanda, bake egoera zuzena zein egonkorra lortzeko.

Urte eta erdi honetan beste elkarte batzuekin batera bultzatu ditugun koalizio eta kanpainen artean, ondorengo hauek aipatu nahi ditut:

- *8ko Taldea Koalizioa zigorgabetasunaren kontra*: giza eskubideen aldeko zortzi elkartek osatzen dute eta Hagako Auzitegiari etengabe eskatzen ari dira gerra-krimenengatik salatuak dauden guztien estradizioa, trantsizioko justiziaren aplikazioa eta Belgradeko gerra-krimenentarako epaitegi bereziaren sostengua, horixe delako bere egitekoa betetzen duen herrialdeko erakunde bakarra eta hori Hagako Auzitegiaren sostenguari eskerrak. Srebrenicako genozidioaren hamargarren urteurrena dela medio, genozidioa ukatzea zigor delitutzat aitor dezan eskatu diogu Serbiako Legebiltzarrari; gure eskabidea, ordea, beste hainbatetan bezala, ez da aintzakotzat hartua izan, baina arreta handia erakarri du eta Serbiako iritzi publikoa sentiberatzea lortu du.
- *Estatu laikoaren aldeko Koalizioa*: 2006ko apirilean onartutako Elizaren eta erkidego erlijiosoen Legearen aurka, egundoko eskumenak eta aginpide ekonomikoa ematen baitizkie Serbiako Eliza ortodoxoari eta erkidego erlijiosoei oro har. Lege honek estatuaren sekulartasuna mehatxatu eta emakumearen giza eskubideak urratzeaz gainera, pribilegio ekonomiko handiak ematen dizkio Elizari.
- *Gure erreprodukzio eskubideak aldeztu ditugu, ez dugu atzera egin nahi*: urtero egiten dugun kanpaina da, martxoaren 8a aitzakiatzat hartuta, eta abortua ezeztatzearen alde (1952an legeztatu zen abortua gure herrian) eliza faxista-nazionalistak egiten duen propagandaren aurka zuzentzen da.
- *Gaur Espainia, bihar Serbia*: Serbiako gay-lesbianen aktibismo antolatua 15. urteurrena dela eta, kanpaina bat bultzatu dugu bikote homosexual eta heterosexualen aukera berdintasunaren alde. Esandako kanpainaren barruan, gizarte zibileko elkarte eta pertsona ezagun eta nabarmenen sinadurak bildu ditugu iritzi publikoa diskriminazio mota horren inguruan sentibilizatzeko eta giza eskubideen edonolako «hierarkizazioak» ekiditeko, bizi dugun gerra ondoko egoera zurrunbiltsuan eskubide hori kategoriatu behereneko «luxutzat» hartzeko arriskua baitago.
- *Emakumeak, bakea eta segurtasuna*: NBEko Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenean oinarritutako gure ebazpena bosgarren urteurrenaren harira (2005/10/31) bultzatu dugu. Hala

ere, osatugabea iruditu zaigu 1325 Ebazpena eta, gure testuinguru politiko eta sozioekonomikoari dagozkion eskabideei, generoa, bakea eta segurtasuna gai hartuta urtebetean zehar lankide izan ditugun oinarriko emakumeen eskabideak gehitu dizkiegu. Alabaina, etengabeko gerrak nozitu dituen herrialde batean, ez zegoen, inola ere, segurtasunaren gaia alde batera uzterik. Beraz, hasieratik, ikuspegi antimilitaristatik eta feministatik garatu ditugu segurtasun kontzeptuak. Hona, ondoren, laburturik, 1325 Ebazpenaren inguruan oinarriko emakumeekin egin den lana: segurtasunaren ohiko kontzeptua emakumearen premien aurkakoa da, militarismoan eta errepresioan oinarritzen baita. Emakumeen segurtasunerako mehatxagarriagoak dira pobrezia eta ezegonkortasun ekonomikoa, baina baita gero eta indartsuagoak diren klerikalismoa, fundamentalismoa (Estatuko arazoetan edo emakumearen giza eskubideetan Elizak muturra sartzea) eta zigorgabetasuna ere, hau da, trantsizioko justiziarik ez egotea. Laburbilduz, gure ebazpenak 1325 Ebazpeneko 4 puntu nagusiak ez ezik, hurrengo hauek ere jasotzen ditu, ezinbestekoak jotzen baititugu herritarren segurtasunerako:

- Estatu laikoa aldeztu dugu berariaz azpimarratuz «ohiturazko zuzenbidea ez dela berrezarri behar kultura nortasuna edo idiosinkrasia babestearen izenean», horretarako mehatxatzen baititu emakumearen giza eskubideak, erreproduzio eta sexu eskubideak, bereziki.
- Zigor eraginkorrak etxeko indarkeriaren aurka.
- Hagako Auzitegiak salatutakoei eta beren senitartekoei laguntzeko Legea indargabetzea; justiziaren eta moralaren kontrako laguntza horietarako ordezkari baliabide horiek xede humanitarioetarako erabiltzea, gerrako biktimentzat, bakea eta indarkeria gabeko hezkuntza proiektuetarako, etab.
- Gerratik bizirik ateratakoei eta horien senitartekoei kalte-ordainak ematea, gerra-krimenengatik salatutakoei eta S. Milosevicen erregimeneko funtzionarioei ondasunak konfiskatuz, zuzeneko parte-hartzea izan baitute besteren ondasunetaz jabetzerakoan eta beste hainbat aberastasun nazionalen lapurreta egin direnean.
- Serbiar gudarosteak 1991-1999 artean burututako gerra-krimenak ukatzen dituen orori (Srebrenicako genozidioa ukatzen dutenei bereziki) zigorrak ezartzea.
- Legea zorrotz aplikatzea bazterkeria etniko eta erlijiosoaren aurka (indarkeria eta bazterkeria mota horrek gora egin baitu Gobernu berriarekin).
- Indar armatuen kontrol zibil eta demokratikoa (gudarostea, segurtasun zerbitzuak, polizia).
- Estatuko segurtasun zerbitzuen kontrol berezia, Lustrazio Legearen aplikazio zorrotzaren bitartez, eta ezkutuko espedienteak irekitzeko legea lehenbailehen onartzea, kontuan izanik zerbitzu horrek arriskuan jartzen duela etengabe herritar guztien segurtasuna, eta giza eskubideak aldeztu dituzten pertsonena, bereziki.
- Indar armatuen eta segurtasun indarren pribatizazio gero eta handiagoa eragozteko, itxuragabe hazten ari baitira indarkeria giroa sustatuz eta zabalduz.
- Giza eskubideak aldeztu dituztenen eskubideak errespetatzea, NBEko Ebazpenaren arabera, etab.

---

Ohartarazi nahi dugu gure Ebazpena ez duela aintzat hartu Serbiako Legebiltzarrak, hogeitaka emakume elkartek bultzatu eta babestutako ekinaldi indartsua izanagatik eta orientazio zibikoko legebiltzarkide talde batek sostengua eman arren. Azken datu horrek politika arloan herrialdean dagoen ezegonkortasun giroa berresten du. Hala ere, urrian berriro ekingo diogu kanpainari, 1325 Ebazpenaren seigarren urteurrena dela eta.

- *Bakearen aldeko emakumeen koalizioa*: Kosovoko Emakumeen Sareak (Kosova Women's Network) eta Serbiako Beltzez Jantzitako Emakumeen Sareak osatua (Women in Black Network-Serbia). Koalizio hori 2006ko maiatzean eratu zuten da, Kosovoko eta Serbiako emakumeak hamar urte baino gehiagoz etengabeko harremanetan izan ondoren. Jakina den bezala, Serbiako erregimenak apartheid sistema ezarri zien Kosovoko albaniar jatorriko biztanleei eta, orduetik hona, Beltzez Jantzitako Emakumeek ekintzak antolatu dituzte, etengabe, *apartheid* / bereizkeria etnikoaren aurka. NATOk esku hartu ondoren (1999) nazioarteko babes herri gisa dago Kosovo, eta eskualdearen estatusa jada abian dauden negoziazioetan erabakiko da. Nabarmentzekoa da Kosovoko albaniarrek bat datozela Kosovoren independentzia eskatzerakoan eta, aldiz, serbiar gutxiengoa independentziaren guztiz kontrakoa dela, nahiz eta Serbiak ez duen inolako esku-sartze ahalmenik Kosovon, 1999tik aurrera. Belgradeko erregimenaren atergabeko propagandapean, alde batetik, Kosovoko serbiarrek ez dute parte hartzen Kosovoko erakundeetan eta, bestetik, indarkeria ekintzen arriskuan daude (garbiketa etniko, mendeku eta gainerakoak) gehiengo albaniarren eskuetan. Serbiako Gobernuak, ordea, kanpaina ikaragarria hasi du Kosovoren independentziaren aurka, arazo larri hori etnia arteko gorrotoak bultzatzeko, mito etnikoak berpizteko eta liskar giroa sustatzeko erabiliz, oraindik Kosovon bizi diren serbiarren egoeraz arduratu ordez. Koalizioak ondo-koak aldarrikatzen ditu: bake egonkorra eta iraunkorra, emakumeek negoziazioetan parte-hartzea, emakumeen arteko elkartasuna, giza segurtasuna kontzeptuaren aldeko jarduerak zein ekimen bateratuak, eta, genero ikuspegia kontuan izanda, zeinahi etniatako emakumeen arteko elkarrizketa Kosovon eta Serbian, tentsio etniko eta politikoak gora egin duelako. Serbiako Gobernuak eta serbiar herriaren gehiengo handi batek ez bezala, Serbiako Beltzez Jantzitako Emakumeen Sareak, Kosovoko Emakumeen Sarearekin batera, Kosovoren independentzia eta lurralde osotasuna babestu ditugu, estatu zibiko gisa. Bakearen Aldeko Emakumeen Koalizio gisa, adierazpen bateratu bat egin dugu horri buruz, Mazedoniako Struga hirian duela gutxi egindako konferentzian.

Koalizioaren esparruan, jarduera asko antolatzen ditugu: topaketak, kontsultak, eztabaida eta bisitaldi bateratuak.

## *Trantsizioko justizia - ikuspegi feminista...*

Zigorgabetasunaren aurka edo, zer da trantsizioko justizia?

«Trantsizio demokratikoan, hau da, erregimen kriminal/diktatorial batetik demokraziara igaro bitarteko prozesuan, eratu eta praktikan jarritako erabaki moralek, juridikoek zein politikoez, prozesuek eta erakundeek osatutako multzoa da trantsizioko justizia» (Nenad Dimitrijevic).

Ondorengo hauek hartzen ditu barne trantsizioko justiziak:

- zigor penalak;
- zigor ez penalak, non paper garrantzitsua jokatzen baitu gizarte zibilak; erantzukizun modu guztiak: banakakoa, kolektiboa, morala, politikoa; krimenen biktima izandakoen ordaintza eta birgaitze mekanismo guztiak.

Trantsizioko justizia prozesu iraunkorra da eta erantzukizun modu berriak sortzea eskatzen du, orain arte sortutako trantsizioko justiziak ez baitio erantzunik ematen iraganeko hainbat arazo korapilatsuri eta ez baita nahikoa iragan kriminalarekin eteteko ere.

Ez dago mekanikoki txerta daitekeen eredu egirik: ezagutzen diren eredu guztiak hainbat prozesutako trantsizioko justizien nahasketak dira. Horregatik da beharrezkoa trantsizioko justizia eredu berriak sortzea: forma berri horietako bat iraganari aurre egiteko gure ikuspegi feminista da.

- *Gaiaren gaineko oraingo teoriak ez baitute generoari buruzko berariazko aipamenik egiten:* ez eta genero desberdintasunei buruzkorik ere. Gaiari buruz lan ikaragarria dagoela egiteko ohartu gara, eta desafioari aurre egitea erabaki dugu.
- *Iraganari aurre egiteko teoria eta praxia sortzea ez da bakarrik erronka bat, historia patriarkalari egiten zaion ekarpen sormentsua ere bada:* historiak, izan ere, gerra aldietan, biktima eta martiri zereginera mugatzen ditu emakumeak, xede nazionalista eta militaristen mesedetan, are eta gehiago biktimizatzeko, mendean izateko eta tresna gisa erabiltzeko (eta ez soilik Balkanetako esperientzian).
- *Iraganari aurre egiteko estrategia feministak Serbiako erregimenak burututako krimenengatiko erruduntasun sentimendua desagertzearaino moteltzea eskatzen du:* erantzukizun handiagoa, baina baita erruduntasuna, oinazea eta sufrimendua ere, hasieratik gerraren kontra matxinatu diren Serbiako emakumeen sentimenduak dira, gerraren, nazionalismoaren eta militarismoaren aurkako egintzak sustatu dituzten emakumeenak. Emakumeek aktiboan izaten jarraitzen dute bake zuzen baten eraikuntzan. Feminista gisa, jakinaren gainean gaude erruduntasun sentimendua dela patriarkatuaren sortzaileetako bat; irekita gaude kontraesanak onartzera, hau da, erruduntasun sentimenduetara, krimenak egin baitira gure izenean, baina, aldi berean, zaintzaren etika feminista aberastu nahi dugu, bata besteaz arduratzekoarena, adiskidetasun loturak sortzekoarena... Emakumeen arteko adiskidetasuna balioestea bake politika aktiboa da.
- *Emakumeek bake eraikuntzan, adiskidetzean, iraganari aurre egiteko moduan egindako ekarpena, sobera ikusezina da:* ia bakarrik, besteren zaintza amatiarrera, kulpara, beren burua



ukatzera mugatzen da; zeregin horiek guztiak, besteen zaintzako eginkizun edo rol patriarkal gisa ulertzen dira. Horrela, emakumeak esparru patriarkalaren barruan «ainguratuak» gelditzen dira; ikuspegi feministatik, aldiz, herritar arduratsu gisa hautematen dira emakumeak.

- *Iraganari aurre egiteko prozesuan eta bakearen eraikuntzan, emakumeen ikusezintasuna eta bazterkeria gainditzea: ez da bakarrik arduraren feminista, baizik eta, horrekin batera, gerraren aurkako indarkeria gabeko erresistentzian, adiskidetzean eta bake prozesuetan parte hartu duten hainbat eta hainbat emakumeri egindako bidegabekeria zuzentzeko xedea du. Gerraren eta patriarkatuaren aurkako erresistentzian emakumeen presentziaren jarraitasuna geure gain hartzea ahalbidetzen digun ekintza da ikuspegi feminista: Serbian, gerraren eta nazionalismoaren aurkako ekimen ia guztiak emakumeek bultzatu dituzte (eta ez beti feministek), eta hori oso gogoan eta geureganaturik izan behar dugu.*
- *Iraganari aurre egitea elkartasun feministako ekintza da: ez soilik bestea, desberdina ulertzen saiatzen delako, baizik eta, ezinbestean, iragan kriminalaren ukazioaren kontra ez ezik, bazterkeria-politika ororen aurkako ekintza bateratuak sustatzea eta burura eramatea delako: klero-nazionalismoaren, klero-faxismoaren, xenofobiaren, homofobiaren, eta abarren aurka.*

Gerrak iraun duen bitartean, gure ekintzak orainaldiari aurre egiten saiatu dira: «historiari» aurre egiteak, hemen, Serbiako erregimenaren politika kriminalari aurre egitea esan nahi du. Iraganari aurre egiteko ekintzak memoria eraikitzeke zereginak izan dira, ekintza ireki eta biziak.

2000ko urria arte, Estatuak antolatutako krimenaren lekuko izan gara. S. Milosevicen erregimena erori ostean eta, bereziki, Z. Djindjic Lehen ministroaren hilketaren ondoren (2003ko martxoa), Beltzez Jantzitako Emakumeen eta iragan kriminalaren aurka borrokatzen diren beste elkarte batzuen erantzukizuna konplexuagoa egin zen: ez da etenik izan iragan kriminalarekin, gizarte intoleranteagoa egin da, agintari berriek ase ez dituzten espektatiben ondorioz, politikan parte ez hartzea, apatia eta frustrazioa ikaragarri hedatu baitira.

Ondoren, iraganari aurre egiteko hainbat molde eta eredu aipatuko ditut, baita iragan kriminalaren ukazioaren aurkako zenbait ekintza ere:

- *Kaleko ekintzak: protestak, performanceak, legegintza ekimenetarako sinadura bilketak, gerraren eta nahitaez gerrara joan beharraren aurkako kanpainak, kontzientzia eragozpen legea aitortzeko ekimenak, gerra-krimenengatik salatuei laguntzeko legearen aurkako kanpaina, etab. Zaila da zenbat ekintza egin diren zehaztea, baina hamabost urte luze hauetan milatik gora izan dira.*
- *Etengabeko egia eskaerak, krimenen inguruan, eta erantzukizun banakako, penal, moral, politiko eta kolektiboen eskaerak: hasteko, Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegia sortzea bultzatu genuen (1992an, 1993an Auzitegia sortu baino lehen), gerra-krimenetarako eta gerra aldietako emakumeen bortxaketetarako nazioarteko auzitegia sortzeko eskaerak; lege-ekimenak sustatzea holokaustoak edo genozidioak ukatzea delitu penal gisa onartua izan dadin, etab.*

- «Leku zailletara» bisitak: «estatu etsai» deituetara (Kroazia, Bosnia, Kosovo) egindako bidaiak, adostasun nazionala eta homogeneizazio estrategiak nahita urratuz eta, emakumeen eta biztanle arrunten arteko elkartasun eta konfiantza politika zehatz gisa.
- Gure izenean egindako krimenen lekuak bisitatzea, bai gerra garaian eta bai gerra ostean: gure izenean egindako krimenen aitormen ekintzak dira, barkazio eskaerak, egindako krimenengatik eta eragindako sufrimenduagatik, krimenen biktimekiko erruki, enpatia eta elkartasun ekintzak, biktimen duintasuna galdatzen duten errespetuzko ekitaldiak. Konfiantza eta adiskidetasuna sustatzeko politika zehatz hori krimenen urteurren eta oroitzapen ekitaldietara egini-ko bidaia ugarietan gauzatu da. Gainera, Srebrenicara ere antolatu ditugu bidaldiak, hantxe gertatu baitzen krimenik handiena: serbiarren izenean burututako genozidioa.
- Zigorgabetasunaren aurkako ekintzak, oinarritzko premisa baita bake zuzena eta iraunkorra lortzeko: Belgradeko Epaitegi bereziko (gerra krimenetarako Kontseilua) epaiketen jarraipena; Serbiako Beltzez Jantzitako Emakumeen Sareko aktibistak, 2005eko abendutik hona, Eskorpioiak izeneko formazio militarreko kideei bosniar zibilak (Srebrenicako genozidioa, 1995eko uztaila) erahil izanaren akusaziopean egiten ari zaien epaiketa jarraitzen ari gara; garrantzitsua da epaiketa hauen jarraipena egitea, ez bakarrik epaiketaren berri zuzenean izateko eta Serbiako iritzi publikoa sentiberatzeko, baita epaiketetara bertaratzen diren biktimen senitartekoei gure elkartasuna eta laguntza emozionala, morala eta politikoa erakusteko ere. Esandako horiek ez ezik, eztabaidak, informazio zabalkundeak, edota topaketak antolatzen ditugu serbiar soldaduen krimenetako biktimen senitartekoein. Gogoan izan Beltzez Jantzitako Emakumeen betidaniko jardueretako bat izan dela hori, baina orain sare gisa egiten dugu Serbia osoan.
- Serbiako indarkeria gabeko erresistentziaren historiako gertakariak eta datak gogoratzea eta adieraztea, gerraren eta Serbiako erregimenaren politika kriminalaren aurkako borrokan, hainbat ekimenen bitartez, adibidez, kaleei, plazei edo leku publikoei esandako gertakarien edo berorietako protagonisten izenak ipintzea; zoritxarrez, ez dugu halakorik lortu, baina ez dugu etsi oraindik.
- Gizartea faxistatzeko prozesuaren aurkako ekintzak: besteak eta desberdinak baztertzearen kontra, besteen eta desberdinen gorrotoan oinarritzen den nortasun kolektiboaren aldeko politikaren aurka. Geroz eta indartsuagoa den faxismo hori iragan kriminalari aurre egiteko borondate faltaren ondorioa da.
- Hezkuntza zereginak: mintegiak, tailerrak, hitzaldiak antolatzea herrialde guztian; gerrako biktimen lekukotzak antolatzea, historia alternatiboan oroitzapenak eta testigantzak jasoz. Gure argitalpen jardueraren parterik handiena, oso zabala bada ere, horretara zuzendua dago.

## *Bakerrako oztopoak, barrukoak eta kanpokoak*

S. Milosevicen erregimena erori ostean, Serbian, 18 alderdi politiko oso heterogeneoz osatutako koalizioak hartu zuen agintea. Alderdi horiek batzen zituen bakarra erregimenaren aurkakotasuna zen.

Serbiako erregimen aldaketak (2000ko urria) ez ditu espero ziren aldaketak ekarri, beste batzuen artean, ondorengo arrazoi hauengatik:

- Agintari berriek ez dute errotik eten aurreko erregimenak sustatutako gerra eta gerra-krimenen politikarekin; gerra-krimenen inguruko egia erlatibizatzeak, garrantzia kentzeko eta isiltzeko praktikak haztegi ezin hobea eratu dute joera klerikal-nazionalistak eta klerikal-faxistak haz daitezzen.
- Gerra-krimenak egin izanagatik salatutako guztiak Hagako Auzitegira estraditatu ez izanak argi erakusten du herrialdean, oraindik, gerra eta gerrako krimenak justifikatu dituen giroak lehenean jarraitzen duela. Nazioarteko erkidegoak estuturik, oraingo Gobernuak gerra-krimenen akusaziopean dauden hamabost bat pertsona estraditatu ditu Hagako Auzitegira, baina estatuko ohore guztiakin entregatu zituen, gerrako kriminalak goretsiz eta zigorgabetasuna sustatuz, giro politiko, moral eta emozional gaiztotu baten barruan.
- Nazionalismoa da, oraindik, egungo elite politikoaren ideologia nagusia. Serbiar herriaren «indar okupatzaille» moduko batzuk dira, nazioaren aita guztiak erakunde nazionaletan jarraitu dute, pozoina jaulkiz, «serbiar herriaren etsai ugarien» aurkako gorrotoa bultzatuz, eta nola orain ezin duten gerra egin gainerako herrien kontra, sumin, gorroto eta mendeku guztia barruko etsaien aurka bideratzen dute –hau da, gerragatiko erantzukizunak eta iragan kriminalarekin errotik etetea eskatzen dugun pertsona eta elkarteon aurka. Esandako horri, herrialdearen klerikalizazio indartsua erantsi behar zaio, Serbiako eliza ortodoxoaren erabateko eragina, hala politikan nola hezkuntzan eta joera klero-nazionalista eta klero-faxisten hazkuntza. Hala, Beltzez Jantzitako Emakumeok erakunde horien erasoetarako xede eta jomuga izaten gara askotan, herrialdeko inteligentzia-zerbitzu ugariak lagun dituztela. Gainera, Serbiako elite politiko eta kulturalak, ia azkeneko baliabide gisa erabiltzen ditu Kosovori buruzko mitak: mundu guztiak daki Serbian, Kosovok independentzia lortuko duela, guztiak dakite oraingo Gobernuak nahitaez sinatu beharko duela, baina horren kulpa Beltzez Jantzitako Emakumeen Sareari eta gisako elkarteei egotziko zaie, gu partaide garen koalizioei, iragaritzen duten pertsoneri. Horregatik, gure aurkako zakur amorratuen eraso gero eta gordinagoa da, Kosovoren independentzia aldarrikatzeko unea hurbiltzen ari den neurrian.
- Lapurreta eta trantsizio prozesua, gerrako harrapaketak legeztatzeak eta gizarte-maila zabalak miseria gorrian uzteko: mafiek eskuratutako aberastasunak legeztatutak izan dira. Gerra denboran bezala, anaitasun-lotura indartsuak daude oraindik mafien artean eta nazioz gainera, diko elkartasunak berdin irau du bake sasoian ere. Zoritxarrez, Balkanetan indarrez ondasun gabetuak izan direnek ez dute behar adinako elkartasunik izan. Gerrako arpilatzaileak, elite

politikoekin lotura estuak dituztenak, globalizazio neoliberalaren aldeko zaratatsuenak bilakatu dira eta beren politika planetan morrontza feudalaren eredua aldarrikatzen dute. Horrek, jakina, are frustrazio handiagoa eragiten dio biztanleria pobretuari eta indar ematen die kleronazionalistek, klero-faxistek eta edozein motatako muturreko jendeak jende xumeari egin diezazkioketen abusuei.

Serbian (eta ia Jugoslavia osoan, Eslovenia salbuetsita) pribatizazio prozesu basatiaren pean daude gizarte erraustuak eta egoeraz baliatzen dakitenek hutsaren truke erosten dituzte lur jotako fabrika sozialistak. Hala, bada, herritar gehienentzat trantsizioa pobreziaren hazkunde dramatiko gisa agertzen da, gizarte desberdintasunak areagotzen dira, kaleratze masiboak, langileen eskubideen murrizketak, etab.

Barruko oztopoez gainera -bistakoenak baizik ez ditut aipatu-, egoera are konplexuagoa da nazioarteko erkidegoak inposatzen dituen oztopoen eraginez. Horietako bat edo beste baizik ez dut aipatuko:

Nazioarteko erkidegoak gerrak bultzatu dituztenak hartu ditu beti aintzat, ez gerraren kontra daudenak...

- Nazioarteko eragile nagusiek borondate ona agertu izan dute «gure» diktadoreekiko, zerbitzatzen eta mesedeak egiten zizkieten bitartean: adibidez, guretzat, Milosevic hiltzaile bat izan da beti, baina nazioarteko eragile nagusientzat «bakearen agente» izan da. Desobeditu zientean, NATOren esku-hartze militarra erabili zuten, herria zigortzeko, eta Serbian hain arriskutsua den mendebalde-aurkako espiritu chauvinistari haizea eman zioten.
- Nazioarteko eragile nagusiek, Milosevic erori ostean, etengabeko laudorioak eskaini dizkiote Jugoslaviako EFko lehendakari berriari, V. Kostunicari (orain Serbiako Lehen ministroa da), «benetako demokratizatzaile» hartuz (Hagako Auzitegiko Carla del Pontek izan ezik, zeina berehalaxe ohartu baitzen Kostunicaren zikoizkeria politiko eta moralaz) eta horrek bide eman dio Kostunicari aurreko erregimen kriminalarekin etetea oztopatzeko, guztia legearen estalkipean, bere helburu bakarra Milosevicen erregimenarekin jarraitzea izanik. Orain konturatu dira esandako nazioarteko eragile horiek gure kritikak justifikatuak zeudela, baina Europar Batasunaren zigorrak (Batasunean sartzeko negoziazioak bertan behera uztea) ez diote kalterik egiten Kostunicari, baizik eta herritar pobretu, etsipenak jotako eta haserretuei.
- Nazioarteko eragile nagusiek berandu denean bakarrik hartu dute aintzat gizarte zibilaren ahotsa: Djindjic Lehen ministroa erahil ondoren, ESLAk, EBk, Kostunicaren lerroek estututa, Djindjicen aurreko serbiar Gobernuak bultzatutako Sablja (Ezpata) operazioa geldiarazi zuten. Esandako operazioaren helburua gerrako mafia desegitea zen, inteligentzia-zerbitzuak garbitzea eta elite politikoaren erantzukizun kriminalak argitzea, horregatik hil zuten. Serbiako gizarte zibilaren eta biztanleen zati handi bat ados zegoen Djindjicek hasitako eginbide horri jarraipena ematearekin. Gero, Kostunicak hartu zuen agintea eta etsipena, frustrazioak, etab. areagotu zituen politikak jarri zituen abian.
- Nazioarteko laguntza inposizioan oinarritzen da eta ez elkartasunean: laguntza ofizialaz ari naiz hemen, eta ez bake, elkartasun eta indarkeria gabeko sareen laguntzaz, azken hauei es-

ker garatu baititugu gure proiektu gehienak. Nazioarteko laguntza, batik bat, desberdintasunean, mendekotasun eta morrontza harremanetan oinarritzen da, hainbat baldintzaren inposizioan, eta ez biztanleriaren eta tokiko GKEen premietan. Desfase ikaragarria dago tokiko premien eta nazioarteko laguntza misioen artean, alegia, gure beharrezanen eta beraien artean. Nazioarteko laguntzarako erakundeek beren agenda eta planei egiten diete kasu, batez ere, eta, zoritxarrez, tokiko hainbat GKEek onartu egiten dituzte baldintza horiek, ohartu gabe sinesgarritasuna kentzen diela horrelako jokoerak bizi eta lan egiten duten erkidegoan. Gainera, askotan, nazioarteko laguntzarako agentziek, tokiko edo nazioko agintariekin (hau da, alderdi politiko ultranazionalistekin edo klero-faxistekin) elkarlanean aritzea ipintzen dute baldintza gisa, tokiko GKEei baliabideak emateko eta Beltzez Jantzitako Emakumeen Sarea bezalako elkarteak mota horretako laguntzetatik kanpo gelditzen dira ia beti, halako lankidetzak errefusatzeko dituztelako. Horrek guztiak deskonfiantza giroa sortzen du, GKEen arteko lehia eta nahasmendua herritarren artean. Laburbilduz, halako politikek bake eta demokrazia prozesuak erraztu ordez, tentsioak areagotzen dituzte edo gatazkak eragiten dituzten ereduak berresten dituzte.

## 7.

### *Desafioak eta aukerak*

Berriro ere, desafio handien aurrean aurkitzen gara: noraezean dago gure herria, materialki eta moralki suntsituta. Kostunica buru dela, Serbiako eskuin nazionalistak, inteligentzia zerbitzuek, Eliza ortodoxoak, Zientzia eta Arte Akademiak eta komunikabideek etengabe manipulatzeko dute herria, eta Serbiako mugetatik kanpo gerra egiten uzten ez dietenez, etengabeko gerran daude «barruko etsaien» aurka. Elite makur horrek, gainera, «serbiar lurralde guztien batasunarekin» amets egiten jarraitzen du, politika espansionistaren erretorika ez baitu oraindik baztertu, Bosnia-Herzegovinaren egonkortasun hauskorra ez ezik, eskualde osoarena ere arriskuan jarrita.

Etsigarria da gizarte zibilentzat ere beti kontra egitera behartuta egotea, aukerak eskaini ordez. Hala ere, bizi garen eta lan egiten dugun baldintzetan, gure haserrea eta deskontentua desobeditze zibileko ekintza eta proposamen alternatibo bihurtzen ditugu. Eta hori posible izango bada, Serbiako indar demokratikoei lagundu beharra dago, ondorengo hauek burura eramateko:

- Herrialdea desnazifikatzeko prozesua: trantsizioko justiziaren ereduak aplikatzea erakundeetan (adibidez, gerra-krimenentarako Epaitegi berezia erakunde gisa sostengatuz, desagertzeko arriskuan baitago etengabe, Kostunicaren Gobernuaren presioa dela eta); trantsizioko justizia gizarte zibiletik.
- Bake ekimenentarako gizarte zibila sostengatzea, segurtasuna genero ikuspegitik, kulturartekotasuna, emakumearen giza eskubideak, fundamentalismoen kontra.
- Serbiako Gobernuaren etengabe estutzea eta ez bakarrik gerra-krimenengatik akusatutak estraditatu dituzten.

- 
- Hezkuntzako sektoreei laguntza ematea balio-sistema alda dezaten, gazteen arteko ikasketatrukeak eta gobernuak tramitatuak ez baino unibertsitateak tramitatutako ikasketa laguntzak sostengatzea, hau da, unibertsitateko sektore progresistek tramitatutakoak.

---

LULJETA VUNIQI  
Kosovoko Emakumeen Sarea

*Serbiako eta  
Kosovoko  
emakumeek  
patriarkatuak  
eta  
aurreiritziak  
gainditzen  
dituzte  
lankidetzaren  
bitartez*





---

Lehenik, eskerrak eman nahi dizkiet antolatzaileei konferentzia garrantzitsu honetan parte hartze-  
ra gonbidatu nautelako, era horretan, Kosovon, aktibismoaren eta koalizioen bidez, emakumeek  
bakearen eraikuntzan izan duten parte-hartzea eta esperientzia aurkezteko aukera eman baitida-  
te.

## 1.

### *Testuingurua*

Kosovokoa naiz, Balkanetatik mendebaldera dagoen eta Jugoslaviako parte izan zen herrialde  
batekoa. 90eko hamarraldian izandako gerren ondorioz, Jugoslavia ez da existitzen jada.  
Kosovo izan zen gerra eta suntsipena nozitu zituen Jugoslavia ohiko azken eskualdea. Guztiok da-  
kigun bezala, gerrako biktima gehienak emakumeak eta haurrak dira. Kosovon, emakume asko  
bortxatu ez ezik, milaka pertsona hil zituzten Serbiako poliziak, armadak eta indar paramilitarrek  
gauzatutako garbiketa etnikorako kanpainan. Kosovoko milioi bat albaniar baino gehiago bota zi-  
tuzten beren etxeetatik eta inguruko herrialdeetan eskatu behar izan zuten babesa. NATOko inda-  
rrak sartu eta gerra amaitu ondoren, asko etxera itzuli ziren, baina beste hainbat oraindik ihes  
egindako herrialdeetan bizi dira.

## 2.

### *Emakumeen mugimenduaren garapena Kosovon*

### 2.1

#### **GERRA AURREKO ALDIA**

Hona zer esan zuen Margaret Mead antropologo eta zientzialari ospetsuak: "Ez da inoiz zalan-  
tzan jarri behar herritar burutsuz eta arduratsuz osatutako talde txiki bat mundua aldatzeko gauza  
izan daitekeela. Izatez, era horretan bakarrik gertatzen dira aldaketak».

Aipamen hori eginez hasi naiz, guztiz bat natorrelako esandako horrekin eta emakumeen ekintzek  
eragindako aldaketei begiratzen badiegu, uste dut goiko aipamen hori berresten dutela gaur  
Kosovoko gizartean ikusten ditugun aldaketek.

Bi aldi nagusi daude emakumeen mugimenduan eta GKEen antolakundean, eta GKEek Kosovon  
jokatu duten rola xeheki aztertzea eskatzen dute: Kosovoko azkeneko gerraren aurreko bi urteak  
hartzen dituen aldia (90eko hamarraldia), eta gerra osteko zazpi urteak. Testuinguru eta berezita-  
sun desberdinak dituzte bi aldiek eta, beraz, jarduera-estrategia desberdinak erabiltzera behartu  
dute.

---

Jakina, emakumeek rol garrantzitsua jokatu zuten eta, baita laguntza baliotsua eman ere, Jugoslaviaren aurkako nazio mugimenduaren historiako kanpaina ugaritan. Geroago, berdin egin zuten Milosevic buru zuen serbiar erregimenaren kontrakoetan, hark erarik basatienean ukatu eta zapaldu baitzituen albaniarren eskubideak, albaniar nazioaren existentzia bera ere zalantzan ipintzeraino. Emakumeen mugimenduak aipatutako nazio mugimenduan izandako eragina, begi bistakoa ez ezik, balio ikaragarrikoa da gizarte osoarentzat.

Laurogeiko hamarraldiaren lehen urteetatik hasi eta gaur arte, askotariko ekintza moduak erabiliz, emakumeak ez ziren besoak antxumatuta geratu, aldaketak berez eta sorginkeriaz bezala etorri zain. Mugimenduarekin bat egin zuten aldaketak probokatzeko, eskura zituzten bitarteko demokratikoekin beren eskubideen alde borrokatuz: bilerak, eskaerak, presio taldeak, jendaurreko hitzaldiak, sareak, manifestazio baketsuak, etab. egin zituzten; hau da, erresistentzia baketsua erabili zuten emakumeak eta albaniarrak oro har nozitzen ari ziren bidegabekeriaren aurrean.

Gaiari argi egiteko, gertaera batzuk baizik ez ditut aipatuko. Horien bitartez erakutsi nahi dut beste nazio batzuekiko aukera berdintasuna lortzeko eta Kosovon bakea eraikitzeko borroka eta erresistentzia horretan, eragin handia izan zutela emakumeen mugimenduek.

1. 1981eko manifestazioak.
2. 70-92 bitarteko odol-mendekuen ondorengo adiskidetzea.
3. Meatzarien aldeko protesta-ibilaldiak, 1989an.
4. 1989ko azaroko protestak.
5. 1990eko martxoaren 8ko emakumeen protestak.
6. Protesta baketsuak 1990ean.
7. Emakumeen protestak indarkeria amaitzearen alde, 1992an.
8. Haurren heriotzaren aurkako eskaera, 1993an.
9. Emakumeen protestak 1996ko udaberrian.
10. Emakumeen protestak Ahmeti albaniar familia hil izanaren kontra, 1998an.
11. Emakumeen protestak, kandlekin, serbiar erregimenaren zapalkuntzaren aurka.
12. Emakumeen protesta jendetsuak Kosovo osoan, «Ogia Drenicarako» lelopean, 1998an, Serbiako polizia-indarrek eskualde osoa bakartu izanaren kontra.
13. Emakumeek Serbiatik era baketsuan bereiztea bilatu zuten, 1998an.
14. SOS protesta, 1998an.
15. 1998ko martxoaren 8ko protestak, eskuetan maindire zuriak zituztela, Ameriketako Estatu Batuen Bulegoaren aurrean, Kosovon giza eskubideak urratzearen kontra.
16. Stop giza sarraskiari, 1998an.

Emakume albaniarrak ez ziren Kosovon bakarrik mugitu: emakumeen eskubideen aldeko eskualdeko beste emakume aktibista batzuekin ere aritu ziren elkarlanean, eta ahots goraz protestatu zuten nazioartean presioa egiteko.

## 2.2

### GERRA OSTEKO ALDIA

Nazio Batuen Erakundeak Kosovon duen misioak (UNMIK) eta nazioarteko erakunde eta instituzio diru-emaileen gerraostean izandako presentzia handiak eraginda, 1999aren ondoren, hamar urtez pairatu genuenaren guztiz kontrako giroa sortu zen Kosovon (ordu arte Serbiako erregimenak ankerki zigortu zuen aktibismo zibila). Aldaketa horrek itxaropen apur bat ekarri zien emakumeen GKEei; izan ere, nazioarteko agentzia eta erakundeekin batera, Kosovoren premia handieneko beharrezanean erantzungo zieten estrategia eta politiken sorkuntzan lankide izateko aukera historikoa eman baizitzaien eta, hala, emakumeen ekintza aukerak zabaldu egin ziren. Arrazoi horregatik hazi zen hainbeste GKEen kopurua, emakumez osatutakoena bereziki, une hartan nagusi ziren indarrari eta gogoberotasunari esker. Dena den, nazioarteko erakundeen laguntza teknikoa eta ekonomikoa ez dira ahaztu behar.

Hala ere, itxaropen haiek guztiak pixkanaka aienatuz joan ziren, eta tokiko GKEen potentziala (askok hamar urtetik gorako esperientzia zuten aktibismoan) baztertu egin zuten. Nazioarteko erakunde gehienak Kosovon aplikatzeko plan, programa eta agenda itxiekin etorri ziren, eta Kosovoko emakumeak ez zituzten batere kontuan hartu, ez haiekin kontsultak egiteko, ezta haien lanarekin koordinatzeko ere.

Alferrik galdutako esperientzia horren adibide ona da hauteskunde sistema erreformatzeko Kosovoko Emakumeen Sareak eta Kosovoko Emakumeen Lobbyak antolatutako kanpaina. Kanpaina hartan, boto-zerrendak irekitzea eta hautes-eremuak ugaltzea iradokitzen zen. Ez UMIKek, ez ESKEren Kosovoko Misioak ez zituzten ezertarako aintzat hartu eskari horiek. Argi geratu zen berriro UNMIKek ez zuela Kosovoko gizarte zibilaren ahotsa entzuteko inolako interesik, nahiz eta hain auzi garrantzitsua jokoan egon eta gizarte demokratiko bat abian jartzeko une ezin erabakigarriagoa izan.

Hala ere, tokiko erakundeek, sarritan, ez dituzte ongi ulertu emakumeen GKEak, eta kritikatu eta baztertu egin dituzte, Kosovoko emakumeen rola indartzen saiatu direlako eta bizitza politikoa eta erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeek duten parte-hartzea handitzeko lanean ari direlako. Egotzi izan zaie irabazi materialak lortzeagatik egiten dutela lan eta duten gaitasuna eta ahalmena alferrik galtzen ari direla. Kritika eta salaketa horien eraginez, tirabirak eta banaketak sortu dira GKEetako emakumeen eta politikan, komunikabideetan, etab. dabilzan emakumeen artean, eta, ondorioz, sektore horien arteko lankidetzak nahiko zatikatua geratu da.

## 2.3

### ZER ERREAKZIO IZAN ZUTEN

#### EMAKUME-ERAKUNDEEK

#### EGOERA HORRETAN?

Goian aipatutako arazoak gorabehera, Kosovoko emakume-erakundeek funtzio garrantzitsua jokatu dute emakumeek bizitza publikoan eta erabakiak hartzeko tokietan parte hartzearen alde: oso aktiboak izan dira arlo horretan, eta ekimen zehatzak jarri dituzte abian. Asko lagundu dute arazo horiek gainditzeko. Politikaren eremuko emakumeak ere prest agertu ziren helburu komunak

---

lortzearen alde elkarrekin jarduteko eta lan egiteko. Puntu hori berresten duten adibide asko daude, baina esandako sektoreen arteko lankidetzarako giro egokiagoa sortzen lagundu zuten gutxi batzuk baizik ez ditut hona ekarriko.

Kosovon 2001ean izandako tokiko lehen hauteskunde demokratikoetan, Kosovoko Emakumeen Taldea mugitzen hasi zen emakumeen GKEen eta politikan eta komunikabideetan zebiltzan emakumeen arteko koalizioa sortzeko. Koalizioaren xedea hauteskunde kanpainen eta ondorenean emakume hautagaiei laguntzea zen, tokiko erakundeetan posizio hobekak izan zituzten lortzeko. Gizarte Ireki baterako Kosovoko Fundazioko emakumeen programaren ekimenak, Gizarte Zibilerako Kosovoko Fundazioarekin elkarlanean, emakumeen posizioak indartzeko heziketa ikastaroak eta ekinaldi mediatikoak egin zituen, 2002ko tokiko hauteskundeetan eta 2001eko hauteskunde orokorretan, ondorengo lelo honen pean: "Zer nahi dute emakumeek politikan"? Sasoi hartan, Norwegian People's Aid GKEak ere finantzatu zuen emakumeek politikan parte hartzea. Horretarako, heziketa ikastaroak antolatu zituen, Egonkortasun Ituneko genero berdintasunari buruzko puntu fokalean oinarrituta. «Emakumeak gai dira» zen leloa eta, gehiegi ez luzatzearen, hemen aipatuko ez ditudan tokiko eta nazioarteko hainbat erakunderen laguntza izan zuten.

Bertako eta nazioarteko GKEen eta politikan eta komunikabideetan lan egiten zuten emakumeen arteko lankidetzaz-erperientzia on horien ondoren, onartu zen gizarteko sektoreen arteko elkartzak eta lankidetzak lagun zezakeela emakumeek politikan eta erabakiak hartzeko tokietan parte hartzea handitzeko helburu komuna lortzen eta, ondorioz, emakumeen antolakuntzari bultzada berria ematen. Zentzu horretan, lankidetzaz horren ekarpen garrantzitsuenetakoa 2002-2003an Genero Berdintasuna Lortzeko Ekintza Plan Nazionalaren zirriborroa idaztea izan zen, Unifemen sostenguekin egin ere. Izan ere, esandako Planak laguntza handia eman baitzien emakumeei –eta ematen jarraitzen du–, bizitzako esparru guztietan genero ikuspegia sartzeko balio izan duten hainbat programa eta proiekturen bitartez. GKEetako emakumeek idatzi zuten, politika eta komunikabideetako emakumeekin batera, Ekintza Plan Nazionalaren zirriborroa, urtebetean, eta gobernuak ezar zezan ahalbidetu ziren. Azkenean, Gobernuak onartu zuen, 2004ko martxoan. Planaren emaitza gisa, genero berdintasuna lortzeko mekanismo instituzionalak sortu ziren Kosovon, eta esan behar da funtzionatzen dutela, hobeto edo gaizkixeago, eta hasi direla aplikatzen planean aurreikusitako politikak.

2004ko urrian izandako lehendakarietarako hauteskunderen dagokienez, Kosovoko Emakumeen Sareak, ESKE, Unifem eta Star Network World Learning erakundearen laguntzarekin, «Alderdi politikoek emakumeentzat lan egiten dute» kanpainaren lehen fasea burutu zuen. Kanpainen, alderdien egitarau politikoetan emakumeen berriazko gaiak identifikatzeko eta sartzeko gomendioak eta estrategia berriak jaso zituzten. Kanpaina orokorra izan zen, eta Kosovoko 30 udalerrietan gauzatu zen, bilera eta abarren bidez. Legebiltzarreko, udalbatzetako eta GKEetako emakumeen eta emakumezko boto-emaitzen artean zuzeneko komunikazioa sorraraztea zen helburua.

2003an sortu zen Kosovoko Emakumeen Lobbya, Kosovoko gizarteko sektoreen artean elkarri eragiteko mekanismo gisa. GKEetako emakumeek, politika eta komunikabideetakoek eta sektore pribatukoek osatu zuten esandako lobbya eta eginkizun eta xede argiak zituen. Lobbyak iritzia eman

---

zuen jendaurrean, jakinarazpen publiko eta bileren bitartez, garrantzi handiko hainbat gairen inguruan: Pristina eta Belgraden arteko elkarrizketa, Kosovok etorkizunean estatu burujabe eta soberano gisa izango duen estatus politikoari buruz, eta emakumeek halako prozesuetan parte hartzearen garrantzia; hauteskunde sistemaren erreforma; etab.

## **2.4**

### **AZKENEKO GERTAKARIAK**

Emakumeen GKEen eta gainerako emakume sektoreen artean –politikakoak barne direla– koalizioak eta lankidetzak eraikitzeke ahaleginen errebaso honekin ez genuke aditzera eman nahi Kosovoko emakumeen mugimendua halako ekintzak erraz antolatzen dituen mugimendua denik. Aldiz, askotan, koalizio eta ekimen komun horiek sortzen eta haiei eusten zailak izaten dira eta emaitzak baldintzatzen dituzten hainbat oztopori egin behar izaten diote aurre. Jakinaren gainean bagaude ere arrakasta gabeko ekintza oro ezin daitekeela porrot gisa hartu, kalte egiten digu, dudarik gabe, tokiko eta nazioarteko erakundeetako buruzagiek erakusten diguten axolagabetasunak, ez baitiete inolako kasurik egin Kosovoko Emakumeen Sareak eta Kosovoko Emakumeen Lobbyak egindako eskaera eta kanpainei. Esandako emakume-erakundeek komunikabideetan eta nazioarteko ordezkari ofizialekin –Soren Jessen Petersen, Marti Ahtisaari eta Kai Eide enbaxadorea, adibidez– egindako bileretan aldeztu zituzten beren posturak, protestak antolatu zituzten eta Kosovoren etorkizuneko estatusa erabakitzeke negoziazio-prozesuan kontuan hartuak izateke eskubidea aldarrikatu zuten.

Emakumeen GKEek politika eta komunikabideetako emakumeekin elkarlanean egindako ekintza hauek garbi uzten dute elkartasun eta lankidetzak horiekin lortutako emaitzek emakumeak bizitza publikoan, politikan eta erabakiak hartzeke guneetan parte hartzen laguntzen dutela. Horrela izan ez balitz, prozesu politikoetan eta erabakiak hartzeke tokietan emakumerik ez egoteak herrialdeke demokraziaren erdia falta izatea esan nahiko luke.

Ondorio modura, emakumeen eskubideen aldeke beste aktibista batek esandakoa aipatuko dut, garrantzi handikoa iruditzen baitzait mundu osoko emakume-mugimenduentzat: «Mosaiko bat bezala sentitu izan dut beti emakumeen mugimendua. Emakume bakoitzak harri bat ipintzen du eta emaitza mosaiko eskerga zoragarri bat da».

## **2.5**

### **SEI URTE GERRAREN ONDOREN**

Gerra ondoko lehen sei urteetan, eta oraindik ere bai, Nazio Batuen misio batek gobernatu du Kosovo. Bai, sei urte eman ditugu «trantsizio aldi» deitu zaion horretan. Egia esan, ez dakit zer esan nahi duen esapide horrek, baina ahalik eta azkarren amaitzea espero dut. Nire iritzian, «trantsizio aldi» esapidea aitzakia gisa erabiltzen du Nazio Batuen Kosovoko misioak herrialdea administratzean izan dituen porrotak zuzitzeko, baina, era berean, gure buruzagientzat ere aitzakia bikaina da, babes gisa erabiltzen baitute herrialdean egonkortasunik, bake iraunkorrik eta

guztientzako aukera berdintasunik ez dutela lortu justifikatzeko. Tokiko eta nazioarteko buruzagiek, beraz, aitzakia gisa erabiltzen dute trantsizio aldia diskriminazioaz ez arduratzeko eta genero berdintasunari halako kaltea egiten dioten sistema patriarkalei aurre ez egiteko. Bereizkeriaren arazoan metatu dituzten porrotak zuritzeko, esaten dute ez dela une egokia gai horretaz arduratzeko. «Emakumeen arazoek» itxaron dezakete. Ez dira lehentasun nazionala.

Serbiako erregimen zapaltzailearen azpian heziketa, lana eta giza eskubideak ukatu zitzaizkien emakumeak baztertuak izan dira berriro eta, gatazka armatua behin amaitu denean, beren herraldearen berreraikuntzan rol garrantzitsua jokatzea ukatzen zaie. Beste behin ere, emakumeak ez dira egon Kosovoren etorkizuneko estatus politikoa negoziatzeko mahaietan. Zergatik? Bai Nazio Batuetako buruzagiak eta bai tokiko politikariak «ahaztu» egin baitziren emakumeek, nahiz eta Emakumeak, Bakea eta Segurtasunari buruzko Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenak emakumeek bake negoziazioetan parte hartzea bermatzen duen. Nola erantzun zuten emakumeek?

## 2.6

### **BAKEAREN ERAIKUNTZA SOSTENGU-KANPAINEN BITARTEZ**

Kosovoko emakumeek ozen egin zuten protesta, bakea eraikitzeke prozesuan emakumeak, beste behin ere, baztertu eta diskriminatu zituztelako. Kosovoko emakumeek hainbat protesta, manifestazio eta sostengu kanpaina burutzeaz gainera, garrantzizko ekimenak jarri zituzten abian, hala eskualdean nola nazioartean.

Hamabost urte baino gehiagoz, Serbia, Kosovo eta Jugoslavia ohiko aktibistak elkarlanean arituak ziren bake eraikuntzaren aldeko hainbat ekimenetan. Elkarlan horren berezko jarraipenak eraman zituen, hortaz, Kosovoko Emakumeen Sarea eta Serbiako Beltzez Jantzitako Emakumeak Bakearen aldeko Koalizioa osatzera, 2006ko martxoan, etnia, erlijio eta lurralde oztopoak gainditu eta emakumeen arteko elkartasunean oinarritutako hiritar ekimen independente gisa.

Bakearen aldeko Emakumeen Koalizioak bake zuzen eta iraunkor baten alde egiten du borroka, eta bake prozesuetan emakumeek berdintasunez parte hartzearen alde lan egiten du, nabarmenduz emakumeak ez direla gerraren biktimak, baizik eta gerratik bizirik ateratakoak, eta eragile dinamikoak bakearen aldeko mugimenduetan. Bakearen aldeko Emakumeen Koalizioak Emakumeak, Bakea eta Segurtasunari buruzko Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena aplikatzea aldeztu du, eta emakumeen egoera ekonomikoa eta soziala hobetzea. Helburu horien kaltetan doazen herrialde bakoitzeko joera eta berariazko prozesuen aurka dago. Bakearen aldeko Emakumeen Koalizioa elkarlanean aritzen da bere kausarako aliatu garrantzitsu diren guztiekin eta, aldi berean, bere burujabetasunari zorrotz eusten dio. Xede horrekin, itunak egiten ditu bere printzipioak onartzen dituztenekin.

---

Koalizio hau eratzeko arrazoi edo erronka nagusia emakumeak bakea negoziatzeko prozesuetatik kanpo uztea izan zen. Koalizioak, oro har, emakumeak baztertuak izan diren aginpide-tokieta eta erabakiak hartzeko guneetara zuzentzea bilatzen du, batez ere etorkizuneko belaunaldien eragina izango duten erabakiak direnean.

Desafio horiei aurre egiteko, Bakearen aldeko Emakumeen Koalizioak gutunak idatzi dizkie negoziazio prozesuan erabakiak hartu dituztenei, eztabaidan dauden gaien inguruan gomendioak egiteko, emakumeen perspektibatik. Adibidez, Kosovoren kultur ondareztat hartzen diren leku garrantzitsuei dagokienez, koalizioak leku horien etorkizuneko erabilpena ez politizatzea gomendatu zuen, mundu guztiak errespetatu ditzan eta erabiltzeko modua izan dezan. Bakearen aldeko Emakumeen Koalizioko ordezkariak Marti Ahtisaari negoziazio buruarekin ere bildu dira, eta baita Europako diplomaziako beste kide batzuekin ere, erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte-hartze handiagoa eskatzeko.

## **2.7**

### **KOMUNIKAZIOAREN BITARTEZ**

#### **BAKEA ERAIKITZEA**

Koalizioaren beste erronka bat da aurreiritziak direla-eta Kosovoko eta Serbiako emakumeen artean dagoen komunikazio urriaren arazoa konpontzea. Gerraren ostean, emakume-erakundeek oso gutxitan antolatzen edo bultzatzen zituzten mugez gaindiko ekintza bateratuak. Aurreiritzi etnikoen eta iraganari aurre egitean izandako porrotaren eraginez, jendeak ezin izan ditu langak gainditu eta ezinezkoa izan zaio elkarrekin lan egitea. Desagertutako pertsonen gaiak, bestalde, oraindik konpondu gabe dagoenez, asko moteldu ditu serbiarren eta albaniarren arteko adiskidetze prozesuak Kosovon. Serbiako eta Kosovoko emakume-erakundeak elkartuz, koalizioak espero du bi herrialdeetako emakumeen komunikaziorako espazio gehiago sortuko direla.

Erronka horri aurre egiteko ahaleginetan, Bakearen aldeko Emakumeen Koalizioak konferentzia bateratua antolatu zuen joan zen irailean. Erakunde kideen partaidetza zabala izan zen, eta bai Kosovoko Emakumeen Sarea bai Beltzez jantzitako Emakumeak han izan ziren. Serbiar eta albaniar ekintzaileak bildu ziren, iraganaz eta etorkizunaz hitz egitera. Bilera hura traiziotzat hartu zuten hala serbiarrek nola kosovoarrek, baina horrek ez zien eragotzi serbiar emakumei desenkusak eskatzea Serbiako erregimen zapaltzaileagatik, eta Kosovoko gerran albaniarrei eragindako krimen, sufrimendu eta oinaze guztiagatik. Serbiar emakumeen desenkusa horrek bide eman zien han zeuden albaniar emakumei, lehen aldiz, beren sendatze-prozesua abian jar zezaten. Era berean, serbiar emakumeek antzeko prozesua hasi zuten, haien izenean egindako krimenek eragindako errudun sentimendua gainditzien lagundu baitzien. Emakumeek sendatze-prozesu horretan jarraitzen dute, hainbat gairi buruzko topaketa eta eztabaida irekien bitartez. Hona gai horietako bat: «Iraganari aurre egitea. Emakumeen ikuspegia». Eztabaida horiei esker, Bakearen aldeko Emakumeen Koalizioko emakumeek hobeto ulertu ahal izan dute zer gertatu zen, benetan, gerra garaian, eta zer urrats eman behar dituzten guztien artean bakea eraikitzeko.

---

Jakinaren gainean gaude halako koalizioak hauskorak eta zailak izaten direla askotan. Erronka asko dugu oraindik aurrean, eta espero ditugun emaitzak mugatuak dira sarritan, baina uste sendoa dugu Bakearen aldeko Emakumeen Koalizioaren lana ezinbestekoa dela gure herrialdeen etorkizunerako. Herrialde demokratiko berri horietan, gerra oroigarri soil bat baizik ez dadin izan: hain zuzen ere, gerrarik ez litzatekeela inon izan behar gogoraraziko digun oroigarria.

Eskerrik asko



---

**IZASKUN GUARROTXENA**  
**Euskal Herriko Bilgune**  
**Feminista**

*Euskadiko*  
*bakearen*  
*erakuntzarako*  
*proposamenak*



## 1.

Ezin ukatu Euskal Herrian nazio gatazka politikoa eta berau gainditzeko beharrak eta nahiak isla dutela euskal jendartean. Une hauetan nazio gatazkaren konponbideari begira urrats ezberdinak ematen ari dira eta pixkanaka, gatazka politikoa onartu eta berau konpontzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzen ari dira. Honela, gatazka gainditzeko norabidean badaude behin eta berriaz aipatzen diren pare bat gako, hala nola lurraldetasun eskubidearen onarpena eta euskal jendartea osatzen dugun emakume eta gizonei zor zaigun erabakitze eskubidea.

Halaber, ezin ukatu Euskal Herrian egon badaudela gatazka politiko ezberdinak.

Izan ere, Euskal Herriko emakumeek sistema kapitalista patriarkalak eragindako zapalkuntza eta honen ondorioz ematen diren eskubideen urraketa bizi dugu. Beraz, sexu-genero gatazkak duen izaera politikoa aitortzea ezinbestekoa delakoan gaude.

Nazio gatazka politikoa eta honen konponbidea lortzeko bidean beharrezko diren eskubideen aitortzaz gain, badago borroka honetan bereziki kezkatzen gaituen errealitatea. Hau da, emakumeek gatazkaren konponbidean dugun parte hartze eta ordezkartzari dagokionez jasaten dugun gabezi demokratikoa. Emakumeek borroka feministari esker eremu publikoan eta politikagintzan geroz eta parte hartze handiagoa dugun arren, egungo eragile politikoetan eta erabaki guneetan dauden emakume kopuruak murrizta izaten jarraitzen du. Horrez gain, eztabaidagai izango da kontuan hartzen ote dituzten jendartearen ordezkari direnek eta sistema politikoa eraldatzeko giltza duten eragileek, emakumeoi dagozkigun eskubideak errealitate gordin honen aurrean. Gatazkaren konponbideaz ari garenean beraz, beharrezkoa izango da emakumeon eskubidearen urraketa aintzat hartzea, eta parte hartzeko eskubidea bermatzeko ahalegina egitea.

Arrazoi ezberdinengatik diogu, gatazkaren konponbidearen prozesuan, emakumeon parte hartzea beharrezkoa eta garrantzitsua dela.

Alde batetik, ezin dugu ahaztu, emakumeek eremu publikoan parte hartzeko eskubidea badugula. Jendarte honen antolaketan emakumeek dugun parte aktiboa kontutan izanik, zor zaigun eskubide politikoa onartzeko garaia da. Sistema patriarkalaren ondorioz emakumeon zapalkuntza estrukturalak jendartean ikusezinak eta baliorik gabekoak bihurtu gaitu. Azken urtetan emandako aldatetek eta emakumeek parte hartzeko egindako ahaleginek egoera aldatu duten arren, oraindik orain parte hartzeko ditugun muga nahiz oztopoak aipatu beharrean gaude. Bideabar, egun emakumeoi eremu pribatuan atxikitzen zaizkigun ardura eta konpromisoekiko loturak parte hartze politiko eta publikoa zailtzen dute. Atzo esan zen bezala eskusiotik abiatzen gara.

Beraz emakumeek gure hitza eta erabakia izateko eskubidea eta beharra dugu.

Bestalde, emakumeek biztanleriaren erdia izanik eta jendarte antolaketan jokatzen dugun paper garrantzitsua kontutan harturik, gure ekarpenik gabeko konponbideak ez luke zentzurik izango. Beharrezkoa da emakumeek gatazkaren konponketan dugun dimentsioaz jabetu eta honen araberako urratsak ematea.

Azkenik, gure ustez, mugimendu feministak eta emakume feministok, eskubide honen gabeziak jabeturik, badugu zeresana parte hartzearen inguruan. Eta gure ardura da emakumeon parte hartzea posible izateko pausuak ematea eta emakumea subjektu politiko gisa identifikatzea.

AZKEN FINEAN EMAKUMEON PARTE HARZTEA EZ BADA EMATEN GURE ESKUBIDEEN ALDEKO EGIN BEHARREKO LANA PROZESUTIK BAZTERTUA EGONGO DA.

2.

## *Emakumeek gatazketan pairatzen duten egoera aldatzeko nazioarteko ekimenak*

Gatazka armatuetan emakumeek bizi dituzten errealitate gordin horiei aurre egiteko asmoz, 1995ean Beijing-en burututako Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentziaren Ekintzarako Plataforman 6 helburu estrategikoetan jasota geratu ziren hartu beharreko neurriak (E. gatazka armatuak). E.1 helburuan, gatazken konponbidean eta erabakiak hartzeko prozesuan emakumearen partehartzea handitzeko eta indartzeko beharra azpimarratzen da. Era berean, gatazka egoeretan eta indarrez hartutako herrialdeetan emakumeak babesteko deia egiten da. Gainontzeko helburuetan, honako behar hauek definitzen dira: gastu militarra eta armen erabilpena murriztea (E.2), gatazken konponbide baketsuak sustatzea eta giza-eskubideen urraketak gutxitzea (E.3), bakean oinarritutako kultura lortzeko emakumeen ekarpena sustatzea (E.4), errefuxiatu edo lekualdatuak izan diren emakumeei babesa, laguntza eta prestakuntza ematea (E.5), eta azkenik, autonomoak ez diren lurralde eta kolonietako emakumeei laguntza ematea (E.6).

Adostutako Adierazpenaren 18. puntuan ere, bakea emakumearen aurrerapenarekin estuki lotua dagoela eta gatazken konponbidean zein maila guztietan bake iraunkorra sustatzeko emakumeak oinarritzko indarra direla aldarrikatzen da.

Beijing-en hartutako akordioen betetze maila aztertzeko 2005ean INSTRAW Emakumearen Sustapenerako Nazio Batuen Ikerkuntza eta Trebakuntzarako Nazioarteko Institutuak egindako txostenean (*Emakumeak eta gatazka armatuak: erronka berriak*) argi geratzen da ezer gutxi lortu dela hamar urte hauetan. Gurutze Gorriaren Nazioarteko Komiteak ere egoera bere horretan dirauela egiaztatzen duten emakumeen testigantzak jasotzen ditu etengabe.

Bestetik, 1998an Nazioarteko Zigor Auzitegia eratzea adostu zen. Auzitegi horrek sexu-bortxaketa, bortxazko haurdunaldia eta sexu-esklabotza nazioarteko legediaren "urraketa larri" gisa definitu zituen. Auzitegi horrek nazioarteko legediaren hutsunea bete lezake baina indarrean jartzeko 60 estatuk sinatu beharko lukete eta, egun, 12 estatuk besterik ez du sinatu, eta horietako bik soilik dira Europar Batasuneko kideak.

NBEko Segurtasun Kontseiluak *Emakume, Bake eta Segurtasunari* buruzko ebazpena (1325) aho batez onartu zuen 2000ko urriaren 31n. Ebazpenak NBEko Idazkari Nagusiari, estatuei, gataz-

---

kan dauden alde guztiei eta negoziazio prozesuetan parte hartzen duten guztiei egiten dizkien eskaerak ondoko arlo hauetan laburbil daitezke:

- Emakumeen partehartzea sustatzea gatazken prebentzio, kudeaketa eta konponbiderako erabakiak hartzen diren gune guztietan.
- Bakea iraunarazteko operazioetan genero perspektiba sartzea.
- Militarrei, polizia zibilarri eta bakea iraunarazteko operazioetan aritzen den pertsonalari emakumea babesteko zein bere eskubide eta behar espezifikoak buruzko trebakuntza ematea.
- Bakerako negoziazioan eta akordioak ezartzean parte hartzen duten guztiei genero perspektiba sartzea eskatzen die. Kontuan hartu beharko lituzketen alderdien artean, tokian tokiko emakumeen bakerako ekimenak eta gatazkek konpontzeko prozesu autoktonoak bermatzeko neurriak aipatzen dira.
- Gatazka armatuetan ematen diren indarkeri eta bereziki sexu indarkeri mota guztien aurrean emakumeak babestea. Horren harira, emakumeen aurkako sexu indarkeriazko krimenak amnistiatik at uzteko beharra azpimarratzen du.

Ebazpen horrek berebiziko garrantzia izan beharko luke nazioarteko zuzenbide-tresna den aldetik, baina errealitatea bestelakoa da. Ebazpenaren ezarpenari buruz 2004ko urrian NBEko Idazkari Nagusiak Segurtasun Kontseiluaren aurrean aurkeztutako *Emakumeak eta Bakea eta Segurtasuna* izeneko txostenaren ondorioetan aurrerapauso batzuk azpimarratzen diren arren (gatazketan emakumeek pairatzen duten egoerari buruzko kontzientzia maila areagotu izana; politikan, programetan eta prestakuntzarako jardueretan genero perspektiba txertatzeko ahaleginak; arlo humanitarioan, bakea iraunkor bihurtze aldera diseinatutako politika berrietan, generoari buruzko ezagutza espezializatuetan eta prestakuntzarako ekimenetan egindako esfortzuak...) estatu gehienek ez dituzte kontuan izaten ebazpenean gomendatutako ekimenak.

Lortu ez diren helburuak azpimarratzen ditu txostenak: genero perspektiba ez da sistematikoki erabiltzen bake eta segurtasunari buruzko azterketetan, emakume gutxi batzuek betetzen dute arduraren handiko karguren bat bake eta segurtasun arloan, emakumeek ia ezinezkoa dute gatazkek konpontzeko prozesuetan parte hartzea, emakumearen eskubideak erabat ahaztuak izaten dira, genero- eta sexu-indarkeria zein giza eskubideen bestelako urraketak ere jasaten jarraitzen dute emakumeek, genero perspektibak txertatzeko esleitutako baliabide ekonomikoak boluntarioak eta urriak izan dira...NBEko Idazkari Nagusiak nazioarteko komunitatearen borondate politikoa, ekintza bateratua eta kontuak ematea ezinbestekotzat jotzen ditu 1325 ebazpenaren helburuak lortzeko.

## *Emakumeok azken bi urteetan egindakoa*

Euskal Herriko emakumeok gatazka politiko baten erdian bizitzea dugu berezitasun eta gatazka horren erdian egoteak gure eskubideen urraketak areagotu egiten ditu, emakume izateaz gain euskaldun izateak ere zapalkuntza forma berriak pairatu beharra baitakar. Euskal emakumeok Euskal Herria eta Frantses eta Espainiar estatuen artean dagoen gatazkaren konponketa aldarrikatzen dugu, testuinguru horrek bakarrik bermatu baitezake euskal emakumeon askatasuna eta gure artean adosten ari garen proiektua aurrera eramatea, gure eskubide guztien bermatzea eta bakea, alegia.

Azken bi urte hauetan mugimendu feministak hainbat erreflexio eta ekimen burutu egin ditu, kronologikoki azalduta honakoa dugu:

Alde batetik, 2005eko abenduaren 17an Euskal Herriko Bilgune Feministak *Gatazkaren Konponbidean Emakumeon Hitz*a lelopean antolatutako Emakume Abertzaleen III. Jardunaldietako ondorioak ditugu. Laburbilduz, honako proposamen hauek planteatzen dira:

- Euskal Herriko mugimendu feminista artikulatzea eta konponbiderako sortu behar den prozesu sozialean protagonista politiko aktiboa bilakatzea.
- Emakumeak subjektu aktibo bilakatzea. Horretarako ezinbestekotzat jotzen da emakumeek parte hartzeko beharrari buruzko kontzientzia hartzea.
- Prozesu parekidea izateko proposatutako neurriak ondorengoak dira.
  - Hizkuntza ez sexista erabiltzea ezinbestekoa da.
  - Edozein mahai edo foro sortuz gero, eragile guztiek ordezkari itza parekide izatea (emakume bat eta gizon bat).
  - Bozeraileak direnen artean parekidetasuna bermatzea.
  - Emakumeen parte hartze errealerako neurriak hartzea.
  - Emakumei zuzendutako mezuak eraikitzea eta emakumeek erabiltzen dituzten espazio publikoetara informazioa helaraztea.

*Gatazkaren Konponbiderako Oinarriko Hitzarmen Demokratikoaren* hitzaurreko 7. paragrafoan honako planteamendua egiten da, honi jarraituz Abenduaren 17an OHD-k bilbon egindako ekitaldian parrafo hau garatu egin zen:

*“Irabazle eta galtzailerik gabeko prozesua izan behar du, herritar guztien giza eskubide guztiak bermatuko eta sentsibilitate guztiak konponbidearen partaide eta onuradun egingo dituen. Helburu honekin, emakume eta gizonezkoen parte hartze sozial ezberdina eragiten duten faktoreei heldu beharko zaie eskubide eta aukera berdintasuna berma daitezen”*

2006ko apirilaren 8an, Euskal Herri osoko eta ideologia desberdinetako emakumeak AHOTSAK sortu egin zuten, dokumentuan emakumeon eskubideak eta parte hartzearen beharra agertzen da: Hala ere, eta guri ere dagokigun gatazka politikoaren ondorioak pairatzen ditugun heinean, konponbideak bilatzerakoan emakumeok ere izan behar dugun partehartzea eta protagonismoa al-

---

darrikatzerara gatoz. Konponbidearen subjektu aktibo izan behar dugu, orain arte gertatutakoaren subjektu izan garen bezala.

Zentzu honetan, gizonak eta emakumeak gizartean dugun partehartze ezberdina zehazten duten baldintzei aurre egin beharko zaiela uste dugu, egun ez dagoen eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko asmoz. Honek geure eskubideak, emakumezkoenak, aitortzea dakar, eta hori posible izango da bakarrik prozesuan partaide diren eragile guztien konpromiso sendoa baldin badago.

MUGIMENDU FEMINISTAK Uztailaren 22an AHOTSAK dokumentuarekin bat egiten du eta honako aportazioa egin genion:

*Gaur deklarazio hau sinatzen dugun emakumeok pausu berri bat eman nahi dugu eta emakumeon parte hartzeari begirako konpromiso erreal bat hartu, aukera berri bat izan daitekeelakoan aniztasun politikoa gauzatzeko ideia eta aukera politiko guzietan ekarpenak kontuan hartuz.*

*Gatazkaren konponbidean emakume aktiboak garen heinean, gure parte hartzea aukera berdintasunean eman dadin neurriak definitu eta konponbidean parte hartuko duten eragile politiko, sindikalak eta sozial guztiekin landuko ditugu, hauek beraien aldetik konpromisoak hartu eta lan ardatz bihurtzea helburutzat hartuta.*

*Emakumeek badakigu bakerantzako benetako bidea ez dela indarkeri ez soiletik etorriko. Eskakizun etiko tinkoa eskatuko du. Egoera zailei aurre egiteko kemena, sufrimendu ondorengo zauri ugari sendatzeko determinazioa. Benetako bakearen bidean egongo gara, gure gizarteko beste indarkeri zenbait errekonozitu eta desagertze bidean jartzen ditugunean, hau da, emakumeen kontrakoa, arrazakeria, klase indarkeria eta beste zenbait indarkeri gaindetzen ditugunean.*

*Ezinbestekoa da guretzat elkarrizketa eragile guztien artean ematea, eta, ondorioz, emakumeon mugimendua eta emakumeok orokorrean kontsideratuak eta ikusaraziak izatea.*

*Gizartea izango da, emakumeen ezinbesteko partehartzearekin, benetako lan arduratsua egin beharko duena gaur egungo egoera politiko sozial eta ekonomikoak gainditu eta Euskal Herriko gizonetzko eta emakumezko guztientzat benetako justiziazko, elkartasunezko eta askatasunezko baldintzak lortuko dituena.*

*Orduan izango ditugu beharrezko oinarriak herri honek bere etorkizunezko erabakiak har ditzan.*

Euskal Herriko emakumeek egindako ekarpen hauek ikusita, gatazkaren konponbidean emakumeen eta mugimendu feministaren partehartzea subjektu politiko gisa bermatzeko nahiko masa kritikoa dagoela ondoriozta daiteke. Euskal emakumeek argi eta garbi utzi dute parte hartu nahi dutela eta parekidetasunean oinarritutako jendarte berri bat eraikitzen lagun dezaketen ekarpen sendoak egiteko gaitasuna dutela.

#### 4.

## *Ora in zer: prozesu partekidea izateko proposamena*

### **ABIAPUNTUA**

- Mugimendu feministak eta emakumeak egindako ekimen eta erreflexio guztiak
- Nazio arteko genero berdintasunari buruzko deklarazioak :
- CEDAW, Emakumeen kontrako biolentziaren desagerpenerako konbentzioa (1979), Beijing-ko deklarazio eta ekimenerako plataforma ( eta batik bat 8.puntua) ,1325 ebazpena (2000), Munduko emakumeen karta (2004), EB-ko emakumearen eskubideak eta genero berdintasunari buruzko batzordearen txostena (2005)...

### **ZER EGINAK**

- EH- an bizi dugun prozesuaren fase ezberdinetan genero berdintasunari buruzko egoera zehaztea eta aztertzea

Horretarako metodo bat zehaztea:

- genero indikadoreak sartuz;
- genero azterketa burutuz.
- Genero berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa hedatzea
- Genero berdintasunaren aldeko politika eta neurriak proposatzea eta ebaluatzea

Guzti hau egiteko ezinbestekoa izango da prozesu guztian zehar neurri zehatz batzuk adostea inplikatuak gauden guztiak aurrera eramango ditugunak.

#### 5.

## *Iturriak*

Honako dokumentuak erabili egin ditut aurreko erreflexioa egiteko:

- 2005ko Abenduareb 17an Euskal Herriko Bilgune feministak egindako topaketan ondorioak.
- 2006ko apirilaren 8an eta uztailaren 22an Ahotsak dokumentuak.
- OHD dokumentua.
- Amaia Andrieuk egindako ponentzia: "Genero dimentsioa gatazkaren konponbidean" Mondragon Unibertsitatea eta Heis center *Herri Eskubideak eta mundu gobernantza* izenburupean antolatutako jardunaldietan, 2006ko Apirilaren 27 eta 28an burutu zirenak.



---

**MARÍA OIANGUREN**

**Gernika Gogoratuz**

*Ikuspuntu  
feministatik,  
Euskadin  
bakea  
erakitzeke  
gaitzaki*



### 1.

Arratsalde on kongresu honetan parte hartzen ari zareten emakume eta gizon guztioi. Lehenik eta behin, nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Emakunderi eta kongresu honen antolakuntzan parte hartu izan duten pertsona guztiei, hain gertutik bizi dugun eta Gernika Gogoratzek parte-katzen duen gaia lantzeagatik. Era berean, gaurko mahai-ingurua zuzenduko duen Dominique Saillardi ere nire eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiot, feminismoarekin eta bakearekin duen konpromiso bikoitzarengatik.

Sare2006ren *Emakumeak bakeak eraikitzen* ekitaldiaren antolatzaileek panel honetan parte hartzen dugun emakumeoi ondoko eskakizuna egin digute: talde zein erakunde bakoitzak, nire kasuan Gernika Gogoratzek, egindako lanetik abiatuta (1), proposamenak eta ideiak mahaigaineratzea, bakea eraikitzeko Euskadiko prozesuak emakumeengan zein gizonengan ikuspegi feminista barne har eta integra dezan.

Hala, aukera honetaz aprobeztatzen saiatuko gara ikuspegi feministara hurbiltzeko. Xedea, gauza sinbolikoen bidez, gure erakusketa eta bakearen aldeko ikuspegia uztartzea da.

Atzo, Carmen Magallónek gogorarazi zigun hitz egiteko erabiltzen dugun lekua esanguratsua dela, eta erabat ados gaude bere proposamenaren planteamenduarekin. Gure lekua Gernika da, irudikari sinbolikoak dituen udalerria, eta oso aspaldiko garaietatik irudikari horiek euskal nortasunez eta askatasunez hitz egiten digute, eta duela gutxi igaro berri den XX. mendean geroztik, baita bakeez eta adiskidetzeez ere.

Era berean, atzo, Amelia Valcárcelek eta Carmen Magallónek, azken lanean ikusi ahal izan den moduan (2), bakearen eta emakumearen arteko lotura sinbolikoaz hitz egin ziguten. Irudi sinbolikoak garrantzitsuak dira, ez esanahia transmititzen dutelako soilik, baita etengabe aldatzen ari den errealitate bateko lengoiaez betetako esanahi berriak sortzen dituztelako ere.

Hemen eta orain, bakearen kulturako balioak aberastuko dituzten kontzeptu berrien garapenerantz aurrerapausoak emateko, lengoia berrien sorreran ekarpenak egiteko gaude.

Hori dela medio, Gernika Gogoratzetik Gernikako sinboloak aberasten jarraitu nahi dugu bakea eraikitzeko ekarpen gisa, babes soziala zein zientifikoa emanda. Lan honek tokiko izaera bere gain hartzen du, unibertsaltasunean oinarrituta.

(1) Gernika Gogoratz, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena zela eta, 1987an Eusko Legebiltzarrak aho batez sortutako bakearen aldeko ikerketa-zentroa da.

(2) Magallón, Carmen, *Mujeres en pie de paz*. Madril, Siglo XXI editores, 2006.

Ikerketaren esparruan Gernika Gogoratuzetik Kolonbian koordinatu ditugun jardueren barruan, *Cambio de roles de género y niveles de empoderamiento de las mujeres en el marco del conflicto social y armado en Colombia. Caso Caquetá* (3) ikerketa nabarmendu behar dugu. Ikerketa honen interes zientifiko-akademikoaren xedea Kolonbiako departamendu horretako emakumeen egoeraren zein baldintzen ikerketan aurrerapausoak ematea, eta gizonen zein emakumeen arteko harreman- eta negoziazio-dinamiketara eta gatazka sozialera zein armatura hurbiltzea da.

## 2.

### *Emakumearen historia eta ekimena*

Gernika-Lumo udalerrria, Espainiako Gerra Zibilaren testuinguruan, 1937ko apirilaren 26an Alemaniako Kondor Legioak bonbardatu zuen, demokratikoki aukeratutako errepublikaren aurka armekin altxatutako Franco jeneralaren oniritziarekin.

Berrogeita hamar urte beranduago, Gernikako bonbardaketaren omenezko ekitaldietan, Gernika Gogoratuzen sorrera markatzen duten jazoerek emakume-izena daukate; Petra Karin Kelly, hain zuzen ere. Feminista, ekologista, bakezalea eta Alemaniako Parlamentuan Berdeen diputatua izan zen. Udalerrira 1987ko apirilaren 18an egindako bidaian, Gernikan bakearen eta adiskidetzearen aldeko zentro bat sortzearen beharra aldarrikatu zuen (4). Bere ustean, garrantzitsua zen gertaera historikotik eta horren errekonozimendutik abiatuta, adiskidetasuna lortzeko bakearen klabean etorkizunera begiratuko zuen keinua egitea (5). Keinu hori betidanik agertu izan ohi da Gernika Gogoratuzen filosofian, eta eginkizun horren sustatzaileetako bat izan da (6).

---

(3) Proiektu hau Eusko Jaurlaritzaren Garapenari Laguntzeko funtsek (2004-2006) finantzatu dute.

(4) «Gaur hemen nago eta alemaniarra naiz, eta lotsatuta sentitzen naiz 1937ko apirilaren 26an hemen gertatutakoa gogoratzen dudanean. 1937ko apirilaren 26an, duela berrogeita hamar urte, Alemaniako Aire Indarren hegazkinak, Francorekin bat eginda, Euskadiko udalerrri hau bonbardatu zuten. Kondor Legioko lehergailuek pertsona asko hil zituzten; hemen krimen handia gertatu zen» Petra K. Kelly, Gernikan, 1987ko apirilaren 18an.

(5) «Hemen, Gernikan, indarkeriarik gabe ekitera behartuak sentitu beharko genuke! Eta Gernikan bakearen eta adiskidetasunaren aldeko nazioarteko topagune-zentroa eraiki beharko litzateke» Petra K. Kelly, Gernikan, 1987ko apirilaren 18an.

(6) Egitekoa Gernikaren sinboloa aberasteko ekarpenak egitea da, batetik, iraganera begira, historia gogora ekarrita eta ohoratuta; eta, bestetik, etorkizunera begira, Euskadin zein mundu osoan bake emantzipatzailea, justua eta adiskidetzalea sortzeko babes zientifikoa emanda.

## *Gakoak bakezaletasunetik eta feminisमतetik*

Atzo goizeko saioan, Mireia Espiauk ondoko galdera egin zigun: Zertaz ari gara bakeaz hitz egiten dugunean? Egindako galderari jarraiki, Gernika Gogoratuzetik proposatzen dugun bakea definitzen ausartuko gara; beste batzuen artean, Johan Galtungek, John Paul Lederachek, Vicent Martínez Guzmáneke, Carmen Magallónek eta Amartya Senek egindako proposamenekin elikatzen den bakea:

Bakea bizitza zaintzeko, eta ongizateko, nortasuneko, berdintasuneko zein askatasuneko oinarritzko behar pertsonalak eta kolektiboak asetzeko giza gaitasunen garapena da. Bakea ondokoa sustatzen duten kultur aukera propioetatik baino ez da ulertzen: berdintasunean oinarritutako harremanei, parte-hartzeari, elkartasunari, eta gatazkak indarkerian oinarritu gabe eta modu sortzailean eraldatzeko interdependentziari lotuta, erantzukizun pertsonalak eta kolektiboak norbere gain hartzea.

Beraz, bakea indarkerien zikloak gainditzeko giza ikuspuntutik abiatzen den elementu gisa proposatzen da. Era berean, elkarbizitza sortzeko gizartearen berreraikitzea sustatzen du. Elkarbizitza horren ikuspuntua indarkeriaren adierazpen oro, marjinazioa eta bazterketa eragiten duten desberdintasunei erantzuna emango dion gizarte-erlaldaketa eraikitzailearena da (7).

Hala, desberdintasunik nabarmenena gizonen eta emakumeen arteko harremanen ikuskera nagusiaren ondorioz sortutakoa da. Hori dela eta, bakea eraikitzeko elementu gakoan artean genero-ikuspegi egokia barne hartzea legoke, mugimendu feministaren lanari esker sortutako eta hausnartutako oinarritzko proposamen gisa.

Feminismoaren ikerketek, egindako ekarpenen bidez, pertsonen arteko desberdintasunari bere horretan eusten dioten eta hori justifikatzen duten desberdintasunen jatorria eta arrazoiak ulertzeak daukan garrantzia erakutsi dute. Ondorioz, hortik abiatuta, oinarritzko giza eskubide gisa, genero-berdintasuna sustatzen duten erakundeetan aukera-berdintasunerako politikak martxan jartzea beharrezkotzat jotzen da.

Puntu horri dagokionez, iaz, Gernika Gogoratuzetik gure erakundeetan genero-politika sustatzeko prozesua jarri genuen martxan (8); izan ere, garrantzitsua da politika hori gure barne-dinamiketan sartzea, kanpo-proiektuetan sartu ahal izateko eta, modu eraginkorrean, bakearen eraikuntzan ekarpenak egiteko.

(7) Hegoaren Garapenerako Hezkuntza hiztegian sartzeko «bakea» terminoarentzat proposatutako definizioa (2006).

(8) Las 4 G's de *Gernika Gogoratuz* (GGG+género) proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu zuen lehenengo eta bigarren fasean (2005-2006).

## 4.

# *Bakearen eraikuntza Euskadin*

Panel honetan, Euskadin bakea eraikitzeko oinarritzkoak diren lau proposamen eman nahi ditugu ezagutzera.

1. Bakearen kultur dimentsioan sakontzea.
2. Beldurra galtzeko nahikoa konfiantza sortzeko, indarkerien zikloak gainditzea.
3. Tokian tokiko parte-hartzea eta garapen globala sustatzea.
4. Oroitzapen historikoa eta bakearen aldeko konpromisoa lotzen dituzten ardatz sinbolikoak sustatzea.

### 4.1

#### **BAKEAREN KULTUR**

#### **DIMENTSIOAN SAKONTZEA**

Gizarte-zientzia aplikatuaren esparruan, diziplina zientifiko gisa bakearen aldeko ikerketa hirurogeiko hamarkadan hasi zen finkatzen. Aurreko hamarkadetan, zehazki bi mundu gerren epealdian, analisia batik bat gerraren ikerketa zientifikoan oinarritu zen, garapen armatua eta *Paz Negativa* (Galtung, 2003) delakoaren ikerketara hurbiltzen gaituzten jolasen teoria bezalako gaiekin.

Ordudanik, bakearen eta gatazken ikerketa, beste batzuen artean, zientzia enpirikoen eta adierazpen artistikoen arloetatik etorritako ekarpenek aberastu izan dute. Hainbat ezagutza-esparruren topagunetik abiatuta, bakearen kontzeptuzko garapena *Paz Positiva* (Galtung, 2003) edota *Paz Imperfecta* (Muñoz, 2000) bezalako kontzeptuetan proposatutako gero eta zentzu konplexuagoa hartzen ari da.

Bakearen ikerketari egindako ekarpen hauek garapenaren eta giza eskubideen arlotik etorritako ikerketetara hurbiltzen dira, eta horiekin konbinatzen dira. Hala, adibidez, ondoko kontzeptuzko proposamenak sortzen dira: *Giza Segurtasuna*, laurogeiko hamarkadan Nazio Batuek erabiltzen hasitakoa, eta Bakerako *Giza Eskubideak* (9), Luarcako (Asturias) Aitorpenean Giza Eskubideen alorrean Nazioarteko Zuzenbidearen Garapenerako eta Aplikaziorako Espainiako Erakundeak 2006ko urriaren 30ean jasotakoa.

---

(9) *Bakerako Giza Eskubideari buruzko Luarcako (Asturias) Aitorpena*, Cooperació al Desenvolupament Kataluniako agentzia, Generalitat de Catalunya eta Giza Eskubideen alorrean Nazioarteko Zuzenbidearen Garapenerako eta Aplikaziorako Espainiako Erakundea (AEDIDH), 2006

---

Aurrerapen horietatik guztietatik abiatuta, beharrezkotzat jotzen da bakearen kultur dimentsioan sakontzea, beste kultur ohituretatik bakeari egindako ekarpenak zeintzuk izan diren ezagutzeko eztabaida sustatzeko helburuarekin. Hala, bakearen pedagogia sustatu nahi da, bakearen kontzeptua aberastuko duen hainbat kultur erkidegotako pertsonen artean elkarrizketa sustatuko duena; izan ere, bakearen eraikuntzari buruzko erantzunak erkidegoko kultur kodeetan egon ohi dira.

## 4.2

### **BELDURRA GALTZEKO ETA KONFIANTZA SORTZEKO INDARKERIEN ZIKLOAK GAINDITZEA**

Bakearen eraikuntzaren esparruko idazlerik ezagunenetako batek, John Paul Lederachek, argitaratu duen azkeneko lanean (10) indarkeriaren zikloa nola apur dezakegun azaltzen du. Egiten dituen proposamenen artean, hainbat testuingurutan bitartekari gisa hogeita hamar urtez baino gehiagoz izandako lan-esperientzia handiaren ondorioz, pertsonen arteko harremanen garrantzia nabarmentzen du. Harreman horrek erkidego bereko pertsonak, eta, beldurra galtzeko zein konfiantza sortzeko, gizarte-eraldaketa eraikitzailea sustatzeko erabat errotutako indarkerien eszenatokietan, beste erkidegoetako pertsonekin sortutako harreman-sarea hartzen ditu barne.

Indarkeriaren zikloa gainditzeko, idazle honek adierazten duen moduan, pertsona bakoitzak ondoko hiru galderak egin behar ditu: beste pertsonetikiko gure interdependentzia-harremanetan nortzuk gara, nortzuk izan gara eta nortzuk izan nahi dugu?

Indarkeriaren zirkulua gainditzeko gakoa «etsai irudia» kontzeptuaren pentsamendu duala apurtuko duen pertsonen interdependentzian oinarritzen da (11). Interdependentziaren proposamenak logika baztertzailean «bestea» ez du «aurkari» gisa ikusten, elkarbizitzako espazio berrietan «aliatu» gisa baizik. Espazio horiek erantzukizun pertsonalak eta kolektiboak norbere gain hartuta eraikitzen dira, pertsona guztien parte-hartzea sustatzeko.

---

(10) Lederach, John Paul: *La Imagenación Moral, el Arte y el Alma de la Construcción de la Paz*. Bilbo, Bakeaz eta Gernika Gogoratuz, 2006 (prentsan)

(11) «Etsaiaren irudia estereotipatutako irudia da, inoren taldetik desgizatartutakoa. Etsai irudiak beldurrak eta mehatxuak azaleratzeko poloa ematen du. Horretaz gain, pertzepzio eta emozio zital ugari etsaiarengan proiektatzen dira», Wahlström, Riitta: *Imagen enemigo*. Gernika Gogoratuz aldizkaria, 2. zk., 1990, 38. orr.

Westfalia osteko nazioarteko egungo eszenatokiak (12), Martínez Guzmánek (2006) gogoratzen duen moduan, egungo estatu nazionalak eszenatoki anitzetan gizarte-erakundeen eta gobernu-instituzioen arteko etengabeko elkarriketetatik etorritako analisi konplexuagoak behar dituztela gogoratzen digu, gizakiok egun murgilduta gauden mehatxu handien aurrean. Mehatxu horiek txirotasuna, klima-aldaketa, ugaritze nuklearra, terrorismoa eta «izuzaren aurkako gerra» erantzuna dira, beste batzuen artean. Analioki gertukotik hasi eta nazioz gairidikoak izango dira, tokian tokitik eta maila globalagotik egungo erronka handiei erantzuna emateko.

Konponbide iraunkorrek aurkitzeko politika desegokien kudeaketa, eta berehalako irabazien hasierarekin amaitzen diren ustelkeria-espiraletan murgildutako mekanismoak ez dira oso bateragarriak arazo globalei erantzun integralak aurkitzeko helburuarekin. Gauza bera gertatzen da NBEren 2015erako Milurtekoko Garapen Helburuekin ere (13). Ondorioz, gizarte zibilak gero eta konfiantza gutxiago dauka erakundeengan, eta erakundeek gizarte zibilarengan daukaten konfiantza ez da aldaketarako elementu sortzaile gisa ikusten.

Bakerako Filosofia UNESCO Katedrako lan-proposamenak herritarrek, beste herritar zentzu batekin, erakunde-fofoetara eta alderantziz hurbiltzeko proposamenak egiten ditu. Hori guztia, klabe lokaletatik eta globaletatik abiatuta, subiranotasun mota berri batean burutuko da, pertsonen parte-hartze demokratikoa herritarrei zuzendutako eta lokalismo kosmopolitan oinarritutako heziketa-eren eraikuntzan inplikatzeko (Martínez Guzmán, 2006).

Herritar zentzu horrek, Amelia Valcárcelek dioen moduan, filosofia feministaren eraginaren ekarpenak ere biltzen ditu, subjektu historikoa eta politikoa izatearen kontzientzia gogora ekartzen digunean. Gizonen eta emakumeen eskubideen zein aukeren berdintasunean, gizarte batek nolakoa izan behar duen pentsatu ahal izateko desberdintasunak eta harremanak sustatzen dituzten gaiak jorratu behar dira. Feminismoaren eragina, ikuspuntu gizatietatik hasi eta unibertsaleraino, globalizazioaren zentzua sustatzen duten mugimenduen aldarrikapenei erantsi behar zaie, Munduko Gizarte Foroaren Baliteke beste mundu bat lemak dioen moduan.

---

(12) Westfaliako Bakea (1648) Akordio honen bidez, lurralde bakoitzean gobernagarritasuna eta segurtasuna bermatu nahi zituzten.

(13) <http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/>



## 4.4

### **OROITZAPEN HISTORIKOA ETA BAKEAREN ALDEKO KONPROMISOA LOTZEN DITUZTEN ARDATZ SINBOLIKOAK SUSTATZEA**

Gernika udalerrian, bakearen eta adiskidetzearen aldeko lanak aurretik duen historian hartzen du esanahiaren zatirik handiena. Ardatz sinbolikoek oroitzapen historikotik eta bakearen aldeko konpromisotik proposamenak egiteko aukera ematen digute.

Gernika Gogoratuzen bakearen eraikuntzako esparruan sortutako proposamenak bonbardaketatik bizirik ateratako lekuko ondataren fruitu dira; izan ere, bonbardaketaren oroitzapena ezagutzera emateko gai izan dira memoriaren pedagogiaren bidez. Hori garrantzitsua izan da Gernikaren eta Alemaniaren arteko adiskidetze historikoan aurrerapausoak emateko. Luis Iriondok, bonbardaketatik bizirik atera zirenen kolektiboaren izenean, hala islatu zuen publikoki Alemaniako Roman Herzog presidenteari zuzendutako eskutitzaren irakurketan, Gernikako bonbardaketaren 60. urteurrenean, «halakorik inoiz gehiago ez gertatzeko nahia» (14).

Bakearen aldeko gure konpromisoa oroitzapen historikotik abiatzen da, eta badaki gatazkak iraun egiten duela, elkarrizketa eraikitzaileak kontu handiarekin etengabe izan behar direla, eta beharrezkoa dela lan-sareak sustatzea, indarkeriaren edozer adierazpenen eraginpeko gizartearen konpromiso hori hartu ahal izatea bideratzeko. Hala, gatazkak indarkeriarik gabeko eszenatokitara eraldatuko dira.

Puntu honetan, panel honen izenburu den Ikuspuntu feministatik, Euskadin bakea eraikitze gakoak lemara eta bakearen pedagogiarekin duen loturara itzulita, ondoko ekintzak sustatuko ditugu:

- Hainbat erkidegotako pertsonen artean sareak, aliantzak eta topaguneak sortzea, akordioetako gutxienekoetatik eta desadostasunetako gehienezkoetatik.
- Prozesuen eta horien emaitzen arriskuak norbere gain hartzea.
- Beste modu batera, erantzukizunak jakinarazten eta eskatzen irakasten dituguten eraldaketa pertsonalen eta kolektiboaren bidez ikastea.
- Parte-hartze demokratikoaren eta kreatibitatearen gakoetatik bake prozesua sustatzea.
- Aniztasunaren alderdi positiboa indartzea, eta erlazioa ezagutzarako eta aberastasunerako tresna gisa sustatzea.

---

(14) Kasper, Michael (1998): «Declaración de los testigos sobrevivientes» 1997ko apirilaren 27a *Gernika y Alemania. Historia de una reconciliación* liburuko 86. orr.

---

Bakearen aldeko konpromisoaren, gatazken analisiaren eta indarkeria-zikloak gainditzearen bidez, bakea eraiki eta sendotu ahal izango da elkartasunean oinarrituta. Hala, muga osteko paradigma batean, hastapenean, paradoxikoki muga berriak konkistatuko dira.

Oroitzapenari aipamena eginda amaitu nahi nuke. Gaur Gernikaz gogoratzen banaiz, amona Rafaela Bilbaoz gogoratzen naiz. Gaur 96 urte bete ditu, eta hark irakatsi zidan gauza bat etxea baloratzea dela, eta bestea «etxekotuta» egotea.

Zorionak amona!

## *Ereferentzia bibliografikoak*

Barón, Marvel; Ramírez, Roberto (koord.): *Cambio de Roles de género y niveles de empoderamiento de las mujeres en el marco del conflicto social y armado en Colombia. Caso Caquetá*. Gatazka eraldatzeko eta giza eskubideen programa MANIGUA proiektuaren esparruko ikerketa-txostena, Amazoniako unibertsitateak, Cormujer erakundeak eta Gernika Gogoratuzek finantzatutakoa. 2006ko ekaina.

Cava Mesa, María Jesús: *Memoria colectiva del Bombardeo de Gernika*. Bilbo, Bakeaz eta Gernika Gogoratuz, 1996.

*Bakerako Giza Eskubideari buruzko Luarcako (Asturias) Aitorpena*, Cooperació al Desenvolupament Kataluniako agentzia, Generalitat de Catalunya eta Giza Eskubideen alorrean Nazioarteko Zuzenbidearen Garapenerako eta Aplikaziorako Espainiako Erakundea (AEDIDH), 2006

Galtung, Johan: *Paz por medios pacíficos. Paz y conflicto, desarrollo y civilización*, Bilbo, Bakeaz eta Gernika Gogoratuz, 2003.

Gernika Gogoratuz: *The reconciliation horizon in- UNESCO and Culture of Peace. Promoting a Global Movement*. Paris, UNESCO. 1995.

Gernika Gogoratuz: *Gernika y Alemania Gesto de Reconciliación*, Gernika-Lumo, Heinrich Böll fundazioa eta Gernika Gogoratuz, 1997.

Kasper, Michael: *Gernika y Alemania. Historia de una reconciliación*, Bilbo, Bakeaz eta Gernika Gogoratuz, 1998.

- 
- Lederach, John Paul: *Construyendo la Paz. Reconciliación sostenible en sociedades divididas*. Bilbo, Gernika Gogoratuz eta Bakeaz. 1998.
- Lederach, John Paul: *La imaginación moral, el arte y el alma de la construcción de paz*. Bilbo, Gernika Gogoratuz eta Bakeaz. 2006 (prentsan)
- Magallón, Carmen: *Mujeres en pie de paz*. Madril, Siglo XXI editores, 2006.
- Martínez Guzmán, Vicent: «El Derecho Humano a la Paz: elementos del proyecto de declaración como instrumento para la Educación para la Paz», Madril: *Tiempo de Paz*, 80. zk., 2006ko udaberria, 94-101. orr.
- Muñoz, Francisco: *La Paz imperfecta*. Granada, Bakearen eta Gatazken Institutua. Granadako unibertsitatea, 2001.
- Oianguren Idígoras, María: Paz, in *Diccionario de Educación al Desarrollo*. Bilbo: HEGOA, 2006 (prentsan)
- Sen, Amartya K.: *Desarrollo y libertad*. Bartzelona, Planeta, 2000.
- Wahlström, Riitta: *Imagen enemigo*. Gernika Gogoratuz aldizkaria, 2. zk., 1990.



---

**ASUN URBIETA**  
**Plazandreak**

*Euskadiko*  
*bakearen*  
*erakuntzarako*  
*proposamenak*



Plazandreok elkartearen ibilbidea kontatuko dizuet, labur bada ere:

1998ko azaroan «Indarkeriaren aurkako jardunaldiak» antolatu genituen. Hizlarietako bat Carrie Hamilton izan zen, Ipar Irlandako Emakumeen Koalizioko kidea. Koalizio horretan, emakumeak batu egin ziren unionista-nazionalisten arteko aldeak gaindituz, Ipar Irlanda zail eta gatazkatsuan. Bi legebiltzarkide lortu zituzten eta, horregatik, bake elkarrizketetan parte hartu ahal izan zuten. Beren esperientzia kontatzera etorri zitzaizkigun.

Beste saiakera bat egin genuen, 1999an, gutun bidez, hainbat erakunde gonbidatuz (biktima elkarreetatik hasi eta amnistiaren aldeko batzordeetaraino), baina ez zen posible izan.

Beste ahalegin bat ere bai, 2000n, Elkarriko emakumeen artean, baina Plazandreokeko kideak besterik ez ginen joan.

1.

## *Emakumeen rola gatazkan. Mitoak*

A) Patriarkatuaren eginkizun banaketan, aginpide politiko eta ekonomikotik urrun egon izan gara emakumeok. Ez gara gudarostean egon, ez eta antolatutako erakunde armatuetan ere. Era horretan ziurtatzen zuten ez genituela beren aurka erabiliko.

B) Eremu pribatuan mantendu izan gara, etxe barruan. Esaten dute, amak garenez, bakezaleak garela berez. Baina ama ez garenok ere ez dugu parte hartu. Eta ama batzuek gerrarako deia eta aldarria egin dute.

Feminismoak, sortu zenetik, bakezale sutsuak izan ditu. Rosa Luxemburgo, Clara Zetkin, Virginia Wolf. Guztiek «armak uzteko» eskatu zuten. Guztiak bat zetozen esatean emakumeok gorroto ditugula armak, gizonen gure aurka erabiltzen dituztelako eta geu garelako beti kaltetuenak.

Baina, bai hautatua edo bai inposatua izan, gure iritzian oso positiboa da:

- Bai gatazken sorreran ez parte hartu izana, baita elementu militar gisa gerran parte hartu ez izana ere. Dena den, izan dira parte hartu dutenak, eta oraindik ere badira.
- Indarraren erabileran parte hartu ez izanaren esperientzia historiko hori ezinbestekoa jotzen dugu gatazken konponbidean parte hartzeko orduan.
- Ez dugu asto-indarra erabiltzen gure arazoak ebazteko; areago, indarkeria horren biktima izan gara eta izaten jarraitzen dugu.

Etsaia fisikoki ezabatzearen ideia bera; indarraren erabilpena guztiz desegokia da pertsonen errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako mundu zibilizatua nahi baldin badugu.

Egoera jakin batzuetan indarkeriaren erabilera justifikatzen badugu, gure herrian gertatu izan den bezala, gizonen elkar hiltzen jarraituko dute, eta gu ere hilko gaituzte. Beti izango dira justifikazio gisa erabili ahal izango diren egoerak.

Boliviako «Mujeres creando» erakundeko feministek zioten bezala : «Kontuz zer nolako oraina eraikitzen duzun, amesten duzun etorkizunaren antza izan behar du». Bitartekoek eta helburuak elkarren antza izan behar dute.

Historian zehar, emakumeok izan gara bakearen aldeko erakundeetan gehien parte hartu dugunak, indarkeria gabeko metodo eta estrategiak garatu ditugunak, bakea babestu beharreko ondusun gisa aldarrikatu dugunak.

Esandakoaren erakusgarri dira «Greenham Commoneko Emakumeak». Hamar urte egin zituzten kanpaturik, harik eta base militar hori ixtea lortu zuten arte, 80ko hamarraldiaren erdialdetik, 90ekoaren erdialdera. «Beltzez jantzitako Emakumeak» Jugoslavia ohian. «Beltzez jantzitako Emakumeak» Israelen eta Palestinan; «Bat Shalom» erakundeko emakumeak, horiek ere Israelen eta Palestinan, Latinoamerika, Irlanda, «Maiatzeko Plazako Amak», etab.

Gerren benetako izaera salatu duten emakumeak. Gerrak ez dira aurrez aurre dauden bi armadaren artean agitzen (batzuetan ez da gudarosterik ere), baizik eta gizarte zibilaren barruan. Eskubideak desagertu egiten dira. Bestela ere gizonezkoak arriskutsuak baldin badira emakumeentzat... imajina itzazue armatuta.

Emakume-erakunde horiek, adibidez, NBEak bortxaketak gerra-krimenez har ditzan lortu dute. Eta horrek egundoko garrantzia du.

Hala ere, badakigu indarkeria ezaren alorrean dugun esperientzia ez dela behar bezala balioesten negoziatio-mahaian. Oraindik ez dugu behar adinako aginpide politikorik. Gizonezkoek (batzuk eta besteak) gauzak beren erara negoziatuz jarraituko dute.

Gatazketako biktimak garenez, nor izan behar dugu gatazka konpontzerakoan ere, baina ez bakarrik biktimak garelako, herritar garelako ere bai.

## **GUTXIENKO ADOSTASUNAK KONPONBIDEAN**

Gatazka emakumeen bizitzan dituen ondorioak bistara atera behar dira. Genero-azterketa egin behar da emakumeen bizipenei dagokien guztian.

- Gatazkari buruzko egia, bi aldeetan. Estatuak ez du inoiz bere indarkeria aitortzen. Torturak, gerra zikina, hilketak, etab.
- Justizia eta biktimak aintzat hartzea. Bi aldeetakoak.
- Lekualdatutako pertsonak birkokatzea.

Horregatik garrantzitsua da emakumeon artean azterketa horiek egitea eta akordioetara heltzea. Emakumeon arteko hitzarmenak lortzea. Gero, mahai mistoetan, azalduko ditugu gure proposamenak.

Ahotsak da emakumeen arteko hitzarmenen plasmazio praktikoa. Hitzarmen horiek estrategia politiko guztiz komenigarria dira emakume guztientzat. Ebazteke ditugun gai guztiak adosteko eta konponbidean jartzeko. Hitzarmenak beharrezkoak eta irisgarriak dira.

Elkarrizketaren eta adostasunaren kultura. Indarraren erabilpenaren aurka, arrazoia indarra. Horixe da feministon bandera.



---

Premiazkoa da elkarlana feministen eta beste hainbat "politikaren" artean: zainketa legea, berdintasun legea, indarkeria, behartasuna, kristalezko sabaia, etab. Emakumeen eskubideak.

Eta, jakina, etengabe salatu behar da emakumeek mundu guztian nozitzen dugun berariazko indarkeria. Emakume guztion lehentasuna izan behar du horrek.

Horretarako egon behar dugu agintean, boterean parte hartu beharra daukagu. Hortik egiten eta erabakitzen baitira politikak eta, batez ere, aurrekontu-partidak: hainbesteko desberdintasunak ezabatzeko politika sozialak eta elkartasunezkoak.

Plazandreoken, gaur egungo bando politikoak haustearen alde egiten dugu apustu. Stasa Zajovic-ek (Beltzez jantzitako Emakumeak) adostasun nazionalak haustea deitzen dio horri.

Emakume gisa ditugun interesetan, gure bizimodu eta eskubideetan gehiago zentratzea. Asko baita batzen gaituena.

Azkenik, kontuz «bake» hitzarekin. Orain Euskal Herrian indarkeria amaitzera doala esaten dute. Gustatuko litzaiyuke emakumeek berariaz nozitzen dugun indarkeria matxista amaitzea. Hainbeste kezkatzen duen beste hori baino askoz handiagoa den hori (200 emakume hil dituzte gizonezkoek azken 3 urteotan).

Indarkeria, bai Euskal Herrian eta bai munduan, patriarkatua desagertzen denean amaituko da.



---

**ZURIÑE DEL CERRO**  
**Alderdi Feminista**

*Bake*

*prozesurako*

*ekarpenak*

*Partido*

*Feminista /*

*Alderdi*

*Feministarenak*



---

Bake prozesuaren alde apustu eginez emakumeek diseinatutako hainbat ekarpen eta estrategia plazaratzen ari diren foro honetan, Partido Feminista/Alderdi Feministak etika berri batetik abiatzeko premia aldarrikatu nahi du, gizon eta emakumeen ekarpen positiboak kontuan harturik, gizarte eredu berri bat eraiki dadin, eta gizarte horretan elkarrekin bake irizpideen arabera bizitzea posible izan dadin.

Emakumeok gai gara bake prozesuaz mintzatzeko eta ekarpen berritzaileak eta erreferentziak egiteko. Hala ere, ekarpen desberdinak egiten baditugu, ez da izango emakumeak garelako, emakume jaio garelako, soilik; hau da, errealitatea beste ikuspegi batetik aztertze bidea ematen diguna, emakumeon kultura giza portaeraren erreferentzia puntu berri bihurtzea ahalbidetuko diguna, emakumeek sortu, esan eta bizi izandakoari itzala emango diona, emakumearen «hitzari» balioa emango diona, patriarkatuaren aurka matxinatuz, ez dira arrazoi biologikoak, ideologia edukia baizik; hots, filosofia feminista. Patriarkatua, izan ere, gizarte antolakunde gisa hartuta, errotik biolentoa baita, alegia, indarkeria da zutik eusten dion euskarri nagusia.

Hain zuzen ere, feminismo politikoak bake prozesuari egin diezaiokeen ekarpena etika politikoko kode berriak sartzeko da, politika egiteko beste modu batzuk sortzea, hartzen diren erabaki politiko guztiak gizon eta emakumeen giza garapenean pentsatuz har daitezkeen behartzea.

Feminismoa, gaur egun, ideologia globalizatzaile gisa agertzen da: gizarte eredu patriarkalaren oinarriak zalantzan jarriarik, izan diren beste esplotazio eta zapalkuntza guztiak aztertzen ditu, eta guztiei irtenbidea bilatzen saiatzen da.

Aldarrikatzen dugu emakumeen sozializazio prozesutik (gizonezkoenetik bestelakoa) atera daitezkeela garapen pertsonal eta kolektiborako aportatu dituzten elementu gizatiar positiboak, eta erreferentzia eredu bihurtzeko emakumezko eta gizonezkoek askatasunera bidean aurrera egin dezaten.

Emakumeon kulturako alde positiboak berreskuratu ondoren, planteatzen dugu gizonezkoen munduarekiko aukera berdintasunaren aldeko borroka ez dela nahikoa, ez baitugu mundu hori erreferentzia eredutzat hartzen. Egungo ekonomia, gizarte eta politika ereduak gizonezkoena da nagusi eta, beste gabe, berorretara sartzeko ez dugu uste emakumezkoen askatasunerantz egindako urratsa denik, aldiz, pobrezian berdintzea litzateke.

Emakumeon kulturaren alde positiboa berreskuratzea eta emakumezko eta gizonezkoen giza portaerarako erreferentzia puntu berri bihurtzea gizadiaren erdiaren existentzia balioesteko modu bat da, eta gizon eta emakumeek partekatu ahal izango duten herri berri bat eraikitzea posible den itzaropena pizten du.

Emakumeok arbuia egiten dugu indarkeriaren logika, indarrez inbaditutako lehen lurra baikara. Mendez mende, larderia eta jauntxokeria ugari jasan dugu, lehenik indar fisikoa erabiliz eta gero, arma eta gerra-hitzarmenen bitartez.

Iritsi da emakumeok bakerako prest egoteko ordua.

Baina gure bakea ez da bidegabekeria eta konformismoan oinarritutako bakea.

Ez da erlijioen bakea, ez eta estatu politiko «demokratikoek» kakaraka aldarrikatzen dutena ere: emakumeok badakigu bakea beste zerbaite dela.

## **BILATZEN DUGUN BAKEAK**

### **ONDORENGO OINARRI**

#### **HAUEK DITU:**

1. Indarkeria arbuiatzea, pertsonen arteko harreman modu gisa. Patriarkatuak arma modura erabiltzen du indarkeria, bere esplotazio oinarria betikotzeko: gizonezkoen kolektiboa emakumezkoenaren gainetik hierarkizatua edukitzea, hortik eratorritako beste talde eta pertsona guztien esplotazioei lehenean eusteko.  
Gizarte eredu horren zilegitasuna zalantzan ipintzen dugunean eta utopia posibleetan pentsatzeko ausardia dugunean bakarrik sor ditzakegu kode berriak, «giza garapenean» beste oinarri etiko batzuetatik abiatuta pentsatzeko. Eta hala egiten da posible indarkeria giza harremanetarako modu eta gizarte gatazkak ebazteko metodo gisa deskalifikatzea; hortik aurrera has daiteke beste jarrera batzuk hartzen eta formula konplexu eta elaboratugoak bilatzen proposatutako xedeak lortzeko, indarkerian oinarritutako jokaerak baztertuz.
2. Gizonezkoek emakumezkoen gainean duten aginpide egitura oro deusezteza.
3. Giza erkidegoa gizon eta emakumeek kudeatu behar dutela aitortzea, hala bizitza pribatuari nola bizitza publikoari dagokienean.
4. Kolektibo baten beste batekiko nagusitza oro ezabatzea: Iparra-Hegoa, pertsona helduak-adin txikikoak, arrazak, herriak.
5. Izadiarekiko, pertsonetikiko eta animaliekiko elkartasunaren etikan oinarritutako giza bizikidetzak.

#### **ONDORIO GISA:**

Gizonezkoen eredu emakumezkoentzat eredu askatzaile gisa ez onartzeak, pentsatzeko eta bizitzeko beste modu batzuk bilatzeko eginbide zailaren aurrean kokatzen gaitu emakumeek. Giza kolektiboaren bizikidetzak antolatzeke beste era batzuk ikertzea eskatzen digu, historian zehar pertsonak egin dituzten elementu positiboak bereiztea eta emakumeek nola gizonezkoek eskaintzen dituzten diferentzia aberastasunak salbatzea, diferentzia positibo horietatik jokabide arauak ateratzeko, gizarte berri bat diseinatzeko oinarria emango digun etika berri baten oinarri izan daitezkeen.

Emakumeek BAKEA egiteko gauza garenez, erabaki dezagun BAKEA.

**AHOTSAK Emakume politikoek  
plataforma:**

- **GEMMA ZABALETA (PSE-EE)**
- **GEMMA GONZÁLEZ DE  
TXABARRI (EAJ-PNV)**
- **KONTXI BILBAO (EB-Berdeak)**
- **JONE GOIRIZELAIA  
(Batasuna)**
- **ITZIAR GÓMEZ (Aralar)**
- **AINHOA AZNAREZ (PSN)**
- **NEKANE ALZELAI (EA)**

*Euskadiko  
bakearen  
erakuntzarako  
proposamenak*





Arratsalde on. Mila esker guk ordezkatzan ditugun ahotsei ahotsa emateagatik. Hemen gauden emakume ia guztiak Ahotsakekoak garela esanez hasi nahiko nuke. Ahotsak mugimendu bat da, emakume plataforma bat, politikan, sindikalgintzan eta feminismoan ari garen herritarren plataforma bat. Batzuen kasuan hiruotan batera ari gara, badira hiru arlo horietan ez dabilzan emakumeak ere, beste lanbide bat daukatelako.... Esan nahi dudana da, mugimendu irekia dela, aurtengo apirilaren 8an eman zela ezagutzera, eta ondoren mugimendu feministaren ekarpenekin aberastu zela. Eraikitzen ari den mugimendu gisa definituko nuke nik. Eraikitzen, bake prozesu interesgarri, liluragarri, baina zalantzarik gabe zail hau bezala.

Ahotsak taldean zergatik nagoen esanez emango diot hasiera hitzaldiari. Lehenik eta behin, nire buruari egunero galdetzen niolako zer gehiago egin nezakeen politikan, gizartean, eta nire bizitzan egoera zegoen bezain gaizki egon ez zedin. Dena den, esan beharra dago mugimendu hau aspalditik datorrela, 2001-2002an hasi zela. Oso garai zaila zen politikarako, euskal politikarako, eztabaida politikorako. Ez zen aurkari politikoa onartzen, elkarrizketa gaitzetsi egiten zuten eta estatu espainiar osoan ez zen izaera politikoko arazorik onartzen. Arazo bakarra zegoen, ETA, eta horri aurre egiteko modu bakarrak ez zirudien eraginkorregia hainbeste urtez iraun zuela ikusita. Beraz, nire lehen konpromisoa izan zen egunero nire buruari erantzutea zer egin nezakeen horri aurre egiteko, nire alderdiko militante izateaz gain, nire alderdiaren aginduak jarraitzeaz gain. Horregatik pentsatu nuen egokia izan zitekeela alderditik kanpo era pertsonalean parte hartzea, lotura gutxiagorekin, nire alderdi politikoaaren transmisio-uhala huts izan gabe. Hori lagungarria izan zen bake prozesua martxan jartzeko, eta uste dut orain prozesua sendotzeko ere lagungarria dela. Bigarren konpromisoa, pentsatu nuenean "era desberdinean pentsatzen dutenekin hitz egin behar dugu"; iritzi politikoetan nigandik urrutien zegoenarekin egin behar nuela pentsatu nuen, alderdi politikoak banatzen gaituzten mugak baino areago, lubakiak, alde sakonak nituen pertsonarekin eta pentsatu nuen nire hurbiltasuna eta hurbilpena lehen eta behin ezker abertzalera izan zen, Jone Goirizelaiarengana, uste bainuen beraekin ados jartzeko gai banintzen, edukietan eta oinarrietan, errazagoa izango litzatekeela gero ados jartzea lehenagotik ados jartzea errazagoa zenarekin eta beraz, aurretik galdua eta madarikatua zegoen elkarrizketa hasi genuen, azken finean, iritzi publikoan gorabehera asko zituen, eta dituen elkarrizketa bati eman genion hasiera. Norbaitek zioen gaur goizean zergatik jartzen dizkigute sigla politikoak gure izenen alboan? Izan ere, gu pertsonalki gaude hemen, baina sigla politikoek morboa pizten dute eta zer esanik ez Euskadiko Alderdi Sozialistako siglak ezker abertzaleko siglen ondoan jartzen badiuzte, bada orain badu morboa, baina duela bost urte are gehiago.

Hirugarren oinarria edo hirugarren uste pertsonala: elkarrizketan eta konfiantzan oinarrituta bakarrik dagoela eraikitzea, elkarrizketaren gainean eta elkarrenganako konfiantza izanda eraiki daitekeela. Uste dut bidea garbitzen hasi ahal izan garela eta gainera, banatzen gaituena baitatu beharrean, izan ere politika banatzen gaituenean oinarrituz egiten baitugu, bandera politikoa egiten baitugu banatzen gaituena, eta ez gara elkartzen batzen gaituenaren ondoan. Beraz,

Ahotsaketik era xumean bultzatu nahi izan duguna eta egin nahi izan duguna interes politikoetatik haratago bilatzea eta partekatzen saiatzea izan da; alderdietako interesak alboratuta, alegia. Badakigu politikan hori nahiko zaila dela, dena interesaren epe motzera begiratzen baita, baina lehen esan dut eta berriro esango dut gu ez garela, ez dugula gure indar politikoen beste transmisio-uhala bat izan nahi. Horretarako badaukagu gure erakundeetako militantzia eta horrela bakkarririk daukagu askatasuna gauzak partekatzeko eta kausa komuna egiteko. Beraz, kausa komuna egiten dugunean eta diskurtso politikoa batzen gaituenaren gainean egiten dugunean, gure alderditik haratagoko kausa komun bat sortzen laguntzen ari gara. Horregatik, nik esan ohi dut batzuei gutxiegi irudituko zaiela Ahotsaken agirian lortu dugun akordioa, eta beste batzuei agian gehiegi irudituko zaie, baina kausa komuna da gaur egun parteka dezakeguna. Horren gainean eraiki dugu eta horren gainean eraiki ahal izango dugu etorkizunean, nire ustez. Eta, amaitzeko, esango dut printzipio hauek beharbada bake prozesuaren etorkizunean eta orainean interesgarriak edo erabilgarriak izango diren bi arlotan ekarpenak egiten lagundu digutela. Bata, edukiaren ikuspegitik, sakona eta, bestea, formaren ikuspegitik. Edukiaren ikuspegitik, gizarteari eta iritzi publikoari begira akordio bat lortzea posible den ideia zabaldu dugulako eta eduki politikoa duen agiri bat ere egin dugulako. Agiri hori ez dago edukiz hustuta, eduki politikoa du eta lortu daitekeela erakusten du, nahiz eta beti pentsatu izan den lortzetik oso urrun geundela. Beraz, sakoneko arloak, eduki politikokoak eta formakoak ditu. Izan ere, alderdi politikokoak elkarrekin biltzen ez zirenean, elkarriketatzea eta mahai batean esertzea posible zela erakutsi baitugu. Beraz, gauzak posible direla erakusteak ere egiten denaren eta esaten denaren arteko aldea murrizten laguntzen du, pribatuan pentsatzen dugunaren eta publikoki egin behar dugunaren arteko aldea murrizten. Horrela ere bake prozesua eraikitzen joaten da. Eta, azkenik, amaitzera noa, baina ez dut esan gabe utziko eztabaida politikoan kalte handia egin digula esaldi batek eta oraindik ere kalte egiten digula. Gainera, nire ustez, erakunde politiko guztiek gure egiten dugun esaldia da, hau da: bakeak ez duela prezio politikorik. Gauza nahiko heterodoxoa esango dut, baina uste dut egiazki ez dagoela heterodoxiarik gabeko bake prozesurik. Esan nahi dudana da oztopoak kentzea, atzo oso argi utzi zuten hizlariak, bakea lortzeko oztopoak kentzeak prezioa dauka, noski, kostua dauka. Nire ustez, emakumeak onartzeko prest gauden kostua da hori, baina horretarako Euskal Herri osoko emakumeen babes behar dugu, Estatuko gainerako emakumeen babes, eta munduko gainerako lekuetan bake prozesuen alde lanean aritu diren emakume guztiena.

#### **GEMMA GONZÁLEZ DE TXABARRI**

Arratsalde on, nik ere Emakunderi eskerrak eman nahi nizkioke gu gonbidatu izanagatik eta zorriondu kongresu hau antolatzekeo ideia izan zuelako eta martxan jarri duelako horrelako momentu garrantzitsu batean eta agur bat kanpotik etorri zaizkigun emakume guzti hauei, guretzako eredu izango diren emakume guzti hauei.

Kokatzeko eskatzen digute -moderatzailleak esan digunez, oso denbora gutxi daukagu, beraz, harrera joango naiz zuzenean-, garen horretatik abiatuz kokatzeko eskatzen digute. Eta nik neure burua kokatuko dut, Ahotsakeko kidea den emakume gisa, baina emakume politikari gisa, gu hitzaldi txanda honetan gauden gutako gehienak, Legebiltzarrean sortu zen ekimen bateko emakume politikariak gara. Beraz, bi ezaugarri horiek ditugu: gisa honetako foro batean bakearen alde lan egin nahi dugun emakumeak gara baina, aldi berean, sigla bat daukagu, hau da, gure alderdi politikoetako kide eta eledun gisa ikusten gaituzte. Ahotsakek aurtengo martxoan, sortu zenean, garrantzi handia izan zuela pentsatzen dut, eta hainbat arrazoiengatik izan zela hori. Arrazoietako batzuk azalduko ditut: Euskal gatazka politikoa konpontzeko giltzarritzat jotzen genituen auzi batzuk agiri batean jartzeko gai izan ginen, alderdiak oraindik ere nola bildu, zein formatutan bildu, aztertzen ari ziren bitartean. Gu forma alde batera utzita, edukira joan ginen zuzenean, eta gure ustez euskal gatazka politikoa konpontzeko behar diren hiru oinarriei egingo genien ekarpena zehaztu genuen. Horixe egin genuen eta honen moduko foro politiko zabal batean egiteko gai izan ginen. Lurraldeari dagokionez, inoiz izan den agiri zabalena hitzartzea ere lortu genuen. Izan ere, Euskal Atonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Frantziaren menpeko Euskal Herriko alderdi politikoetako emakumeen artean hitzartu genuen, hau da, Euskal Herritzat jo daitekeeneko alderdietako emakumeok, euskal herri kulturekook. Izan ere, Euskal Herria batzuetzat bakarra da eta existitzen da; besteentzat, hainbat zati ditu. Lurralde horietako guztietako alderdietako emakumeok halako agiri bat sinatzea lortu genuen, eta gatazka konpontzeko giltzarriak partekatzea. Ekimen oso baliogarria dela uste dut, dauzkan giltzarriez gainera, beste hainbat arrazoiengatik. Izan ere, hainbat gauza erakutsi ditu: herrialde honetan emakumeak daudela, emakume horiek ekarpenak egiteko prest daudela, auzi honetan eta beste batzuetan parte-hartzeko prest gaudela, horrek beste emakume batzuk emakumeok izan dezakegun rolaz eta garrantziaz jabetzea eragin duelako, antolatzeako aukeraz jabetzeko aukera eman dielako, eta indarra duten beste emakume batzuk ere biltzen hasteko eta agenda komunak egiteko bidea ezarri duelako. Ahotsak sortu genuen emakumeon izaera bikoitz honek zenbait desabantaila dituela ere ikusten dut; bakearen alde lanean ari garen emakumeak izateaz gain, guri gure ezaugarri politikoaren arabera begiratzen digute eta guk ere ikuspegi horretatik begiratzen dugu. Beste emakume batzuek ez daukate oztopo hori eguneroko lanean, adibidez: hona etorri diren erakunde batzuetako emakumeek. Gu ez gaituzte bakearen aldeko emakume soiltzat jotzen, bakearen aldeko emakume eta alderdi politiko bateko kideetatik baizik, eta horrela ikusten ditugu geuk ere beste emakumeak. Gure jardueraren beste arlo batzuetan lehiakideak gara, Legebiltzarrean, gauden foroetan, hauteskundeetan eta, gero, formatu honetan, guneak eta diagnostikoak partekatu behar ditugu, eta irtenbideak bilatu. Hori da desabantaila. Nire ikuspuntua da arlo pertsonaletik hitz egin dezakegula eta kide garenetako bakoitzak eta izan daitekeen bakoitzak emakumeari eragiten dioten auziak partekatu ditzakegu. Kasu honetan, auzi horiek gatazka konpontzen lagun dezakete, gainera. Une honetan, pentsatzen dut sinatu dugun agiria bi aldetatik izan dela garrantzitsua: batetik, daukan edukiagatik eta egiten duen ekarpenagatik; eta, bestetik, emakumeek arlo horietan parte hartzeagatik. Nire ustez, ez gaude bazterketa salatu edo parte hartzeko eskatzeko garaian,

esku hartzeko estrategiak sortzeko garaian baizik; gure agenda propioak sortzeko eta parte hartzeko formula propioak asmatzeko garaian. Emakumeek beharrezko ahalmena daukagu eta gizarite honen funtzionamendua behar bezainbat ezagutzen dugu parte hartzen ez dugun foroetan nolabait ordezkatuta egon gaitzen antolatzeko. Egun hauetako kongresuan, beste emakume batzuek guretzat oso egokia den jokabide eredu bat erakutsi digute: agiri bat aurkeztu eta parte hartzeko borondatea erakustetik, beste gauza batzuk antolatzera pasatzeko eredu bat eman digute; beste emakume batzuei parte hartzeko eskatzeko, beste erakunde batzuetako emakumeekin harremanetan jartzeko eta gaur goizean bertan aipatu ditugun auzien mamira joateko ereduak. Patricia Buriticák esaten zuenak inbidia handia ematen zidan -Kolonbiakoa zela uste dut. 400 auzi orokorretatik emakumeak batzen zituen 12 auzi garrantzitsu argi eta erraz lehenetsi zituztela esaten zuen, eta horren alde borrokatu behar zutela. Plataforma hau osatzen dugun emakume guztien eta gurekin bat egin duten eta orain gurekin parte hartzen dutenen erronka, hemendik aurrera, agenda hori osatzea da: benetan zer inporta zaigun erabakitzea eta bakoitzak, dagoen lekutik, horren alde borrokatzea. Proposamen hauen lanketa da biderik garrantzitsuena eta, horrekin batera, parte hartu nahi duten beste elkarte batzuk eta emakumeak, oro har, esku hartzera bultzatzea, eta honek funtzionatzea lortzea. Era berean, eta honekin amaituko dut hizketaldia, iruditzen zait foroa oso egokia dela auzi hauetan eta bake prozesuan interesa dutenentzat, eta horregatik daudela gaur foroan. Oso ona litzateke amaieran tarte bat izango bagenu haiek adieraz dezaten nola ikusten duten Euskadin, mahaiaren alde honetan, egiten ari garena, eta nola uste duten parte har litekeela mahaiaren beste aldean ere. Besterik ez, eskerrik asko.

## **KONTXI BILBAO**

Arratsalde on guztioi. Ezker Batua Berdeako militantea naiz eta baita Eusko Legebiltzarreko Mahaiko kidea ere. Baina hemen, mahai honetan, Kontxi Bilbao naiz, Ahotsakeko Kontxi Bilbao bakarrik. Nire kideek esan duten bezala, ekimen honekin bat egin genuen emakumeak gara, gure izenean eztabaidatzen, negoziatzen, eta adosten dugun emakumeak. Hau da, argi esateko, gure jatorrizko alderdiei ez diegu baimenik eskatu ekimen honetan parte hartzeko. Eta, gainera, militantzia bikoitza, hirukoitza edo laukoitza dugu. Militantzia honetan -argi eta garbi ulertuko didazue, irudi bat erabiliko baitut, eta beste uneren batean esan izan baitut, egia da Gemak alderdi politikoetako kide izateari buruz zioena. Alderdietako kide gara, Legebiltzarrean gaudenean eztabaidatu egiten dugu, eta jarrera ezberdinak dauzkagu, bakoitzak programa propioa daukalako. Baina, futboleak bezala gertatzen da, hau da, bakoitzak bere partidua du, baina auzi honetan, bakearen auzian, selekzio bat gara; guztiok bakearen alde egiten dugu lan. Beharbada hau izango da mahai gainean jarri dugun ekarpen garrantzitsuena: emakumeak adostasunetara iristeko gai garela erakutsi dugula. Gemak esaten zuen bezala, garrantzitsuena ez da konpromiso handiak edo txikiak hartzea izan, auziak denen artean partekatzea baizik. Horrek akordioak, elkarriketak, eztabaidak eta adostasunak publiko egiteko aukera eman du; aurrera egiteko, bake pro-

---

zesu honetan ekarpenak egiteko aukera. Erantzukizun bat geneukala oso argi gurela uste dut, eta bagenekiela jende askok, emakume askok parte hartu nahi zutela prozesuan. Plataforma bat sortu dugun emakume politikaritzat hartzen gaituzte eta, egia da: emakumeak gara eta politikatik gatazka. Baina ez dugu geuretzako plataforma bat egin, politikan jauzi bat emateko edo hauteskundeetan parte hartzeko plataforma bat, etekinak lortzeko plataforma bat. Foro bat sortu dugu, Euskadiko emakumeek parte hartzeko aukera izan dezaten. Beraz, bidea urratzeko gure aurpegiak eta gure izenak erabili ditugun arren, ez dugu Ahotsaken copyrighta nahi, ez gara Ahotsaken jabeak; sindikatuetara zabaldu genuen eta sekulako lorpena izan zen apirilaren 8an testu bateratua aurkeztu ahal izatea. Euskadiko eta Estatuko historian aurrekaririk gabekoa izan zen. Izan ere, ordu arte, joera guztietako sentsibilitate politikoetako eta sindikaletako emakumeek (eskuina izan ezik), pertsonak hobe esanda, agiri bat sinatzen zuten lehenengo aldia zen. Ondoren, mugimendu feminista zabalak ere bat egin zuen, uste gurelako funtsezkoa zela haiek ere eztabaidan eta ekarpenetan parte hartzea. Ekimen hau zabalitzen jarraitu behar dugula uste dugu eta sare lan bat dela; ez dela guretzat bakarrik, zuzentzeko gaia dela. Esan nahi dudana da gizartearen erantzukizuna nahi dugula, Euskal Herriko eta Euskal Herriko kanpoko emakume guztien erantzukizuna. Horregatik eskatzen dizuegu sostengua, ekimen honetan lagun gaitzazuela, elkarrekin aurrera joan gaitezten. Ongi da, nire ustez Ahotsakek berez du edukia. Agiriak eduki politiko eta genero eduki sendoa du, askotan esan dugu, baina aurrera egiten jarraitu nahi dugu. Agiria irakurtzeko eta ezagutzen ez duzuenok ezagutzeko deia egiten dizuet. Ekimen berriak eduki nahi ditugu eta ekimen berriak herriz herri aurkeztea proposatzen dizuegu, emakumeak bizi diren lekuetan Ahotsakeko plataformak sortzen joateko, eta emakumeak presente egon daitezten historia egiten den lekuetan. Ez diezagutela historia saldu, nahikoa da. Guk parte hartu nahi dugu, eta erronka horretan guztiok egotea nahi dugu. Noizbait esan dut mahai honetan eserita egoteko sartu nintzela politikagintzan. Eta egia da. Legebiltzarrerara iritsi nintzenean, inozo deitzen ninduten, bake prozesuan parte hartu nahiko nukeela esaten nuenean. Bizi genuen uneagatik eta gainera emakume izateagatik nintzela inozoa. Egoera horretan, negoziazio mahai batean esertzeko zerrendako azkena nintzen. Argi dago, gizonak zeuden lekuan ni ez nintzen egongo, eta ez zidaten lekurik egingo. Baina, arlo honetan erantzukizuna nuela uste nuen, eta Ahotsaken konpromisoa hartzeak aukera bikaina eman didala iruditzen zait, ilusioa sortzen duen aukera eman didala, eta guztiei, emakume nahiz gizon, transmititu nahiko nizueke. Itxaropena eragiten duen aukera da hau. Etorkizuna daukagu, bakeak etorkizuna dauka eta bakea herrialde honetako eta kanpoko emakume eta gizon guztiekin eraikiko da. Baina une historiko honetan, emakumeok ezin dugu atzean geratu. Konplizitateak edukitzen jarraitu behar dugu, emakume oso ezberdinek orain arte sortu ditugun moduko konplizitateak. Ezberdintasun asko genituen, baina batzeko gai izan gara eta ez kentzeko. Eta, batez ere, batzen gaituenetik elkartzeko gai izan gara. Eskerrik asko.

Ni Jone Goirizelaia naiz, Batasunako kidea, Ezker Abertzaleko kidea eta nik baino lehenago hitz egin dabenak esplikatu dabe zelan sortu den, nortzuk garen Ahotsak-en dinamika horren barnean parte hartzen dugunok eta niri tokatzen jat momentu honetan apur bat esplikatzea zeintzuk diran dokumentu hoienu puntu nagusiak. Nik uste dut, entzun duzue behin eta berriro gure sorrera dokumentu baten inguruan izan dala, dokumentu hoietan daudela ikuspuntu bi, alde batetik hiru printzipio nagusiak, guztiz politikoak direnak, eta beste aldetik genero ikuspuntutik emakumearen parte hartzeari buruz, emakumeak subjeto aktibo izan behar gara, beste puntu batzuk daudela. Neri gehienbat tokatzen jat, oso labur ze esan dozkue oso denbora gutxi geratzen jakula eta nire ostean beste 3 pertsona gehiago hitz egin behar dabe, oso labur azaltzea zeintzuk dira guretzako gai zentralak edo nagusiak eta gero denbora egoten bada, apur bat horren inguruan esplikazio gehiago emotea. Eta baita ere ikusi duzue Kontxik alde egin duela, beno dakizuenez bihar Estrasburgoko Parlamentuan eztabaida oso garrantzitsua da Euskal Herriantzeko eta beste pertsona batzuen artean, Kontxi hara doa eztabaida horretan parte hartzeko. Horregatik alde egin du eta esan dozte nik baino lehenago hitz egingo duela eta barkamena eskatzeko, ez zuela gura baina 5-etan ateratzen dela hemendik Estrasburgora joateko.

Apirilaren 8an sinatu genuen agiriko hiru oinarriak laburbiltzen saiatuko naizela esan dut. Guk beti esaten dugu gure agiria garrantzitsua dela, alde guztien arteko elkarrizketa prozesu bat hasteko funtsezkotzat jotzen ditugun hiru puntuak islatzen dituelako, baita bake prozesu hori, gure ikuspuntutik, nola hasi beharko litzatekeen ere. Askotan esan dugu eta gaur ere, hemen, esan nahi dugu agiri honen bidez batzen gaituenetik aurrera egiteko oinarriak jarri ditugula mahai gainean. Agiri hau hitzartzeak lan asko eskatu digu, argi dago, eta gogoeta luze baten eta eztabaida baten ondorioa izan da. Ez da nik nahi nukeen agiria, seguru aski urrunago joatea nahiko bainuke; baina ezta Ainhoarena ere, agian ez bailuke hain urrun joan nahi; ezta Gemmak edo Itziarrek nahiko luketena ere. Baina gu guztion artean adostutakoa da eta horregatik garrantzi handia ematen diogu, eta beti nabarmentzen dugu gure agiria batzen gaituenetik eginda dagoela. Guk egoeraren analisi bat egin dugu, Euskal Herriko gizartea une honetan prozesu bat hasteko eskatzen ari dela planteatzen dugu, eta eskari honen parte izan nahi dugula. Askotan izan gara gatazka politikoaren parte, baina ez subjektu aktibo gisa, ondorio gisa baizik. Orain, irtenbidearen parte izan nahi dugu. Eta, irtenbidearen parte izan nahi dugunez, Euskal Herriko emakumeak subjektu aktibo izateko garaia iritsi dela planteatzen dugu. Subjektu aktibo esaten dugunean, argi diogu: gizarte berri bat eraikiko bada, Euskal Herria berri bat eraikiko bada, daukagunaren ezberdina den zerbait egingo bada, edozein modutan dela ere, gure eskubideek errespetatuak izan behar dute eta, gure eskubideez ari garelarik, emakume guztiok arlo guztietan ditugun eskubideez ari gara. Gizarte ezberdina nahi badugu, emakumeok gizarte horren parte izan behar dugu eta berdintasunez parte hartzea praktikan ere gertatzea lortu behar dugu; ez dadila hizkiz idatzitako gauza bakarrik izan, errealitatean ere hala izan dadila. Hori da gure agiriaren zatietako bat eta, batez ere, gogoeta sorta bat egin dugu. Baina, jakina, horretara iristeko, pro-

---

zesua martxan jarri behar da eta, zeintzuk dira prozesu hori martxan jartzeko oinarritzotzat jotzen ditugun hiru auziak? Lehena da bakea ez dela indarkeria mota ororen eza bakarrik. Bakeak edukiz beteta egon behar duela diogu eta eduki horiek pertsonen eskubideak eta askatasunak dirrela. Hori da mahai gainean jarri dugun lehenengo puntua. Mahai gainean jarri dugun bigarren puntuak elkarrizketarekin du zerikusia: elkarrizketa tresna moduan, eta elkarrizketa bitarteko moduan. Eta elkarrizketak baldintzarik ez duela izan behar esaten dugu, ez duela oztoporik izan behar. Egitasmo politiko guztiak, edozein motatakoak izanda ere, defendatu ahal izateko eta praktikara eraman ahal izateko esparru bat sortzeaz ere ari gara. Hori da mahai gainean jarri dugun beste auzietako bat. Eta mahaiaren gainean jarri dugun funtsezko hirugarren puntua da gizarteak elkarrizketaren ondorioz erabaki bat hartzen badu, errespetatu egin beharko dela eta gauzatzeko behar besteko bermea izan behar duela, hots; erabakitzen dena gauzatzeko ahalmena eduki behar da, eta guk diogu oztopoak kendu beharko direla gizarteak erabakitzen duena, edozer izanda ere, praktikara eramateko, baita gaur egungo esparru juridikoa, beharrezkoak diren mekanismo edo bitartekoen bidez, aldatu behar bada ere. Horiek dira eduki hori -politikoa, argi eta garbi- duten hiru puntuak eta besteak generoarekin du zerikusia. Eta amaitzeko, guk diogun beste gauza bat aipatu nahi dut. Elkarrizketara, adostasunera eta parte-hartzera irekita gaudela esaten dugu eta Euskal Herriko gainerako emakumeen iritzia entzun nahi dugula, eta agirian esaten dugun hori gaur hemen egiten ari garen foro honetan ere esan dezakegu. Ez daukagu testu itxi bat. Jakitun gara gure testuak gabeziak izan ditzakeela, baina aurrerapausoak emateko balio dezakeela ohartzen gara, eta uste dugu aurrerapausoak emateko eta aurrera jarraitzeko biderik onena entzuten diguten emakumeek beren ideien berri ematea dela; beren iradokizunak egin diezazkigutela, beren iritzia eman, testua aberasteko eta aurrera egiteko, eta hasi dugun bide hau atzeraezina izan dadin.

## **ITZIAR GÓMEZ**

Arratsalde on. Egia esan ez zaigu hitz egiteko minuturik geratzen. Dena den, edukiak eta formak nahiko argi geratu dira: Ahotsak zer den, nola sortu zen, zein garrantzi izan duen eta zein garrantzi duen. Besterik gabe, zertzelada bat egin nahi nuke, kongresu honetan erabili diren bi hitz berreskuratzeko. Bai atzoko jardunaldian bai gaurkoan, hainbat parte-hartzailek konfiantza eta errespetua hitzak erabili ditugu. Ahotsakeko akordiora iritsi garen pertsonen arteko konfiantza, ideiekiko errespetua, ezberdin pentsatzen duen pertsonarekiko errespetua hitz giltzarriak izan dira; elkarrizketa ireki eta enpatiko baten bidez akordio batera iristea posible egin duten printzipioak dira. Nik uste, enpatia hori garbi geratu da mahaiaren gainean. Bestetik, esan nahi nuke -egia esan, ez da denborarik geratzen- Ahotsaketik ez dugula babesik eskatzen, ahotsak gehitzen jarraitzeko baizik. Ekarpen berriak egingo dituzten ahotsak gehitzen joatea da garrantzitsuena, asko baitago egiteko. Gainera, abiapuntutik aurrerago egiten lagunduko diguten neurri zehatzak behar ditugu.

Kaixo, arratsalde on, ni Ainhoa Aznarez naiz, Iruñako zinegotzia, PSN-tik Alberdi Sozialistatik, lehenbizi Emakunderi eskerrak eman gonbidapena luzatzeagatik, hara Iruñara joan zeratelako nire bila.

Emakunderi niri gonbidapena egiteko Iruñearaino, nire herriraino, joateagatik eskerrak emateaz gain, hauxe esan nahi dut: nire kide guztiek esandakoarekin bat natorrela. Izan ere, Iruñeako Udaleko zinegotzi izateaz gain, Ahotsakeko beste kide bat bainaiz. Ez dakit zuei berdina gertatzen zaizuen, baina nik sentazioa dut pantaila lauko gizarte batean gaudela; pertsona lauak garelako eta horregatik ari garela telebista lava, pantaila lava duen ordenagailua, bideoa eta galtzak sortzen, eta nik uko egiten diot pertsona lava izateari. Zergatik? Pentsamendu kritikoa daukadalako eta pentsamendu kritiko horretatik aurrera egin nahi dudalako. Eta nola egin dezaket aurrera? Aukera hau eman didan Ahotsak plataformak bezala. Zergatik eman dit aukera hau? Azalean geratzen ez garen pertsonak garelako, emakumeak kasu honetan. Ez gara gorputzean dugun geruza fin horretan geratzen, azalekoa geruza fin bat baita azkenean. Gu aurrerago eta sakonago goaz, gehiago sakontzen dugu. Zergatik? Errealitatearen bila gabiltzalako eta Itziarrek zioen bezala, Jonek, Gemmak eta Gemak esan duten bezala, eta Nekanek esango duen bezala, konfidantzan oinarrituta dagoelako. Izan ere, orduak eta orduak eman ditugu elkarrekin hitz egiten, apirilean publiko egin genuen agirian adosteko. Ezagutzan ere oinarritzen gara. Guztiok daukagu lanbidea mundu politikotik kanpo. Mundu pribatutik atera gara, emakumeekin askotan lotu den arlo pribatutik atera gara arlo publikora. Kontxi Bilbaok zioen bezala, gure programak defendatzen ari gara erakunde publikoetan, eta beraz emakume jantziak gara. Ikasi egin dugu, jakintza geureganatu dugu, eskolatuak izan gara, irakurri egin dugu. Baina, horrez gain, beste ezaugarri bat dugu: arriskatzen jakin dugun emakumeak gara. Eta zein zaila den mundu honetan arriskatzea. Mundu guztia ez da ausartzen arriskatzera eta oso garrantzitsua da. Izan ere, bestela aukerak gure aurretik igarotzen dira eta ez dakigu etekina ateratzen. Beraz, arriskatu behar genuela argi geneukanez, agiri hau idatzi dugu. Eta zer da arriskatzen jakitea? Elkarrekin maila berean hitz egiten jakitea beldurrik gabe, entzumen aktiboa erabiliz; bizi garen gizarte honetan entzumea auskalo noren esku utzi baitugu. Guk entzuten dugu, bakoitzak ekarpen ezberdina egiteko eta guztiak ezberdinak garelako. Ezberdin izate horrek eragin du, hain zuzen, testu hau idaztea. Niretzat maximoen agiria da, Jonek ongi zioen bezala, beretzat minimoena izango da, baina aurrera egiten jarraituko dugu, arriskatzen jakiten jarraituko dugulako. Gainera, ez guk bakarrik. Nik politikari gisa, Iruñeako zinegotzi gisa, bakea defendatu behar dut, bakearen alde arriskatu; ez nigatik bakarrik, herritarrengatik eta nire ondorengoengatik egin behar baitut, Euskal Herria, Euskadi, Nafarroa, Europa eta mundua bakean izan dezatela nahi baitut, eta guztiok aukera berdintasunean lan egiteko aukera izan dezagula. Azkena naizenez... beti gertatzen zait berdina, ez daukat denborarik, baina berdin zait, ulertu didazuelako. Orain, Nekaneri utziko diot txanda. Eskerrik asko eta gero erantzungo diegu zuen galderi.



Azkena naiz, horrela suertatu zait gaurkoan. Egia esan, gure artean ez daukagu ordenik eta batzutan lehenengoa suertatzen zait hitz egitea baina gaur azkena. Nere txanda honetan, nere aurreko kide guztiek esandako guztia azpimarratzeaz gain eta errepikatzeaz gain, beraiek aipatu gabe utzi dituzten 3-4 gauza esango nituzke: Gema Zabaletak esan du 2001. urtean hasi ginela lanean, urte asko dira elkarrekin hitz ordu pasa eta idatzi asko elkar trukatu ditugula. Garai haietan eta nik uste det gaurko foro honetan guri dagokigula aitortzea, Elkarrik Bake Konferentzia antolatu zuen eta bertan Emakume mahai inguru bat antolatu zuen. Ordurarte lortu ez zena lortu zen mahai inguru hartan eta zan publikoki alderdi politiko desberdinetako emakumeak biltzea. Bertan PP ezik, Euskal Autonomi Erkidegoan aurkezten ginen partidu guztietako emakumeok parte hartu genuen. Eta Elkarrik horrela aitortuta esan behar da Konferentzi hura izan zela Bake Konferentziko bilerarik arrakastatsuenetariko bat, arrakastatsuen izan ez bazen. Eta horrek animo handiak eman zizkigun eta hori izan zen lehen hastapena esateko edo pentsatzeko bide onetik gindoazela eta Euskal Herriko emakumeek gugandik zerbait espero zutela eta beraz, gure beharra zela zerbait egite hori. 2006-an etorri da emaitza, emaitza izan zen apirilaren 8an aurkeztutako lehen dokumentua Miramar Jauregian. Baina esan behar da Atotsak-ek ordutik hona dokumentu gehiago ere egin izan dituela. Uztailan Alderdi Feminista eta gainontzeko talde Feministekin bat egin genuen, eta beraiek gure dokumentu honetara atxikitu ziren baina atxikimendu horretarako ere beraien ekarpena egin zuten eta guk horrela onartu genuen, beraien parte hartzea ere funtsezkoa delako emakumeon parte hartze aktibo honetan.

Eta aipatu behar da baita ere irailaren 6an 3. dokumentu bat ere onartu genuela eta prentsaurreko batean aurkeztu genuela. Izan ere, une haietan uste genuen egungo prozesuak geldione bat pairatzen zuela eta nolabait egoera horrekin kritiko azalduz 3. dokumentu bat adierazi genuen. Dokumentu guzti hauek Euskal Herriko emakume guztien atxikimenduak lortzen joateko egiten ditugu. Euskal Herriko emakume guztien atxikimenduak esaten dugunean, Ipar Euskal Herriko emakumeak ere barnean sartzen ditut. Gaurko gonbidatuta zeuden, ezinezkoa izan zaie bertaratzea baina gogora ekarriko nuke beraiek ere gurekin bat egiten dutela. Politika orokorreko eztabaidetako bat da zenbat mahai osatu behar diren, bat bi, hiru, baina nik uste det gure mahai honek sinbologia asko dituela eta besteak beste guk mahai bakar bat osatu degu Euskal Herri osoa bilduz eta hori ere azpimarratzekoa da. Eta amaitu nahiko nuke esanez guk badegula webgune bat eta webgune horretan dezute gure dokumentua, euskeraz, erderaz, frantsesez eta ingelesez ere. Gailegoz ere badago, Galiziako emakumeek eragin eta argitaratu dutelako. Katalanez ere egon badago, hizkuntza askotara itzulita da dagoeneko gure dokumentu hori, Elisabete P. gure kidea hor dago, berak kudeatzen du gure webgunea. Berak esango luke zein den zuzenbidea, zaila da esateko, edozein kasutan esango dizuet Google-ean sartu AHOTSAK idatzi eta zuzenean dezutela bertaratzeko aukera. Eta gaur hemen zuen atxikimendua adierazi nahi badezute, kanpoan mostadorean sinadura jasotzeko orriak jarri ditugu, bai eta euskerazko bertsiotan eta erderazko bertsiotan, gure lehen manifestua eskuratzeko aukera izango dezute. Besterik gabe, mile esker.